

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 FORU-ARAU (BAO Martxoaren 11koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2005eko martxoaren 10eko osoko bilkuran, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru-Araua, onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU-ARAU, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKOA.

HITZAURREA

I.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu. Ondorioz, zerga-sistemaren alderdi orokorrak (sistema osatzen duten figura guztientzat berberak direnak) eta Zerga Administrazioaren eta zergadunen arteko harremanak araupetzeko arauak jasotzen dituen erreferentzia-eremua da. Horrez gain, denek errespetatu eta bete beharreko eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu.

Halaber, batetik zergak behar bezala aplikatzeko Zerga Administrazioaren jarduera zuzendu behar duten printzipio orokorrak jasotzen ditu (zergak kudeatzeko, ikuskatzeko, biltzeko eta berrikusteko administrazio-prozedurak diseinatzeko) eta bestetik zehatzeko ahalaren oinarriak finkatzen ditu (arau-hausteak tipifikatzen ditu eta arau-hauste bakoitzean aplikatu beharreko zehapenak ezartzen).

Gaur arte, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorrek bete ditu, eta oso ondo gainera, aipatu zeregin horiek guztiak eta, era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko ogasunen (bai Bizkaiko Foru Ogasunarena eta bai Lurralde Historikoko toki-entitateena ere) jardunbide egokia ahalbidetu eta bermatu du.

Indarrean egon den aldi luze horretan zehar foru arau horrek hainbat aldarazpen izan ditu, esate baterako apirilaren 19ko 1/1996 Foru Arauaren eta otsailaren 15eko 2/1999 Foru Arauaren bitartez garai berrietara eta Bizkaiko antolamenduaren bilakaera juridiko eta sozio-ekonomikora egokitzeko egindakoak.

II.

Egun, Zerga Administrazioaren kudeatzeko moduak aldatu egin dira, Zerga Administrazioaren eta zergadunen arteko harremanetarako teknologia berriak agertu dira, informazioa erabiltzeko bide berriak hartu dira eta gure inguruko zerga-sistemen printzipio nagusietan ere aldaketak egin dira. Bada, faktore horiek kontuan hartuta, gure zerga-sistemaren esparru juridiko osoa berrikusi behar dugu.

Berritze-lan handi honen bidez Aldundiak ondoko helburuak lortu nahi ditu:

- Zergadunek euren zerga-betebeharrak erraz bete ahal izatea. Horretarako, ordaintzeko eta errekursoak jartzeko epeak bateratuko dira eta berraztertze bidean eta bide ekonomiko-administratiboan dauden administrazio-egintzen betearazpenaren etenduraren erregimena arautuko da.

- Zerga Administrazioaren jardunbidea eraginkorra izatea. Helburu hau lortzeko, zergak aplikatzeko prozedurak erraztuko dira administrazioak jarduteko moduetara egokitzeko eta horiek garatu behar dituzten organoen eguneroko kudeaketa bizkortzeko.
- Pizgarriak ematea zergadunek zerga-betebeharrak euren borondatez betetzeko. Horretarako, aitorpenak Zerga Administrazioak errekerimendua bidali baino lehen aurkeztea bultzatuko da eta gerorapenak edo zatikapenak emateko erregimena malgutuko da.
- Segurtasun juridikoa eta zergadunei ematen zaizkien arreta eta laguntza hobetzea. Ildo horretan, ondoko neurriak sartu dira: Administrazioak zerga-zorra zehazteko ahala iraungitzea, zerga-ordainketarako aurretiatzko proposamenak eta etendura automatiko eta bermerik gabea zergapekoak Foru Ogasunari ordaindu beharrekoa beste zerga administrazio bati ordaintzen diotenean.
- Iruzurrak jazartzea. Zergen arloko lege-iruzurraren ordezturpenaren aurkako klausula berria ezarriko da, aurrearretaz jarduteko aukerak indartu dira kautelazko neurriak emateko bideak orokortuta, kudeaketa-organismoek kontabilitatearen kopia berrikusi ahal izatea ezarriko da eta erantzukizunen erregimena gogortuko da, iruzur jakin batzuk gerta ez daitezen.
- Iruzurrak zigortzea. Xede horretarako, preskripzio-aldia lau urtera luzatuko da, iruzurraren aurka borrokatzeko aldizkako plana landuko da eta zehapenak zabalduko dira (zehapenaren gehieneko muga %200ean finkatuko da).
- Zerga Administrazioaren eta zergadunen arteko harremanetan teknika eta bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabil eta aplikatu daitezkeen sustatzea.

III.

Aipatu aurreoinarri horiek kontuan hartuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak berria taxutu da egitura honekin: bost titulu, berrehun eta berrogeita zazpi artikulua, hogeita hiru xedapen gehigarri, sei xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi.

I. tituluan Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak ezarri dira; hain zuzen ere, haren printzipio nagusiak eta zergei buruzko arauen aplikazioarekin eta interpretazioarekin lotuta dauden alderdi guztiak bildu dira.

II. tituluan zergen arloko xedapenak arautu dira, legeen eta zergen arteko harremanak eta horien ondoriozko betebeharrak zehaztu dira, eta zergapekoen, zerga-zorra zenbatzeko elementuak, zorra kitatzeko bitartekoak eta hura babesteko bermeak arautu dira.

III. tituluan zergak aplikatzeko kontzeptua landu da. Hain zuzen ere, kontzeptu horren barruan sartzen dira Zerga Administrazioak zergadunei informazioa eta laguntza emateko eta zergak kudeatzeaz eta ikuskatzeaz gain zergak biltzeko burutzen dituen jarduerak. Beraz, 1986ko Foru Arauan jasotzen zen zerga-kudeaketari buruzko kontzeptu zabala alde batera utziko da aurrerantzean.

Ildo horretan, zergak aplikatzeko prozeduren eta jardunen barruan, zergak kudeatzeko eta ikuskatzeko prozeduren sistematizazioa azpimarratu behar dugu, eta horietako garrantzitsuenak kategorizatu eta berrikuntzak sartu, hala nola: kudeaketa-organismoen egiaztapen mugatuaren prozedurak eta zergen ikuskapenerako egiaztapen murriztuaren prozedurak.

Ikuskapenaren arloan, gainera, ordaintzeko konpromisodun adostasun-akta berriak aipatu behar dira. Akta hauek modu eraginkorrean bermatu nahi dute ikuskapenean antzemandako zerga-zorren kobrantza, izapideak erraztuta, eta eragin garrantzitsua edukiko dute egin diren arau-hausteen zehapenen txikipenean.

IV. tituluari Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga administrazioen zehatzeko ahala arautzen da, betiere zehapen-erregimena errazagoa izan dadin eta ondorioz eraginkorragoa arau-haustek ekiditeko.

Jarraian arlo honetan izan diren berrikuntzarik garrantzitsuenak azalduko dira:

- Zergen arloko arau-hausteen kategorizazioa erraztea eta arau-hauste jakin bati zein zehapen dagokion zehatzeko aplikatu behar diren mailakatze-irizpideak gutxitzea (berrerortzea, datuak ezkutatzea eta arau-haustea egitean iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jokatzea).
- Txikipen sistema berri bat ezartzea. Sistema hori, batetik, aplikatu beharreko arautegian ezartzen den zerga-kopurua ez ordaintzeagatik sortutako arau-hausteei dagozkien zehapenekin ados egon eta zerga-zorra ordaindu osteko txikipenari aplikatuko zaio; aurreko arautegian ezarritakoa baino onuragarriagoa den txikipen hau aplikatu ahal izateko, zergadunak ez du errekurtsorik jarri behar eta zorra eta zehapena borondatezko epe barruan ordaindu behar ditu. Bestetik, gainerako kasuetako zehapena ordaintzearen ondoriozko txikipen berriari aplikatuko zaio sistema; horrela, kontzeptu horien zioz zordundu diren zenbatekoak ogasun egokian sartzea sustatuko da.

Foru arau honetako V. tituluari zergen arloko berrikuspenerako prozedura guztiak arautzen dira, bai Zerga Administrazioak bere arioz hasten dituenak, bai interesdunek eskatuta sustatzen direnak (aurkezten dituzten errekurtsioak eta erreklamazioak barne). Berrikuntza gisa azpimarratu behar dira, gainera, zergen arloan ezeztapena ematen duenaren gaineko araupeketak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko ogasunak administrazio-egintzak berrikusteko prozedurak administrazio-prozedura erkideari buruzko legerian arautzen diren administrazio-egintzak berrikusteko arau orokorretara egoki-tzeko egiten ari diren ahaleginak.

Azkenik, Zergei buruzko Foru Arau Orokor honen bidez egiten den araupeketak Zerga Administrazioarentzat eta zergadunentzat dituen garrantzia eta eragina kontuan hartuta, ohikoa baino luzeagoa den vacatio legis aldia ezarri da eta, horrenbestez, foru arau hau 2005eko uztailaren 1etik aurrera aplikatuko da.

I. TITULUA

ZERGA-ORDENAMENDUAREN XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA

PRINTZPIO OROKORRAK

1. Artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Foru arau honek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta zergen arloko foru administrazioari aplikatuko zaio.

Bizkaiko toki-entitateei ere aplikatuko zaie, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-ogasunen arautegian ezarritakoaren arabera.

2. Foru arau honek ezartzen du, orobat, zer printzipio eta arau juridiko orokorrek erregulatuko dituzten Europar Batasuneko Estatu kideek elkarren laguntzari buruzko araudia aplikatuz Zerga Administrazioak egin beharreko jarduketak edo zergapetze bikoitza saihesteko nahiz nazioarteko beste hitzarmen batzuen barruan egin beharreko jarduketak.

Foru arau honi dagokionez, elkarren laguntza hau izango da: Zerga Administrazioak Europar Batasunarekin, nazioarteko edo nazioz gaindiko beste erakunde batzuekin edo beste estatu batzuekin egiten, haiengandik jasotzen edo haiekin batera garatzen dituen laguntza-, elkarlan- eta lankidetzak-ekintzak eta antzeko izaera duten gainerako ekintzak, hala Europar Batasuneko Estatu kideen arteko elkarren laguntzari buruzko araudia dela

bide egiten direnak, nola zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenen nahiz nazioarteko beste hitzarmen batzuen esparruan egiten direnak.

Zergapekoen aurrean jarduketak egitea ere sartu daiteke elkarren laguntzaren barruan.

3. Zerga Administrazioak, elkarren laguntzari buruzko araudia dela eta, beste estatu batzuei edo nazioarteko edo nazioz gaindiko entitateei lagunduz gero, araudi horretan ezarritako mugak bete behar ditu.

Bereziki, Europar Batasuneko estatu kideen arteko elkarren laguntzaren eremuan, Zerga Administrazioak hemen ezarritako betebeharrak prozesal eta materialak bete beharko ditu: Kontseiluaren martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentaraua –zerga, eskubide eta beste neurri batzuei dagozkien kredituak kobratzeko elkarren laguntzari buruzkoa–, eta Kontseiluaren otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua –fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena–.

2. Artikulua. Zerga-sistemaren antolamenduaren eta aplikazioaren printzipioak.

1. Zerga-sistemaren antolamendua zergak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan eta justizia, orokortasun, berdintasun, aurrerakortasun, zerga-zamaren banaketa zuzenaren eta konfiskazio ezaren printzipioetan oinarritzen da.
2. Zerga-sistemaren aplikazioa proportzionaltasunaren eta eraginkortasunaren eta betebeharrak formalak betetzetik eratorritako zeharkako kostuak mugatzearen printzipioetan oinarrituko da; zerga-sistema aplikatzean zergapekoen eskubideak eta bermeak errespetatu behar dira.

3. Artikulua. Zergen arloko ahala.

1. Bizkaiko Batzar Nagusiek dute lurralde historiko honetako zerga-erregimena zaintzeko, ezartzeko eta arautzeko ahala, betiere Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-entitateek zergak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte ordenamendu juridikoaren arabera.
3. Zuzenbide publikoko gainerako erakundeek ere zergak eskatu ahal izango dituzte, foru arau batek hala ezarritik gero.

4. Artikulua. Arauak emateko ahala.

1. Foru Aldundiak du zergei buruzko arauak emateko ahala, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, toki-entitateek toki-zergak arautzen dituzten zerga-ordenantzak emateko ahalmenak eragotzi gabe.
2. Foru arau batek, edo araudi batek, berariaz xedatuz gero, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zergen arloko xedapenak eman ahal izango ditu.

5. Artikulua. Zerga Administrazioa.

1. Foru arau honen ondorioetarako, III., IV., V., VI. eta VII. tituluetan araututako eginkizunak dituzten organoek osatzen dute Zerga Administrazioa.
2. Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkio zergen aplikazioa eta zehapenak ezartzeko ahala, foru arau bidez Zuzenbide Publikoko beste organo edo erakunde bati berariaz eratziki ezean.
3. Foru Aldundiak Estatu osoan erabiliko ditu zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko eskumenak, betiere Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoari lotuta.

Era berean, Ekonomia Itunak zehaztutakoa dela bide tributuen aplikazioari dagokionez Foru Aldundiaren eskumenen pean dauden zergapekoak direla eta, Foru Aldundiari dagokio elkarren laguntzari buruzko arauditik tributuen aplikaziorako ondorioztatzen diren eskumenak edo araudi horrek emandakoak betetzea.

4. Toki-entitateek iturri-sistemaren arabera aplikatu beharreko arautegian ezarritako irismenarekin eta bertan ezarritakoarekin bat etorritik erabiliko dituzte zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko eskumenak.
5. Foru Aldundia gainerako zerga administrazioekin lankidetzan ariko da zergak ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera aplikatzeko. Halaber, toki-entitateen arteko eta hauen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzak ezarri ahal izango dira zergak aplikatzeko.

II KAPITULUA ZERGEI BURUZKO ARAUAK

LEHENENGO ATALA ARAU-ITURRIAK

6. Artikulua. Zerga-ordenamenduaren iturriak.

1. Zergetan, izaera gorabehera, jarraian adieraziko direnak izango dira aginduzko:
 - a) Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa. .
 - b) Eusko Legebiltzarrak lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta lankidetzarako ematen dituen arauak.
 - c) Foru arau hau, zerga bakoitza arautzen duten foru arauak eta zergen arloko xedapenak dituzten gainerako foru arauak.
 - d) Aurrekoak garatzeko asmoarekin ematen diren arauzko xedapenak, eta toki-zergen esparruan zerga-ordenantzak.
2. Zergei buruzko klausularen bat duten nazioarteko tratatuak edo hitzarmenak aplikatuko dira eta, batez ere, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenak, barruko ordenamendu juridikokoak badira.
3. Europako Batasunak eta zergen esparruko eskumenak dituzten nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuek ematen dituzten arauak aplikatuko dira.
4. Bestalde, Administrazio Zuzenbideko xedapen orokorrak eta Zuzenbide Erkideko manuak ordezkokoak izango dira.

7. Artikulua. Zergei buruzko foru araua noiz eman.

Foru arau bidez arautuko dira:

- a) Zerga-egitatearen, sortzapenaren, zerga-oinarriaren eta likidazio-oinarriaren mugaketa, karga-tasaren eta zerga-zorren zenbatekoan zuzeneko eragileak diren gainerako elementuen finkapena (konturako ordainketen zenbatekoa izan ezik), eta aurkako frogarik onartzen ez duten presuntzioen ezarpena.
- b) Zergen arloan konturako ordainketak egin beharra sortzen duten kasuak.
- c) Foru arau honetako 34. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako zergapekoen eta erantzuleen zehaztapena.
- d) Salbuespenen, txikipenen, hobarien, kenkarien eta gainerako zerga-onura eta zerga-pizgarrien ezarpena, aldaketa, ezabatzea eta luzamendua.

- e) Errekarguen eta berandutza-interesak ordaindu beharraren ezarpena eta aldaketa.
- f) Preskripzio eta iraungipen-epeen ezarpena eta aldaketa; baita preskripzio epeen zenbaketa geldiarazteko eta iraungipen-epeak eteteko arrazoen ezarpena eta aldaketa ere.
- g) Zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen ezarpena eta aldaketa.
- h) Zerga-zor eta -zehapenen barkamena eta luzamendu eta kiten emakida orokorra.
- i) Zerga-betebeharrak ez betetzeak egintza edo negozio juridikoen eraginkortasunean izan ditzakeen ondorioak.
- j) Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.
- k) Zerga-zorren barkamena eta luzamendu eta kiten emakida orokorra.
- l) Ekonomia-administrazioko erreklamazioa eragin dezaketen egin-tzen zehaztapena.
- m) Zergen arloko esku-hartze iraunkorrak ezartzea dakarten kasuak

8. Artikulua. Zergen arloko foru dekretu arauemaileak.

1. Foru Aldundiak ondoko kasuan eman ahal izango ditu zergei buruzko foru dekretu arauemaileak: helburu bakarra Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzea denean, baldin eta Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoaren arabera Lurralde Historikoan erregimen erkideko lurraldean dauden funtsezko eta erazko arau berberak izan behar badira aginduzko.
2. Era berean, Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, foru dekretu arauemaileak eman ahal izango ditu premiazko arrazoiak direla medio zerga-arauren bat ezarri edo egokitu behar denean. Horrela emaniko Foru Dekretuak sendesteko jakinaraziko zaizkie Batzar Nagusiei.

BIGARREN ATALA ZERGEI BURUZKO ARAUEN APLIKAZIOA

9. Artikulua. Zergei buruzko arauen denbora-eremua.

1. Zergei buruzko arauak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen direnetik egutegiko hogeiei egun pasatutakoan jarriko dira indarrean (besterik xedatu ezean) eta epe jakina ezarri ezean ez dute izango mugaegunik. .
2. Besterik xedatu ezean, zergei buruzko arauak ez dute atzeraeraginik izango eta arauak indarrean jartzen direnetik sortutako zergei (edozein zergalditakoei) eta orduan hasten den zergaldiko gainerako zergei aplikatuko zaizkie.

Nolanahi ere, zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimena eta errekarrien erregimena arautzen dituzten arauak atzeraeragina izango dute irimoz ez diren egintzetan, baldin eta haien aplikazioa interesdunaren mesederako bada.

10. Artikulua. Zergei buruzko arauak aplikatzeko irizpideak.

Foru arauak kasu bakoitzerako ezartzen dituen egoitzaren edo lurraldetasunaren irizpideak aintzat hartuta aplikatuko dira zergak. Bestela, zerga pertsonalak egoitza irizpide hartuta eskatuko dira eta gainerako zergak kargatutako gaiaren izaerarako egokiena den lurraldetasun-irizpidearen arabera.

HIRUGARREN ATALA **INTERPRETAZIOA, KALIFIKAZIOA ETA INTEGRAZIOA**

11. Artikulua. Zergei buruzko arauen interpretazioa.

1. Zergei buruzko arauak Kode Zibileko 3. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.
2. Zerga-arauegian zehazten ez diren heinean, bertako arauetan erabiltzen diren terminoak euren adiera juridikoan, teknikoan edo ohikoan (kasuan kasukoan) ulertu behar dira.
3. Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak soilik eman ditzake zergen arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatzeko edo argitzeko xedapenak.

Interpretazio eta argibidezko xedapenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Zerga Administrazioaren organo guztiek bete beharko dituzte.

12. Artikulua. Kalifikazioa.

Zerga-betebeharrak egindako egitatearen, egintzaren edo negozioaren izaera juridikoaren arabera eskatuko dira, interesdunek eman dioten itxura edo izena kontuan hartu gabe. Horren baliozkotasuna uki dezaketen akatsak alde batera utziko dira.

13. Artikulua. Analogiaz jokatzeari debekatura dago.

Ez da onartuko analogia zerga-egitatearen, zerga-salbuespenaren eta gainerako zerga-onuren eta -pizgarrien eremua muga zehatzetatik haratago hedatzeko.

14. Artikulua. Itzurpenaren aurkako klausula.

1. Artikulu honetan arautzen den itzurpenaren aurkako klausula inguruabar jakin batzuk betetzen dituzten egintza edo negozioen bidez zerga-egitate osoa edo beraren zati bat ekiditen denean edo zerga-oinarria nahiz zerga-zorra gutxitzen denean aplikatu ahal izango da. Hona hemen inguruabar horiek:
 - a) Banaka nahiz taldeka kontuan hartuta, izan den emaitza lortzeko artifizio handikoak edo desegokiak izatea.
 - b) Horien erabilerak zerga-aurrezkia eta ohiko edo norberaren egintzek zein negozioek sortutako ondoreak ez beste ondorio juridiko edo ekonomiko garrantzitsurik ez izatea.
2. Zerga Administrazioak aurreko idatz-zatian arautzen den kasua gertatu dela adierazteko, foru arau honetako 163. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.
3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren likidazioetan zergak eskatzeko, ohiko edo norberaren egintza zein negozioei dagokien araua aplikatuko da edo lortutako zerga-onurak ezabatuko dira, eta berandutza-interesak likidatuko dira, eta hala dagokionean, foru arau honen 200.bis artikuluan aurreikusitako zehapenak ere.

15. Artikulua. Simulazioa.

1. Simulazioa gertatzen den egintzetan edo negozioetan, alderdiek benetan egindako zerga-egitatea kargapetuko da.
2. Simulazioa gertatu dela Zerga Administrazioak adieraziko du likidazio-egintzan; nolana ere, kalifikazio horrek zergen arloan baizik ez ditu izango ondoreak.
3. Simulazioaren ondorioz egin beharreko erregularizazioan berandutza-interesak eskatuko dira, eta bidezkoa denean zehapena ere bai.

II TITULUA TRIBUTUAK

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO ATALA KONTZEPTUAK, XEDEAK ETA MOTAK

16. Artikulua. Kontzeptuak, xedeak eta motak.

1. Tributuak sarrera publikoak dira, hain zuzen ere herri administrazioek foru arau batek zergak ordaindu beharrekin lotzen duen zerga-egitate bat egiteagatik eskatzen dituzten diru-prestazioak; beraien helburu nagusia gastu publikoei eusteko beharrezkoak diren kopuruak lortzea da.

Horrez gainera, tributuak politika ekonomiko orokorreko bitarteko gisa erabili ahal dira, gizarte egonkorra eta aurreratua lortzeko eta errenta ahalik eta modurik egokienean banatzeko.

2. Tributuak, zeinahi ere den beraien izena, honela sailkatzen dira: tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.
 - a) Tasak zerga-egitate hau duten tributuak dira: herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea edo zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea Zuzenbide Publikoko erregimenean, hain zuzen ere zergapekoei dagozkienak, haiek ukitzen dituztenak edo haiei onura ekartzen dietenak, baldin eta zerbitzu edo jarduera hauek ez badituzte beraiek eskatzen edo ez badituzte euren borondatez jasotzen edo ez badituzte egiten sektore pribatukoak.
 - ...
 - b) Kontribuzio bereziak zerga-egitate hau duten tributuak dira: herri lanak egitearen edo zerbitzu publikoak ezarri nahiz zabaltzearen ondorioz zergapekoak mozkina izatea edo beraren ondasunen balioa gehitzea.
 - c) Zergak kontraprestaziorik gabe eskatzen diren tributuak dira eta beraien zerga-egitatea zergadunaren ahalmen ekonomikoa islatzen duten negozioak, egintzak edo egitateak dira.

BIGARREN ATALA LEGEEN ETA ZERGEN ARTEKO HARREMANAK

17. Artikulua. Legeen eta zergen arteko harremanak.

1. Zergak aplikatzean sortzen diren betebeharrak eta eginbeharrak, eskubideak eta ahalek osatzen dituzte legeen eta zergen arteko harremanak.
2. Legeen eta zergen arteko harreman horiek betebeharrak materialak eta formalak ekarri ahal dizkiete zergapekoei eta Administrazioari; halaber, haietako bat bete ezean, zerga-zehapenak ezarriko zaizkie.
3. Zerga-betebeharrak materialak dira betebeharrak nagusiak, konturako ordainketak egin beharra, zergaren ondorioz norbanakoen artean sortzen direnak eta osagarriak.
4. Zerga-betebeharrak formalak dira zerga-arautegiak zergapekoei (zergaren zordunak izan zein ez) ezartzen dizkien diruzkoak ez bestelakoak, hain zuzen ere zergen arloko jarduketan edo prozeduren garapenarekin lotuta daudenak.

5. Elkarren laguntzaren barruan, zerga-betebeharrak ezarri ahal zaizkie zergapekoei, haien xedea edozein dela ere. Zergapekoek ez badituzte betebeharrak betetzen, aplikatu beharreko araudian zehazten diren zerga-zehapenak ezar daitezke.
6. Zerga-betebeharren elementuak ezin dira aldatu norbanakoen egintza edo hitzarmenen bidez, hauek ez baitute Administrazioan eraginik izango. Hala ere, ondorio juridiko-pribatuak izan ditzakete.

18. Artikulua. Zerga-kreditua ezin da erabili.

Zerga-kreditua ezin da erabili, foru arau batek besterik ezartzen ezean.

HIRUGARREN ATALA ZERGA-BETEBEHAR MATERIALAK

LEHENENGO AZPIATALA ZERGA-BETEBEHAR NAGUSIA

19. Artikulua. Zerga-betebehar nagusia.

Zerga-betebehar nagusia zerga-kuota ordaindu beharra da.

20. Artikulua. Zerga-egitatea.

1. Zerga-egitatea zergari buruzko foru arauak finkatzen duen egitatea da; hori burutzeak zerga-betebehar nagusia sortzen du.
2. Zerga-egitatea foru arau bidez muga daiteke, hain zuzen ere zergapean ez dauden kasuak azalduta.

21. Artikulua. Salbuespenak.

Salbuespen izango dira zerga-egitatea egin arren foru arau bidez zerga-betebehar nagusitik kanpo (osorik edo zati batean) uzten diren kasuak.

22. Artikulua. Sortzapena eta galdagarritasuna.

1. Zergaren sortzapena zerga-egitatea gauzatzen eta zerga-betebehar nagusia sortzen denean gertatzen da, zerga bakoitzari buruzko foru arauak beste uneren batean gertatzen dela ezarri ezean.

Sortzapen egunak zehazten ditu zerga-betebeharra eratzeko kontuan hartu beharreko inguruabarrak, zerga bakoitzari buruzko foru arauak besterik ezarri ezean.

2. Zerga bakoitzaren arautegiak sartu beharreko kuota edo kopurua (edo zati bat) zerga sortzen den unean ez beste batean eskatuko dela ezarri ahal izango du.

BIGARREN AZPIATALA KONTURAKO ORDAINKETAK EGIN BEHARRA

23. Artikulua. Konturako ordainketak egin beharra.

1. Zerga-betebehar nagusiaren kontura ordainketak egin beharra hau da: zatikako ordainketak egin behar dituenak, atxikitzaileak edo konturako sarrerak egin behar dituenak Zerga Administrazioari kopuru jakin bat ordaintzea.

Zerga-betebehar hau autonomoa da zerga-betebehar nagusiarekiko.

2. Zergadunak zerga-betebehar nagusitik kendu ahal izango du jasan dituen konturako ordainketen zenbatekoa, zerga bakoitzari buruzko foru arauak beste zenbateko bat ken dezakeela ezarri ezean.

HIRUGARREN AZPIATALA

ZERGEN ONDORIOZ NORBANAKOEN ARTEAN SORTZEN DIREN BETEBEHARRAK

24. Artikulua. Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.

1. Norbanakoen artean zergen ondorioz sortzen diren betebeharrak zergapekoek zerga-prestazioak direla eta elkarri eskatu ahal dizkietenak dira.
2. Mota honetako betebeharrak dira, besteak beste, zerga-arautegian ezarritako jasanarazpenen, atxikipenen edo konturako sarreren ondorioz sortzen direnak.

LAUGARREN AZPIATALA

ZERGA-BETEBEHAR OSAGARRIAK

25. Artikulua. Zerga-betebehar osagarriak.

1. Atal honetan azaltzen direnak ez beste zerga-betebeharrak osagarriak dira. Zerga Administrazioari egin beharreko diruzko prestazioak dira eta beste zerga-betebehar batekin lotuta eskatuko dira.

Zerga-betebehar osagarriak dira berandutza-interesak ordaindu beharra, epez kanpo aurkeztutako aitorpenen gaineko errenergua ordaindu beharra eta ordainarazpen-aldiko errenergua ordaindu beharra, baita foru arau bidez ezartzen diren gainerako guztiak ere.

2. Zerga-zehapenak ez dira betebehar osagarriak.

26. Artikulua. Berandutza-interesa.

1. Berandutze-interesa prestazio osagarria da, eta zergapekoei eta arau-hausleei kasu hauetan eskatuko zaie: batetik, ordainketa bat ez dutenean egiten foru arau honetan ezarritako epearen barruan, ez zegokien itzulketa bat kobratzen dutenean edo zerga arautegian ezarritako gainerako kasuetako bat gertatzen denean; bestetik, elkarren laguntzari buruzko araudiarekin bat, beste estatu batzuen edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeen titulartasuneko zorrak kobratzeko eskari bat jasotzen denean, salbu eta araudi horrek besterik zehazten duenean.

Zergen arloko berandutze-interesak eskatzeko ez da beharrezkoa Administrazioak, aurretik, agindeirik egitea, ez eta atzerapena zergapekoaren erruz gertatzea ere.

2. Berandutza-interesak ordainketa atzeratzen den aldi osoan sortuko dira eta zerga-kuotaren edo konturako ordainketaren edo bidegabe kobratutako itzulketaren zenbatekoaren gainean kalkulatu dira, edo, bidezkoa denean, Foru Arau honen 56 artikulua 2. idaz-zatiaren d) letran aipatutako errenerguen eta zehapenen zenbatekoaren gainean.
3. Berandutza-interesa kopurua eska daitekeen aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesa izango da, %25 gehituta, besterik ezarri ezean.

Artikulu honetan arautzen den berandutze interesa %4,0625 izango da eta ondorioak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izango ditu, Bizkaiko Lurralde Historikokoaren 2026. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauko (BAO, abenduak 30) lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

4. Betebarazpen-aldia hasteak berekin ekarriko du berandutze-interesen sortzapena, salbu eta foru-arau honen 60. artikulua 3. apartatuaren lehenengo paragrafoan ezarritako epealdia amaitu arteko aldian, epealdi horretan sartutako zenbatekoengatik.

Aurreko paragrafoko azken tartekian jasotako salbuespena ez da aplikatuko tributu bakoitzaren araudian ezarritako epetik kanpo aurkeztutako autolikidazioetan. Kasu horietan, artikulua honen 7. apartatuan ezarritakoa aplikatuko da.

5. Zerga Administrazioak egindako likidazioetan, zerga bakoitzaren arautegian bidezko aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko ezartzen den epea bukatzen denetik likidazioari buruzko erabakia hartzen den egunera arteko aldiko berandutza-interesak eskatuko dira.
6. Administrazioaren edo epailearen ebazpen baten bidez likidazioa deuseztatu bada eta, ondorioz, likidazio berria egin behar bada, deuseztapenaren arrazoiak ukitzen ez dituen egintzak eta izapideak oso-osoan gordeko dira, baita edukia ere, eta likidazio berriaren zenbatekoaren gaineko berandutza-interesa eskatuko da.

Honelako kasuetan, deuseztatutako likidazioan hasiko zen egun berean hasiko da zenbatzen berandutza-interesa eta likidazio berria egiteko erabakia hartu arte sortuko da. Nolanahi ere, ebazpena betearazteko gehieneko epea amaitutakoan ezin jarraituko izan da konputatzen.

Errekurtsoak eta erreklamazioak osorik ezesten badira, ezespen-erabakia eman den egunera arteko berandutza-interesak eskatuko dira.

7. Autolikidazioak tributu bakoitzaren araudian ezarritako epetik kanpo aurkeztu badira, berandutze-interesak eskatuko dira epe hori amaitu zenetik autolikidazioa aurkeztu den egunera arte, salbu eta aurretiazko errekerimendurik gabe eta epea amaitu ondorengo sei hileko epearen barruan zerga-zorra ordainduta aurkeztutako autolikidazioetan.
8. Aitorpen bidez hasitako kudeaketa prozeduran (foru arau honetako 122. artikulua) egiten diren likidazioetan ez da berandutza-interesik eskatuko aitorpena aurkeztu den egunetik ordainketa egiteko borondatezko aldia amaitu arte.

Aitorpena zergaren arautegian aurreikusitako epea amaitutakoan aurkeztu bada, amaitzen denetik aitorpena aurkeztu arteko aldiko berandutza-interesak eskatuko dira. Salbuespen izango dira, dena den, ondorengo sei hiletan aurretiazko errekerimendurik gabe aurkeztu diren aitorpenak.

9. Zerga Administrazioak, berari bakarrik egotzi dakioken arrazoia dela medio, foru arau honetan ebazpenak emateko ezartzen diren epeetako bat betetzen ez duenean ez da berandutza-interesik eskatuko. Horrelako kasuetan epea amaitu arteko aldiko interesak soilik eskatuko dira. Salbuespena: ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eta zorrak konpentsatzeko eskabideak ebazteko epeak ez betetzea.

Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen denean, interesak eskatzeko prozedura arau bidez arautuko da.

27. Artikulua. Aitorpena aurretiazko errekerimendurik gabe epez kanpo aurkezteagatiko erreargua.

1. Aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko erreargua prestazio osagarria da, zergapekoek foru arau honetako 122. artikuluan aipatzen den aitorpen bidez hasitako kudeaketa prozeduran ordaindu behar dutena aitorpena, Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin gabe, arautegian ezarritako epeaz kanpo aurkezteagatik.
2. Aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko erreargua likidazioaren ondorioz sartu beharreko kuotaren %5 izango da, foru-arau honen 56. artikulua 2. apartatuaren d) letrak aipatzen dituen errearguak barne, halakorik balego. Eska daitezkeen zehapenak baztertuko ditu, foru-arau honen 203. artikuluan ezarritakoa izan ezik.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, tributu bakoitzaren araudian aitorpena aurkezteko ezarritako borondatezko epea amaitu eta hurrengo hiru egun baliodunen

barruan aurkezten bada aitorpena, epez kanpoko aitorpenagatiko errekgua %0,5 izango da.

28. Artikulua. Ordainarazpen-aldiko errekguak.

1. Ordainarazpen-aldiko bi errekgu mota daude eta bateraezinak dira: betearazpideko errekgua eta premiamendu-errekgua. Errekguok zerga-kuotaren edo konturako ordainketak egiteko betebeharratetik eratorritako kopuruaren gainean kalkulatu dira, edo, bidezkoa denean, legez eska daitezkeen errekguen (foru arau honen 56. artikuluan 2. idaz-zatiaren d) letrak aipatzen ditu) eta zehapenen zenbatekoaren gainean..
2. Betearazpideko errekgua %5ekoa izango da eta automatikoki sortuko da. Errekgu hau ordainarazpen-aldia hastearekin batera eskatu ahal izango da, foru-arau honen 60. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, ordainarazpen-aldiko lehen hiru egun baliodunen barruan benetan eta guztia ordaintzen bada, betearazpideko errekgua %0,5 izango da.

3. Premiamendu-errekgua %20koa izango da; premiamendu-probidentzia jakinarazi ostean eta foru arau honetako 60. artikuluko 3. idatz-zatian ordaintzeko ezartzen den aparteko epea igarotakoan eskatuko da.
4. Ordainarazpen-aldiko errekguak eta zerga-zehapenak bateragarriak izango dira.
5. Ez da ordainarazpen-aldiko errekgurik sortuko beste estatu batzuen edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeen titulartasuneko zorrak direla-eta zor horiek biltzeko jarduketak elkarren laguntzaren esparruan egiten badira, salbu eta laguntza horri buruzko araudiak besterik zehazten duenean.

Era berean, ez da sortuko ordainarazpen-aldiko errekgurik sektore publikoa osatzen duten erakundeei dagozkien zorren kasuan. Sektore publikotzat joko da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoa

.LAUGARREN ATALA ZERGA ADMINISTRAZIOAREN BETEBEHARRAK ETA EGINBEHARRAK

29. Artikulua. Zerga Administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak.

1. Zerga Administrazioak foru arau honetan ezarritako betebeharrak ekonomikoak bete behar ditu. Betebeharrak ekonomikoak dira zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondorioz itzulketak egin beharra, bidegabe sartutako kopuruak itzuli beharra, bermeen kostuak itzuli beharra eta berandutza-interesak ordaindu beharra.
2. Horrez gain, foru arau honetan zerga-prozedurez ezarritako eginbeharrak eta ordenamendu juridikoan ezarritakoak ere bete behar baditu Zerga Administrazioak.

30. Artikulua. Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak.

1. Zerga Administrazioak zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren arabera bidezkoak diren zenbatekoak itzuliko ditu.

Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak dira zerga aplikatzean behar bezala sartu edo ordaindutako zenbatekoei dagozkienak.

2. Zerga bakoitzaren arautegian ezarritako epealdian (eta, nolabait ere, sei hilabeteen) likidazioa egiten ez bada zergen administrazioari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, zergen administrazioak foru arau honen 26. artikuluan arautzen den berandutze- interesa ordainduko du, zergapekoak eskatu beharrik gabe.

Ondorio horietarako, berandutze-interesa epealdi hori amaitzen denetik bidezko itzulketa jasotzeko eskubidea onartzen duen erabakia hartu arte sortuko da.

Prozeduran interesdunari egotzi ezin zaizkion atzerapenak ez dira kontuan hartuko aurreko paragrafoan aipatutako epealdia zenbatzeko.

31. Artikulua. Bidegabe sartutako kopuruen itzulketa.

1. Zerga Administrazioak zerga-betebeharrak betetzeko edo zehapenak ordaintzeko Herri Ogasunari bidegabe sartutako kopuruak itzuliko dizkie zergapekoei, arau-hausleei edo batzuen zein besteen oinordekoei, foru arau honetako 229. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Bidegabeko sarrerak itzultzearekin batera, Zerga Administrazioak foru arau honetako 26. artikuluan araututako berandutza-interesa ordainduko du. Zergapekoak ez du eskatu beharrik izango. Ondore horietarako, berandutza-interesa bidegabeko sarrera egin denetik itzulketa jasotzeko eskubidea aintzatesten duen erabakia hartzen den egunera arte sortuko da.

Interesdunari egotz dakioken arrazoren bat dela medio prozeduran gertatzen diren luzapenak ez dira kontuan hartuko aurreko paragrafoan aipatutako aldia konputatzeko

3. Hainbat epetan sartutako autolikidazio baten ondorioz bidegabe sartutako kopuru bat itzultzen bada, itzultitako zenbatekoa azken epean sartu dela ulertuko da; zenbateko hori nahikoa ez bada, diferentzia aurre-aurreko epeetan ordaindu dela ulertuko da.

32. Artikulua. Bermeen kostuen itzulketa.

1. Epai edo administrazio-ebazpen irmo batek egintza edo zor bat bidegabekotzat jotzen badu, Zerga Administrazioak haren betearazpena eteteko edo ordainketa geroratzeko nahiz zatikatze eman diren bermeen kostua itzuliko du, zenbatekoa behar bezala egiaztatu ondoren. Egintza edo zorra zati batean bidegabekoa dela adierazten bada, bermeen kostutik zati horri dagokion kopurua itzuliko da.

Itzultzeko prozedura eta bermeen kostua zehazteko modua arau bidez arautuko dira.

Itzulketa ofizioz egingo da, baldin eta Administrazioak duen informazioak hori posible egiten badu.

2. Bermeen kostuak itzultzearekin batera, Zerga Administrazioak indarreko berandutza-interesa ordainduko du sortzen den aldi osoan. Zergapekoak ez du eskatu beharrik izango. Ondore horietarako, kostu horiek sortu diren egunetik (behar bezala egiaztatuta) bidezko itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen duen erabakia hartzen den egunera arte sortuko da berandu-tza-interesa.
3. Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zerga bakoitzaren arautegian zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke ezartzen diren bermeei.

BOSGARREN ATALA ZERGAPEKOEN ESKUBIDEAK ETA BERMEAK

33. Artikulua. Zergapekoen eskubideak eta bermeak.

Zergapekoek foru arau honetan ezarritako eskubideak eta bermeak eta herri administrazioen erregimen juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko arautegian aintzatesten zaizkienetatik aplikatu beharrekoak dituzte, besteak beste.

II. KAPITULUA ZERGAPEKOAK

LEHENENGO ATALA ZERGAPEKO MOTAK

34. Artikulua. Zergapekoak.

1. Hauek dira zergapekoak: zerga-arautegiaren arabera zerga- betebeharrak (materialak nahiz formalak) dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak. Zergapekoak izango dira, halaber, elkarren laguntzari buruzko araudiaren arabera zerga-betebeharrak ezarri ahal zaizkienak.
2. Besteak beste, hauexek dira zergapekoak:
 - a) Subjektu pasiboak.
 - b) Konturako ordainketak egin behar dituztenak.
 - c) Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak bete behar dituztenak.
 - d) Oinordekoak.
 - e) Zergen arloko salbuespenen, itzulketen edo hobarien onuradunak, subjektu pasiboak ez badira.
3. Zergapekoak izango dira (hala ezartzen den foru arauetan) jarauntsi banatugabeak, ondasun erkidegoak eta, nortasun juridikorik ez dutela, ekonomi batasuna edo ondare bereizia osatzen duten eta zergapetu ahal diren gainerako erakundeak.
4. Halaber, foru arau honetako 40. artikuluan aipatzen diren eran-tzuleak ere zergapekoak izango dira.
5. Betebehar batean zergapeko bat baino gehiago badago, Zerga Administrazioari prestazio guztiak solidario gisa ordaindu beharko dizkiote, foru arau batek berariaz besterik xedatu ezean.

Foru arau bidez aurreko paragrafoan ezarritakoez gainera beste solidaritate-kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

35. Artikulua. Subjektu pasiboak: zergaduna eta zergadunaren ordezkoa.

1. Subjektu pasiboa zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadun gisa nahiz haren ordezeko gisa bete behar dituen zergapekoa da. Zerga-kuota beste zergapeko bati jasanarazi behar diotenak ere subjektu pasibo izango dira, zergari buruzko foru arauan besterik ezarri ezean.
2. Zergaduna zerga-egitatea egiten duen subjektu pasiboa da..
3. Zergadunaren ordezkoa da foru arau batean ezarritakoaren arabera zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadunaren ordezk bete behar dituen subjektu pasiboa.

Ordezkoak ordaindutako zerga-betebeharren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari, foru arau bidez besterik ezarri ezean.

36. Artikulua. Konturako ordainketak egin behar dituztenak.

1. Zerga bakoitzari buruzko foru arauak zerga-betebehar nagusiaren kontura zenbateko jakin batzuk sartu beharra ezartzen dion zergadunak zatikako ordainketak egin behar ditu, eta egin ere zerga-betebehar nagusia eskatu baino lehen. .
2. Pertsona edo erakunde bat atxikitzailea dela esaten da zergari buruzko foru arauaren arabera beste zergapeko batzuei egin beharreko ordainketen zenbatekoen zati bat haien zergaren kontura atxiki eta Zerga Administrazioari sartu behar badio.
3. Pertsona edo erakunde batek konturako sarrerak egin behar dituela esaten da gauzazko edo diruzko errentak ordaintzen baditu eta foru arau bidez zergaren baten konturako sarrerak egin behar baditu.

37. Artikulua. Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak bete behar dituztenak.

1. Jasanarazpena foru arau bidez ezarritakoaren arabera zerga-kuota beste pertsona edo erakunde bati jasanarazi behar dionak egin behar du; foru arauan besterik xedatu ezean, kargatutako eragiketak egiten dituen izango da.
2. Jasanarazpena foru arau bidez ezarritakoaren arabera zerga-kuota jasanarazi behar zaion pertsonak edo erakundeak jasan behar du; foru arauan besterik xedatu ezean, kargatutako eragiketen destinatarioa izango da. Kuota jasanarazten zaionak ez du Zerga Administrazioari ezer ordaindu beharrik, baina subjektu pasiboari jasanarazitako kuotaren zenbatekoa ordaindu behar dio.
3. Atxikipena foru arauan ezarritakoaren arabera atxikitzaileak zerga-atxikipenak aplikatu beharreko zenbatekoak jasotzen dituen pertsonak edo erakundeak jasan behar du. .
4. Pertsona edo erakundeei jasotzen dituzten gauzazko edo diruzko errenten zioz zergen kontura egindako sarrerak jasan beharra ezarri ahal izango zaie, bai eta, bidezkoa denean, errenta horien ordaintzaileek beraien zenbatekoa jasanarazi beharra ere.

BIGARREN ATALA OINORDEKOAK

38. Artikulua. Pertsona fisikoen oinordekoak.

1. Zergapeko bat hiltzen denean, bete gabe gelditzen diren zerga-betebeharrak haren jaraunslerei eskualdatuko zaizkie, betiere legeria zibilean jaraunspena eskuratzeari buruz ezarritakoa kontuan hartuta, eta, bereziki, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legeko 21. artikuluan erantzukizunari dagokionez aipatzen den muga kontuan hartuta.

Jaraunspena legatuen bidez banatzen bada eta zati alikuotaren legatuak ezartzen badira, zerga-betebeharrak jaraunslentzat ezarritako baldintza berberetan eskualdatuko zaizkie legatu-hartzaileei. Zehapenak ez dira inolaz ere eskualdatuko. Halaber, erantzulearen betebeharra ere ez da eskualdatuko, hil baino lehen erantzukizuna deribatzeko erabakia jakinarazten denean izan ezik.

2. Kausatzailea hiltzen denean zerga-zorra likidatu gabe egon arren, sortutako zerga-betebeharrak oinordekoei eskualdatuko zaizkie; hala gertatzen denean, oinordeetako edozeini zuzenduko zaizkio jarduketak, eta jarduketa horien ondoriozko likidazioa espedientearen ageri diren interesdun guztiei jakinarazi beharko zaie.
3. Jaraunspena banatugabe dagoen bitartean, kausatzailearen ordezkariak bete beharko ditu haren zerga-betebeharrak.

Administrazioak kausatzailearen zerga-betebeharrak zenbatekotzeko, zehazteko eta likidatzeko egiten dituen jarduketak jaraunspen banatugabearen ordezkariarekin burutu edo jarraitu beharko dira. Prozedura amaitutakoan oraindik ez badira jaraunsleak ezagutzen, likidazioak jaraunspenaren izenean egingo dira.

4. Testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dagoen jaraunspenaren kasuan, haren administratzaileak bete beharko ditu zerga-betebehar materialak zein formalak.

39. Artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko erakundeen oinordekoak.

1. Nortasun juridikodun sozietate edo erakunde bat desagiten eta likidatzen bada eta legeak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondasun erantzukizuna mugatzen badu, haiei eskualdatuko zaizkie bete gabeko zerga-betebeharrak eta, hala, betebehar solidarioa izango dute. Betebehar horrek badu, ordea, muga bat: bazkide, partaide edo titularkideen likidazio-kuotaren balioa eta sozietatea desegin edo konkurtsoaren adierazpena geratu aurreko (lehenago izan bada) lau urteetan jasotzen dituzten ondareak, baldin eta betebeharrotan erantzun beharko lukeen sozietate-ondarea gutxitzen badute.

Nortasun juridikodun sozietate edo erakunde bat desagiten eta likidatzen bada eta legeriak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondasun erantzukizuna mugatzen ez badu, bete gabeko zerga-betebehar guztiak horiei eskualdatuko zaizkie, eta solidarioki bete beharko dituzte.

2. Izaera juridikoa duen sozietate bat edo erakunde bat likidaziorik gabe azkentzen edo desagiten bada, bete gabeko zergabetebeharrak oinordeko pertsona edo erakundeei edo eragiketaren onuradun direnei eskualdatuko zaizkie. Arau hau izaera juridikoa duen sozietate edo erakunde baten aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean ere aplikatuko da.
3. Fundazioak desagiten direnean, bete gabe uzten dituzten zerga-betebeharrak ondasunen eta eskubideen destinatarioei eskualdatuko zaizkie; hauek haien erantzule izango dira, balioaren mugarekin.
4. Foru arau honetako 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren erakundeak desagiten direnean, bete gabe utzi dituzten zerga-betebeharrak oso-osorik eskualdatuko zaizkie partaideei edo titularkideei.

“Alkar-poderosoaren” menpeko jarauntsiak edo testamentu-ahalordea noiz baliatu zain dauden zerga-betebeharrak testamentu-ahalordea erabiltzeagatik edo hura azkentzeko beste arrazoiengatik jaraunsle izendatutako pertsonen egotziko zaizkie.

5. Sozietatearen edo erakundearen nortasun juridikoa desegin edo azkentzen denean zerga-zorra likidatu gabe egoteak ez du eragotziko sortutako zerga-betebeharrak oinordekoei eskualdatzea. Jarduketak haietako edozeinekin egin ahal izango dira, eta, hala egiten denean, jarduketa horien ondoriozko likidazioa espedientean ageri diren interesdun guztiei jakinarazi beharko zaie.
6. Artikulu honetan aipatutako sozietateei eta erakundeei arau-hausteengatik ezartzen zaizkien zehapenak beraien oinordekoei eskatu ahal izango zaizkie, aurreko ataletan ezarritako baldintzen arabera.

HIRUGARREN ATALA ZERGA-ERANTZULEAK

40. Artikulua. Zerga-erantzukizuna.

1. Foru arau bidez ezarrita, zordun nagusiez gainera beste pertsona edo erakunde batzuk ere ezar daitezke zerga-zorraren erantzule, solidario zein subsidiario. Ondore hauetarako, foru arau honetako 34. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako zergapekoak dira zordun nagusiak.

2. Kontrako berariazko legezko manurik izan ezean, erantzukizuna beti izango da subsidiarioa.
3. Erantzukizunak borondatezko aldian eskaturiko zerga-zor osoa hartuko du.

Erantzuleak borondatez ordaintzeko ematen zaion aldian sarrera egiten ez badu, ordainarazpen-aldia hasiko da eta bidezko errekaraguak eta interesak eskatuko dira.

4. Erantzukizunean ez dira zehapenak sartuko, foru-arau honetan edo beste batean ezartzen diren salbuespenetan izan ezik.

Erantzukizunean zehapenak sartzen direnean, zordun nagusiak foru-arau honen 192.1.a) artikuluan ezarritako murrizketarako eskubidea izan badu, zor eratorria izango da zordun nagusiari dagokion murrizketa —halakorik badagokio— aplikatu gabe ateratzen den zenbatekoa, eta adostasuna adierazteko izapidea eskainiko zaio arduradunari erantzukizun-adierazpenaren proposamenean.

Adostasunaren ondoriozko murrizketa foru-arau honen 192.1 a) artikuluan ezarritakoa izango da.

Arduradunak lortutako murrizketa beste izapiderik egin gabe eskatuko zaio erantzukizuna adierazteko erabakiaren aurka edozein errekurtso edo erreklamazio aurkezten badu deribazioaren bidezkoatasunean edo eratorritako likidazioetan edo zehapenetan oinarrituta, bai eta zerga-zorriari eta zehapenari dagozkion zenbatekoak ordaintzen ez badira ere, foru-arau honen 192.2 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Apartatu honetan ezarritako murrizketa ez da aplikatuko foru-arau honen 41.5 artikuluan jasotako zorrak ordaintzearen ondoriozko erantzukizuna dagoenean.

5. Foru arau bidez besterik xedatzen ez bada, erantzukizun-adierazpena administrazio-egintzaren bidez egin behar da, foru arau honetako 179. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

Administrazio-likidazioetan, erantzukizuna ordaintzeko ordainarazpen-aldia amaitu baino lehen adierazten bada, aurrean aipatutako administrazio-egintza emateko eskumena likidazioa emateko organo eskudunak edukiko du. Gainerako kasuetan, eskumen hori zergak biltzen dituen organoak edukiko du.

6. Erantzuleei zerga-zorra eta, hala denean, zehapenak ordaintzeko eta betetzeko eskatzeko bideratzen den administrazio-egintzaren deribazioa foru arau honetako 180. eta 181. artikuluetan xedaturikoarekin bat etorriz burutuko da. Erantzukizun subsidiarioaren kasuan, aurretik zordun nagusia eta erantzule solidarioak kobraezina direla adierazi beharko da.
7. Erantzuleek zordun nagusiak dirua itzultzeko eskubidea dute, legeria zibilean ezarritakoaren arabera.

41. Artikulua. Erantzule solidarioak.

1. Honako pertsona edo erakunde hauek izango dira zerga-zor osoaren eta, hala denean, zehapenen erantzule solidarioak:
 - a) Zergen arloko arauen bat hausten dutenak edo horretan modu aktiboan laguntzen dutenak.
 - b) Aurreko a) letran xedaturikoa kontuan hartuta, foru arau honetako 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren erakundeen partaideak edo titularkideak, bakoitza bere partaidetzaren proportzioan.
2. Halaber, ustiapen edo jarduera ekonomikoen titulartasunean edo jardunean zeinahi kontzepturen zioz oinardeko diren pertsona edo erakundeak aurreko titularrak jardunean

sortzen diren zerga-betebeharren eta zehapenen erantzule solidarioak izango dira. Erantzukizunean egindako edo egin beharreko atxikipeak eta konturako sarrerak ez sartzearen ondoriozko betebeharrak ere sartuko dira.

Hala ere, ustiapen eta jarduera ekonomikoen titulartasuna eskuratu nahi dutenek idatz-zati honetan ezarritako erantzukizuna mugatu ahal izango dute foru arau honetako 180. artikuluko 2. idatz-zatian araututako prozeduraren bidez.

Idatz-zati honetan ezarritako erantzukizuna ezin izango da aplikatu kasu hauetan:

- a) Elementu bakarra eskuratzen denean; salbuespena dago: elementua pertsona edo erakunde batek nahiz batzuek eskuratzea eta horri esker ustiapenak edo jarduerak, edo haren adarretako batek, aurrera egitea.
 - b) Oinordetza heriotzagatik gertatzen denean; honelako kasuetan foru arau honetako 38. artikuluan ezarritakoa izango da aginduzko.
 - c) Zordun konkurtsatu baten ustiapen edo jarduera ekonomikoa eskuratzen denean, baldin eta konkurtso-prozedura batean eskuratzen bada.
3. Era berean, oraindik ordaintzeke dauden atxikipeak egin dituzten erakundearen erantzule solidario izango dira hauek: izatezko zein zuzenbideko administratzaileak; gutxienez kapitalaren %20ko partaidetza zuzena edo zeharkakoa duten bazkideak; erkide edo partaideak; ezkontideak, izatezko bikotekideak eta ezkontide zein bikotekideen aurreko nahiz ondoko ahaideak (bigarren graduraino). Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortzearen atxikipe horiek direla- eta kenduriko zenbatekoaren erantzule izango dira haiek guztiak. Baldin eta atxikitako zenbateko horien zati batzuen sarrerak egin badira, ordaintzeko geratzen den zorra atxikitako bakoitzari dagokiola joko da, proportzionalki.
4. Pertsona juridikoaren benetako kontrola (osoa edo partziala, zuzenekoa edo zeharkakoa) duten pertsona edo erakundeak; edo pertsona juridiko horien zuzendaritza borondate berdina duten pertsona edo erakundeak; edo zergadunen benetako kontrolaren (osoaren edo partzialaren) pean dauden pertsona edo erakundeak; edo zergadun horien zuzendaritza borondate berdina duten pertsona edo erakundeak. Erantzukizun solidarioa batzuen zein besteen zerga-zor eta zigorrerengatik izango da.

Atal honetan xedatzen dena aplikatzeko, egiaztatua egon behar da pertsona edo erakunde horiek gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla, Herri Ogasunaren aurrean ondare erantzukizun unibertsala saihesteko.

5. Era berean, honako pertsona edo erakunde hauek ordaintzeke dagoen zerga- zorraren — ordainarazpen-aldiko errekaruak eta interesak barne— eta ezartzen diren zehapenen ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, Zerga Administrazioak bahitu edo besterendu dituen ondasun eta eskubideen balioaren mugarekin:
- a) Zerga Administrazioaren jarduketa eragozteko asmoarekin, zerga ordaindu behar duenaren ondasunak edo eskubideak ezkutatzeko edo eskualdatzeko dituztenak edo horretan laguntzen dutenak.
 - b) Erruz edo arduragabekeriaren enbargo-aginduak betetzen ez dituztenak.
 - c) Enbargoaren, kautelazko neurriaren edo bermearen eraketaren berri izan arren, enbargatutako ondasunak edo eskubideak, edo kautelazko neurria edo bermea ezarrita duten ondasunak edo eskubideak kentzen laguntzen dutenak, edo hori eragozten ez dutenak.
 - d) Zordunaren ondasunak gordetzen dituzten pertsonak edo erakundeak, enbargoaren jakinarazpena jaso ondoren haiek kentzen laguntzen badute edo hori eragozten ez badute.

6. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoez gainera, foru arau bidez erantzukizun solidarioko beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

42. Artikulua. Erantzule subsidiarioak.

1. Ondoko pertsona edo erakunde hauek izango dira zerga-zorren erantzule subsidiarioak:

- a) Foru arau honetako 41. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran xedatutakoa eragotzi gabe, pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, baldin eta, zergen arloko arau-haustea egin ondoren, zerga-betebeharrak eta -eginbeharrak betetzeko beharrezko egintzak egiten ez badituzte, ardurapean dituztenei betebeharrak ez betetzen utzi badiete edo arau-haustea ahalbidetzeko erabakia hartu badute. Zehapenak ere sartuko dira beraien erantzukizunean.
- b) Jarduerak egiteari uzten dioten pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, jarduera horien ondorioz sortu eta jarduerari uztean bete gabe dauden zerga-betebeharrei dagokienez, baldin eta ordaintzeko egin beharrekoa egin ez badute edo ez ordaintzeko erabakia hartu badute edo horretarako neurriak aplikatu badituzte.
- c) Konkurtso-administrazioaren kideak eta erakunde eta sozietateen likidatzaileak, oro har, baldin eta egoera horiek gertatu aurretik sortutako zerga-betebeharrak, zergapekoei egotzi ahal zaizkienak, erabat betetzeko beharrezko kudeaketak egiten ez badituzte.

Konkurtsa deklaratu osteko zerga-betebeharrei eta zehapenei dagokienez, konkurtso-administratzaileek administratzaile gisa erantzungo dute noiz eta administratzaile eginkizunak esleitu zaizkienean. Orobat izango dira zerga-betebeharron arduradun, baldin eta betebeharrak baino lehentasun handiagoa ez duten hirugarrenen kredituak ordaintzen badira. Erantzukizun horren muga, dena dela, behar ez zela ordaindutako zenbatekoak izango dira.

- d) Foru arau bidez zerga-zorra ordaintzeko xedatutako ondasunen eskuratzailerak, foru arau honetako 80. artikuluan arabera.
- e) Beren jarduera ekonomiko nagusiarri dagozkion lanak edo zerbitzuak kontratatu edo azpikontratatu dituzten pertsonak edo erakundeak, langileei, profesionalei edo beste enpresari batzuei jasanarazi behar zaizkien zergekin edo atxiki behar zaizkien kopuruekin zerikusia duten zerga-betebeharrak direla-eta, kontratatu edo azpikontratatu diren lanei edo zerbitzuei dagokien aldetik.

Goiko paragrafoan aurrez ikusitako erantzukizuna ezingo da eskatu kontratistak edo azpikontratistak ordaintzaileari zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu dionean. Agiri hori Zerga Administrazioak emango du, hain zuzen ere, kontratazioari edo azpikontratazioari dagokion faktura bakoitza ordaindu aurreko 12 hilabeteetan zehar.

Erantzukizuna kopuru baten gainean baino ez da izango: kontratistak edo azpikontratistak ordaintzaileari zerga-betebeharrak egunean dituela jasotzen duen ziurtagiria aurkeztu gabe ordaindutakoaren gainean, edo aurreko ziurtagiria eman zenetik hamabi hileko epea igaro eta ziurtagiria berri gabe ordaindutakoaren gainean.

Zerga Administrazioak e) idatz-zati honetan aipatzen den ziurtagiria eman edo ukatuko du. Horretarako, hiru eguneko epea izango du kontratistak edo azpikontratistak eskaera egiten duenetik, eta eskatzen dizkieten ziurtagiriaren kopiak eman beharko ditu.

Kontratistak edo azpikontratistak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga edo Sozietateen gaineko Zerga aurkeztu behar dituztenean eskatu ahal du ziurtagiria. Kasu horretan, Zerga Administrazioak arauetan zehaztutako prozedura eta epeen arabera eman edo ukatuko du ziurtagiria.

f) ...

2. Langile, profesional edo beste enpresario batzuei ordainarazi jasanarazi beharreko tributuetatik edo atxiki beharreko zenbatekoetatik eratortzen diren zerga-zorren erantzule subsidiario izango dira zor horien deklarazioa eta sarrera egin behar duten pertsona juridikoen izatezko edo zuzenbideko administratzaileak, baldin eta zerga-kontzeptu horiei dagozkien sarrerarik gabeko autolikidazioak aurkezten badira eta modurik baldin bada egiaztatzeko aurkezpen horren arrazoia ez dela autolikidazioaren xede den zerga-betebeharra betetzeko egiazko asmo bat.

Erantzukizun horri dagokionez, autolikidazioaren aurkezpena sarrerarik gabe egin dela joko da, baldin eta, aurkezturiko autolikidazio guztien edo batzuen sarrera partzialak egin arren, horien zenbateko osoak ez badu gainditzen urte naturalean zehar tributu kontzeptu bakoitzarengatik autolikidaturiko eta sartu beharreko kuota guztien baturaren %50a.

Zerga-betebeharra benetan betetzek asmorik ez dela joko da, baldin eta hirugarren batzuei dagozkien kredituak ordaintzen badira, nahiz eta haiek lehentasunik izan ez eta haien epea betebeharrak sortu edo galdagarri bilakatu zireneko data baino geroagokoak izan.

3. Aurreko paragrafoan ezarritakoez gainera, foru arau bidez erantzukizun subsidiarioko beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

LAUGARREN ATALA

ZERGEN ARLOAN JARDUTEKO GAITASUNA

43. Artikulua. Jarduteko gaitasuna.

Zuzenbidearen arabera dutenez gainera, adingabeek eta ezgaituek ere badute zergen arloan jarduteko gaitasuna, hain zuzen ere ordenamendu juridikoaren arabera gurasoen ahala, tutoretza, kuradoretza edo judizioko defentsa egiten duen pertsonaren laguntzarik gabe egin ditzaketen jardueren ondoriozko zerga-harremanetan jarduteko gaitasuna. Adingabe ezgaituek, aldiz, ez dute izango gaitasun hori euren eskubideak baliarazteko eta interesak defendatzeko ezgaituta badaude.

44. Artikulua. Legezko ordezkaritza.

1. Jarduteko gaitasunik ez duten subjektu pasiboen ordezkari euren legezko ordezkariak jardungo dute.
2. Pertsona juridikoen legezko ordezkari gisa zerga-jarduketak gertatzen direnean haien ordezkaritza (behar bezala emandako lege-xedapen edo erabakia dela bide) duten organoen titular diren pertsonak jardungo dute.
3. Foru arau honetako 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako izakien legezko ordezkari gisa haien ordezkaritza dutenek jardungo dute, baldin eta ordezkaritza hori modu fede-emailean frogatzen bada. Aitzitik, ordezkariak izendatu ez bada, itxuraz kudeaketaren edo zuzendaritzaren ardura duena hartuko da ordezkariatzat eta, horren ezean, zeinahi kide edo partaide.

45. Artikulua. Borondatezko ordezkaritza.

1. Jarduteko gaitasuna duten zergapekoek ordezkari bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkaria izendatzen bada, geroztiko administrazio-jarduketak berarekin egingo dira, berariaz besterik adierazi ezean.
2. Errekurtsoak edo erreklamazioak jartzeko, haietan atzera egiteko, eskubideei uko egiteko, betebeharrak zergapekoaren izenean bere gain hartzeko edo aintzatesteko, sarrera bidegabean itzulketak edo diru-itzultzeak eskatzeko eta foru arau honetako III., IV. V., VI. eta VII. tituluetan araututako prozeduretan zergapekoak sinatu behar duen gainerako kasuetan, bi modutan egiaztatzea daiteke ordezkariatzat: zuzenbidean balio duen eta sinesgarritasunez

jasota utziko duen edozein bide baliatuz; edo, bestela, interesduna bera administrazio-organo eskudunean bertaratu eta ordezkaria zein den esanez.

Horretarako, baliodunak izango dira prozedura jakin batzuetarako Zerga Administrazioak onesten dituen ordezkaritza-agiri normalizatuak.

3. Izapide huts diren egintzetan, ordezkaritza emantzat joko da.
4. Baldin eta zergak kudeatzeko herritarren laguntza dela-eta, edo erregelamenduz ezartzen diren kasuetan, Zerga Administrazioari agiriren bat bide telematikoz aurkezten bazaio, aurkezleak kasu bakoitzean beharrezko den ordezkaritza eduki beharko du. Zerga Administrazioak noiznahi eskatu ahal izango du ordezkaritza frogatzeko, eta hori artikuluko honetako 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera egin ahal izango da.
5. Aurreko 2., 3. eta 4. idatz-zatietan aipatutakoak ez beste jarduketa batzuk egiteko ordezkaritza arauz ezartzen den moduan frogatu ahal izango da.
6. Foru arau honetako 34. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorrituz, zerga-betebehar batean hainbat titular egonez gero, haietako edozein hartuko da ordezkaritza, beti ere berariaz besterik adierazi ezean.
7. Ahalmen falta edo urritasuna gorabehera, egintza burututzat emango da, baldin eta ahal hori aurkezten bada edo akatsa 10 eguneko epean konpontzen bada. Epe hori administrazio-organo eskudunak eman behar du.

46. Artikulua. Pertsona edo erakunde ez-egoiliarrak.

Zergen Administrazioarekiko harremanen ondorioetarako, Espainiako lurraldean bizi ez diren zergapekoek Bizkaiko Lurralde Historikoan helbidea duen ordezkari bat izendatu beharko dute, zerga araudiak beren beregi hala ezartzen duenean.

Izendapena Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio zergaren arautegian aipatutako moduan.

BOSGARREN ATALA ZERGA-EGOITZA

47. Artikulua. Zerga-egoitza.

1. Zerga-egoitza zergapekoa Zerga Administrazioarekiko harremanetarako dagoen lekua da.
2. Hauxe da zerga-egoitza:
 - a) Pertsona fisikoena, ohiko egoitza.
 - b) Pertsona juridikoena eta Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko gainerako erakundeena, beraien sozietate-egoitza, baldin eta bertan zentralizaturik badaude administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua hartuko da aintzat.
 - c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsonen edo erakundeen zerga-egoitza non dagoen zerga bakoitzari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera zehaztuko da. Araututa ez badago, zerga-egoitza foru arau honetako 46. artikuluan aipatutako ordezkariarena izango da. Establezimendu iraunkorren zerga-egoitza administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza egiten den lekua izango da.
 - d) Sozietate zibilena eta nortasun juridikorik gabeko izakiena, kudeaketa eta zuzendaritza egiten diren lekua.

Baldin eta aurreko b), c) eta d) letretan dauden irizpideak aplikatuta zerga-egoitza zehaztu ezin bada, haien ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da kontuan.

3. Zergapekoek euren egoitza non dagoen adierazi behar diote Zerga Administrazioari. Ekonomia Itunaren 43. artikuluan xedatzen denaren kalterik gabe, aitorpenik ez bada, Zerga Administrazioak esku izango du pentsatzeko zergapekoaren egoitza errolda-oinarrian jasota dagoena dela edo hura titular legeaz ageri den edozein higiezin edo ustategi ekonomikoren kokagunea.
4. Zergapeko batek bere egoitza aldatzen duenean, Zerga Administrazioari jakinarazi behar dio hori, horretarako beren-beregi eginiko aitorpen baten bitartez. Dena dela, berdin bete beharko da Ekonomia Itunaren 43. artikulua bosgarren zenbakian xedaturikoa, eta, era berean, egoitza aldaketak ez du ondorioz izango Administrazioaren aurrean, harik eta arestixean aipaturiko zerga- aitorpena aurkeztu arte.

Zergapekoak zerga-egoitza aldatu duela jakinarazten ez badio Zerga Administrazioari aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, bien bitartean, errolda-oinarrian jasota dagoena hartu ahal izango da jakinarazpen-ondoreetarako. Halaber, jakinarazpenak egiteko, indarrekotzat joa ahal izango da hark azkenengo aitorturikoa edo berak edozein zerga-dokumentutan jasoarazitakoa.

5. Administrazioak zergapekoen zerga-egoitza zuzendu ahal izango du egiaztapenen bidez. Kontrako frogarik egon ezean, pertsona juridikoek zerga-egoitza aldatzen badute eta aurreko edo hurrengo urtean jarduerarik egin ez badute edo jarduerari utzi badiote, aldaketarik ez dela gertatu pentsatuko da.
6. Zergak aplikatzeko prozeduren eta zehapen-prozeduraren ondoriozko jarduketak egiteko eskudun den zerga administrazioa zehazteko, zergapekoak zerga-egitatea edo arau-haustea egitean izan duen zerga-egoitza hartuko da kontuan.

III. KAPITULUA

ZERGA-BETEBEHAR NAGUSIA ETA EGIN BEHARREKO KONTURAKO ORDAINKETAK ZENBATZEKO ELEMENTUAK

48. Artikulua. Zerga-oinarria: kontzeptua eta zehazteko metodoak

1. Zerga-oinarria zerga-egitatea neurtu edo balioestearen emaitzako magnitudea da, diruzkoa zein bestelakoa.
2. Zerga-oinarria zehazteko metodo hauek baliatu ahal dira:
 - a) Zuzeneko zenbatespena.
 - b) Zenbatespen objektiboa.
 - c) Zeharkako zenbatespena.
3. Oro har, zerga-oinarriak zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bitartez zehaztuko dira. Alabaina, foru arau bidez zenbatespen objektiboaren metodoa zein kasutan aplikatu ahal den ezarri ahal izango da; nolanahi ere, metodo hori borondatezkoa izango da zergapekoentzat.
4. Zeharkako zenbatespena subsidiarioa izango da zerga-oinarria zehazteko gainerako metodoen aldean; foru arau honetako 51. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatzen denean aplikatuko da.

49. Artikulua. Zuzeneko zenbatespena.

Zergapekoak eta Zerga Administrazioak zerga bakoitzaren arautegian xedaturikoarekin bat etorritik erabili ahal izango dute zuzeneko zenbatespenaren metodoa. Horretarako, Zerga

Administrazioak aurkezten zaizkion aitortenak edo agiriak, administrazio-bidean egiaztatutako liburuetan eta erregistroetan adierazitako datuak eta zerga-betebeharraren elementuekin zerikusia duten gainerako agiri, frogagiri eta datuak erabiliko ditu.

50. Artikulua. Zenbatespen objektiboa.

Zenbatespen objektiboaren metodoa zerga bakoitzaren arautegian ezarritako magnitudeak, indizeak, moduluak edo datuak aplikatuz erabili ahal izango da zerga-oinarria zehazteko.

51. Artikulua. Zeharkako zenbatespena.

1. Zeharkako zenbatespenaren metodoa ondoren azalduko diren inguruabarretako bat dela bide Zerga Administrazioak zerga-oinarria erabat zehazteko behar diren datuak eskuratu ezin dituenean aplikatuko da. Hona inguruabarrok:
 - a) Zergapekoak aitortenik ez aurkeztea edo aitortena datu batzuk falta direla edo oker daudela aurkeztea.
 - b) Zergapekoa ikuskapenari jazartzea, hura oztopatzea, saihesteko aitzakia jartzea edo uko egitea.
 - c) Kontabilitate- edo erregistro-betebeharrak nabarmen ez betetzea.
 - d) Kontabilitateko liburuak eta erregistroak edo haietan idaztoharturiko eragiketen frogagiriak desagertzea edo hondatzea, ezinbestean izanik ere.
2. Oinarriak edo etekinak ondoko bideetako bat, edo batzuk batera, aplikatuta zehaztuko dira:
 - a) Garrantzizko datu eta aurrekari ezagunak aplikatzea.
 - b) Ondasunak eta errentak zeharka frogatzen dituzten elementuak erabiltzea, bai eta kasuan kasuko sektore ekonomikoan, zerga-terminoetan alderatu behar diren ekoizpen edo famili unitateen dimentsioak kontuan hartuta, ohiko diren sarrerak, salmentak, kostuak eta etekinak ere.
 - c) Zergapekoei dagozkien magnitudeak, indizeak, moduluak edo datuak balioestea, antzeko edo balio bereko kasuetako datuen edo aurrekarien arabera.
3. Zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatu ahal denean, foru arau honetako 153. artikuluan ezarritako prozedurari lotu behar zaio.

52. Artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria zerga-oinarriari zerga bakoitzari buruzko foru arauan ezartzen diren txikipekak (bidezkoak badira) aplikatzearen emaitzako kopurua da.

53. Artikulua. Karga-tasa.

1. Karga-tasa likidazio-oinarriari kuota osoa kalkulatzeko aplika-tzen zaion kopurua, koefizienteak edo portzentajea da.
2. Karga-tasak zehatzak edo ehunekoak izan daitezke, eta zerga bakoitzari buruzko foru arauak xedatutakoaren arabera aplikatu beharko zaizkio zerga-oinarriaren unitate, unitate multzo edo tarte bakoitzari.

Zerga batean, likidazio-oinarriaren unitate edo tarteei aplikatu ahal zaien karga-tasen multzoari tarifa esaten zaio.

54. Artikulua. Zerga-kuota.

1. Kuota osoa honela zehaztuko da:
 - a) Likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuta.
 - b) Berariaz adierazitako kopuru finkoa izango da.
2. Kuota osoa kalkulatzeko foru arau honetako 48. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako zehazpen-metodoak erabili ahal izango dira.
3. Karga-tasa aplikatzearen ondorioz oinarriaren gehikuntzari gehikuntza bera baino handiagoa den kuota-zatia badagokio, kuota osoa ofizioz txikitu beharko da. Txikipenaren zenbatekoa gaindikina izan beharko da, gutxienez.

Erregela honetatik salbuetsita daude zerga-zorra efektu tinbredunen bitartez ordaindu behar den kasuak.
4. Kuota osoaren zenbatekoa zerga bakoitzari buruzko foru arauan kasu bakoitzerako ezarritako txikipenak edo mugak aplikatuta aldatu ahal izango da.
5. Kuota likidoa kuota osoari zergari buruzko foru arauan ezarritako kenkariak, hobariak, batuketak edo koefizienteak, kasuan kasukoak, aplikatuta kalkulatu da.
6. Kuota diferentziala kuota likidoari zergari buruzko arautegian ezarritako kenkariaren, zatikako ordainketen, atxikipenen, konturako sarreren eta kuoten zenbatekoak kenduta kalkulatu da.

55. Artikulua. Balioak egiaztatzea.

1. Zerga Administrazioak ondoko bideak erabil ditzake errenten, produktuen, ondasunen eta zerga-betebeharrean eragina duten gainerako elementuen balioa egiaztatzeko:
 - a) Etekinak zergaren arautegian ezarritako portzentajearen egoztearen edo kapitalizatzea.
 - b) Zergen arloko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentziatzen hartuta balioestea.

Erreferentzia bidezko balioespen hori egiteko, honako bide hau jarraitu behar da: Zerga Administrazioak zehaztu eta argitaratzen dituen koefiziente biderkatzaileak aplikatzea ondasun mota bakoitza balioesteko erreferentziatzen hartzen den zerga izaerako erregistro ofizialean dauden balioei. Ondasun higiezinak badira, zerga arloko erregistro ofizialtzat Higiezinaren Katastroa hartuko da ondasun horiek balioztatzeko koefiziente biderkatzaileak zehazteko erreferentzia izateko.
 - c) Merkatuko batez besteko prezioak.
 - d) Nazio eta atzerriko merkatuetako kotizazioak.
 - e) Administrazioaren perituen irizpena.
 - f) Aseguru kontratuen polizetan ondasunei eman zaien balioa.
 - g) Hipotekatutako finak tasatzeko esleitu den balioa, hipoteken arloko legerian aurrez ikusitako betetzeko.
 - h) Ondare beraren beste eskualdatze batzuei dagokien balio edo prezio aitortua, eskualdatze horien inguruabarrak kontuan hartuta, eta arauetan ezarritako epearen barruan egin badira.

- i) Zerga bakoitzari buruzko foru arauan zehazten den beste edozein bide.
- 2. Aurreko idatz-zatiko bideak aplikatuta egiten den balioespena baieztatzeko edo zuzentzeko perituaren tasazio kontrajarria erabil daiteke.
- 3. Balioen egiaztapena Zerga Administrazioak egin beharko du foru arau honetako 127. eta 128. artikuluetan ezarritako prozeduraren bidez, egiaztapena prozeduraren xede bakarra bada edo III. tituluaren araututako prozeduretariko batean gauzatzen bada bertako jarduketara zehatz gisa. Nolanahi ere, artikulua horietan xedatutakoa aplikatu beharko da.

IV. KAPITULUA ZERGA-ZORRA

LEHENENGO ATALA XEDAPEN OROKORRAK

56. Artikulua. Zerga-zorra.

- 1. Zerga-zorra zerga-betebehar nagusiaren edo konturako ordainketak egin beharren ondorioz sartu behar den kuota edo kopurua da.
- 2. Horrez gainera, kasu batzuetan ondokoak ere sartu behar dira zerga-zorreetan:
 - a) Berandutza-interesa.
 - b) Aitorpena epea kanpo aurkezteagatik errekargua.
 - c) Ordainarazpen-aldiko errekarguak.
 - d) Legez eska daitezkeen oinarrien edo kuoten gaineko errekarguak, Foru Ogasunarentzat edo beste entitate publiko batzuentzat direnak.
- 3. Legez eska daitezkeen oinarrien edo kuoten gaineko errekarguak, Foru Ogasunarentzat edo beste entitate publiko batzuentzat direnak.

57. Artikulua. Zerga-zorra azkentzea.

- 1. Zerga-zorrak ordainketa, preskripzioa, iraungipena, konpentsazioa edo barkamena dela bide azken daitezke, bai eta legezko xedapenetan ezarritako gainerako bideen bitartez ere.
- 2. Zerga-zorra ordaintzeak, konpentsatzeak edo barkatzeak ordaindu, konpentsatu edo barkatutako zenbatekoa baizik ez du kitatuko.

BIGARREN ATALA ORDAINKETA

58. Artikulua. Nola ordaindu.

- 1. Zerga-zorra eskudirutan ordaindu behar da. Erregelamenduz xedatzen den kasuetan efektu tinbredunen bitartez ordaindu ahal izango da.
- 2. Aparteko kasuetan, Zerga Administrazioak zerga-zorra borondatezko edo ordainarazpen-aldian gauzaz, edozein ondasun edo eskubide emanda, ordaintzea onartu ahal izango du.
- 3. Zerga-arautegian zerga-zorra eskudiruz edo gauzaz ordaintzeko bideak eta moduak arautuko dira, bai eta ordainketa teknika eta bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez egiteko betekizunak eta baldintzak ere.

59. Artikulua. Ordainketa-unea.

1. Zerga-zorra eskudirutan ordaindutzat hartuko da zenbatekoa organo eskudunen edo hura onartzeko baimena duten erakundeen kutxetan sartzen denean.
2. Efektu tinbredunik erabiliz gero, arauz zehazten den bezala erabiltzen direnean emango da ordaindutzat zerga-zorra.
3. Gauzazko ordainketak arautegian ezarritako unean azkenduko du zerga-zorra.

60. Artikulua. Zerga-zorra ordaintzeko epeak.

1. Zerga-zorrak borondatezko aldian ordaintzeko epeak honako hauek dira:
 - a) zerga bakoitzaren araudiak ezarritako autolikidazio baten ondoriozkoak.
 - b) Administrazioak jakinarazpenaren egunetik hilabeteko epean egindako likidazioaren ondoriozkoak.
 - c) Honako eskaera hauek ukatzearen ondorioz eska daitezkeenak: ordainketa geroratzeara edo zatikatzeara, alderdi batek eskatuta konpentsatzea, ondasunak edo eskubideak zorra ordaintzeko ematea edo diru-bilketako prozedura etetea, borondatez ordaintzeko epean aurkeztuta, hamabost egun naturaleko epean, jakinarazpena egiten den egunetik hasita.
 - d) Beste estatu batzuen edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeek titulartasuneko zorrak ordaintzeko errekerimendua egingo zaio zergapekoari, zor horien bilketa elkarrekiko laguntzaren esparruan gauzatzen bada. Zergapekoak hilabeteko epea du, betearazpen-tresna jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, elkarrekiko laguntza arautzen duen arauak aukera ematen duenean, Zergen Administrazioak diru-bilketako jarduketak egin ahal izango ditu eskaera egin duen estatuak edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeak kobratzeko eskaera jasotzen duenetik, paragrafo honetan aipatzen den epea amaitu gabe.
 - e) Aldizkako kobrantzaren eta jakinarazpen kolektiboaren likidazioen ondoriozkoak, erregelamendu bidez ezarritako epeetan.
 - f) Zerga-egitatea gauzatzen den unean tinbratutako efektuen bidez ordaindu beharrekoak, araudi espezifikoan beste eperik ezartzen ez bada.
2. Efektu tinbredunen bitartez ordaindu behar direnak zerga-egitatea burutzen den unean ordaindu behar dira, berriazko arautegian besterik xedatu ezean.
3. Ordainarazpen-aldia hasi eta premiamendu-probidentzia jakinarazi ondoren, jakinarazpena egiten denetik hilabeteko aparteko epealdian ordaindu beharko da zerga-zorra.

Epealdi horretan zorra osorik ordaintzen ez bada edo ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen ez bada, ordaindu gabeko zorra zordunaren ondarearekin ordainaraziko da.

Hala ere, ordainarazpen-aldia hasi ondoren eta apartatu honen lehenengo paragrafoan aipatutako hilabeteko aparteko epealdia igaro baino lehen aurkeztu den ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, alderdi batek eskatuta konpentsatzeko, ondasunak edo eskubideak zorra ordaintzeko emateko edo bilketa-prozedura eteteko eskaera ukatzearen ondorioz eska daitezkeen zerga-zorrak bost egun naturaleko aparteko epealdian ordaindu beharko dira, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

Exekuzioa berehalakoa izango da eta ez da aplikatuko aurreko paragrafoan aipatutako aparteko epea apartatu honen lehen paragrafoan aipatutako hilabeteko aparteko epealdia igaro ondoren aurkeztu den ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, alderdiak eskatuta

konpentsatzeko, ondasunak edo eskubideak zorraren ordainean emateko edo diru-bilketako prozedura eteteko eskaera bat ukatzen denean.

61. Artikulua. Ordainketak egozteak.

1. Zerga-zorrek autonomoak dira. Hainbat zor dituen zergapekoak askatasuna izango du ordainketa bakoitza berak nahi duen zorrari egozteko.
2. Geroago muga eguneratzen den zor bat kobratzeak ez du azkenduko Zerga Administrazioak kobratu ez dituen aurrekoak jasotzeko duen eskubidea.
3. Derrigorrez ordainarazten bada, ofizioz konpentsatzen bada eta zergapeko baten hainbat zerga-zor pilatzen badira eta osorik azkendu ezin badira, Zerga Administrazioak Herri Ogasunaren interesei babesik handiena ematen dien irizpidearekin bat etorritik aplikatuko du ordainketa (hurrengo paragrafoan salbuespena xedatu da).
4. Administrazio baten eta haren menpeko Zuzenbide Publikoko beste erakunde batzuen aldeko hainbat zerga-zor pilatzen badira, administrazioari dagozkienak kobratuko dira lehenik, kapitulu honetako 5. atalean xedatutakoa kontuan harturik.

62. Artikulua. Ordainketarako zainpeketa.

Zergapekoek zerga-zorraren zenbatekoa eta, hala denean, Herri Ogasunean arauz sorturiko kostuak zainpetu ahal izango dituzte, eta horrek arauzko xedapenetan zehaztutako askatze-edo etendura-ondoreak izango ditu.

63. Artikulua. Ordainketaren gerorapena eta zatikapena.

1. Borondatezko aldian edo ordainarazpen-aldian dauden zerga-zorrek arauz finkatzen denaren arabera geroratu edo zatikatu ahal izango dira, zergapekoak eskatuta, baldin eta beraren ekonomiaren eta finantzen egoera dela eta ezarritako epeetan ordaindu ezin badu.
2. Efektu tinbredunen bitartez ordainarazten diren zergazorrek ezin izango dira geroratu ez zatikatu, ezta jokoaren gaineko zergen ondoriozkoak ere.

Era berean, zergapekoaren konkurtsoa gertatuz gero, ezingo dira geroratu ez zatikatu konkurtsoari buruzko legediaren arabera masaren aurkako kreditutzat jotzen diren zerga-zorrak.

Ez dira onartuko, beraz, paragrafo honetan aipatzen diren geroratze edo zatikatze eskabideak.

3. Geroratu edo zatikatzen diren zorrek arauz ezarritakoaren arabera bermatu beharko dira. Era berean, zergapekoa bermeak eratu beharretik erabat edo partzialki askatu ahal izango den kasuak eta baldintzak garatuko dira, eta Zerga Administrazioari bermeak aurkeztu aurretik balioesteko noiz eskatu ahal izango zaion adieraziko da.
4. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea borondatezko aldian aurkeztzen bada, ordainarazpen-aldia hastea eragotziko da baina ez berandutza-interesa sortzea.

Ordainarazpen-aldian, eskabideak zergapekoari enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia jakinarazi arte aurkeztu ahal izango dira. Gerorapena edo zatikapena izapidetzen den bitartean Zerga Administrazioak premiamendu-prozedura hasi ahal izango du edo, behar denean, berriro ekin ahal izango dio. Alabaina, enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketak gerorapena edo zatikapena ukatzen duen ebazpena jakinarazi arte eten beharko dira.

5. Aurreko zenbakietan ezarritakoa berdin aplikatuko da beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeen titulartasuneko kredituak direla-eta kredituok kobratzeko

eskaera jasotzen denean, salbu eta elkarren laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean.

HIRUGARREN ATALA PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA

LEHENENGO AZPIATA LAARAU OROKORRAK

64. Artikulua. Preskribitu eta iraungiko dena.

1. Zerga Administrazioak zerga-zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala erabiltzeko epea preskribatu eta iraungi egin daiteke.

Alabaina, Zerga Administrazioak jarraian azalduko direnen egoera, nondik norakoa eta zenbatekoak zein diren zehazteko egiaztapen eta ikerketa jarduketak burutu ahal izango ditu: zerga-oinarri negatiboena, kuotako kenkariena, zergak jasanarazteko mekanismoa ezarrita duten zergetan konpentsatzeko edo itzultzeko diren kuotena, eta zergapekoek konpentsatu, kendu, itzuli edo gozatu nahi dituzten zerga-kredituena, haietarako eskubidea sortu den ekitaldia edozein dela ere.

Halaber, Zerga Administrazioak jarduketak egin ahal izango ditu egitateak, egintzak, jarduerak, ustiapenak eta negozioak egiaztatu eta ikertzeko, atal honetan araututako preskripzioa edo iraungipena gertatu den ekitaldietan edo zergaldietan gertatu, egin, garatu edo formalizatutakoak badira eta zerga-ondorioak sortu behar badituzte preskripzio edo iraungipen hori gertatu ez den ekitaldi edo epeetan.

Jarduketa horiek ezin dute ekarri dagozkien ekitaldiei begirako zerga-likidaziorik, zenbaki honetan jasotako Zerga Administrazioaren ahala preskribatu eta iraungi bada; baina, hala ere, ohartarazi beharko dute ekitaldi horietan badirela kalte-ordainerako, aplikaziorako edo itzulketarako eskubidea sortzeko beharrezkoak diren egitatezko baldintzak edo aurreko paragrafoan aipatutako egitate, egintza, jarduera, ustiapen eta negozioei dagozkien elementu garrantzitsuak.

2. Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatzen dira. Hori dela eta, Administrazioak likidazio egokiaren bitartez zerga-zorra zehazteko duen ahalmena ezin izango da preskripzioa edo iraungipena gertatu ostean erabili.
3. Zerga Administrazioak likidatuta eta autolikidatuta dauden zerga-zorren ordainketa eskatzeko duen ahala preskribitu egin daiteke.
4. Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuen itzulketak eskatu eta eskuratzeko zergapekoek dituzten eskubideak ere preskribitu egin daitezke.

65. Artikulua. Preskripzioaren eta iraungipenaren hedapena eta ondoreak.

1. Zerga-zorren preskripzioak edo iraungipenak hein bereko onura ekarriko die hura ordaindu behar duten guztiei, foru arau honetako 69. artikuluko 8. zenbakian betebeharrak mankomunatueterako xedatutako kasuan izan ezik.
2. Preskripzioak eta iraungipenak zerga-zorra azkenduko dute eta ofizioz aplikatuko dira, are zorra dagoeneko ordainduta dagoenean ere.

66. Artikulua. Preskripzioaren eta iraungipenaren ondoreak betebeharrak formaletan.

1. Hurrengo idatz-zatietan xedatutako salbuespenekin, zergapeko baten beste zerga-betebeharrak batzuei lotutako betebeharrak formalak haiek zehazteko ahalaren preskripzio-epea edo iraungipen-epea amaitu ez bada bakarrik eskatu ahal izango dira.

2. Beste pertsona edo erakunde batzuen zerga-betebeharrak betetzeko, idatz-zati honetan aipatutako informazioaren artapenaren eta hura ematearen inguruko betebeharrak merkataritzari buruzko arautegian ezarritako epean bete behar dira, edo betebeharrak formalak bete behar diren epean (aurreko idatz-zatian aipatu da), bestea baino luzeagoa bada.

Aurreko paragrafoan aipatutako informazioaren artapenaren eta hura ematearen inguruko betebeharrak hauexek dira:

- a) Kontabilitate-liburuak eta erregistroak, haien euskarri diren programak, fitxategiak eta artxibo informatikoak eta, sistema informatikoak erabiltzen badira, datuak interpretatzea ahalbidetzen duten kodeketa-sistemak eduki eta artatu beharra. Betebeharrak horretan sartzen dira, gainera, enkriptatuta edo kodetuta dauden datuak irakurri eta ulertu ezin direnean irakurtzeko moduko formatu batera pasatzeko bitartekoak.
 - b) Aurkeztutako kontabilitate-orrien, autolikidazioen edo aitortzen jatorrizko datuekin sortutako programen, fitxategien eta artxiboen kopia gorde beharra, zergapekoek bitarteko telematikoen bidezko autolikidazio edo aitortzen aurkeztu behar dituztenean.
 - c) Fakturak edo ordezkariak luzatu eta eman beharra eta zerga-betebeharrekin lotutako fakturak, agiriak eta frogagiriak gorde beharra.
 - d) Zerga Administrazioari, berak eskatuta edo aldiakaitzko aitortzen, honakoak eman beharra: zergapekoak bere eta gainontzekoen zerga-betebeharrak betetzeko gorde behar dituen liburuak, erregistroak, agiriak eta informazioa, eta zerga-ordainketan garrantzia duten datuak, txostenak, aurrekariak eta frogagiriak.
3. 64. artikuluko 1. zenbakiko bigarren eta hirugarren paragrafoetan xedatutakoaren ondorioetarako, zerga-zorraz zehazteko ahala preskribatu edo iraungi den zergaldietan egindako eragiketei dagozkien datuen jatorria frogatu behar indarrean iraungo du ahalaren preskripzio- edo iraungipen-epean zehar, aipatutako eragiketek ondorioak sortu behar dituzten zergaldiei dagokienez.

BIGARREN AZPIATALA PRESKRIPZIOA

67. Artikulua. Preskripzio-epea.

Foru arau honetako 64. artikuluko 1., 3. eta 4. idatz-zatietan aipatutako administrazioaren ahalak eta zergapekoen eskubideak lau urteren buruan preskribitu dira.

68. Artikulua. Preskripzio-epeen konputua.

1. Preskripzio-epea ondoko erregela hauen arabera hasiko da zenbatzen:
- a) Zerga-zorraz likidazioaren bitartez zehazteko ahalaren kasuan, aitortzen edo autolikidazioa aurkezteko arauko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da.

Aldizka ordainagiri bidez kobratzen diren tributuen kasuan, zerga-zorraz dagokion likidazioaren bidez zehazteko ez bada beharrezkoa aitortzen edo autolikidazioa aurkeztea, preskripzio-epea tributuen sortzapen-egunetik hasiko da.
 - b) Likidatu eta autolikidaturiko zerga-zorraz ordaintzeko eskatzeko ahala zerga-zorraz borondatezko aldiak ordaintzeko epea buka-tzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da, artikuluko honetako 2. idatz-zatian xedatutakoa eragotzi gabe. Epea kanpo autolikidaturiko zerga-zorraz kasuan, aurkezten diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da.

- c) Zergapekoek zergaren arautegiaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko eskubidearen preskripzio-epea egun honetatik aurrera zenbatuko da: zergaren arautegiaren arabera itzulketa eskatzeko epea bukatzen den egunaren biharamuna edo, epe hori ezarri ezean, itzulketa eskatu ahal den egunaren biharamuna; bidegabeko sarrera egin den egunaren biharamuna edo autolikidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamuna; edo inpugnatutako egintza erabat edo partzialki bidegabetzat jotzen duen administrazioaren ebazpena edo epaia irmo bihurtzen den egunaren biharamuna.

Eragiketa bat hainbat bateraezinak diren hainbat zergak karga-tzen badute, bidegabe sartutako kopuruaren itzulketa eskatzeko eskubidearen preskripzio-epea organo eskudunak bidezko zerga zein den erabakitzeke ebazpena ematen duenean hasiko da zenbatzen.

- d) Zergapekoek zergen arautegien arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa jasotzeko eskubidearen preskripzio-epea egun honetatik aurrera zenbatuko da: zergaren arautegiaren arabera itzulketa jasotzeko eskubidea onartzen duen erabakia hartzeko ezarritako epea bukatzen den egunaren biharamuna edo bidegabe sartutako kopuruen edo bermeen kostuaren itzulketa jasotzeko eskubidea aintzatesten duen erabakia jakinarazten den egunaren biharamuna.

- 2. Erantzule solidarioei ordaindu beharra eskatzeko ahalaren preskripzio-epea zordun nagusiak borondatez ordaintzeko aldia amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da.

Hala ere, baldin eta erantzukizunaren oinarri diren egitateak aurreko paragrafoan jarritako epearen ostean gertatzen direnean, preskripzio-epe hori egitateok gertatzen diren unean abiaraziko da.

Erantzule subsidiarioen kasuan, preskripzio-epea zordun nagusiari edo erantzule solidarioetako bati zergak biltzeko azken jarduketa jakinarazten zaionetik hasiko da konputatzen.

69. Artikulua. Preskripzio-epeak etetea.

- 1. Zerga-zorra likidazio egokiaren bitartez zehazteko ahalaren preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:
 - a) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, berrmatzeko edo likidatzeko ekintza bat egiten duenean, nahiz eta hasiera batean ekintza hori beste zerga-betebehar bati zuzendurik abiatzen bada, zergapekoaren autolikidazio oker baten ondorioz.
 - b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; erreklamazio edo errekurtsoren bidean jarduketak egiten direnean, zergapekoari formalki jakinarazita; Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; zigor-jurisdikzioari erruduntasun-testigantza bidaltzen zaionean edo fiskaltzari salaketa aurkezten zaionean; jurisdikzio-organok batek aribideko administrazio-prozedura gelditzeko emandako agindua jasotzen denean.
 - c) Zergapekoak zerga-zorra likidatzeko edo autolikidatzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.
- 2. Likidatutako eta autolikidatutako zerga-zorrak ordainarazteko ahalaren preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:
 - a) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga-zorra biltzeko ekintza bat egiten duenean.

- b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; erreklamazio edo errekurtsoren izapideetan jarduketak egiten direnean, zergapekoari formalki jakinarazita; Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; zordunak konkurtso-adierazpena egiten duenean edo zerga-zorra kobratzeko ekintza zibilak edo penalak egiten direnean; jurisdikzio-organo batek aribideko administrazio-prozedura gelditzeko emandako agindua jasotzen denean.
 - c) Zergapekoak edo gainontzeko batek, haren kontura eta hura jakinaren gainean dagoela, zerga-zorra aintzatesteko, ordaintzeko edo azkentzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.
3. Zergapekoek zerga-arautegietan ezarritakoaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketak eskatzeko eskubideen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:
- a) Zergapekoak bere autolikidazioa itzultzeko, berreskuratzeko edo zuzentzeko ekintza sinesgarri bat egiten duenean.
 - b) Zerga Administrazioak eskubideak aintzatesteko, itzultzeko edo berreskuratzeko ekintza bat egiten duenean.
 - c) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen, izapidetzen edo ebazten denean.
4. Zergapekoek zerga-arautegian ezarritakoaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketak eskatzeko eskubidearen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:
- a) Zerga Administrazioak kopuru bat itzultzeko edo berreskuratzeko ekintza bat egiten duenean.
 - b) Zergapekoak kopuru baten itzulketa edo berreskurapena eskatzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.
 - c) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen, izapidetzen edo ebazten denean, edo Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean.
5. Aurreko zenbakietan zehazten diren jarduketek nahiz horien antzekoek preskripzioa etengo dute, baldin eta beste estatu batean egiten badira elkarren laguntzaren esparruan, nahiz eta egintza horiek ez sortu antzeko eten-ondoriorik egintzok benetan egiten diren estatuan.
6. Preskripzio-epea eten ostean, berriz hasiko da konputatzen, hurrengo zenbakian ezarritako salbuespenarekin.
7. Preskripzio-epea administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean errekurtsua jartzeagatik, ekintza zibilak edo penalak abiarazteagatik, eskudun jurisdikzioari erruduntasun-testigantza bidaltzeagatik, Fiskaltzari salaketa aurkezteagatik edo prozedura gelditzeko epailearen jakinarazpena jasotzeagatik eteten bada, berriz hasiko da konputatzen Zerga Administrazioak prozesu judiziala azkentzen duen edo geldiarazpena kentzen duen ebazpen irmoa jasotzen duenean, edo Fiskaltzaren jakinarazpena jasotzen duenean itzulitako espedientearekin batera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ezin izango zaio aplikatu Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahalaren preskripzio- epeari, administrazioarekiko auzibidean etetea erabaki ez bada.

Preskripzio-epea zordunaren konkurtso-adierazpenak eteten badu, konkurtsoa bukatutzat ematen duen ebazpen judiziala irmo bilakatzean hasiko da berriz konputatzen. Ez bada hitzarmenik onartzen, preskripzio-epea hura onartzean berrabiaraziko da, haren pean ez dauden zerga-zorrentarako. Hitzarmen konkurtsalari lotuta dauden zerga-zorrei

dagokienez, preskripzio-epea zordunari eskatu ahal zaizkionean hasiko da berriz konputatzen. Preskripzio-epea Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezteagatik eteten bada, hark hartutako erabakiaren jakinarazpena jasotzen den unean hasiko da berriz zenbatzen.

8. Preskripzio-epea zergapeko batentzat eteten bada, gainerako zergapekoentzat ere etengo da, erantzuleak barne. Hala ere, betebeharra mankomunatua bada eta zergapekoetako bati bakarrik eskatzen bazaio berari dagokion zatia, epea ez da besteentzat etengo.
9. Ordaintzera behartuta dagoen bati hainbat zor likidatu bazaizkio, preskripzio-epea eteteak administrazio-jarduketak aipatzen duen zorra baizik ez du ukituko.

Zordun nagusiari edo arduradunetari bati dagokion preskripzioepearen zenbaketa eteteak, zeina Foru arau honen 68. artikularen 1. zenbakiaren b) letran jasotzen baita, eragin bera du solidarioki ordaintzeko betebeharra duten gainerakoengan, baina, hala ere, berdin jarrai dezakete aurrera kasuan-kasuan haien aurkako kobratze-ekintzek.

10. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako ahalak erabiltzeko preskripzio-epea errekurso edo erreklamazio bat aurkezteagatik eteten denean, zergapekoak aurkeztutako errekursoa edo erreklamazioa osorik baietsi eta ondorioz administrazio-egintzaren elementuak osorik deuseztatzen badira, epea ez da etentzat joko
11. Foru arau honetako 64. artikuluko 1. zenbakian aipatzen den zerga-betebehar jakin batzuei dagokienez Zerga Administrazioak duen ahalaren preskripzio- epea eteteak ondorio hauek izango ditu ere: batetik, Zerga Administrazioaren ahal beraren preskripzio-epea etetea eta, bestetik, zergapekoak tributu bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketak, sarrera bidegabeen itzulketak eta zergapekoaren zerga-betebehar lotuei dagozkien bermeen kostuen itzulketa eskatzeko duen eskubidearen preskripzio-epea etetea, zerga-betebehar horietan tributazioa beste era batera egin behar denean, Zerga Administrazioak zein zergapekoek zerga-betebehar lotu horiei dagokien betebeharraren erregularizazioaren oinarri diren irizpideak edo elementuak aplikatzearen ondorioz.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kasu honetan ulertuko da zerga-betebeharra lotua dela: haren elementuetakoren bat beste betebehar edo beste aldi baten eraginpean dagoenean edo beste betebehar edo aldi horiei dagozkien elementuen arabera zehazten denean.

HIRUGARREN AZPIATALA IRAUNGIPENA

70. Artikulua. Iraungipen-epea.

Zerga-zorra likidazioaren bitartez zehazteko administrazioaren ahala sei urteren buruan iraungiko da.

Hala ere, iraungipenak ez ditu ukituko zergapekoak zerga-arautegiaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren berreskurapena lortzeko duen eskubidea aintzatesteko beharrezkoak diren likidazio-egintzak eskubide horiek preskribitu gabe dauden artean.

71. Artikulua. Iraungipen-epeen konputua.

Aurreko artikuluan aipatutako ahalaren iraungipen-epea aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

72. Artikulua. Iraungipen-epea etetea.

1. Iraungipen-epearen konputua kasu hauetan etengo da:
 - a) Administrazioarekiko auzi-errekurso bat jartzen denean.

- b) Berraztertze-errekurtso bat, administrazioarekiko diru-erreklamazio bat jartzen denean edo peritu-tasazio kontrajarri bat eskatzen denean.
 - c) Ekonomia Itunean jasota dagoen Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean.
 - d) Zigor-jurisdikzioari erruduntasun-testigantza bidaltzen zaionean, Fiskaltzan salaketa aurkezten denean eta burutzen ari den administrazio-prozedura bat geldiarazteko agintzen duen jurisdikzio- organoaren jakinarazpena jasotzen denean.
 - e) Laguntzarako eskaera jasotzen denean, elkarren laguntzari buruzko araudiaren esparruan.
2. Halaber, iraungipen-epearen konputua eten egingo da foru arau honetako III., IV. eta V. tituluetan araututako prozeduretan zergapekoari egotz dakizkiokeen luzapentzat hartzen diren aldietan.

Iraungipen-epea eteten bada berraztertze-errekurtso bat edo administrazioarekiko diru-erreklamazioa aurkeztu delako edo peritu-tasazio kontrajarri bat eskatu delako, ebazpena ematen denean hasiko da berriro zenbatzen epe hori, kasu bakoitzean ebazpena emateko ezarritako gehieneko epeak igaro ez badira. Izan ere, epe hori igaro bada, gehieneko ebazpen-epea muga-eguneratu eta biharamunean jarraituko da zenbatzen. Iraungipen-epea eten bada Ekonomia Itunean ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkeztu zaiolako, haren erabakiaren jakinarazpena jasotzen den unean hasiko da berriro zenbatzen epe hori.

Iraungipen-epea eten bada laguntza jasotzeko eskaera bat egin delako elkarren laguntzari buruzko araudiaren esparruan, eskatutako laguntza beteta dagoela dioen jakinarazpena jasotzen denean hasiko da berriro zenbatzen epe hori.

Artikulu honen 1. zenbakian aipatzen diren prozeduren ebazpenaren ondorioz, Zerga Administrazioak beste administrazio-egintza bat eman behar duenean, hiru hilabeteko epea izango du, ebazpena ematen denetik, Administrazioak zerga- zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala erabiltzeko epea iraungi bada ere, artikulu honen 4. zenbakian ezarritako kasuan izan ezik.

- 3. Etendura gertatzen denean, iraungipen-epearen konputua geldituko da, eta berriz ekingo zaio epe hori zenbatzeari edo Zerga Administrazioak prozesu judizialari bukaera ematen dion edo geldiarazpena kentzen duen ebazpen irmoa jasotzen duenean, edo espedientea itzultzen dion Fiskaltzaren jakinarazpena jasotzen duenean. Halaber, administrazio-ahalak aipatu epetik sei urtera arteko epean erabili ahal izango dira.
- 4. Foru arau honetako 70. artikuluan aipatutako iraungipenepea ez da etentzat joko baldin eta epe hori administrazioarekiko diru-erreklamazioak edo auzi-errekurtsoak aurkezteagatik eteten bada, erreklamazio edo errekurso horiek osorik baiesten badira eta, ondorioz, administrazio-egintzaren elementuak osorik deuseztatzen badira.

LAUGARREN ATALA

ZERGA-ZORRA AZKENTZEKO BESTE ERA BATZUK

73. Artikulua. Konpentsazioa.

- 1. Zergapeko baten zerga-zorrak osorik edo partzialki azkendu ahal dira berari administrazio-egintza bidez aintzatetsitako kredituen bidez konpentsatuta, erregelamenduz ezartzen denaren arabera.
- 2. Konpentsazioa ofizioz edo zergapekoak eskatuta egingo da.
- 3. Erregelamenduz, kontu korronteko sistema bat ezarri ahal izango da eta zergapekoek euren kredituak eta zerga-zorrak haren bidez konpen-tsatzeko eskatu ahal izango dute.

74. Artikulua. Zergapekoak eskatutako konpentsazioa.

1. Zergapekoak borondatezko aldian zein ordainarazpen-aldian dauden zerga-zorrak berari aintzatetsitako kredituen bidez konpentsatzeko eskatu ahal izango du.
2. Zerga-zorra konpentsatzeko eskaera borondatezko aldian aurkezten bada, horren izapidetze-aldian aintzatetsitako kredituak estaltzen duen kopuruaren ordainarazpen-aldia eragotziko da.
3. Zerga-zorra eskaera aurkezten den unean azkenduko da edo, bestela, zorretarako eta kredituetarako ezarritako betekizunak betetzen direnean, eskaera aurkeztu ondoren gertatuz gero. Konpentsazioa egiteko erabakiak zorra azkendu dela adieraziko du.

75. Artikulua. Ofiziozko konpentsazioa.

1. Zerga Administrazioak ofizioz konpentsatuko ditu ordainarazpen-aldian dauden zerga-zorrak.

Halaber, borondatez ordaintzeko epean ofizioz konpentsatuko dira hauek:

- Egiaztapen mugatuaren prozedura edo ikuskapen-prozedura baten ondorioz sartu eta itzuli beharreko kopuruak (foru arau honetako VI. tituluaren xedatutakoaren arabera egindako likidazioak barne), edo foru arau honetako 26. artikuluko 6. zenbakian xedatutakoaren arabera likidazio bat deuseztatu ondoren beste likidazio bat egitearen ondoriozkoak.
 - Foru arau honetako 232. artikuluko 3. zenbakian eta 244. artikuluko 7. zenbakian aipatzen den ebazpena betearaztearen ondorioz sartu eta itzuli beharreko kopuruak.
2. Borondatez ordaintzeko aldia igarotakoan, ofizioz konpentsatu ahal izango dira toki-entitateek eta Zuzenbide Publikoko gainerako erakundeek Foru Ogasunarekin dituzten zerga-zorrak, mugaeguneratu, likidatu eta eskatu ahal direnak.
 3. Zerga-zorra ordainarazpen-aldia hasten den unean azkenduko da edo, bestela, zorretarako eta kredituetarako ezarritako betekizunak betetzen direnean, eskaera aurkeztu ondoren gertatuz gero. Konpentsazioa egiteko erabakiak zorra azkendu dela adieraziko du.

Artikulu honetako 1. idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritako kasuan, zorrak eta kredituak bateratzen direnean azkenduko da zerga-zorra, arauz ezarritakoaren arabera.

76. Artikulua. Zerga-zorra barkatzean.

Zerga-zorrak foru arau bidez bakarrik barka daitezke, bertan ezarritako betekizunak eta zenbatekoa kontuan harturik.

77. Artikulua. Kaudimengabeziaren ziozko behin-behineko baja.

1. Zergapekoen kaudimengabeziagatik zergak biltzeko prozeduretan ordaindu ezin izan diren zerga-zorrak kreditu kobraezin adieraziko dira, preskripzio-epearen barruan birgaitzen ez diren bitartean.
2. Preskripzio-epea mugaeguneratu arren zerga-zorra birgaitzen ez bada, iraungi egingo dira.

BOSGARREN ATALA ZERGA-KREDITUAREN BERMEAK

78. Artikulua. Lehentasun-eskubidea.

1. Herri Ogasunak mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dauden zerga-kredituak kobratzeko lehentasuna izango du beste hartzekodun batzuekin batera suertatuz gero; hala ere, badago salbuespen bat: hartzekodunek jaso beharreko jabaria, bahia, hipoteka edo bestelako eskubide erreala Herri Ogasunak bere eskubidea jasoarazi baino lehen erregistratu izana erregistro egokian. Nolanahi ere, foru arau honetako 76. eta 77. artikuluetan xedatutakoa bete behar da
2. Konkurtso-prozedurek ukitutako zerga-kredituak, are konturako ordainketak egin beharraren ondoriozkoak ere, konkurtsoei buruzko legerian ezarritakoari lotu beharko zaizkio.
3. Beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeen titulartasuneko kredituek ez dute lehentasunik izango zuzenbide publikoko beste kreditu batzuen aurretik, ez eta atal honetan ezarritako gainerako bermeen aurretik ere, salbu eta elkarren laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean eta 81. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

79. Artikulua. Isilbidezko legezko hipoteka.

Erregistro publikoetan erregistratu ahal diren ondasunak edo eskubideak edo beraien zuzeneko produktuak, egiazkoak zein ustezkoak, aldizka kargatzen dituzten zergetan, Herri Ogasunak lehentasuna izango du gainerako hartzekodun edo eskuratzaille guztien aldean, nahiz eta hauek euren eskubideak erregistratuta eduki, ordainketa eskatzen den egutegiko urtean eta aurrekoan sortu eta ordaindu ez den zorra kobratzeko.

80. Artikulua. Ondasun-lotura.

1. Legezko xedapen bidez zerga-zorra ordaintzeari lotutako ondasunen eskuratzailleek haiekin erantzungo dute modu subsidiarioan, zerga-ekintzaren deribazioa dela bide, zorra ordaintzen ez bada.
2. Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak horrelako eskualdaketak, eskuraketak eta inportazioak kargatzen dituzten zergei dagozkien kopuruak, likidatuak zein likidatugabeak, ordaintzeko erantzukizunari lotuta geratuko dira, dena dela edukitzailea. Dena den, salbuespenak daude: bata edukitzailea erregistro-fede publikoak babestutako gainontzekoa izatea da eta bestea, erregistratu ezin diren ondasun higikorrei dagokiena, ondasunak fede onez eta titulu zuzenez merkataritza edo industriako establezimendu batean eskuratu direla frogatzea.
3. Foru arau bidez zerga-onuraren bat ematen bada eta behin betiko eraginkortasuna izateko zergapekoak foru arau horretan ezarritako betekizunak bete behar baditu, Zerga Administrazioak zerga-onura izan ezean egin beharko zen likidazioaren zenbateko osoa agerrarazi ahal izango du, eta erregistro publikoen titularrek bazterreko lotura-oharrean agerraraziko dute.

Geroago, Administrazioaren egiaztapen-jarduketan ondorioz, aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko likidazioaren emaitzako zenbatekoa handiagoa bada, Zerga Administrazioak erregistratzaile eskudunari jakinaraziko dio, zenbateko hori bazterreko lotura-oharrean agerraraz dezan.

81. Artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Zerga-zorren kobrantza zapuztu daitekeela edo kobratzeko eragozpen handiak izango direla pentsatzeko zentzuzko zantzurik badago, Administrazioak behin-behineko kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu kobratuko dela bermatzeko.

Kautelazko neurria interesdunari jakinarazi behar zaio eta jakinarazpenean zergatik hartu den azaldu behar zaio.

Elkarren laguntzaren esparruan, kautela-neurriak hartzea eskatzen bazaio Zerga Administrazioari, eskaera egin duen estatuaren edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundearen dokumentuak, zeinak kautela-neurriok hartzea ahalbidetzen duen, ez du beharko aitorpen-, gehitze- edo ordezen-egintzarik.

2. Neurria saihestu nahi den gaitzaren proportziozkoa izan behar da eta beraren zenbatekoa zorra kobratzea ziurtatzeko bestekoa izan behar da gehienez. Inolaz ere ez da aplikatuko kalte konponezina edo konpongaitza ekar dezakeen neurririk. Zergapekoak ordaindu beharko du zorra borondatezko ordainketa-aldian ez ordaintzeagatik hartu beharreko neurriek eragindako kostuen zenbatekoa.
3. Hauexek dira kautelazko neurriak:
 - a) Zerga-itzulketen ordainketa edo Zerga Administrazioak egin beharreko beste ordainketa batzuk atxikitzea.
 - b) Ondasun eta eskubideen prebentziozko enbargo; behar izanez gero, prebentziozko idaztoharra egingo da.
 - c) Ondasunak edo eskubideak besterentzeko, kargatzeko edo baliatzeko debekua.
 - d) Legez ezarritako beste edozein neurri.
4. Kautelazko neurriak zerga kudeaketako prozedura, ikuskapen-prozedura edo bilketa-prozedura baten edozein unetan aplika daitezke. Kautelazko neurriak hartzeko erabakien aurkako berraztertze-errekurtsoak eta erreklamazio ekonomiko- administratiboko errekurtsoak aurkeztu daitezke.
5. Kautelazko neurrien ondorioak neurriok hartu eta sei hilabetera iraungiko dira, ondokoetako bat gertatu ezean:
 - a) Premiamendu-prozeduran enbargo bihurtzea, 7. zenbakian aipatutako neurri bihurtzea edo epailearen kautelazko neurri bihurtzea; kasu hauetan, kautelazko neurria hartu den egunetik izango dituzte ondorioak.
 - b) Neurria hartu beharra ekarri zuten inguruabarrak desagertzea.
 - c) Interesdunak eskatuta, haien ordezkariak den beste berme bat jartzeko erabakia hartzea.

Nolanahi ere, zergapekoak kautelazko neurriaren zenbatekoa kobratuko dela bermatzen duen abal solidarioa (kreditu-erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batena) edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria aurkezten badu, kautelazko neurria kendu egin beharko da.

- d) Epe hori erabaki arrazoituaren bidez luzatzea (sei hilabete gehienez).
- e) Foru arau honetako 251. artikuluan jasotako prozedura izapidetzen den bitartean edo prozedura hori amaitu ondoren hartzea neurriak. Kasu hauetan, neurriak hartu eta hogeita lau hilabeteko epean amaituko dira ondorioak.

Foru arau honetako 251. artikuluan jasotako izapidetzea hasi baino lehen hartu badira, foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den likidazioa egin ondoren, erabaki arrazoituaren bidez luzatu ahal izango da epe hori, baina hartutako neurrien luzapena, guztira, hamazortzi hilabetekoa izango da gehienez.

Letra honetan aipatutako neurriak enbargo bihurtu ahal izango dira egindako likidazioa kobratzeko hasitako premiamendu-prozeduran. Neurriak hartu ondoren, zigor arloko organo judizial eskudunari Zigor Kodeko 305. artikuluko 5. zenbakian jasotako etetea eskatzen bazaio, hartutako neurriak Fiskaltzari eta aipatutako organo judizialari jakinaraziko zaizkie, eta bere horretan eutsiko zaie neurrioi, harik eta organo judizialak erabaki arte neurriak mantendu edo kenduko egin behar diren.

6. Establezimendurik gabe irabazizko jarduera bat egiten bada eta aitortzen ez bada, horregatik eskatu beharreko zerga-zoraren ordainketa bermatzeko behar beste diru eta merkatugai prebentzioz enbargatzea erabaki daiteke. Halaber, Zerga Administrazioari aurretik aitortu ez zaizkion ikuskizun publikoen ondoriozko sarrerak prebentzioz enbargatzea erabaki ahal izango da.
7. Ogasun Publikoaren aurkako deituaren ondoriozko salaketa edo kereila bat formalizatu denean, edo prozedura judizial bat bideratu halako delitu batengatik, foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den likidazioa eman gabe, artikulua honetan ezartzen diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira salaketan edo kereilan zuzeneko arduradun nahiz arduradun subsidiario izan litezkeen artean identifikatzen diren subjektuetariko edozeinentzat, Zigor Kodeko 126. artikuluan aipatzen diren zenbatekoen ordaintzaile izan daitezkeen heinean.

Zerga Administrazioaren barruan eskumena duen organoak kautelazko neurriak hartuz gero, horren berri emango zaie interesdunari, Fiskaltzari eta arlo horretan eskumena duen organo judizialari, eta bere horretan eutsiko zaie neurrioi, harik eta organo judizialak erabaki arte ea jurisdikzio-neurri bilakatuko diren edo neurriok kenduko dituen.

8. Ogasun Publikoaren aurkako delituei buruzko prozesuetan, Zerga Administrazioak ikertzeko eskumena izaten jarraituko du, agintaritzaren ikuskaritzapean, hala arakatzeko zer ondarek izan lezakeen harremana delituari loturik dauden diru kopuruen ordainketarekin.

Horretarako, foru arau honen 92., 93. eta 166. artikuluetan xedatzen diren eskumenak erabili ahal izango ditu, delituarekin zerikusia duten pertsonen ondare-egoerari buruzko txostenak egin, eta artikulua honetan xedatzen diren kautelazko neurriak hartu.

Berehala eman beharko dio zigor arloko epaileari jarduera, gorabehera eta ikerketon emaitzen berri, eta hark berretsi, aldatu edo kenduko ditu lehen harturiko neurriak.

III. TITULUA TRIBUTUEN APLIKAZIOA

I. KAPITULUA PRINTZPIO OROKORRAK

LEHENENGO ATALA ZERGA-PROZEDURAK

82. Artikulua. Tributuen aplikazio-eremua.

1. Tributuen aplikazio-eremuan ondokoak sartzen dira: Zerga Administrazioak zergapekoei informazioa eta laguntza emateko egiten dituen jarduerak eta tributua kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dituenak, eta zergapekoek euren eskubideez baliatzean edo euren zerga-betebeharrak betetzeko egiten dituzten jarduketak.
2. Tributuen aplikaziotzat jotzen da, halaber, aurreko zenbakian aipatzen diren Administrazioaren jarduerak eta zergapekoen jarduketak egitea, elkarren laguntzaren esparruan egiten badira.

Zerga Administrazioak, agintaritza eskudunaren bidez, laguntza eska dezake eta, era berean, elkarren laguntza emango du, informazioa trukatzeko, kredituen bilketa egiteko edo laguntza horri buruzko araudian aurrez ikusitako beste helburu batzuetarako; gainera, beste estatu batzuetako agintari eskudunekin batera, aldibereko kontroletan parte hartu ahal izango du, elkarren laguntzari buruzko araudian ezarritako baldintzetan.

Beste estatu batzuei laguntzeko jarduketak egiten diren bitartean bertan egon daitezke edo komunikaziorako bitarteko elektronikoak erabiliz partaide izan daitezke Estatu eskatzaileak izendatutako funtzionarioak, baldin eta aldez aurretik agintaritza eskudunak baimena eman badu edo estatuen artean hala adostu bada.

Beste estatu batzuetako funtzionarioek dagokien araudiarekin bat etorritik jardungo dute Bizkaiko Lurralde Historikoan; hala ere, aplikatu beharrekoa den elkarren laguntzari buruzko araudia ere aplikatuko da, arauz ezartzen diren baldintzetan.

Era berean, Zerga Administrazioak izendatutako funtzionarioak beste estatu batzuetan egon ahal izango dira edo komunikaziorako bitarteko elektronikoak erabiliz partaide izan agintaritza eskudunak egindako laguntza-eskaeren esparruan, eta elkarren laguntzari buruzko araudian ezarritako baldintzetan jardun ahal izango dute.

Zerga Administrazioak agintaritza eskudunaren bitartez beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gairako erakundeekin elkarren laguntzari buruzko araudiaren arabera egiten dituen komunikazioak kasu bakoitzean laguntza arautzen duen araudian ezarritako bitartekoen bidez egingo dira. Araubide espezifikorik ezean, komunikazioetarako bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliko dira lehentasunez.

3. Tributuen aplikazioa bereiztu egin behar da Zerga Administrazioak ematen dituen egintzen aurka aurkeztzen diren administrazioarekiko diru-erreklamazioak ebaztetik.
4. Tributuak kudeaketa, ikuskapen eta bilketako administrazio-prozeduren eta titulu honetan ezarritako gainerako jarduketan bidez aplikatuko dira.
5. Kontzertu Ekonomikoan eta foru arau honetan ezarritakoa eragotzi gabe, zergapekoek eskuduna ez beste zerga administrazio baten aurrean egiten dituzten jarduketek ez dute ondorerik izango.
6. Aldibereko kontrolak dira beste estatu batekin edo batzuekin adosturik egindako jarduketak, parte hartzen duten estatuentzat interes komuneak edo interes osagarrikoak diren pertsonak edo entitateak direla-eta lortutako informazioa trukatzeko egiten direnak.

Zerga Administrazioak parte hartu ahal izango du, beste estatu batzuetako agintaritza eskudunekin batera, aldibereko kontroletan, elkarren laguntzari buruzko araudian ezarritako baldintzetan. Partaidetza horren barruan, artikulua honen 2. apartatuan adierazten diren zerga-administrazioak izendatutako funtzionarioek bitarteko elektronikoak erabiliz parte hartu ahal izango dute.

Kontrol horietan eskuratutako informazioaren trukei foru-arau honetako 94. artikulua 1 n) eta 6 apartatuetan ezarritakoa aplikatuko zaie.

82 bis artikulua. Baterako ikuskapenak.

1. Baterako ikuskapenak dira Zerga Administrazioak beste estatu batekin edo batzuekin batera egiten dituen ikuskapen-jarduerak, parte hartzen duten estatuentzat interes komuneak edo interes osagarrikoak diren pertsona edo erakundeak direla-eta, aplikatu beharreko elkarren laguntzari buruzko araudiaren arabera.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak ikuskatzeko eskumena duenean, Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera, baterako ikuskapenaren xede den zergapeko baten gainean, honako letra hauetan xedatutakoa aplikatuko da:

- a) Ikuskapen horietan Zerga Administrazioako funtzionarioek dituzten eskubideak eta betebeharrak foru-arau honen III. tituluko IV. kapituluaren aipatzen diren xedapenen arabera arautuko dira, artikuluko honetan ezarritako berezitasunekin eta elkarren laguntzari buruzko araudiaren arabera.

Halaber, Espainiako lurraldetik kanpo egiten diren baterako ikuskapenei dagozkien jarduerak jarduera horiek egiten diren estatuko araudia ere errespetatu beharko dute. Nolanahi ere, horietan parte hartzen duten Zerga Administrazioako funtzionarioek ezin izango dute baliatu Espainiako legeriak emandakoez bestelako eskumenik.

- b) Baterako ikuskapenean parte hartzen duten Espainia ez beste estatuetako funtzionarioek ikuskapen horietatik eratorritako Espainiako lurraldean egiten diren jarduketan parte hartu ahal izango dute aplikatu beharreko legeriaren mende, elkarren laguntzari buruzko arauetan ezarritako baldintzetan. Zehazki, zergapekoen adierazpenak eskatu eta foru-arau honen 135.1 artikuluan aipatzen diren dokumentuak aztertu ahal izango dituzte.
- c) Zergapekoek aplikagarri zaien Espainiako estatu-mailako edo, hala badagokio, foru-mailako araudian aitortutako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.
- d) Zerga Administrazioak Espainiaren posizioa finkatzeko beharrezkoak diren txostenak egin eta erabakiak hartuko ditu.
3. Zerga Administrazioak eta baterako ikuskapenean parte hartzen du(t) en beste estatu(eta)ko Zerga Administrazioak aldeztu aurretik adostu eta koordinatuko du(te) ikuskapena, baita hizkuntza-araubideari dagokionez ere.

Agintari eskudunak, nolanahi ere, baterako ikuskapenean parte hartzen du(t)en beste estatuarekin edo estatuarekin harremanak izateaz arduratuko den ordezkari bat izendatuko du. Baterako ikuskapenak Espainian egiten badira, ordezkari horrek gainbegiratu eta koordinatuko ditu.

4. Baterako ikuskapenaren jarduketan ondorioak, hala badagokio, amaierako txosten batean dokumentatuko dira. Txosten hori zergapekoei jakinaraziko zaie, hura egin eta 60 egun naturaleko epearen barruan. Zerga Administrazioak txosten hori jakinaraziko die Ekonomia Itunak emandako eskumenen arabera hark ikuskatu beharrekoak diren zergapekoei.

Txosten horretan, hala badagokio, garrantzizkoak diren baterako ikuskapenaren gertakari eta inguruabarrak jasoko dira, bai eta haiei aplikatu beharreko zerga-araubidea ere, baldin eta parte hartzen duten estatuak haiek direla-eta ados jarri badira, eta kontuan hartu beharko dira baterako ikuskapenaren ondorioz edo haren jarraipenerako gauza daitezkeen zerga-prozeduretan. Era berean, adostea lortu ez den edozein alderdi berariaz jaso ahal izango da, eta aipatutako prozeduretan hura kontuan ez hartzeko aukera egongo da.

BIGARREN ATALA

ZERGAPEKOEI INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEA

83. Artikulua. Zergapekoei informazioa eta laguntza eman beharra.

1. Zerga Administrazioak zergapekoei beraien eskubideei eta betebeharrei buruzko beharrezko informazioa eta laguntza eman behar dizkie.
2. Horretarako ondokoak egingo dituzte, besteak beste:
- a) Zergei buruzko arauen testu eguneratuak eta administrazio-doktrina garrantzitsuena zabaldu.

Hain zuzen ere, zergen arloko indarreko foru arauak eta araudiak emango dira, aldatu ahala, bai eta urtean onetsitako zergen arloko xedapen guztien zerrenda ere. Halaber, garrantzi eta eragin handiko ebazpen ekonomiko-administratiboak ere zabalduko dira.

b) Berriemateak eta informazioa eman.

Zerga Administrazioak zergen arloko arautegia aplikatzeko erabiltzen diren administrazio-irizpideen berri emango die zergadunei eta irizpideok dauden datu-base informatizatuak aztertzen u-tziko die.

c) Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak.

d) Zergapekoei autolikidazioak eta aitorpenak egiten lagundu.

3. Artikulu honetan ezarritako informazio-jarduketak teknika eta bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen bidez egin daitezke.

4. Artikulu honetan aipatutako informazio eta laguntza jarduketak Internet bidez eginez gero, doakoak izango dira.

84. Artikulua. Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak.

1. Zergapekoek eska dezakete Zerga Administrazioak, zerga-egitatea gertatu edo aitorpena borondatez egiteko epealdia amaitu baino lehen, ebazpen loteslea eman dezala zenbait egitate, egintza edo negozio juridikok edo zenbait eragiketarak eurentzat edukiko dituzten zerga-ondoreez.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ondokoen bidez egingo da:

a) Zergei buruzko galderak idatziak.

b) Ondasun higiezinaren eskuraketa edo eskualdaketen aurreko informazioa.

c) Balioespenari buruzko aurretiazko erabakiak.

d) Balioespenari buruzko aurretiazko erabakiak.

85. Artikulua. Zergei buruzko galdera idatziak.

1. Zergapekoek kasu bakoitzean dagokien erregimenari, sailkapenari edo kalifikazioari buruzko galderak, behar bezala dokumentatuak, egin ahal dizkiote Zerga Administrazioari.

Halaber, arau bidez ezartzen diren organismoek edo erakundeek ere egin ahal izango dizkiote zergei buruzko galderak, hain zuzen ere euren kide edo bazkide guztiak ukitzen dituzten gaien buruz.

2. Zergei buruzko galdera idatziak eskubideak baliatzeko, aitorpenak edo autolikidazioa aurkezteko edo bestelako zerga-betebeharrak bete-tzeko ezarritako epea agortu baino lehen aurkeztu behar dira..

3. Galdera-idazkiak Zerga Administrazioari bidali behar zaizkio; idazkian ondokoak azaldu behar dira gutxienez:

a) Galdera egin duenaren identifikazioa.

b) Kasuaren nondik-norakoak eta inguruabar garrantzitsuak.

c) Galdera bera, zehatz eta argi. Artikulu honetan aipatutako galderen edukia arau bidez handitu daiteke.

Artikulu honetan aipatutako galderen edukia arau bidez handitu daiteke

4. Galdera batek ez badu betetzen aurreko idatz-zatietan ezarritako betekizunetako bat eta eskatu ondoren akatsa zuzentzen ez bada, Zerga Administrazioak artxibatu ahal izango du eta interesdunari jakinaraziko dio.
5. Zerga Administrazioak jaso eta sei hilabete pasatu baino lehen erantzun behar die galderei. Epealdi horretan ez erantzuteak ez dakar berekin Administrazioak galderan adierazitakoa onartzen duenik.
6. Honelako galderak izapidetzeko eta erantzuteko prozedura eta horretarako eskumena izango duten administrazio-organismoak arau bidez ezarriko dira.

86. Artikulua. Zergei buruzko galdera idatzien erantzunen ondoreak.

1. Zergei buruzko galdera idatzien erantzunak lotesleak izango dira, artikulua honetan ezarritakoaren arabera, tributuak aplikatzen dituzten Zerga Administrazioaren organoentzat zergapekoekiko harremanetan.

Aurreko artikuluan ezarritako betekizunak bete ezean, zergei buruzko galdera idatzien erantzunak informaziorako baizik ez dira emango.

Galdera batean aipatutako kasuari aplikatu beharreko arautegia edo jurisprudentzia aldatzen ez den bitartean, emandako erantzunean adierazitako irizpideak aplikatuko zaizkio zergapekoari, idatzian aipatutako inguruabarrak, gertaerak eta gainerako datu guztiak aldatu ezean.

Galderan adierazitako gertaerak eta inguruabarrak erantzunean adierazitakoekin bat badatoz, tributuak aplikatzen dituzten Zerga Administrazioaren organoek zergei buruzko galdera idatzien erantzunetan adierazitako irizpideak aplikatu behar dituzte beti, organo eskudunak berak aplikatu beharreko administrazio-doktrina aldatu ezean (aldaketa arrazoitu behar da).

2. Aurretiaz hasitako prozedura, errekurso edo erreklamazioen xedearen edo izapidetzearen inguruko galderei aurreko artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako epean erantzunez gero, erantzuna ez da loteslea izango Zerga Administrazioarentzat.
3. Galderak aurkezteak eta haien erantzunek ez dituzte etengo zergei buruzko arauetan zerga-betebeharrak betetzeko ezarritako epeak.
4. Zergapekoek ezin dute errekurtsorik aurkeztu zergei buruzko galderen erantzunen aurka. Aldiz, erantzunean adierazitako irizpideak aplikatzeko ematen diren administrazio-egintzen aurka jar ditzakete.
5. Norbaitek galdera jakin baten testu osoa eskatuz gero, Zerga Administrazioak eman egin behar dio, pertsonen identifikazio-datu guztiak ezabatuta.

87. Artikulua. Ondasun higiezinaren eskuraketa edo eskualdaketen aurreko informazioa.

1. Zerga Administrazioak eskuratu edo eskualdatzen diren Bizkaiko higiezinaren katastroko ondasunen zerga-balioaren berri emango du; nola egingo duen eta balioespenak zein ondore izango dituen tributu bakoitzari buruzko arautegian ezarriko da.
2. Interesdunak ezin du jarri inolako errekurtsorik adierazten zaion balioespenaren aurka. Informazio horren inguruan ematen diren administrazio-egintzen aurka, aldiz, jar ditzake.

Ez erantzuteak ez dakar berekin interesdunak bere eskaeran adierazitako balioa onartzea.

88. Artikulua. Balioespenari buruzko aurretiazko erabakiak.

1. Zergapekoek Zerga Administrazioari eska diezaiokete, zerga bakoitzari buruzko foru arauak edo araudiek hala aurreikusten dutenean, aurretiaz eman dezala zerga-zorra eragin duten

errenten, produktuen, ondasunen, gastuen eta gainerako elementuen balioespena, zergen ondoreetarako loteslea izango dena.

2. Eskaera idatziz aurkeztu behar dute zerga-egitatea gertatu baino lehen edo, bestela, zerga bakoitzari buruzko arautegian ezarritako epean.

Eskaerarekin batera zergapekoaren balioespen-proposamena aurkeztu behar da.

3. Zerga Administrazioak zergapekoak aitortutako egitate-elementuak eta inguruabarrak egiaztatu ahal ditu.
4. Zerga Administrazioak idatziz emango du balioespen-erabakia; bertan balioespena, egitatea eta zerga zehaztuko ditu eta erabakia loteslea dela adieraziko du, zerga bakoitzari buruzko arautegian finkatutako prozeduraren arabera eta bertan ezarritako epeetan. Zerga Administrazioak behar den epealdian erantzunik ez emateak berekin ekarriko du eskatzaileak proposaturiko balioespena onartzea.
5. Arautegia aldatu edo balioespenaren oinarritzat hartutako inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu ezean, erabakia eman duen zerga administrazioak bertan adierazitako balioak aplikatu behar ditu. Erabakia hiru urtean izango da indarrean gehienez, arautegian besterik ezarri ezean.
6. Zergapekoek ezin dute aurkeztu inolako errekurtsorik artikulua honetan arautako erabakien aurka. Aldiz, erabakian adierazitako balioespenak aplikatzeko ematen diren administrazio-egintzen aurka jar ditzakete.

89. Artikulua. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak: kontzeptua eta prozedura.

1. Zergadunek zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak aurkeztu ahal dizkiote Zerga Administrazioari garrantzi edo konplexutasun handiko eragiketa jakin batzuei dagokienez, arau bidez ezartzen denaren arabera. .
2. Aurreko idatz-zatian aipatutako proposamenean, batetik Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedura hau proposatzen den eragiketaren edo eragiketa-multzoaren ziozko zerga-zorreetan eragina izan dezaketen elementu guztien deskripzio xehekatua agertu behar da, eta bestetik eragiketak edo eragiketa-multzoak zerga-zorreetan izan duen eraginaren kalkulua, zergapekoak egina, erabilitako irizpideen azalpenarekin.
3. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak zerga-egitatea gertatu baino lehen aurkeztu behar zaizkio Zerga Administrazioari, eta zergaldia duten zergetan proposatzen dena aplikatu behar den zergaldia amaitu baino lehen.

Zerga Administrazioak artxibatu egingo ditu aurreko epetik kanpo aurkezten diren proposamenak.

4. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak sei hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira. Aldi horretan ez onesteak ez dakar berekin Administrazioak proposamenean adierazitako irizpideak eta zenbatekoa onartzea.
5. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak aurkezteko eta onesteko prozedura eta betekizunak arau bidez ezarriko dira.

90. Artikulua. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenen ondoreak.

1. Zerga Administrazioak zerga-ordainketarako aurretiazko proposamen bat onesten badu, proposamena loteslea izango da eta zergak aplika-tzen dituzten organoek bertan ezarritakoa aplikatu beharko dute, adierazitako inguruabarrak egiazkoak ez direla edo aplikatu beharreko arautegia aldatu dela egiaztatu ezean.

2. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenen ebazpenen aurka ezin da jarri ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina proposamena aplikatzeko ematen diren administrazio-egintzen aurka bai.

HIRUGARREN ATALA

HERRITARREN LAGUNTZA TRIBUTUEN APLIKAZIOAN

91. Artikulua. Herritarren laguntza.

1. Interesdunek zergen aplikazioan lagundu dezakete, arau bidez ezartzen denari lotuta.

Horretarako, Zerga Administrazioak akordioak egin ditzake beste herri administrazio batzuekin, erakunde pribatuekin eta gizarte, lan, enpresa edo elkargo interesak ordezkatzan dituzten erakundeekin.

2. Zerga Administrazioak herritarrek teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez laguntzeko betekizunak eta baldintzak jarri ahal izango ditu..

92. Artikulua. Informazioa eman beharra.

1. Pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta foru arau honetako 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeek euren zerga-betebeharren inguruko denetarikoko datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak, zerga-ordainketan eragina izan dezaketenak, eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, bai eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak ere.

Zehatzago:

- a) Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek beste pertsona edo erakunde batzuei dirutan edo gauzatan egindako ordainketen zerrendak aurkeztu behar dituzte.
- b) Sozietateek, elkarteek, profesionalen elkargoek eta, besteak beste, bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura ogibidesariak edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozko eskubideak kobratzen dituzten erakundeek datu horiek jakinarazi behar dizkiote Zerga Administrazioari.

Gauza bera egin behar dute legeaz edo estatutuz, edo ohiko jardun gisa, kapitalen merkatuan kapitalak erakarri, ezarri edo lagatzeagatik edo horretan bitartekari jarduteagatik ogibidesarien edo komisioren kobrantza kudeatzen duten edo horretan esku hartzen duten pertsonak eta erakundeek, are bankuek, kreditu-erakundeak eta, oro har, finantza-bitartekaritza ari direnak ere.

- c) Ordainarazpen-aldian, Zerga Administrazioaren zordun direnen eskudirua edo kontuetako dirua, baloreak edo bestelako ondasunak gordailatzen dituzten pertsonak eta erakundeak horren berri eman behar diete zerga-bilketako organoei eta haiek euren eginkizunetan egiten dituzten errekerimenduak bete behar dituzte.
- d) Indarrean dagoen araudia aplikatuta, ekintzen azken onuradunen identifikazioa ezagutzen duten edo jakiteko moduan dauden pertsonak eta entitateak identifikazio horri buruz erregelamenduetan ezartzen diren eskakizunak eta informazio-betebeharrak bete beharko dituzte nahitaez Zergen Administrazioan.
- e) Pertsona juridikoek edo entitateek benetako titularren identifikazioa jakinarazi beharko diote Zerga Administrazioari. Ildo horretan, Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan definitutakoak joko dira benetako titulartzat.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako betebeharrak arau bidez ezartzen den moduan eta finkatzen diren epeetan bete behar dira, oro har, edo bestela Zerga Administrazioak banako errekerimendua egindakoan (noiznahi egin dezake).
3. Banku-sekretua ezin da erabili artikulua honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeko aitzakiatzat.

Bankuen, aurrezki kutxen, kreditu kooperatiben eta banku- edo kreditu-trafikoan aritzen diren erakundeek kontu korrante, aurrezki eta eperako gordailu, mailegu- eta kreditu-kontuetako mugimenduei eta gainerako eragiketa aktibo eta pasiboak (kontu iragankorretan islatzen edo txekietan eta bestelako ordainketa-aginduetan gauzatzen diren eragiketak barne) buruzko banakako errekerimenduak ikuskarpen edo zerga-bilketa eginkizunetan jardutean egin daitezke, arau bidez ezartzen den Zerga Administrazioaren organoak baimena eman ondoren.

Banakako errekerimenduan txekiekin edo ordainketa-aginduen identifikazio-datuak zehaztu behar dira, edo bestela, ikertzen diren eragiketak, ukituriko zergapekoak (titularrak nahiz baimenduak) eta kontuan hartutako epealdia.

Idatz-zati honetan ezarritakoaren arabera ikerketan mugimenduen edo txekiekin eta ordainketa-aginduen jatorria eta xedea azter daitezke, baina hori egiten denean gehienez ere jatorriko eta xedeko pertsona eta kontuak identifikatu ahal izango dira, besterik ez.

4. Funtzionario publikoek, are profesional ofizialek ere, Zerga Administrazioari lagundu behar diote; hain zuzen ere zerga-ordainketan eragina izan dezakeen informazio guztia eman behar diote, hurrengoetako bat aplikatu daitekeenean izan ezik:

- a) Postaren edukiaren sekretua.
- b) Administrazioari estatistiketarako soilik emandako datuen sekretua.
- c) Notarioaren protokoloaren sekretua; Notariotzari buruzko Legearen 34. eta 35. artikuluetan aipatutako agiri publikoak eta ezkontzei eta izatezko bikoteei buruzkoak sartzen dira sekretu horretan, ezkontza-sozietatearen araubide ekonomikoari edo izatezko bikoteen ondarearen araubide ekonomikoari buruzkoak izan ezik.

5. Zerga Administrazioari zerga-ordainketan eragina duen informazioa eman behar dioten gainerako profesionalek ez dizkiote jakinarazi behar euren jardunean ezagutzen dituzten ondaretik kanpoko datu pribatuak, baldin eta horrela pertsonen edo familien ohorea edo intimitatea urratzen badute. Halaber, ez dizkiote jakinarazi behar aholkularitzako edo defentsako lanbide-zerbitzuak egitean euren bezeroei buruz ezagututako isilpeko datuak.

Profesionalek ezin diote heldu lanbideko sekretuari euren zerga-egoeraren egiaztapena eragozteko.

6. Arau bidez ezartzen denari lotuta, Zerga Administrazioak artikulua honetan eta hurrengoan aipatutako informazioa teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez emateko betekizunak eta baldintzak ezar ditzake.

93. Artikulua. Informatu beharra eta lagundu beharra dituzten agintaritzak.

1. Agintariek (era guztietakoak), Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen eta toki-entitateen organoen titularrek, organismo autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak, lanbide ganbarek eta korporazioak, elkargoak eta elkarteak, gizarte aurreikuspenetarako mutualitateak, gainerako erakunde publikoak (are Gizarte Segurantzaren kudeatzaileak ere) eta, oro har, eginkizun publikoak dituzten guztiek Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkiote xedapen orokorren bidez edo banako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak, eta berari eta beraren agenteei laguntza, sorospena eta babesa eman behar dizkiote euren eginkizunak bete ditzaten.

Halaber, zergen kudeaketan edo ordainarazpenean parte hartuko dute ohartarazpen, jasanarazpen eta atxikipen bidez, indarreko legerian ezarritakoaren arabera.

2. Betebehar berberak dituzte alderdi politikoek, sindikatuek eta enpresa elkarteek ere.
3. Epaitegiek eta auzitegiek Zerga Administrazioari eman behar dizkiote, ofizioz edo berak eskaturik, euren epai-jarduketan ondorioz ezagutzen dituzten zerga-ondoredun datu guztiak, eta sumarioko eginbideen sekretua errespetatu behar dute.
4. Kapitalak Zuritzearen eta Moneta Urratzeen Aurkako Batzordearen Zerbitzu Betearazleak eta Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Zaintzeko Batzordeak, eta bien idazkaritzek, euren eginkizunetan ari direnean eskuratzen dituzten zerga-ondoredun datu guztiak ofizioz eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, oro har, edo banakako errekerimendua jaso ondoren, arau bidez ezartzen denari lotuta.

Zerga Administrazioaren organoek zergapekoen zerga-egoera erregularizatzeko erabili ahal izango dute emandako informazioa kudeaketa-prozeduran nahiz ikuskapen-prozeduran, eta horretarako ez da aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako errekerimendua egin beharrik izango..

5. Aurreko artikuluan, artikuluko honetako aurreko idatz-zatietan edo legezko beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko ez da beharko ukiturikoen baimenik. Eremu honetan ez da aplikatuko Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 21. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa.

94. Artikulua. Zerga-ordainketan eragina duten datuak isilpean eduki beharra.

1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak egitean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, xede hauetako baterako izan ezean:
 - a) Jurisdikzio-organoei eta fiskaltzari laguntzea delituak ikertzen edo jazartzen, laidotutako pertsonak eskatuta soilik jazarri ahal direnak izan ezik.
 - b) Beste zerga administrazio batzuekin lankidetzan aritzea bere eskumenen eremuan zerga-betebeharrak betearazteko.
 - c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatzarekin eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin eta zerbitzu erkideekin lankidetzan aritzea Gizarte Segurantzaren sistemako kuoten kotizazioan eta bilketan iruzurraren aurka borrokatzeko eta sistemaren konturako prestazioak lortzeko eta baliatzeko, erabiltzaile bakoitzak Osasun Sistema Nazionalaren prestazioetan duen ekarpen-maila zehazteko. Horrez gain, Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin lankidetzan aritzea, norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kotizazioak erregularizatzeko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 308. artikuluan adierazitakoari jarraiki.
 - d) Administrazio publikoekin lankidetzan aritzea delitu fiskala eta iruzurra prebenitzeko eta haien aurka egiteko, funts publikoen edo Europar Batasunaren funtsen kargurako laguntzak edo dirulaguntzak lortu edo jasotzeari dagokionez, Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dieten iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko behar diren neurriak barne direla.
 - e) Batzar Nagusietan eratutako ikerketa-batzordeekin lankidetzan aritzea, baita beste edozein legebiltzarretako ikerketa batzorderekin ere, Arau honen 94 bis artikuluan xedatutako esparruan.
 - f) Adingabekoen eta jurisdikzio-organoei edo fiskaltzak ezgaitutakoen eskubideak eta interesak babestea.

- g) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari fiskalizazio-lanetan laguntzea.
- h) Epailleekin eta auzitegiekin lankidetzan aritzea epai-ebazpen irmoak betearazteko. Epaillearen informazio-eskabideak berariazko ebazpena beharko du; ebazpen honetan, dena delako gaiak uki-tzen dituen interes publikoak eta pribatuak haztatu ondoren eta eskatutako informazioaren berri jakiteko gainerako bideak eta iturriak agortu izana dela bide, datuak Zerga Administrazioari eskatu beharra azalduko da.
- i) Kapitalak Zuritzearen eta Moneta Urratzeen Aurkako Batzordearen Zerbitzu Betearazleari, Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Zaintzeko Batzordeari eta horien bien idazkaritzei euren eginkizunetan laguntzea.
- j) Zergaz beste baliabide publikoak biltzen diharduten Zuzenbide Publikoko organoei edo erakundeei zergadunak zuzen identifikatzen laguntzea.
- k) Estatistikaren arloan eskumena duten herri administrazioek datuak estatistikak egiteko erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikei buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak eman dizkien eginkizunak betetzeko. Informazio-eskaeran zehatz-mehatz azaldu behar dira lagako diren zerga-datuak erabiliz egingo diren estatistika-lanen helburuak. Datuok, beti ere, mul-tzoka erabili behar dira azterlanetan eta ezin dira gorde norbanakoen arabera bereizita.
- l) Herri administrazioei euren eginkizunetan laguntzea, zergapekoek euren datuak horretarako laga daitezen baimena eman ondoren.
- m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoei laguntzea beren eskumenei dagozkien zuzenbidepublikoko diru-sarrerak jasotzen.
- n) Informazioa trukatzeko, elkarren laguntzari buruzko araudiaren esparruan.

Zerga Administrazioak beste estatu batzuei edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuei eman diezazkieke berak bere eginkizunak betetzerakoan lortutako datu, txosten eta aurrekariak, betiere lagatze horren helburua beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuen titulartasuneko tributuak aplikatzea bada, elkarren laguntzari buruzko araudian ezarritako baldintza eta mugekin; nolana ere, informazioa jasotzen duen estatu edo erakundeak beste helburu batzuetarako erabil dezake, aukera hori araudian jasota baldin badago.

Informazio hori emateko, informazioa lortzeko beharrezko dituen ekintzak egin ditzake Zerga Administrazioak, baita eskatutako informazio hori administrazio horren barneko tributuak zehazteko beharrezkoa ez denean ere. Administrazioak, horretarako, foru arau honek informazioa lortzeko arautzen dituen tresna guztiak erabil ditzake.

Zerga Administrazioa, elkarren laguntzari buruzko araudian zehaztutako baldintzetan, berariaz baimendu behar du berak emandako informazioa beste hirugarren estatu edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde bati ematea, eta emate horren aurka ere ager daiteke.

- o) Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko ganbera ofizialekin lankidetzan aritzea, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen 2014ko apirilaren 1eko 4/2014 Oinarrizko Legeko 8. artikuluan aipatzen diren erroldak egiteko.
- p) Abokatutzaren Kontseilu Nagusiarekin eta abokatuen elkargoekin lankidetzan aritzea, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko, zergapekoek haiei buruzko datuen inguruko baimena eman ondoren.
- q) Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako administrazio organoek zergapekoen identifikazio datuak erabiltzea euren eginkizun publikoak betetzeko eta Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio elektronikoko zerbitzuak behar bezala egiteko.

- r) Europar Batasuneko Zuzenbidean zein ordenamendu juridikoaren parte diren nazioarteko tratatu eta akordioetan aurreikusitako kasuetan.
 - s) Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoarekin lankidetzan aritzea; horretarako, zigor-prozesu jakin batean enbargatuak edo konfiskatuak izan daitezkeen ondasunak eta eskubideak aurkitzeko beharrezkoak diren datuak, txostenak edo aurrekariak lagako dizkio, inguruabar hori egiaztatu ondoren.
 - t) Maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Dekretu Legean ezarritako Gizarte Segurantzako bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kotizazio gabeko pentsioen kudeaketaaz arduratzen diren entitateekin lankidetzatza.
 - v) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzearekin lotutako kontratuak esleitzeko eta dirulaguntzak emateko prozeduren ardura duten erakundeekin lankidetzan aritzea, interes-gatazkak izateko arriskuaren analisi sistematikoari dagokionez.
2. Aurreko idatz-zatian ezarritako lagapenetan, zerga-informazioa baliabide informatiko edo telematikoen bidez eman behar da, ahal dela. Herri administrazioek informazioa bitarteko horiez baliatuta eskuratu ahal badituzte, ezin eskatu izango diete interesdunei informazioaren inguruko ziurtagiria, Zerga Administrazioak emana, aurkezteko.
 3. Zerga Administrazioak zerga-informazioa isilpean edukitzea eta zuzen erabiltzea bermatzeko neurriak aplikatuko ditu.
- Honelako datu, txosten edo aurrekariak ezagutzen dituzten agintariek, funtzionarioek eta Zerga Administrazioaren zerbitzuko langileek erabat isilpean eduki behar dituzte, aipatu kasuetan izan ezik.
- Delitua egon litekeela ohartuz gero (laidotutako pertsonak eskatuta soilik jazar daitezkeen delituak izan ezik), Zerga Administrazioak erruduntasun-testigantza aurkeztuko du edo fiskaltzari delitutzat jotzen diren gertaera-inguruabarren zerrenda bidaliko dio. Horrez gainera kereila-prozedurari ere ekin ahal zaio organo eskudunaren bidez.
4. Artikulu honetan ezarritako datuen isilpeketasunak ez du eragotziko datuon publikitatea egitea, Europar Batasuneko arautegiaren ondorioz egin behar bada publikitate hori.
 5. Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek konturako ordainketak egiteko baizik ezin dituzte erabili beste zergapeko ba-tzuei buruzko datuak, txostenak eta aurrekariak. Datuok Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkio zerga bakoitzaren arautegian ezarritako kasuetan.
- Aurreko paragrafoan xedatutako kasuan izan ezik, hizpide ditugun datuak, txostena eta aurrekariak isilpekoak dira.
- Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek erabat isilpean gorde behar dituzte.
6. Zerga Administrazioak beste hirugarren batzuei laga ahal izango die beste estatu batzuek edo nazioarteko zein nazioz gairik beste erakunde batzuek elkarren laguntzari buruzko araudia dela-eta berari emandako informazioa, baina bakarrik informazioa eman dion estatuko edo erakundeko araudiak informazio hori antzeko helburuetarako erabiltzea baimentzen badu, salbu eta laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean.
- Hala badagokio, zenbaki honetan aipatzen den informazioa beste estatu batzuei edo nazioarteko zein nazioz gairik beste erakunde batzuei igorri ahal izango zaie, elkarren laguntzari buruzko araudiak horretarako baimena ematen badu eta araudian bertan ezarritako baldintzetan.

94.bis artikulua.

1. Zerga administrazioak, gehienez ere bost egutegi egun izango ditu Batzar Nagusietan zein edozein legebiltzarretan eraturiko ikerketa-batzordeek eska diezaioten datu, txosten, aurrekari edo dokumentu guztiak emateko, beti ere hurrengo baldintzak betetzen badira:

- a) Hurrengo pertsonen buruzkoak izatea:

Bat Administrazio publikoetan, horien erakunde autonomiadunetan eta Zuzenbide Publikoko entitateetan hautesbidez edo izendapenez aritzen edo aritu diren goi kargu edo baliokideak; hurrengoan Presidente eta Zuzendari exekutiboak edo horien baliokideak: Administrazio publikoetakoak, horien erakunde autonomiadun eta Zuzenbide Publikoko entitateen mendeko erakunde eta enpresetakoetakoak, Administrazio Publikoen partaidetza zuzena zein zeharkakoa gehiengoa duten enpresetakoak, Zuzenbide Publikoko gainontzeko erakundeetakoak, edo horiekin erabaki-unitatea eratzeagatik loturiko bestelako erakundeetakoak.

Bi Aurreko Bat zenbakian aipatutako pertsonekin harreman hau duten edo, ikerketaren aldiari dagokionean, izan duten pertsonak: ezkontidea, izatezko bikotekidea, antzeko afektibitate-harremanean bizikidetzan dauden pertsonak, mendeko seme- alabak edo tutoretzapeko pertsonak, eta bigarren mailako senideak, odol bidezkoak edo ezkontza bidezkoak.

Aurreko paragrafoan ezkontide, izatezko bikotekide eta antzeko afektibitate-harremanean bizikidetzan daudenei buruz xedatutakoa aplikatzeko, ez da kontutan hartuko dagokien ekonomia- eta ondare-araubidea.

Hiru Aurreko Bat eta Bi ataletan zerrendatutako pertsonak, zuzenean nahiz zeharbidez, era indibidualean nahiz batera, sozietatearen ehuneko 10etik gorako partaidetza duten edo zuzendaritzan, aholkularitzan edo administrazioan partaidetzarik izan duten Entitate eta Pertsona Juridikoak.

Lau Estatuko, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekin hitzarmenak edo edozein eratako kontratuak dituzten edo inoiz izan dituzten entitate edo pertsona juridikoak, edo enpresa horien azpikontratatuak badira edo edozein administrazio publikoren dirulaguntzak jasotzen badituzte, edo ikergaiaren xedearekin harremanik badute.

- b) Artikulu honen a) Bat zerrendatutako pertsonak kargu publikoren baten jardun izanarekin lotuta egotea ikergaia.
- c) Ikerketa batzordeen aburuz datu, txosten, aurrekari edo dokumentu horiek gabe ezinezkoa izatea batzordearen xedea betetzea.

2. Artikulu honetan xedatutakoa Bizkaiko Batzar Nagusietan eta Legebiltzarrean eratutako ikerketa batzordeetarako aplikatuko da, beti ere legebiltzarrekoetan berariazko legedirik aplikagarri ez bada; halakoetan berariazko legedi hori aplikatuko da, beti ere artikulu honen edukia gainditzen ez badu.

Arabako Biltzar Nagusietan eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan eratutako ikerketa batzordeei Lurralde bakoitzean indarrean dagoen legedia aplikatuko zaie, beti ere artikulu honen edukia gainditzen ez badute.

Legebatzarretako ikerketa batzordeei dagokien legedia aplikatuko zaie eta horrelakorik ezean, araubide komunekoa, beti ere artikulu honen edukia gainditzen ez badu.

3. Batzar Nagusietan eta Legebiltzarrean eratutako ikerketa batzordeetara Zerga Administrazioak bidalitako datu, txosten, aurrekari edo dokumentuak bakarrik argitara ahal izango dira ikerketaren emaitzen zati badira; horiez bestekoak isilpean gorde beharko dira.

94 ter artikulua. Zerga-betebeharrak nabarmen betetzen ez diren egoeren publizitatea .

1. Zergen Administrazioak Foru Ogasunari zordunen zerrendak aldian behin argitaratzea erabakiko du, zerga-zorren edo zerga-zehapenen erantzule solidario deklaratuak izan direlako zordun direnak barne, honako inguruabar hauek gertatzen direnean:
 - a) Ordaintzeko dauden zerga-zorren eta zerga-zehapenen zenbateko osoa, erantzukizun solidarioa deklaratu ondoren eskatutakoak barne, 600.000 eurotik gorakoa izatea.
 - b) Zerga-zor edo zerga-zehapen horiek ez ordaintzea borondatez ordaintzeko epealdian.
 - c) Zerga-zor eta zerga-zehapen irmoak izatea, hala administrazio-bidean nola auzibidean. Ogasun Publikoaren aurkako delitu bati lotutako likidazioen ondoriozko zerga-zorren eta zerga-zehapenen kasuan, beharrezkoa izango da kondena-epai irmoa egotea ogasun publikoaren aurkako delitua dela eta.

Erantzukizuna adierazteko erabakian sartutako zorren kasuan, beharrezkoa izango da foru arau honen 60.1 artikuluan ezarritako ordainketa-epealdia igarotzea, erantzukizuna adierazteko erabakia eta, bidezkoa denean, ordainketa eskatzeko erabakia jakinarazi ondoren.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira sartuko geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zerga-zorrak eta zerga-zehapenak.

2. Zerrenda horietan honako informazio hau jasoko da:
 - a) Zordunaren identifikazioa, xehetasun hauen arabera:
 - ☐ Pertsona fisikoak: izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - ☐ Foru arau honen 34. artikulua 3. apartatuko pertsona juridikoak eta entitateak: izen sozial osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - b) Ordaintzeko dauden eta argitalpenerako kontuan hartu diren zor eta zehapenen zenbateko osoa.
3. Honako artikulua honetan araututako publizitatea Bizkaiko Foru Ogasunari aplikatzeko eskumenak, zehatzeko ahalmena eta berrikusteko ahalmenak dagozkion zergei buruzkoa izango da soil-soilik, eta ez da aplikatuko lurralde historikoko tokiko erakundeek haren aldeko eskumen-eskuordetza egin duten kasuetan.
4. Zerrendan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren zehazteko, argitaratzeko erabakiaren aurreko urteko abenduaren 31 hartuko da erreferentzia-datatzat, dena dela erabaki horren egunean ordaintzeko dagoen zenbatekoa.

Zerrendan sartzeko proposamena eragindako zordunari jakinaraziko zaio, eta hark alegazioak aurkeztu ahal izango ditu 10 eguneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, jakinarazpen hori egin dela ulertzeko, nahikoa izango da Zergen Administrazioak egiaztatzea jakinarazpena egiten saiatu dela, edukiaren testu osoa pertsona edo entitate interesdunaren zerga-egoitzan duela.

Alegazioak egiteko epealdia amaitu baino lehen zor den zenbatekoaren zenbatekoa ordaintzen bada, eta, ordainketa egin ondoren, artikulua honen 1. paragrafoan aipatzen diren ordaindu gabeko zerga-zor eta zerga-zehapenen guztizkoak, aurreko urteko abenduaren 31ri dagokionez, 600.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez badu, zordunak ez dira sartuko zerga-zor edo zerga-zehapenengatik Ogasun Publikoaren zordun direnen zerrendetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa honako kasu honetan soilik aplikatuko da: ordaintzen den kopurua erreferentziako datan zor den zenbatekoaren % 25 baino gutxiago denean.

Artikulu honetako 1. paragrafoan adierazitako betekizunen inguruko errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak egoteari buruzkoak baino ez dira izango alegazioak.

Alegazio-izapiderearen ondorioz, Administrazioak zerrenda zuzentzea erabaki ahal izango du, baldin eta modu frogagarrian egiaztatzen bada ez direla betetzen artikulu honetako 1. apartatuan zehaztutako lege-betekizunak.

Zuzenketa hori ofizioz ere erabaki ahal izango da.

Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, argitaratzeko erabakia hartuko da.

Erabakiaren jakinarazpena egin dela ulertuko da hura eta zerrenda argitaratzen direnean.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez ezarriko dira argitalpen-data (urte bakoitzeko lehen seihilekoan argitaratu beharko da) eta bidezko fitxategiak eta erregistroak.

Edozelan ere, bitarteko elektronikoen bidez argitaratuko da, eta beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira edukia ez indexatzeko Interneteko bilatzaileen bidez, eta zerrendak ez dira eskuragarri egongo argitaratzen direnetik hiru hilabete igaro ondoren.

Argitaratzeko behar diren datuen tratamenduak bete egin beharko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, baita abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere, Datu Digitalak Babesteari buruzkoa.

5. Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasuneko zuzendari nagusiak izango du artikulu honetan araututako argitaratzeko erabakiak emateko eskumena.
6. Zerrenda argitaratzean, zehaztuko egingo da bertan adierazitako egoera 4. zenbakian jasotako erreferentzia-datan dagoena dela, eta zordunak erreferentzia-data horren ondoren egindako jarduketek ez dute eraginik izango zerrendaren argitalpenean, salbu eta paragrafo horretan adierazitako kasuetan eta baldintzetan ordainketa egiaztatzen bada.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezelako eraginik izango foru arau honetan ezarritako aurkaratze-araubidean, zerga-zorrak eta zerga-zehapenak eragiten dituzten jarduketei eta prozedurei dagokienez, ez eta zergak aplikatzeko hasitako jarduketetan eta prozeduretan edo zerga horiekin lotuta geroago hasten direnetan ere.

Artikulu honetan araututako informazioa artikulu honetan argitaratzeko ezarritako prozeduran garatutako jardunak ez dira foru arau honen 69. artikuluan ezarritako ondorioetarako eteteko arrazoi izango.

7. Zerrenda argitaratzeko erabakiak administrazio-bidea amaituko du.

II. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO JARDUKETEI ETA PROZEDUREI BURUZKO ARAU OROKORRAK

95. Artikulua. Zergen arloko jarduketei eta prozedurei buruzko arauak.

Zergak aplikatzeko jarduketetan eta prozeduretan ondokoak izango dira aginduzko:

- a) Titulu honetan ezarritako arau bereziak, zergen arloko beste foru arau batzuetan bildutako prozedura-arauak eta horiek garatzeko ematen diren arauak.
- b) Osagarri moduan, administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrak.

LEHENENGO ATALA
ZERGEN ARLOKO ADMINISTRAZIO-PROZEDUREN BEREZITASUNAK

LEHENENGO AZPIATALA
ZERGA-PROZEDUREN FASEAK

96. Artikulua. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak hastea.

1. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak ofizioz edo zergapekoek eskatuta has daitezke; zergapekoek autolikidazioa, aitorpena, eskaera edo zerga-arautegian ezarritako beste bideren bat balia dezakete horretarako.
2. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak hasteko agirietan zergapekoaren izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar dira nahitaez, eta behar den kasuetan ordezkariarenak ere bai.
3. Zerga Administrazioak autolikidazioen, aitorpenen, eskaeren eta zerga-arautegian ezarritako gainerako bitartekoen ereduak eta sistema normalizatuak onetsi ahal ditu zergen arloko jarduketa eta prozedura ugari izapidetu behar direnerako.
4. Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, arau bidez ezar daiteke zein kasutan eta nola aurkeztu behar dituzten zergapekoek baliabide telematikoen bidez euren aitorpenak, autolikidazioak, eskaerak eta zerga-ordainketan eragina duten gainerako agiriak.

97. Artikulua. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak egitea.

1. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak egitean, Administrazioak ahal duen guztian lagunduko die zergapekoei euren eskubideak baliarazten eta euren betebeharrak betetzen; ondoko idatz-zatietan azalduko da nola emango dien laguntza hori.
2. Zergapekoek Zerga Administrazioari lagundu behar diote bere eginkizunak egiten zergak aplikatzeko prozeduretan.
3. Zergapekoek uko egin diezaioke zerga-arautegiaren arabera ezin eska daitezkeen agiriak aurkezteari, bai eta lehenago aurkeztuta daudenez zerga administrazio jarduleak badituen agiriak aurkezteari ere. Nolanahi ere, interesdunei aurkeztutako datuak, eurenak zein beste batzuenak, berresteko eskatu ahal zaie.
4. Zergapekoek eskubidea dute eurek aurkeztutako autolikidazioen eta aitorpenen ziurtagiriak, edo haien atal jakin batzuenak, jasotzeko.
5. Zerga-jarduketa edo zerga-prozeduraren batean alderdi izanez gero, zergapekoek espedienteko agirien kopiak eskura ditzakete, kostua ordainduta; hala ere, gainontzekoen interesak urratu ahal badira edo haien intimitatea arriskuan jartzen bada edo indarreko arautegian hala xedatzen bada, ezin dituzte eskuratu.

Entzunaldiaren izapidea dagoen prozeduretan, edo ebazpen-proposamenaren ondoren alegazioetarako aldia dagoenetan, kopiak izapide horietan emango dira.

6. Administrazio-artxiboetan dauden espedienteetako erregistroak eta agiriak, baldin eta eskaera aurkeztzen denean espedienteak amaituta badago, zerga- prozeduran alderdi izan diren zergapekoek soilik eska ditzakete, foru arau honetako 94. artikuluan ezarritakoaren arabera isilpean gorde behar direnean izan ezik.
7. Zerga-prozeduretan, froga egiteko ez dago aldi berezia hasi beharrik, ez interesdunei aurretik jakinarazi beharrik.
8. Zergak aplikatzeko prozeduretan, Zerga Administrazioaren jarduketak komunikazioetan, eginbideetan, txostenetan eta prozedurei buruzko arautegi zehatzetan ezarritako agirietan dokumentatuko dira.

Komunikazioen bidez Administrazioak prozedura hasi dela jakinarazten die zergapekoei edo haren inguruko beste gertaera edo inguruabar batzuen berri ematen die, edo errekerimenduak egiten dizkie pertsonari edo erakundeei. Komunikazioak eginbideei txertatu ahal zaizkie.

Eginbideak agiri publikoak dira, gertaerak eta zergapekoaren edo jarduketetan jardule den pertsonaren adierazpenak agerrarazteko ematen direnak. Eginbideetan ezin da egin zerga-likidaziorako proposamenik.

Zerga Administrazioaren organoek, ofizioz edo gainontzeko batek eskatuta, ordenamendu juridikoaren arabera aginduzko diren txostenak egingo dituzte, bai eta herri administrazioen beste organo eta zerbitzu batzuek edo legegintzako botereak eta botere judizialak indarreko legeriari lotuta eskatzen dituztenak eta zergak aplikatzeko behar direnak ere.

9. Zergak aplikatzeko prozeduretan entzunaldia emango zaio interesdunari ebazpen-proposamena idatzi aurretik, eskubidez komeni zaiona alega dezan.

Dena dela, prozedurari buruzko arauetan proposamenaren ondoren alegazioak aurkezteko izapidea ezarrita dagoenean, espedientea alegazioen izapidean agertuko zaio interesdunari.

10. Administrazioak eta zergapekoek zergak aplikatzeko prozeduretan egin beharreko jarduketak sistema digitalen bitartez egin ahal izango dira, betiere, bideokonferentziaren bidez edo antzeko sistema baten bidez, irudiaren eta soinuaren noranzko biko eta aldibereko komunikazioa egotea eta zergapekoak eta organo jarduleak elkar ikustea, entzutea eta hitz egitea ahalbidetzen badute. Horrez gainera, egindako jarduketan emaitza jasotzen duten agiriak segurtasunez bidaltzen eta jasotzen direla bermatu behar da, jarduketa horien egiletza, benetakotasuna eta osotasuna ziurtatuz.

Sistema horiek erabiltzeko, baldintza hauek bete behar dira: zergapekoek ados daudela adierazi beharko dute aurretiaz; jarduketan ezaugarriek halako sistemak erabiltzeko aukera eman behar dute, eta jarduketotan parte hartzen duten pertsonak horretarako behar diren baliabideak izan behar dituzte. Dena den, Zerga Administrazioak erregelamendu bidez ezarri ahal izango du noiz izango den nahitaezkoa zergapekoek jarduketa hauek egiteko atal honetan ezartzen diren sistema digitalak erabiltzea. Jarduketak egiten dituzten langileek pertsonaren nortasuna ezagutu behar dute eta hala jasotzen badute espresuki eginbide batean. Alderdi biek sinatu behar dute eginbide hori.

Erregelamenduz zehaztuko dira alderdi hauek: artikuluko honen 8. apartatuan aipatzen diren dokumentuak nola sinatu behar diren elektronikoki Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez; nola eman behar den ordezkaritza agerraldi elektronikoen bidez; zer egin behar den espedienteak agerian jartzeko bide elektronikoen bidez, baita zergak aplikatzeko prozedurak elektronikoki behar bezala garatzeko behar den beste edozein alderdi ere.

98. Artikulua. Zerga-prozeduren amaiera.

1. Zerga-prozedurak honela amaituko dira: ebazpen bidez; atzera eginez gero; eskaeraren oinarri izan den eskubideari uko eginez gero; gertaera bat dela bide prozedurarekin ezin jarraitu bada; iraungitzeagatik; errekerimenduaren xede izan den betebeharra betez gero; zerga-ordenamenduan ezarritako beste kausaren bategatik.
2. Zerga Administrazioak modu automatikoan ematen dituen erantzunak ebazpentzat hartuko dira, prozedura honela amaitu daitekeen prozeduretan.

BIGARREN AZPIATALA ZERGA-LIKIDAZIOAK

99. Artikulua. Zerga-likidazioak: kontzeptua eta motak.

1. Zerga-likidazioa ebazpen-egintza da; beraren bidez Zerga Administrazioaren organo eskudunak zerga-zorraren zenbatekoa edo zerga-arautegiaren arabera itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazten du.

Zerga Administrazioak ez du zertan doitu likidazioak zergapekoek euren autolikidazio, aitorpen, eskaera edo bestelako agirietan adierazitako datuetara.

2. Zerga-likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira.
3. Hauexek izango dira behin betikoak:
 - a) Zerga-betebeharraren elementu guztiak egiaztatu eta ikertu ondoko ikuskapen-prozeduretan egiten direnak, foru arau honetako 144. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutako kasuetan izan ezik.
 - b) Zerga-arautegiaren arabera hala direnak.
4. Gainerako kasuetan zerga-likidazioak behin-behinekoak izango dira.

100. Artikulua. Zerga-likidazioen jakinarazpena.

1. Likidazioak kapitulu honetako 3. atalean ezarritakoari lotuta jakinarazi behar zaizkie zergapekoei.
2. Jakinarazpenean ondokoak agertu behar dira:
 - a) Zergapekoaren identifikazioa.
 - b) Zerga-zorraren zenbatekoa eragin duten elementuak.
 - c) Jakinarazpenaren motibazioa, baldin eta ez badator bat zergapekoak adierazitako datuekin edo hark egindako arauen aplikazio edo interpretazioarekin; horrez gainera jakinarazpena eragin duten gertaerak eta oinarrizko elementuak adierazi behar dira eta Zuzenbideko oinarriak azaldu. .
 - d) Balia daitezkeen inpugnazio-bideak, inpugnazioak aurkeztu behar diren organoa eta aurkezteko epea.
 - e) Zerga-zorra ordaindu behar den lekua, epea eta modua.
 - f) Likidazioa nolakoa den: behin-behinekoa edo behin betikoa.
3. Aldizka ordainagiri bidez kobratzen diren zergetan, behin erregistro, errolda edo matrikula egokian alta emateari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak taldeka jakinarazi ahal izango dira ediktuen bidez (ediktuetan horren berri eman behar da).

Zerga-oinarria aitorpenaren emaitzakoa baino handiagoa bada, zergadunari jakinarazi behar zaio eta jakinarazpenean aldea zerk eragin duen azaldu behar zaio. Hala ere, aldaketa foru arauak baimendutako errebalorazio orokorraren ondorioz gertatzen bada edo tokiko zerga-arautegiaren arabera zergaren elementuetan aldaketa orokorrak sartzen badira, ez da egongo jakinarazi beharrik.

4. Arau bidez ezartzen den kasuetan ez da egin beharko jakinarazpenik, baldin eta Zerga Administrazioak idatziz ohartarazten badio zergapekoari, ez eta autolikidazioak aurkeztu

ondoren egindako itzulketen ondoriozko behin-behineko likidazioetan ere, baldin eta itzultako kopurua eskatutakoa bera bada.

HIRUGARREN AZPIATALA **EBATZI BEHARRA ETA EBAZTEKO EPEAK**

101. Artikulua. Ebatzi beharra.

1. Zerga Administrazioak berariaz ebatzi behar ditu zergak aplikatzeko prozeduretan agertzen diren arazoak, eta gero berariazko ebazpenak jakinarazi behar ditu.
2. Zergapekoek jakinarazi baizik egin behar ez dituzten eskubideak baliatzearen inguruko prozeduretan Administrazioak ez du edukiko berariaz ebatzi beharrik, ez eta iraungitzen diren prozeduretan, xedea galduta dutenetan eta interesdunak uko edo atzera egiten duenetan ere.

Hala ere, interesdunak Zerga Administrazioari berariaz eskatzen badio aipatu inguruabarretako bat gertatu denez argitzeko, hark erantzun egin beharko du.

3. Likidazio-egintzetan, balioa egiaztatzeko egintzetan, betebeharra ezartzen dutenetan, zerga-onura edo zergak aplikatzeko egintzen betearazpenaren etendura ukatzen dutenetan eta indarreko arautegian ezartzen diren beste guztietan arrazoiak azaldu behar dira; horretarako, labur-labur aipatu behar dira egitateak eta Zuzenbideko oinarriak.

102. Artikulua. Ebazteko epeak eta berariazko ebazpena ez ematearen ondoreak.

1. Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegian finkatuko da. Prozedurari buruzko arautetan ez bada ezartzen gehieneko eperik, sei hilabete baino lehen ebatzi behar da. Honela zenbatuko da epea:
 - a) Ofizios hasten diren prozeduretan, hasteko erabakia jakinarazten den egunetik.
 - b) Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, agiria izapidetzeko eskumena duen administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik. Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko premiamendu-prozeduretan; hain zuzen ere, premiamendu-prozeduretako jarduketak preskripzio-epea muga-eguneratu arte egin ahal izango dira.
2. Jakinarazi beharra prozeduren gehieneko epealdiaren barruan betetzat jotzeko, nahikoa izango da jakinarazpen-saiakera bat egin dela egiaztatzea, ebazpenaren testu osoa jasotzen duena.

Bitarteko elektronikoen bidez egindako jakinarazpenak jasotzeko borondatezko betebeharraren edo aukeraren kasuan, prozeduren gehieneko epearen barruan jakinarazteko betebeharra betetzat joko da jakinarazpena interesdunaren eskura jartzen denean, jakinarazpena egintzat jotzen den unea edozein dela ere.

Erregelamendu bidez zehazten diren justifikatutako etenaldiak eta Zergen Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik prozeduran izandako atzerapenak ez dira ebazpen-epearen zenbaketan sartuko.

3. Alderdi batek eskatuta hasten diren prozeduretan, gehieneko epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak arautegian ezarritako ondoreak izango ditu. Alde honetatik, zergak aplikatzeko prozedura guztietan berariaz arautu behar da presuntziozko egintzen erregimen egokia.

Erregimena araututa egon ezean, interesdunek baietsitzat jo dezakete euren eskaera Administrazioaren isiltasuna dela-eta, Konstituzioan ezarritako eskatzeko eskubidea baliarazteko prozeduretan eta egintzak eta xedapenak inpugnatzeko prozeduretan izan ezik, honelakoetan isiltasunak eskaera ezetsiko baitu.

Prozedura zergapekoari egotzi ahal zaion kausa bategatik etenez gero, Administrazioak ohartaraziko dio hiru hilabeteren buruan iraungitzat jo ahal izango duela.

4. Ofizioz hasten diren prozeduretan, ezarritako gehieneko epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak prozedurari buruzko arautegian ezarritako ondoreak izango ditu. Berariazko arautegirik egon ezean, ondore hauek izango ditu:
 - a) Prozeduraren emaitza eskubide bat edo bestelako banakako egoera juridiko bat aintzatestea edo eratzea izan ahal bada eta Administrazioaren isiltasuna gertatzen bada, zergapekoak ezetsitatzat jo ditzake prozedurak eduki ditzakeen aldeko ondoreak.
 - b) Prozeduraren emaitza kontrako ondorea edo karga izan ahal bada, prozedura iraungiko da.
5. Prozedura iraungi ondoren, iraungitzea ofizioz edo interesdunak eskatuta deklaratu da, eta jarduketak artxibatzeko eskatuko da.

Iraungitzeak ez du berez ekarriko zerga-administrazioaren ahalak preskribatzea, baina iraungitako prozeduretan egindako jarduketek ez dute etengo preskripzio-epea, eta ez dira administrazio-errekerimendutzat hartuko, Foru Arau honetan jasotako ondorioetarako.

Iraungitako prozedura batean zehar egindako jarduketek eta prozedura horretan lortutako dokumentuek eta bestelako froga-elementuek beren balioari eta eraginkortasunari eutsiko diete, zergapeko bera edo beste bat dela-eta hasitako edo has daitezkeen beste prozedura batzuetan frogagiri gisa erabili ahal izango baitira.

Lehenengo zenbaki honen lehen paragrafoan adierazitakoa gorabehera, zergapeko bera dela-eta prozedura berri bat hasteko, ez da beharrezkoa izango aurreko prozeduraren aurreko edo aldi bereko deklarazio espresua.

Nolanahi ere, deklarazio hori prozedura berriaren hasierarekin batera jakinarazi ahal izango da, kontuan hartu gabe prozedura organo berak edo beste batek izapidetu duen.

BIGARREN ATALA FROGA

103. Artikulua. Frogabideak, frogaren balioespena eta froga-zama.

1. Zerga-prozeduretan, Kode Zibilean eta Prozedura Zibileko Legean frogabideez eta frogaren balioespenaz ezarritako arauak aplikatuko dira, zerga-arautegian besterik ezarri ezean.

Beste estatu batzuek edo nazioarteko zein nazioz gairik beste erakunde batzuek elkarren laguntzaren esparruan emandako frogak edo informazioak dagokien prozeduran jaso ahal izango dira, aurreko lerroaldearen arabera dagokien froga-balioarekin.

2. Zergak aplikatzeko prozeduretan, eskubide bat baliarazi nahi duenak hura sortu duten egitateak frogatu behar ditu (froga-zama).
3. Baldin eta Zerga Administrazioak bere esku baditu froga-elementuak, zergapekoek haiek zehatz-mehatz adierazita beteko dute eskubidea frogatu beharra.

104. Artikulua. Frogabideei buruzko arau bereziak.

1. Zerga bakoitzari buruzko foru arauan eragiketa jakin batzuk, zerga-betebeharraren zenbatekoa zehazteko kontuan hartu beharrekoak, kengarri izateko bete beharreko betekizun formalak ezarri ahal izango dira.
2. Gastu kengarriak eta aplikatzen diren kenkariak, enpresariak edo profesionalek egindako eragiketek sortu badituzte, frogatu egin behar dira; ahal dela, eragiketa egin duen

enpresariak edo profesionalak emandako faktura aurkeztu behar da. Zerga-arautegian ezarritako baldintzak bete beharko ditu faktura hori.

Hala ere, Administrazioak uste badu fakturaren eraginkortasuna zalantzan jartzen duten oinarri sendoko zantzuak daudela, fakturak frogatze-eraginkortasuna galduko du eta zergapekoak eragiketak benetakoak direla erakusten duten frogak aurkeztu beharko ditu.

3. Baldin eta konpentsatutako edo konpentsatu gabeko oinarriak edo kuotak edo aplikatutako edo aplikatu gabeko kenkariak sortu ziren ekitaldiei dagokienez Administrazioak iraungita edo preskribituta badu hala zerga-zorra, zor horren jatorria eta zenbatekoa zehazteko ahala nola ekitaldian konpentsazio, aplikazioa eta itzulketa egiteko eskubidea sortzeko beharrezko egitateak gertatzen diren sinestatzekoa, orduan, kuota eta kenkariok egiaztatzeko, oinarri eta kenkari horiek jaso ziren likidazioak edo autolikidazioak aurkeztu beharko dira, bai eta kontabilitatea eta behar diren agiri-euskarriak.

105. Artikulua. Eginbideen froga-balioa.

1. Zerga-jarduketetako eta -prozeduretako eginbideak agiri publikoak dira eta formalizatzen dituzten egintzak frogatzen dituzte, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.
2. Eginbideetan ageri diren egitateetatik prozeduraren xede den zergapekoak onartzen dituenak, bai eta haren adierazpenak ere, benetakotzat joko dira eta zergapekoak soilik zuzendu ahal izango ditu, egitatezko errakuntza egin zuela frogatuta.

106. Artikulua. Zergen arloko presuntzioak.

1. Zergei buruzko arauetan ezarritako presuntzioak kontrako frogaren bidez ezaba daitezke, foru arau batek berariaz debekatu ezean. .
2. Foru arauetan ezarri ez diren presuntzioak frogabidetzat onartzeko ezinbestekoa da frogatutako egitatearen eta ondorioztatu nahi denaren artean lotura zehatza eta zuzenekoa egotea giza zentzuaren arabera.
3. Zerga Administrazioak ondasun, eskubide, enpresa, zerbitzu, jarduera, ustategi edo funtzio baten titulartzat jo dezake zerga-erregistroan edo beste erregistro publiko batean titular ageri dena, kontrako frogarik ez badago.
4. Zergapekoek aurkezten dituzten autolikidazioetan, aitorpenetan eta gainerako agirietan adierazitako datuak eta egitate-elementuak benetakotzat joko dira haiei dagokienez, eta beraiek soilik zuzendu ahal izango dituzte kontrako frogaren bidez.

Baldin eta aitorpenetan edo errekerimenduen erantzunetan (foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako informatu beharra betetzeko) adierazten diren datuak beste zergapeko batzuen zerga-egoera erregularizatzeko erabiltzen badira, benetakotzat joko dira; hala ere, zergapekoak oker daudela edo faltsuak direla alegatzen badu, atal honetan xedatutakoaren arabera erkatu beharko dira. Horretarako, aitortzaileari eskatu ahal izango zaio berrets ditzala aurkeztu dituen aitorpenetan gainontzekoez adierazitako datuak eta froga dezala benetan hala direla.

5. Urte batetik beherako likidazio-aldia duten zerga-betebeharren kasuan, urteko kuota modu linealean banatu ahal izango da dagozkion likidazio-adien artean, Zerga Administrazioak, duen informazioa kontuan hartuta, ezin dionean likidazio- aldi jakin bati egotzi tributuaren arautegiaren arabera, eta zergapekoak beste denbora-banaketa bat aplikatu behar dela justifikatzen ez duenean, hori egiteko eskatu bazaio ere.

HIRUGARREN ATALA JAKINARAZPENAK

107. artikulua. Tributuen arloko jakinarazpenak.

1. Zergapekoei egin beharreko jakinarazpenen erregimena administrazio-arau orokorretan ezarri da; nolanahi ere, kontuan eduki behar dira foru arau honetako 100. artikuluan eta 179.4 artikuluan zein atal honetan ezarritako berezitasunak.
2. Interesdunak baliabide telematikoak erabiltzearekin ados dagoela adierazi badu eta modu hori lehenetsi badu, jakinarazpenak telematikoki egin ahal izango dira, hurrengo 3. zenbakian xedatutakoa gorabehera.

Jakinarazpen-sistemari esker, ziurtatu daiteke interesdunari zein data eta ordutan jakinarazi zaion jakinarazitako egintza; halaber, ziurtatu daiteke interesduna noiz sartu den jakinarazpenaren edukira, une horretatik aurrera ulertuko baita jakinarazpena ondorio guztietarako eginda dagoela.

Jakinarazpena interesdunari eman zitzaionetik hogeitaz egun natural baino gehiago igaro arren, interesduna ez bada jakinarazpenaren edukira sartu, ulertuko da ez dela jakinarazpena jaso nahi, eta horrek foru arau honen 109.2 artikuluan ezartzen diren ondorioak ekarriko ditu, salbu eta ofizioz edo hartzailearen eskariz egiaztatzen bada ezintasun teknikoa edo materiala dagoela jakinarazpenaren edukira sartzeko.

3. Zerga Administrazioak erregelamendu bidez ezarri ahal izango du noiz izango den nahitaezkoa soilik baliabide elektronikoak erabiltzea administrazioarekin komunikatzeko.

107.bis artikulua. Jakinarazpenetarako laguntza.

Elkarren laguntzaren esparruan, Zerga Administrazioak emandako egintzak, agintaritza eskudunaren bidez, beste estatu bateko lurraldean jakinarazi ahal izango dira, beste estatu horretako agintaritza eskudunaren laguntzarekin.

Halako jakinarazpenek baldintza bakarra bete behar dute ondorioak sortzeko: laguntza eskatu zaion agintaritzaren komunikazioa jaso behar da, non adierazten duen dagoeneko egin duela berari eskatutako jakinarazpena.

Laguntza beste estatu bati eskatzen zaionean, jakinarazpenerako eskabidea bidali zenetik aurrerako bi hilabeteko epean ezinezkoa izan bada jakinarazpena atzerrian egitea edo laguntza eskatu zaion agintaritzak ez badio Zerga Administrazioari erantzun adieraziz zein egunetan jakinarazi zion dokumentua hartzaileari, administrazioak bertaratuta egin ahal izango du jakinarazpena, foru arau honen 110. artikuluan ezartzen den legez.

Egintza birritan jakinarazten bada, lehenengo jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

Jakinarazten diren dokumentuak Zerga Administrazioak jasotzen dituen hizkuntzan bidaliko zaizkio hartzaileari, salbu eta elkarren laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean.

108. Artikulua. Jakinarazpenak egiteko tokia.

1. Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egingo da, edo bataren edo bestearen zerga-egoitzan.
2. Ofizioz hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoaren edo beraren ordezkariaren zerga-egoitzan, lantokian, jarduera ekonomikoa egiten duen tokian edo jaso-agiria biltzeko aukera ematen duen beste zeinahi tokitan egin ahal izango da.

3. Elkarren laguntzaren esparruan, jakinarazpena, hala badagokio, aurreko zenbakietan zehaztutako lekuetan egiteaz gainera, atzerriko agintaritzak horretarako zehazten duen lekuan ere egin ahal izango da.

Ezin bazaio jakinarazpena egin interesdunari, Zerga Administrazioari egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, eta jakinarazpena egiteko ahalegina egin bada bai zergapekoaren zerga-egoitza bai atzerriko agintaritzak horretarako zehaztutako tokian, foru arau honen 110. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

109. Artikulua. Jakinarazpenak jasotzeko legitimatutako pertsonak.

1. Jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egiten bada, edo bataren edo bestearen zerga-egoitza, eta jakinarazpena heltzean interesduna ez badago, bertan dagoen nornahik jaso ahal izango du, nor den azaldu ondoren, bai eta jakinarazpen-tokia edo zergapekoaren edo ordezkariaren zerga-egoitza dagoen eraikineko auzoen edo jabeen erkidegoaren enplegatu batek ere.

Jakinarazpena bide telematikoen bitartez egiten bada, zergapekoak ez eze, beste hauek ere jaso ahal izango dute: haren ordezkariak edo aitorpenak, autolikidazioak, eskariak eta zerga-eragina duen beste edozien agiri aurkeztu eta kontsultatzeko zergapekoak ordezkari izateko baimena jaso duten pertsona fisikoak zein juridikoak.

2. Interesdunak edo beraren ordezkariak jakinarazpena jaso nahi ez badu ere, lege-ondoreetarako egintzat joko da.

110. artikulua. Bertaratuta jakinaraztea.

1. Zergapekoari edo beraren ordezkariari jakinarazpena egiteko bi ahalegin edo gehiago egin bazaizkio, zerga-egoitza edo interesdunak adierazitako tokian, baina ezin izan bazaio jakinarazpena egin, Zerga Administrazioari egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, espedientean jasoko dira jakinarazpena egiteko ahaleginen inguruabarrak. Egoitza edo toki horretan jasotzailea ezezagun legeaz agertzen bada, ahalegin bat nahikoa izango da.

Hala gertatzen denean, interesdunari edo beraren ordezkariari zitazioa egingo zaio bertaratuta jakinarazteko; horretarako, iragarkiak argitaratuko dira —iragarki bakarria interesdun bakoitzeko—, honako modu hauetako bat erabilita:

- a) Zerga Administrazioaren egoitza elektronikoan, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko araudian zehaztutako baldintzetan.

Zerga Administrazioak modu horretan argitaratuko ditu tributusistema aplikatzeko dagozkion eskumenak betez egin beharreko jakinarazpenak egiteko. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu baten bidez zehaztuko da iragarkiak zer baldintzetan argitaratuko diren Zerga Administrazioaren egoitza elektronikoan, zer egunetan argitaratuko diren eta zenbat denbora egongo diren argitaratuta.

- b) «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean», hilaren 5ean eta 20an edo, hala badagokio, egun horien osteko lehenengo egun baliodunean.

Interesdunaren azken egoitza ezaguna Bizkaitik kanpo egonez gero, ezagutzen den azken zerga-egoitzari dagokion udaletxean ere jarri ahal izango da iragarkia. Ezagutzen den azken egoitza atzerrian badago, berriz, iragarkia dena delako herrialdearen kontsulatuan edo enbaxadako kontsulatu-sailean jarri ahal izango da.

2. Iragarkia egoitza elektronikoan eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean » argitaratzen denean, egiteko dauden jakinarazpenen zerrenda agertuko da eta honako hauek adieraziko dira: jakinarazpen bakoitzeko zergapekoa edo beraren ordezkaria; jakinarazpenak eragin dituen prozedura; izapidetzeko eskumena duen organoa, eta jasotzaileak nora eta noiz joan behar duen jakinarazpena jasotzera.

Dena dela, interesduna beti bertaratu beharko da iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik hamabost egun natural pasatu baino lehen. Aldi horretan bertaraten ez bada, jakinarazpen hori epea amaitzen den egunaren biharamunean egintzat hartuko da, lege-ondorio guztietarako.

3. Zergapekoa edo beraren ordezkaria jakinarazpena jasotzera bertaratu ez eta, ondorioz, prozedura baten hasiera edo beraren izapideetako bat jakinarazitzat jotzen bada, prozeduraren hurrengo jarduerak eta eginbideak ere jakinarazitzat joko dira, eta bere hartan mantenduko da interesdunak prozeduran zehar noiznahi bertaratzeko duen eskubidea. Hala ere, prozeduran ematen diren likidazioak eta enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakiak atal honetan ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko dira.

LAUGARREN ATALA ZERGAPEKOEN EGOITZAN SARTZEA

111. artikulua. Zergapekoak etxean sartzeko baimen judiziala.

Zergak aplikatzeko jarduketetan eta prozeduretan beharrezkoa denean zergapeko baten etxebizitza babestuan sartzea edo bertan erregistroak egitea, Zergen Administrazioak haren baimena edo bidezko baimen judiziala lortu beharko du nahitaez.

Egoitza horretan sartzeko erabakia betearazteko baimen judizialaren eskaerak behar bezala justifikatuta egon beharko du, eta sarrera horren helburua, beharra eta proportzionaltasuna arrazoiu beharko ditu.

Baimen judizialaren eskaera eta emakida egin ahal izango dira, dagokion prozedura formalki hasi aurretik ere, baldin eta sarrera-erabakian zergapekoaren identifikazioa, egiaztatuko diren kontzeptuak eta aldiak jasotzen badira eta organo judizialari ematen bazaizkio.

BOSGARREN ATALA SALAKETA PUBLIKOA

112. Artikulua. Salaketa publikoa.

1. Salaketa publikoaren bidez Zerga Administrazioari jakinarazi ahal zaizkio zergen arloko arau-hauste izan daitezkeen egitateak edo egoerak, edo zergen aplikazioan eragina eduki dezaketenak. Salaketa publikoak ez du zerikusirik foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritakoaren arabera Zerga Administrazioari lagundu beharrarekin.
2. Honelako salaketa bat jasoz gero, organo eskudunari bidaliko zaio, bidezko jarduketak egin ditzan. Organo horrek, salaketa oinarrigabekotzat jotzen badu edo uste badu salatutako egitateak edo pertsonak ez direla identifikatu behar bezala, salaketa artxibatzea erabaki ahal izango du.

Egotzitako egitateak benetakoak direla pentsatzeko behar adina zantzu egon arren Zerga Administrazioak haien berri ez badu, bidezko jarduketei ekin ahal izango zaie. Hala gertatzen denean, salaketa ez da izango administrazio-espedientearen osagaia.

3. Salaketaren ondorioz abiatzen diren administrazio-jarduketetan salatzailea ez da interesduntzat hartuko eta ez zaio emango haien emaitzen berri. Halaber, salatzailea ez da egongo legitimatuta jarduketan emaitzen inguruan errekurtsorik edo erreklamaziorik jartzeko.

SEIGARREN ATALA **EGIAZTATZEKO ETA IKERTZEKO AHALAK ETA EGINKIZUNAK**

113. Artikulua.. Egiaztatzeko eta ikertzeko ahalak eta eginkizunak.

1. Zerga Administrazioak behar diren egitate, egintza eta negozio juridiko guztiak egiaztatu eta ikertu ahal ditu, bai eta haiekin lotutako inguruabar, datu eta agiri guztiak ere, zerga-betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko.
2. Egiaztatzeko eta ikertzeko eginkizunak burutzean, Zerga Administrazioak zergapekoak egindako egitate, egintza eta negozio juridikoak kalifikatuko ditu, hark aurretiaz egindako kalifikazioa gorabehera.
3. Zerga-onura batzuk aplikatu ahal izateko baldintza edo betekizun jakin batzuk ezarri badira eta hauek onurak emateko edo aintzatesteko egintzak eman diren prozeduran egiaztatu ez badira, emate eta aintzatespen egintzok behin-behinekoak izango dira. Zerga Administrazioak geroago, zergak aplikatzeko prozedura batean, baldintza edo betekizunak betetzen direnez egiaztatu ahal izango du eta, beharrezkoa bada, zergapekoaren zerga-egoera erregularizatu, eta horretarako ez du edukiko behin-behineko egintzak foru arau honetako V. tituluaren xedatutakoaren arabera berrikusi beharrik.

ZAZPIGARREN ATALA **IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA**

114. Artikulua. Iruzurraren aurkako plana.

Aldizka, Zerga Administrazioak iruzurraren aurkako plana prestatuko du; plana isilpean edukiko da baina, hala ere, beraren irizpide orokorrak ezagutzera emango dira.

ZORTZIGARREN ATALA **ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA**

114.bis artikulua. Ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenen koordinazioa.

Bat. Ordainarazpena eta ikuskapena egiteko eskumenen koordinazioa egingo da Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera ikuskapen-eskumena administrazio batzuei dagokienean, kasu hauetan:

- a) Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketen erregularizatzeko.
- b) Eragiketen kalifikazioa zergadunak deklaratu dituen moduaz bestera egiteko, baldin eta horren ondorioz zergak jasanarazteko mekanismoa ezarri den zeharkako zergetan jasandako edo jasanarazitako kuotak aldatzen badira.

Bi. Goiko zenbakian adierazitako kasuetan, tributu-administrazioak, zergadunari ebazpen-proposamena egin aurretik edo ikuskapen-akta egin aurretik, eragindako administrazioei jakinarazi beharko dizkie egin beharreko erregularizazioaren egitateak eta zuzenbideko oinarriak.

Bi hilabete igaro badira eta eragindako gainerako administrazioek ebazpen-proposamenaren gaineko oharrik egin ez badute, ulertuko da ebazpena onartuta dagoela, eta administrazio horiek guztiak lotetsita geratuko dira zergadunen aurrean; berez, ebazpenean jasotako irizpideak aplikatuko dizkiete zergadunei.

Oharrik eginez gero, eta lurralde erkideko administrazioaren eta foru administrazioaren baten artean ordainarazpen edo ikuskapen-eskumenak koordinatzeko kasuak direnez, Ekonomia Itunaren 47.ter.Hiru artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio, eta, hala denean, laugarren zenbakian ezarritako ondorioak sortuko dira.

III. KAPITULUA

ZERGAK KUDEATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

LEHENENGO ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

115. Artikulua. Zergen kudeaketa.

1. Zergen kudeaketa esaten zaio ikuskapen eta bilketa eginkizunetan sartzen ez diren zergak aplikatzeko administrazio-jarduketan multzoari.
2. Hain zuzen ere, zergen kudeaketan ondoko administrazio-eginkizun hauek daude:
 - a) Autolikidazioak, aitorpenak eta zerga-ondoreak dituzten gainerako agiri guztiak jasotzea eta izapidetzea.
 - b) Zerga-arautegian ezarritako itzulketak egiaztatzea eta egitea.
 - c) Zerga-onurak eta -pizgarriak eta zerga-araubide bereziak aitortzea eta halakoak bidezkoak diren egiaztatzea, zergak kudeatzeko dagokion prozedura izapidetuta.
 - d) Fakturatu beharra kontrolatzea eta haiek errazteko erabakiak ematea, fakturek zerga-ondoreak dituztenean.
 - e) Zergen aitorpenak edo autolikidazioak eta beste betebeharrak formal batzuk betetzen diren kontrolatzea (are horretarako errekerimenduak ematea ere).
 - f) Aurkezten diren autolikidazioak eta aitorpenak berrikustea.
 - g) Balioak egiaztatzeko jarduketak egitea.
 - h) Egiaztapen mugatuko jarduketak egitea eta foru arau honetako 163. artikuluan aipatutako itzurpenaren aurkako klausula aplikatu ahal izateko txostena ematea.
 - i) Agiriak edo informazioa aurkezteko errekerimenduak ematea.
 - j) Behin-behineko likidazioak egitea.
 - k) Zerga-ziurtagiriak ematea.
 - l) Identifikazio fiskaleko zenbakia ematea eta, behar denean, ezeztatzea, berariazko arautegian ezarritakoaren arabera.
 - m) Zerga-zentsuak egitea eta mantentzea.
 - n) Zergen inguruko informazioa eta laguntza ematea.
3. Aurreko idatz-zatietan aipatutako jarduketak eta eginkizunak foru arau honetan eta garatzen den arautegian ezarritakoaren arabera egingo dira.

116. Artikulua. Zergen kudeaketa hasteko moduak.

Zerga-arautegian ezarritakoaren arabera, zergen kudeaketa honela hasiko da:

- a) Interesdunak eskatuta, autolikidazioaren edo aitorpenaren bidez, edo zergapekoak eskaera aurkeztuta, foru arau honetako 96. artikuluan ezarritakoaren arabera
- b) Zerga Administrazioak ofizioz.

117. Artikulua. Zerga-aitorpena.

1. Zerga-aitorpentzat hartuko dira zergak aplikatzean eragina izan dezakeen egitateren bat aintzatesteko edo agertzeko Zerga Administrazioari aurkezten zaizkion agiri guztiak.

Aitorpena aurkezteak ez dakar berekin zergapekoak zerga-betebeharra bidezkoa dela onartu edo aintzatesti beharra.

2. Arau bidez ezarri ahal izango da zein kasutan onar daitekeen aitorpena ahoz edo ezagutza adierazteko bestelako egintza baten bidez egitea.
3. Oro har, aitorpena aurkeztuta baliarazten edo eskatzen diren edo uko egiten zaien aukerak ezin zuzendu izango dira geroago, aitorpen-aldian izan ezean.

Hala ere, zerga-arautegian aukera horiek zuzentzeko beste une edo aldi bat ezarri ahal izango da, bai eta horretarako baldintzak ere.

4. Zerga Administrazioak zergapekoek aurkeztutako aitorpenak berrikusi eta egiaztatu ahal izango ditu eta, behar denean, likidazioak egingo ditu.

118. artikulua. Autolikidazioak.

1. Autolikidazioak aitorpenak dira; beraien bidez zergapekoek, Administrazioari zerga likidatzeko behar diren datuak eta bestelako datu informatibo batzuk emateaz gainera, euren kabuz egiten dituzte zerga-zorra zehazteko eta zenbatekoa sartzeko edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazteko behar diren kalifikazio-eragiketa eta kalkulu guztiak.

Halaber, autolikidazio izango dira berariazko arautegian ezarritako baldintzak betetzen dituzten zergapekoek, Zerga Administrazioak lagunduta, aurreko idatz-zatian aipatutako jarduketak egiteko aurkezten dituzten aitorpenak.

2. Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, zuzentzeko eskatu ahal izango du arau bidez ezarritako prozedurari lotuta.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz zergapekoari zerga-arautegiaren araberrako itzulketak egin behar bazaio eta likidaziorik egin gabe sei hilabete pasatu badira eta horren kausa Zerga Administrazioari egotzi ahal bazaio, honek itzuli beharreko kopuruaren berandutza-interesak (foru arau honetako 26. artikuluan aipatuak) ordaindu beharko ditu; zergapekoak ez du edukiko interesok ordaintzeko eskatu beharrik.

Ondore horietarako, sei hilabeteko epea autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen edo, ordurako amaituta badago, autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkezten denetik.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz bidegabe sartutako kopuru bat itzuli behar bada, Zerga Administrazioak haren berandutza-interesak ordainduko ditu, foru arau honetako 31. artikuluan adierazitakoari lotuta.

119. Artikulua. Aitorpen eta autolikidazio osagarriak edo ordezkioak.

1. Zergapekoek autolikidazio osagarriak, edo aitorpen osagarriak edo ordezkioak, aurkeztu ahal izango dituzte berariaz ezarritako epean, edo epea mugaeguneratutakoan, baldin eta Administrazioak zerga-zorra zehazteko duen ahala preskribituta edo iraungita ez badago. Ahal hori preskribituta edo iraungita aurkezten direnak epe kanpokoak izango dira.
2. Autolikidazio osagarrien helburua aurretik aurkeztutako bat osa-tzea edo aldatzea da; autolikidazio hauek sartu beharreko diru kopurua aurreko autolikidaziokoa baino handiagoa edo itzuli edo konpentsatu beharrekoa baino txikiagoa denean aurkeztu ahal izango dira.

Gainerako kasuetan, foru arau honetako 118. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, eta berariaz besterik ezarri ezean, salbuespen, kenkari edo zerga-pizgarri bat aplikatu ondoren aplikatzeko eskubidea galtzen bada ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, zergapekoak ez-betetzea gertatu den zergaldiko autolikidazioan salbuespenaren, kenkariaren edo zerga-pizgarriaren kuota edo kopurua sartu beharko du, bai eta haren berandutza-interesak ere.

3. Aitorpen osagarrien edo ordezeko aitorpenen helburua aurreko aitorpen bat osatzea edo ordezte da; aitorpena osagarria edo ordezkoa den zehaztu behar da.

BIGARREN ATALA

ZERGAK KUDEATZEKO PROZEDURAK

120. Artikulua. Zergak kudeatzeko prozedurak.

1. Hauek dira zergak kudeatzeko prozedurak, besteak beste:
 - a) Autolikidazio bidez hasitako prozedura.
 - b) Aitorpen bidez hasitako prozedura.
 - c) Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura.
 - d) Ofizios hasten diren itzulketa-prozedurak eta zerga-zorraren zenbatekoa zehazteko prozedurak.
 - e) Balioak egiaztatze prozedura.
 - f) Egiaztapen mugatuaren prozedura.
2. Arau bidez zergak kudeatzeko beste prozedura batzuk arautu ahal izango dira; nolana ere, prozedura horiei titulu honetako II. kapituluaren ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

LEHENENGO AZPIATALA

AUTOLIKIDAZIOAREN BIDEZ HASTEN DEN PROZEDURA

121. Artikulua. Autolikidazioaren bidez hasten den prozedura izapidetzea.

1. Zergari buruzko arautegian ezarritako gero, beraren kudeaketa zergapekoak autolikidazioa aurkeztuta hasiko da; bertan zergapekoak zerga-zorraren zenbatekoa edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehaztu behar du.
2. Autolikidazioaren emaitza diru kopuru bat itzuli beharra bada, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio baten bidez itzuli beharko du.

Foru arau honetako 30. artikuluan itzulketa egiteko aipatutako epea autolikidazioa egiteko epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen, edo, bestela, epea kanpo aurkeztu bada, aurkeztu den egunetik aurrera. Azkenean itzultzen den kopuruaren berandutza-interesak ordaindu beharko dira, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera, behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura, egiaztapen mugatuaren prozedura edo ikuskapen prozedura hasten bada ere.

3. Autolikidazio bidez hasitako prozedura honela amaituko da, foru arau honetako 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren, hala badagokio:
 - a) Zerga Administrazioak egindako behin-behineko likidazio baten bidez.

- b) Iraungitzearen ondorioz, autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik edo, epea kanpo aurkeztu bada, aurkeztu zen egunetik sei hilabeteko epea pasatu bada.

Egiaztapen murriztuaren prozedura bat edo balioak egiaztatze bat hasten denean, eten egingo da aurreko paragrafoan aipatutako iraungitze-epea, prozedura horiek amaitu arte.

Hala ere, aurkeztutako autolikidazioaren emaitza dirua itzuli beharra bada eta prozedura iraungita badago letra honetan ezarritakoaren arabera, Administrazioak autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura bat hasi beharko du, foru arau honetako 124 bis artikuluan xedatukoarekin bat etorritik. Bi hilabeteko epearen barruan hasi beharko du prozedura hori, autolikidazio bidez hasitako prozedura iraungi denetik hasita.

Edonola ere, azkenean itzultzen den kopuruaren berandutza-interesak ordaindu beharko dira, foru arau honetako 30. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

- c) Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura bat hasi delako, foru arau honetako 124 bis artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarritako kasuetan.
- d) Egiaztapen mugatuaren prozedura baten edo ikuskapen-prozedura bat hastearen ondorioz; salbuespen dira egiaztapen murriztuaren prozedura eta egiaztapen laburtuaren prozedura.

BIGARREN AZPIATALA

AITORPENAREN BIDEZ HASTEN DEN PROZEDURA

122. Artikulua. Aitorpen bidez hasitako prozeduraren izapidetzea.

1. Zergari buruzko arautegiak hala ezartzen duenean, haren kudeaketa zergapekoak aitorpena aurkeztuta hasiko da; bertan zergapekoak zerga-egitatea gertatu dela jakinarazi behar dio Zerga Administrazioari eta behar dituen datu guztiak eman behar dizkio, zerga-betebeharraren zenbatekoa zehatz dezan behin-behineko likidazio baten bidez.

Zerga Administrazioak berriro hasi ahal izango du zerga likidatzeko prozedura hau foru arau honetako 67. eta 70. artikuluetan aipatzen diren preskripzio-epeen eta iraungipen-epeen barruan, aitorpen bidez hasitako prozedura iraungitzearen ondorioz bukatu bada, artikulua honetako 3. zenbakiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Zerga Administrazioak aurreko zenbakian aipatutako likidazioa jakinarazi beharko du, foru arau honetako 123. eta 124. artikuluetan xedatutako azterketa, kalifikazio eta zenbatze jarduketak egin ondoren (behar denean).
3. Zergapekoak aurkeztutako aitorpen bidez hasitako prozedura foru arau honetako 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren (hala denean) amaituko da, arrazoi hauetako baten ondorioz:

- a) Zerga Administrazioak egindako behin-behineko likidazio baten ondorioz.
- b) Iraungitzearen ondorioz; aitorpena aurkezteko epea amaitzen denetik, aitorpena aurkeztu den egunetik (epea kanpo aurkeztu bada) edo artikulua honetako 1. zenbakiko bigarren paragrafoan aipatutako kasuari dagokion prozedura hasi dela jakinarazteko Administrazioak bidalitako komunikazioa egin eta biharamunetik sei hilabeteko epea igarota gertatuko da. Nolanahi ere, honelako prozedura bat iraungitakoan Zerga Administrazioak beste bati ekin ahal izango dio zerga-zorra zehazteko ahala preskribatu edo iraungi baino lehen.

Egiaztapen murriztuaren prozedura bat edo balioak egiaztatze bat hasten denean, eten egingo da aurreko paragrafoan aipatutako sei hilabeteko iraungitze- epea, prozedura horiek amaitu arte.

- c) Egiaztapen mugatuaren prozedura baten edo ikuskapen-prozedura baten hasieragatik; salbuespen dira egiaztapen murriztuaren prozedura eta egiaztapen laburtuaren prozedura.

HIRUGARREN AZPIATALA

AUTOLIKIDAZIOAREN BIDEZ ETA AITORPENAREN BIDEZ HASTEN DIREN PROZEDUREI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

123. Artikulua. Autolikidazioen eta aitorpenen azterketa.

1. Zerga Administrazioak aurkeztu zaizkion autolikidazioak edo aitorpenak eta haiei atxikitako agiriak aztertu ahal izango ditu zerga-arautegia zuzen aplikatu den eta adierazitako datuak berak dituenekin bat datozen egiaztatzeko.
2. Aurreko zenbakian aipatutakoa egiteko, Administrazioak autolikidazioetan edo aitorpenetan adierazitako datuak argitzeko edo frogatzeko eska diezaieke zergapekoari, baita zerga zuzen aplikatzeko behar diren agiriak aurkezteko ere.

Zehazki, aurkeztutako autolikidazioaren emaitza dirua itzuli behar bada, Administrazioak haiek aurkezteko eskatu ahal izango dio zergapekoari: zerga-arautegian xedatutakoaren arabera erabili behar dituen liburuak eta gainerako erregistroak eta haietan egindako idazpen eta oharren oinarri diren agiri guztiak ere.

Hala ere, prozedura hauen barruan, Zerga Administrazioak ezin izango dio eskatu zergapekoari merkataritzako kontabilitatearen kopiarik, eta ezin izango du egin zergapekoaren jardura ekonomikoen etekina zehazteko kontuan hartzen diren aitoritutako osagai guztien berrikuspen orokorra. Halakorik egin nahi badu, egiaztapen mugatuaren prozedura bat (atal honetako seigarren azpiatalean arautzen da) edo ikuskapen-prozedura bat hasi beharko du.

124. Artikulua. Behin-behineko likidazioak.

1. Zerga Administrazioak inolako izapiderik gabe egin ahal izango du behin-behineko likidazioa zergapekoak eskatutako kopurua itzultzeko, foru arau honetako 121. artikuluko 2. idatz-zatian adierazi den bezala, eta aitorpenaren bidez hasitako prozedura bat azkentzeko, 122. artikuluan adierazi den bezala.
2. Halaber, Administrazioak ondoko kasuetan egin ahal izango du behin-behineko likidazioa aurretiaz zergapekoari likidazio-proposamena jakinarazi gabe:
 - a) Zergapekoaren aitorpenak edo autolikidazioak akats formalen bat duenean edo bertako kalkulu aritmetikoren bat oker dagoenean.
 - b) Aitoritutako datuak ez datozenean bat zergapekoak aurkeztutako beste aitorpen batzuetan adierazitakoekin edo Zerga Administrazioak dituenekin, hau da, gainontzekoei, foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako informatu beharra betetzeko, orokorrean eskatutako aitorpenetan adierazitakoekin.
 - c) Aitorpenean edo autolikidazioan bertan edo aurkeztutako frogagiritan zerga-araubidea gaizki aplikatu dela antzematen denean.
 - d) Foru arau honetako 154. artikuluan aipatutako egiaztapen murriztuaren prozeduraren ondorioa denean. Hala ere, zerga-administrazioak (behin zerga-ikuskaritzak txostena eginik) okertzat jotzen badu aurkeztutako autolikidazioa edo aitorpena, zergapekoari likidazio-proposamena jakinarazi beharko zaio behin-behineko likidazioa egin aurretik, eskubidez komeni zaiona alega dezan.
3. Zergapekoak adierazten badu ez dagoela ados Administrazioak dituen datuekin, foru arau honetako 106. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

4. Zerga Administrazioak arrazoitu egin behar ditu jakinarazten dituen proposamenak eta egiten dituen behin-behineko likidazioak; hain zuzen ere, kontuan izan dituen egitateak eta Zuzenbideko oinarriak azaldu behar ditu labur-labur.

5. ...

6. ...

HIRUGARREN BIS AZPIATALA

BEHIN-BEHINEKO AUTOLIKIDAZIOAK ETA LIKIDAZIOAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA

124.bis Artikulua. Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura izapidetzea.

1. Zerga Administrazioak ofizioz hasi ahal izango du behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura, kasu hauetan:

a) Autolikidazio bidez hasitako prozedura bat iraungitzearen ondorioz amaitzen denean.

Dena den, foru arau honetako 121. artikuluko 3. zenbakiko b) letrako hirugarren paragrafoan jasotako kasuetan, derrigorrezkoa izango da prozedura hau hastea.

b) Zergapekoari dokumentazioa aurkez dezala eskatzeko Zerga Administrazioak prozedura hastea erabakitzen duenean (autolikidazio bidez hasitako prozedura bat iraungitzearen ondorioz amaitu aurretik), edo zergapekoaren tributuko egoera erregulatu beharra egiaztatzen duten zantzuak daudenean.

c) Zerga Administrazioak ikusten duenean behin-behineko likidazio baten bidez berrikusi den autolikidazioan edo aitortzean foru arau honetako 124. artikuluko 2. zenbakia jasotako inguruabarren bat gertatzen dela edo aurreko behin-behineko likidazioetan kontuan hartu ez diren beste batzuk.

2. Ezin izango da hasi behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura bat, baldin eta autolikidazio edo aitortze bera dela-eta behin betiko likidazioa egin bada, foru arau honetako 99. artikuluko 3. zenbakian xedatutakoarekin bat etorruta.

Halaber, ezin izango da behin-behineko likidazio gehiago egin, egiaztapen mugatuko prozedura baten pean jarri diren tributuko betebeharrak edo haien osagaiak direla eta, foru arau honetako 133. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoa gorabehera.

3. Foru arau honetako 123. eta 124. artikuluetan ezarritako arauak aplikatu beharrekoak izango dira behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozeduraren izapideetan.

4. Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozesua foru arau honetako 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren (hala denean) amaituko da, arrazoi hauetako baten ondorioz:

a) Zerga Administrazioak egindako behin-behineko likidazio baten ondorioz.

b) Iraungitzearen ondorioz; hasteko erabakia jakinarazten den egunetik sei hilabete igoz gertatuko da. Nolanahi ere, honelako prozedura bat iraungitakoan Zerga Administrazioak beste bati ekin ahal izango dio zerga-zorra zehazteko ahala preskribitu edo iraungi baino lehen.

Egiaztapen murriztuaren prozedura bat edo balioak egiaztatze baten hasten denean, eten egingo da aurreko paragrafoan aipatutako sei hilabeteko iraungitze- epea, prozedura horiek amaitu arte.

- c) Egiaztapen mugatuaren prozedura baten edo ikuskapen-prozedura baten hasieragatik; salbuespen dira egiaztapen murriztuaren prozedura eta egiaztapen laburtuaren prozedura.

LAUGARREN AZPIATALA

OFIZIOZ HASTEN DIREN ITZULKETA-PROZEDURAK ETA ZERGA-ZORRAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO PROZEDURAK

125. Artikulua. Likidazio-proposamenak.

1. Zerga arautegian ezarritik gero, Administrazioak eskura dauzkan datuak, aurrekariak eta gainerako elementuak oinarritzat hartu eta likidazio-proposamenak (dirua itzuli beharra, sartu beharra edo konpentsatu beharra) bidali ahal izango dizkie aurretiaz hautatutako zergapeko batzuei, euren betebeharrak errazago bete ditzaten.
2. Zergapekoak proposamenarekin ados dagoela adierazten badu, berariaz zein isilbidez, Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du eta emaitzako kopurua itzuli, kobratu edo konpentsatuko du. Horrelako kasuetan zergapekoak ez du edukiko autolikidazioa edo aitorpena aurkeztu beharrikasuetan zergapekoak ez du edukiko autolikidazioa edo aitorpena aurkeztu beharrik.
3. Zerga arautegian behin-behineko likidazioak zein kasutan zuzendu daitezkeen eta prozedura horren inguruko arazo guztiak araupetuko dira.

126. Artikulua. Zerga-zorraren zenbatekoa ofizioz zehazteko prozedura.

1. Zerga Administrazioak zergapeko bati errekerimendua bidaltzen badiu arauzko epean aurkeztu ez duen autolikidazioa edo aitorpena aurkez dezan, errekerimendua jakinarazi eta hilabete pasatu ondoren behin-behineko likidazioa, zerga-zorraren zenbatekoa zehaztuko duena, ofizioz egiteko prozedura abiarazi ahal izango du; nolanahi ere, zergapekoak epe horretan eskatutakoa aurkezten badu edo aurkeztu beharrik ez dagoela frogatzen badu behar bezala, behin-behineko likidazio hori ez da egingo.
2. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, Administrazioak likidazio-proposamena jakinaraziko dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alega dezan.
3. Zerga-zorra Zerga Administrazioak dituen datuak, aurrekariak, zeinuak, indizeak, moduluak eta zerga-eragina duten gainerako elementuak kontuan hartuta zehaztuko da.
4. Aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, Zerga Administrazioak behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura bat hasi ahal izango du foru arau honetako 124 bis artikuluan ezarritako kasuetan.

BOSGARREN AZPIATALA

BALIOAK EGIAZTATZEKO PROZEDURA

127. Artikulua. Balioen egiaztapena.

1. Zerga Administrazioak balioak egiaztatu ahal ditu foru arau honetako 55. artikuluan ezarritako bideak erabilita, bertan edo kasuan kasuko zergari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera.

Prozedura hau berariazko jakinarazpenarekin abiaraziko da, edo bestela, nahikoa datu edukiz gero, behin-behineko likidazioa eta artikulua honetako 2. idatz-zatian aipatutako balioespena batera jakinarazita.

2. Zerga Administrazioak zehaztutako balioa eta zergapekoak aitortutakoa bat ez badatoz, hark bere balioespenaren berri emango dio zergapekoari, behar bezala arrazoituta (erabilitako baliabideak eta irizpideak azalduta), behin-behineko likidazioaren jakinarazpenarekin, aurretik jakinarazita egon ezean.

Zergapekoek Administrazioaren balioespenen aurka ezin dute aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina peritu-tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute, bai eta balioespenaren inguruko arazoak planteatu ere erregularizazio-egintzaren aurka jartzen diren errekurtsioak edo erreklamazioak direla bide.

Egiaztapen-egintza bereiz jakinarazi bada, ez da aplikatuko aurreko paragrafoan xedatutakoa.

3. Foru arau bidez ezartzen bada egiaztatutako balioak ondoreak sortu behar dituela beste zergapeko batzuen kasuetan, administrazio jardulea balio horri lotu beharko zaio gainerako interesdunei dagokienez. Foru arauan interesdun horiei egiaztatutako balioa jakinarazi beharra ezarri ahal izango da, inpugnazioa edo tasazio kontrajarria sustatzeko aukera izan dezaten.

Geroago, egiaztatutako balioa beste prozedura batean beste zergapeko batzuei aplikatzen zaienean, haiek inpugnazioa edo tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute, balioaren egiaztapena aurretiaz jakinarazi ez bazaie.

4. Zergapeko batek inpugnazioa edo tasazio kontrajarria sustatzen badu eta haren emaitzako balioa desberdina bada, gainerako zergapekoek aplikatu ahal izango zaie eta aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoa hartuko da kontuan.

128. Artikulua. Tasazio kontrajarria.

1. Interesdunek, foru arau honetako 55. artikuluan balioak egiaztatzeko ezarritako bideak zuzentzeko, peritu-tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute Administrazioak egiaztatutako balioen aurka edo, zerga-arautegian ezarrita egonez gero, behar bezala jakinarazitako balioen egiaztapen-egintzaren aurka lehenengo jar daitekeen errekurtsioaren edo erreklamazioaren epearen barruan.

Zerga-arautegian ezarrita egonez gero, interesdunak beretzat gorde ahal izango du tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidea, jakinarazpenean aitortutako balioak aldatzeko nahikoa datu eta arrazoi ez dela adierazi uste badu eta hori berraztertzeko errekurtsio edo administrazioarekiko diru-erreklamazio batean salatzen badu. Hala gertatzen bada, zergapekoak hilabeteko epea izango du tasazio kontrajarria sustatzeko, aurretik aurkeztutako errekurtsioa edo erreklamazioa ebazten duen erabakia administrazio-bidean irmo bihurtzen den egunetik aurrera.

Peritu-tasazio kontrajarria sustatzeko prozedura ebazteko gehieneko epea arauz ezarriko da.

Interesdunak peritu-tasazio kontrajarrirako eskabidea aurkezten badu edo hura sustatzeko eskubideari eusten badio (aurreko paragrafoan aipatu da eskubide hori), likidazioaren betearazpena eten egingo da, bai eta haren aurkako errekurtsioa edo erreklamazioa jartzeko epea ere. Halaber, interesdunak peritu-tasazio kontrajarrirako eskabidea aurkezten badu, eten egingo da likidazioaren ondorioz hasitako zehapen-prozedura (hala denean) hasteko epea edo, zehapen-prozedura hasita badago, hura amaitzeko gehieneko epea. Peritu-tasazio kontrajarrirako prozedura amaitu ondoren, dagokion likidazioaren jakinarazpenean zehaztuko da foru arau honetako 216. artikuluko 2. zenbakian jasotako epea osorik hasi behar den zenbatzen jakinarazpen horretatik aurrera edo —prozedura hasita badago— epea amaitzeko falta den denbora zenbatzen hasi behar den.

Likidazioaren aurka jarritako peritu-tasazio kontrajarria eskatzen den unean zehapena ezarrita badago eta haren ondorioz likidazio berri bat egiten bada, orduan, zehapena deuseztatu egingo da, eta beste bat ezarriko, likidazio berriaren kuantifikazioa aintzat hartuta.

2. Egiaztatutako balioa Administrazioaren peritu baten irizpenaren bidez zehaztu ez bada, haren peritu batek egin beharko du balioespena.

Zergari buruzko foru arauan besterik xedatu ezean, perituak ez badatoz bat ondasunen edo eskubideen balioespenean eta Administrazioaren perituaren tasazioa ez bada 120.000 euro baino gehiago eta zergapekoaren perituarena baino %10 handiagoa, azken hau hartuko da oinarritzat likidaziorako.

3. Hirugarren perituak izendatzeko prozedura eta haien jardunerako baldintzak arau bidez ezarriko dira. Perituak legez aintzatetsitako elkargo, elkarte edo korporazioetakoak izan behar dira, hain zuzen ere balioetsi beharreko ondasunen edo eskubideen izaeraren arabera bidezkotzat jotzen diren elkargo, elkarte eta korporazioetakoak. Balioetsi beharreko ondasunen edo eskubideen izaerarako gai den elkargo, elkarte edo korporaziorik ez badago, ez gainontzeko peritu lanak egin nahi dituen profesionalik, erregistro ofizial egokian inskribatutako tasazio-sozietatea izendatuko da.
4. Hirugarren perituaren balioespena likidazioaren oinarritzat hartuko da, aitortutako balioa eta Administrazioaren lehenengo aldian egiaztatutako balioa muga direla; balioespen horren aurka ezin aurkeztu izango da errekursorik.

SEIGARREN AZPIATALA **EGIAZTAPEN MUGATUAREN PROZEDURA**

129. Artikulua. Egiaztapen mugatua.

1. Egiaztapen mugatuaren prozeduraren bidez, Zerga Administrazioak tributuzko betebeharrean eragina duten egitateak, egintzak, elementuak, jarduerak, ustiapenak eta gainerako inguruabar guztiak egiaztatu ditzake.

Bereziki, Zerga Administrazioak zergapekoaren jarduera ekonomikoen etekina zehazteko kontuan hartzen diren osagai guztien berrikuspen orokorra egiten duenean erabiliko du Zerga Administrazioak egiaztapen mugatuaren prozedura, ikuskapeneko prozedura bat erabiltzen duenean izan ezik.

2. Prozedura honetan Zerga Administrazioak ondoko jarduketak soilik egin ditzake:
 - a) Zergapekoek euren aitortzearen edo autolikidazioetan adierazitako datuak eta haiek aurkeztutako frogagiriak edo eskatzen direnak aztertu.
 - b) Zerga Administrazioak dituen datuak eta aurrekariak aztertu, hain zuzen ere zerga-egitatea edo zerga-betebeharrearen eragilea gertatu dela edo zergapekoak zerga-betebeharrean eragina duten elementuak ez dituela aitortu edo aitortu dituenekin bat ez datozen elementuak daudela agertzen dutenak.
 - c) Erregistroak eta zerga-arauek eskatzen diren gainerako agiriak aztertu, bai eta bestelako liburu, erregistro eta agiri ofizial guztiak ere (merkataritzako kontabilitatearen kopia barne), eta liburu, erregistro eta agiri horietan adierazitako eragiketak frogatzen dituzten fakturak edo agiriak miatu.
 - d) Gainontzekoei errekerimenduak egin, informazioa emateko, foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako betebeharrak orokorraren arabera, edo informazio hori frogagiri egokiaren bidez berresteko. .
3. Gainontzekoei inolaz ere ezin zaie egin finantza-mugimenduei buruzko errekerimendurik; hala ere, zergapekoei zerga-betebeharren oinarrian edo kuotan eragina duten finantza-eragiketen frogagiriak aurkezteko eskatu ahal izango zaie.
4. Egiaztapen mugatuaren jarduketak Zerga Administrazioaren bulegoetan egingo dira.

130. artikulua. Egiaztapen mugatuaren prozeduraren hasiera.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedurako jarduketak ofizioz hasiko dira, organo eskudunak erabakitak.

2. Zergapekoei egiaztapen mugatuaren prozedurako jarduketak hasi direla jakinarazi behar zaie. Horretarako komunikazioa bidaliko zaie eta bertan jarduketak nolakoak izango diren eta nora helduko diren azaldu behar zaie eta haien inguruan dituzten eskubideak eta betebeharrak argitu behar zaizkie.

131. Artikulua. Egiaztapen mugatuaren prozedura izapidetzea.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedurako jarduerak foru arau honetako 97. artikuluko 8. idatz-zatian aipatutako komunikazioetan eta eginbideetan dokumentatuko dira, beharrezkoa denean.
2. Errekerimendua bidaliz gero, zergapekoak adierazitako tokira joan behar dira jarduketak egitera, zehaztutako egunean eta orduan; horrez gainera eskatutako agiri eta elementu guztiak aurkeztu beharko dituzte.
3. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, Zerga Administrazioak likidazio-proposamena jakinarazi behar dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alega dezan.

132. Artikulua. Egiaztapen mugatuaren prozeduraren amaiera.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedura modu hauetako batean amaituko da:
 - a) Zerga Administrazioak berariazko ebazpena emanda; ebazpenaren edukia ondoko idatz-zatian zehaztuko da.
 - b) Iraungitzearen ondorioz; hasteko erabakia jakinarazten den egunetik bederatzi hilabete igarota gertatuko da. Nolanahi ere, honelako prozedura bat iraungitakoan Zerga Administrazioak beste bati ekin ahal izango dio zerga-zorra zehazteko ahala preskribitu edo iraungi baino lehen.
 - c) Egiaztapen mugatuaren xedea hartzen duen egiaztapen eta ikerketa prozedura bat abiarazita.
2. Egiaztapen mugatuaren prozedura azkentzen duten administrazio-ebazpenek ondokoak zehaztu behar dituzte, gutxienez:
 - a) Zerga-betebeharra edo beraren elementuak, eta egiaztatu den aldia.
 - b) Egindako jarduketak.
 - c) Ebazpenaren arrazoi diren egitateak eta Zuzenbideko oinarriak.
 - d) Behin-behineko likidazioa edo, bestela, egiaztapenaren ondorioz zerga-egoera erregularizatu beharrik ez dagoelako berariazko adierazpena.

133. Artikulua. Egiaztapen mugatuaren prozeduraren bidezko erregularizazioaren ondoreak.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedura baten ebazpena eman ondoren Zerga Administrazioak ezin erregularizatu izango du berriz egiaztatutakoa, geroago beste egiaztapen mugatuaren prozedura batean edo ikuskapen-prozedura batean ebazpenean adierazitakoez beste jarduketa batzuen ondoriozko egitate edo inguruabar berriak antzeman ezean.
2. Zergapekoak, edo beraren ordezkariak, berariaz adierazten badu zerga-zorren egitateekin eta hartan eragina duten elementuekin ados dagoela, ezin inpugnatu izango dira, egitatezko errakuntza gertatu dela frogatu ezean.

IV. KAPITULUA

IKUSKAPENEO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

LEHENENGO ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO AZPIATALA

EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK

134. Artikulua. Zerga-ikuskapena.

Zergak kudeatzeko prozeduren esparruan gauza daitezkeen eginkizunak alde batera utzi gabe, eta prozedura horiek garatzean egin daitezkeen jarduketak kontuan hartuta, zerga-ikuskaritza honako hauetara bideratutako administrazio-eginkizunak betetzean datza:

- a) Zerga-betebeharren egitateak ikertzea, Administrazioak ezagutzen ez dituenen berri jakiteko.
- b) Zergapekoek aurkeztutako aitorpenen eta autolikidazioen benetakotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.
- c) Zergen ezarpenarekin zerikusia duten informazioa lortzeko jarduerak burutzea, foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- d) Zerga-betebeharrak zehazteko beharrezkoa denean, eskubideen, errenten, ekoizkinen, ondasunen, ondareen, enpresen eta gainontzeko elementuen balioa egiaztatzea, foru arau honetako 127. eta 128. artikuluetan xedatutakoa aplikatuta.
- e) Zerga onurak edo pizgarriak aplikatzeko eta zerga-itzulketak lortzeko behar diren betekizunak, eta zerga-erregimen bereziak ezarri ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla frogatzen dituzten egiaztapenak.
- f) Ikuskapen-jarduketak direla-eta zergapekoei euren eskubide eta betebeharren inguruko informazioa ematea, eta betebeharrak nola bete behar dituzten azaltzea.
- g) Egiaztapen- eta ikerketa-jarduketan eta erregularizazio-jarduketan ondoriozko zerga-likidazioak egitea zergapekoak bertaratu gabe.
- h) Herri Administrazioko beste organo batzuei aholkuak zein txostenak ematea, eta foru arau honetako 163. artikuluan aipatutako itzurpenaren aurkako klausula aplikatu ahal izateko txostena ematea.
- i) Zergen arloko behin betiko zein behin-behineko esku-hartzeak egitea (berariazko arautegia dute).
- j) Beste xedapen batzuetan ezartzen direnak edo agintaritza eskudunak agintzen dituenak.

135. Artikulua. Zerga ikuskapenaren ahalmenak.

- 1. Ikuskapen-jarduketak honela egingo dira: batetik jarduera ekonomikoei buruzko agiriak, liburuak, kontabilitate orokorra eta lagungarria, fitxategiak, fakturak, egiaztagiria, zerga-eragina duen posta, informatizatutako datu-baseak, programak, erregistroak eta artxibo informatikoak aztertuko dira; bestetik ondasunak, elementuak, ustiapenak eta zerga-betebeharra eskatzeko Administrazioari eman behar zaizkion edo beharrezko diren aurrekari edo informazio guztiak ikuskatuko dira.
- 2. Ikuskapen-jarduerak hala eskatzen dutenean, zergak ikuskatzeko eginkizunak betetzen dituzten funtzionarioak sartu ahal izango dira, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, zergapeko jarduerak edo ustiapenak garatzen diren finketan, negozio-lokaletan eta gainerako establezimendu edo lekuetan, tributazioari lotutako ondasunak

daudenean, zergapeko egitateak edo zerga-betebeharren egitatezko kasuak gertatzen direnean edo horien frogarik dagoenean.

Aurreko paragrafoan aipatutako lekuak zaintzapean dituen pertsonak kontra egiten badio zergen ikuskatzailetzako funtzionarioak sartzeari, erregelamendu bidez zehaztuko den organoaren sarrera-erabakia beharko da.

Ikuskapen-jarduketak gauzatzeko zergapekoaren etxebizitza babestuan sartzea beharrezkoa denean, foru arau honen 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da nahitaez. Baimen judiziala eskatzeko, aipatutako artikuluan jasotako sarrera-erabakia erantsi beharko da, erregelamendu bidez zehazten den administrazio-agintaritzak sinatua.

3. Ikuskaritzak eskatuz gero, zergapekoa, edo beraren ordezkaria, ezarritako lekura bertaratu behar da, agindutako egunean eta orduan, jarduketak egitera, eta ikuskatzaileen esku utzi beharko ditu eskatutako agiri eta gainontzeko elementu guztiak.

Salbuespen gisa, ikuskaritzak, egin beharreko jarduketetarako beharrezkoa bada, zergapekoa bera bertaratzeko eskatu ahal izango du; eskaera arrazoiak azaldu behar ditu.

4. Ikuskapen-lanak egiten dituzten funtzionarioak agintaritzaren agentetzat hartuko dira; norbaitek eskatuz gero, ikuskatzaileak direla frogatu beharko dute.

Agintari publikoek babesa eta laguntza eskainiko dizkiete funtzionarioei euren ikuskapen-lanak burutzeko.

BIGARREN AZPIATALA **IKUSKAPEN-JARDUKETEN DOKUMENTAZIOA**

136. Artikulua. Ikuskapen-jarduketen dokumentazioa.

1. Zergak ikuskatzeko jarduketak foru arau honetako 97. artikuluko 8. idatz-zatian aipatutako komunikazioetan eta diligentzietan ez ezik txosten eta aktetan ere dokumentatuko dira; azken hauek arauz ezartzen diren kasuetan luzatuko dira eta arauz ezarritako gutxieneko datuak agertu behar dituzte.
2. Aktak zergen ikuskatzaileek egiaztapen eta ikerketa prozedurako ikuskapen-jarduketen emaitza biltzeko ematen dituzten agiri publikoak dira; aktetan zergapekoaren zerga-egoeraren erregularizazioa proposatzen da edo hura ontzat ematen.
3. Ikuskapen-prozedurak aktarik egin gabe bukatzen direnean, ondorioak ikuskapen-txostenen bidez dokumentatu behar dira.

137. Artikulua. Akten froga-balioa.

1. Zerga ikuskatzailetzak egiten dituen aktak agiri publikoak dira eta formalizatzeko zio izan diren egitateak frogatzen dituzte, besterik egiaztatu ezean.
2. Zergapekoek ikuskapen-aktetan onartzen dituzten egitateak egiazkotzat joko dira eta egitatezko okerren bat egon dela frogatuz gero soilik zuzendu ahal izango dira.

BIGARREN ATALA **IKUSKAPEN-PROZEDURAK**

138. Artikulua. Ikuskapeneko prozedura eta jardun motak.

1. Besteak beste, honako hauek dira ikuskapen prozedurak eta jarduketak:
 - a) Egiaztapen eta ikerketa prozedura.
 - b) Egiaztapen murriztuko prozedura.

- c) Egiaztapen laburtuko prozedura
 - d) Zergapekoa bertaratu gabe burutzen den erregularizazio-prozedura.
 - e) Informazioa lortzeko jarduketak.
2. Arau bidez, beste ikuskapen-prozedura batzuk ere arautu ahal izango dira; hauei titulu honetako II. kapituluaren ezarritako arauak aplikatuko zaizkie, beti, eta bateragarriak diren heinean kapitulu honetako gainon-tzeko xedapenak ere bai.
 3. Foru arau honetako 142. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, ikuskapen-prozeduretan foru arau honetako 81. artikuluan aipatutako kautelazko neurriak aplikatu ahal izango dira.

139. Artikulua. Ikuskapen-prozeduretako jarduketak egiteko lekua.

1. Ikuskapen-jarduketak hauetako batean burutu ahal dira, ikuskaritzaren arabera:
 - a) Zergapekoaren zerga-egoitzan, edo beraren ordezkariaren egoi-tzan edo bulegoan.
 - b) Kargatutako jarduera guztiak edo batzuk egiten diren lekuan.
 - c) Zerga-egitatearen edo zerga-betebeharraren eragilearen frogaren bat, partziala bada ere, dagoen tokian.
 - d) Zerga Administrazioaren bulegoetan, elementuak haietan ikuskatzeko modua badago.
 - e) Aurreko letretan adierazitako lekuetan edo beste lekuren batean, jarduketa horiek foru-arau honen 97.10 artikuluan ezarritako sistema digitalen bidez egiten baldin badira. Sistema horiek erabiltzeko, beharrezkoa izango da zergapekoaren ados egotea. Dena den, Zerga Administrazioak erregelamendu bidez ezarri ahal izango du noiz izango den nahitaezkoa zergapekoek jarduketa hauek egiteko aipatutako 97.19. artikuluan ezartzen diren sistema digitalak erabiltzea.
2. Ikuskatzaileak aurretiaz inolako abisurik egin gabe bertaratu daitezke zergapekoen enpresa, bulego, instalazio edo biltegiak; jarduketak zergapekoarekin zein lokalen arduradunekin edo erantzuleekin egin daitezke.
3. Foru arau honetako 135. artikuluko lehenengo idatz-zatian aipatutako liburuak eta gainontzeko agiriak zergapekoaren egoitzan, lokalean edo bulegoan aztertu behar dira, bera edo berak izendatzen duen pertsona aurrean dela. Salbuespen bat dago: zergapekoak azterketa bulego publikoetan egitea onartzea. Hala ere, ikuskatzaileek euren bulegoetan aztertu ahal dituzte aipatutako liburu eta agirien kopiak, mota guztietako euskarrietan.
4. Zergei buruzko arauak ezarritako erregistroak eta agiriak, bai eta foru arau honetako 129. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran aipatutako egiaztagiriak ere, Zerga Administrazioaren bulegoetan aurkezteko eskatu ahal izango zaie zergapekoei, bertan aztertzeko.
5. Arau bidez, ikuskapen jakin batzuk egin beharreko lekua zehazteko irizpideak ezarri ahal izango dira.
6. Zergapekoa ezinduta badago edo mugitzeko eragozpenak baditu, ikuskapena artikuluko honetako lehenengo idatz-zatian aipatutakoetatik berarentzat egokiena den lekuan egingo da.

140. Artikulua. Ikuskapen-prozeduretako jarduketak egiteko ordutegia.

1. Bulego publikoetan egin beharreko jarduketak lanaldiaren barruan egingo dira.

2. Ikuskapen-jarduketak interesdunaren lokaletan egin behar izanez gero, bulego-ordutegia edota bertan egiten den jardueraren lanaldia errespetatuko da; nolanahi ere, jarduketok beste egun edo ordu batean egitea adostu daiteke.
3. Jarduketan inguruabarrek hala eskatzen dutenean, aurreko idatz-zatian aipatutako egun eta ordutegitik kanpo egin ahal izango da ikuskapena, arau bidez ezarritakoaren arabera.

HIRUGARREN ATALA EGIAZTAPEN ETA IKERKETA PROZEDURA

LEHENENGO AZPIATALA ARAU OROKORRAK

141. Artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren helburua.

1. Prozedura honen bitartez zerga-betebeharrak behar bezala bete-tzen diren egiaztatu eta ikertu nahi da; horrez gainera, beharrezkoa denean zergapekoaren egoera erregularizatuko da bidezko likidazioen bidez. .
2. Zergapekoek aitorpenetan eta autolikidazioetan adierazitako egintzak, elementuak eta balioespenak egiaztatuko dira.
3. Ikerketa prozeduraren helburua zergapekoek aitortu ez duten edota oker aitortu duten zerga-eragineko egitaterik dagoen argitzea da.
4. Burututako egiaztapen eta ikerketa prozedurak ikuskapen-planak direla bide gauzatuko dira; plan horiek arau bidez eratu eta onetsiko dira.

142. Artikulua. Kautelazko neurriak egiaztapen eta ikerketa prozeduran.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozeduran arrazoitutako kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, zerga-betebeharrak daudela edo bete behar direla frogatzen dituzten elementuak desagertu, suntsitu edo eraldatu ez daitezen, eta gero haien existentzia edo agerpena ukatu ez dadin.

Kautelazko neurriak dira kargapeko merkatugaiak edo produktuak, edo kontuan hartu beharreko informazioa egon daitekeen liburuak, erregistroak, agiriak, fitxategiak, lokalak edota datuak jasotzeko ekipo teknikoak prezintatzea, gordailatzea edo inkautatzea.

2. Kautelazko neurriak proportzionalak izan behar dira eta aurrean azaldutako xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira; ezin da aplikatu kalte konponezina edo konpongaitza ekar dezakeen neurririk.
3. Hartzen diren neurriak araudiz ezarritako organoak berretsi behar ditu hartu eta 15 egun igaro baino lehen, eta bertan behera utziko dira hartzeko arrazoiak desagertzen badira.

BIGARREN AZPIATALA HASIERA ETA GARAPENA

143. Artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren hasiera.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura honela has daiteke:
 - a) Ofizioz.
 - b) Zergapekoak eskatuta, foru arau honetako 145. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak hasten direnean, zergapekoei haien izaeraren eta hedaduraren berri eman behar zaie, bai eta jarduketetan izango dituzten eskubideen eta betebeharren berri ere.

144. Artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketaren hedadura.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak orokorrak edo partzialak izan daitezke.
2. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak partzialak dira egiaztatuko aldiaren zerga-betebeharreko elementu guztiak hartzen ez dituztenean, bai eta arauz ezartzen den gainerako kasu guztietan ere.

Gainerako kasuetan egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak orokorrak dira, bai zerga-betebeharrarekiko bai egiaztatutako aldiarekiko, eta behin betiko likidazioa eragiten dute, hurrengo idatz-zatian xedatutako salbuespenarekin.

3. Egiaztapen eta ikerketa prozeduran, kasu hauetan eman daiteke behin-behineko likidazioa:
 - a) Zerga-betebeharreko elementuren bat egiaztatu gabe dagoen edo behin-behineko likidazio bidez edota irmoa ez den behin betiko likidazio bidez erregularizatu den beste betebehar baten elementuetan oinarritzen denean edo zerga-betebeharraren elementuren bat prozeduran zehar behin betiko egiaztatu ezin izan denean, arauz ezarritakoaren arabera.
 - b) Zerga-betebehar baten gainean likidazio-proposamen desberdinak egin daitezkeenean. Aurrekoa kasu hauetan gertatuko da: zergapekoak bere zerga-egoeraren erregularizazioa partzialki onartzen duenean, balio bat egiaztatzen denean erregularizatzeko objektu bakarra izan gabe, eta arau bidez ezartzen diren gainontzeko kasuetan.
 - c) Arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den likidazioa egin behar denean.
4. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak behin-behineko likidazioarekin amaitzen direnean, haien objektua ezin izango dira berriro erregularizatu geroago hasiko den ikerketa prozedura baten bidez, 3. idatz-zatiko a) letran aipatutako inguruabarren bat gertatu ezean, eta soilik inguruabar horiei eragiten dieten zerga-betebeharren elementuei dagokienez.

145. Artikulua. Zergapekoak eskatutako egiaztapen eta ikerketa prozedura orokorra.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura partzial bateko jarduketaren xede diren zergapekoek Zerga Administrazioari eska diezaioke jarduketak orokorrak izan daitezela zergari eta, bidezkoa bada, jarduketak ukitzen dituen aldiei dagokienez; eskaera horrek ez ditu etengo hasitako jarduketak.
2. Zergapekoak 15 eguneko epea izango du eskaera egiteko, zatikako ikuskapen-jarduketa partzialak hasi direla jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.
3. Zerga Administrazioak eskaera egiten denetik sei hilabete pasatu baino lehen zabaldu beharko du bere jarduketaren hedadura edo ekin beharko dio egiaztapen eta ikerketa prozedura orokorrari.

Epe hau betetzen ez bada, jarduketa partzialek ez dute etengo Administrazioak zerga-zorra zehazteko duen ahalaren preskripzio-epea eta aldi horretako zerga egiaztatu edo ikertuko da.

146. Artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren gehieneko epea.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak 12 hilabeteko epean burutu behar dira, zergapekoari prozedura hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Jarduketak beraien ondoriozko administrazio-egintza jakinarazten denean edo jakinarazitzat hartzen denean emango dira amaitutzat. Jakinarazi beharra bete den ala ez zehazteko eta ebazpen-epearen zenbaketari dagokionez foru arau honetako 102. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

Hala ere, jarduketan ondoko inguruabarretako bat gertatzen bada, epe hori arauz zehaztutako hedadurarekin eta baldintzekin luzatu ahal izango da, baina 12 hilabete gehienez:

- a) Oso konplexuak direnean. Pertsona edo entitatearen jarduketaren sakabanatze geografikoa eta zerga-ordainketa zerga-baterakuntza edo nazioarteko zerga-gardentasuneko erregimenean burutzea kontuan hartuta, jarduketak konplexutzat hartuko dira zergapekoaren Urteko Negozio Zifra bere kontuak ikuskatzeko behar denaren bestekoa edo handiagoa denean eta arau bidez ezarritako gainerako kasuetan.
- b) Jarduketaren ondorioz frogatzen denean zergapekoak egiten duen enpresa jarduera edo jarduera profesionalen bat ezkutatu diola Zerga Administrazioari.

Arestian ezarritako hamabi hilabeteko luzapenaren inguruan hartutako erabakiak arrazoitu egin behar dira beti, egitatezko zein Zuzenbidezko oinarriei egin behar die erreferentzia eta hamabi hilabeteko lehen aldia bukatu aurretik jakinarazi behar dira.

- 2. Egiaztapen eta ikerketa prozedura sei hilabete baino aldi luzeagoan eteten bada, hots, jarduketarik egiten ez bada, inongo arrazoirik eman gabe eta zergapekoari egotzi ezin zaion kausa bategatik, edo artikuluko 1. idatz-zatian prozeduraren iraupenari buruz aipatutako epea betetzen ez bada, prozedura ez da iraungiko; aitzitik, azkenera arte jarraituko du, baina jarraian azalduko diren ondoreak sortuko ditu likidatu gabeko zerga-betebeharrei dagokienez:

- a) Preskripzioa ez da etentzat joko arrazoirik gabe etendako ikuskapen-jarduketaren ondorioz, ez eta artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako epean ere.

Kasu hauetan, preskripzioa etentzat emango da arrazoirik gabe eten ondoren jarduketei berriz ekiten zaienean interesdunari horren berri eman eta gero, edo jarduketak artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako epea bukatu ostean egiten direnean.

Bi kasuetan, zergapekoak burutuko diren kontzeptuei eta epeei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izango du.

- b) Zergapekoak prozedura hasten denetik ikuskapen-jarduketaren xede diren zergari eta aldiari dagozkien jarduketei berriz ekiten dituen sarreretan ez dira sartuko haiengatik eska daitezkeen zehapenak, foru arau honetako 203. artikuluan ezarritako salbuespenarekin eta bidezko errekarquak eta interesak eragotzi gabe.

Ondore bera izango dute prozedura hasten denetik artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako prozeduraren epea bete ez eta ondoren egiten den lehen jarduketara bitartean zergapekoak ikuskapen-jarduketaren xede diren zergagatik eta aldiagatik egiten dituen sarrerek.

- 3. Artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako iraupen-epea bete-tzen ez bada, ez da berandutza-interesik eskatuko ez-betetzea gertatzen denetik prozedura bukatu arte.
- 4. Erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatzen zaionean edo espedienteak Ministerio Fiskalari igortzen zaionean, foru arau honen VI. tituluan ezarritakoaren arabera, lekualdatze horrek ondorio hauek izanen ditu ikuskapen-jarduketaren iraupenari dagokionez:

- a) Jarduketa horien epearen zenbaketa eten justifikatutzat joko da.
- b) Artikuluko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, epea luzatzea ahalbidetzen duen kausatzat hartuko da, baldin eta, 249. artikuluko 3. apartatuan, 251. artikuluko 2. apartatuan eta 255. artikuluko 2. apartatuan c) letran aipatzen diren arrazoiak gertatu delako, administrazio-prozedurak aurrera jarraitu behar badu.

5. Ebazpen judizial edo ekonomiko-administratibo batek edo Ekonomia Itunean ezarritako Arbitraje Batzordearen erabaki batek ikuskapen-jarduketan atzeraeragina agintzen duenean, jarduketak atzera eramaten diren unetik artikuluko honen 1. apartatuan aipatzen den epealdia amaitu baino lehen amaitu beharko dira jarduketa horiek, edo sei hilabeteko epealdian, hura laburragoa bada. Ebazpena betearazteko eskumena duen organoak espedienteak jasotzen duenetik hasiko da kontatzen epealdi hori.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa administrazio-prozeduretan ere aplikatuko da, baldin eta, epealdia luzatu ondoren, erruduntasun-testigantza eskumeneko jurisdikziora pasatu bada edo espedienteak Fiskaltzari igorri bazaio eta jarraitu egin behar badute, 249. artikuluko 3. apartatuan, 251. artikuluko 2. apartatuan eta 255. artikuluko 2. apartatuaren c) letran aipatzen diren arrazoiak bat gertatu delako. Kasu horretan, epealdi hori zenbatzen hasiko da prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzultitako espedienteak jasotzen duenetik.

Zergapekoari jakinarazi beharko zaio, jakinarazpen egokiaren bidez edo egiaztapen eta ikerketa-prozeduran aipatutako harreraren ondoren sinatzen den lehen eginbidean, aurreko bi paragrafoetan aipatutako administrazio-espedienteak edo ebazpen judizialak jasotzen den eguna.

HIRUGARREN AZPIATALA **IKUSKAPEN-JARDUKETEN AMAIERA**

147. Artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren amaiera.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketak amaitutzat emango dira Zerga Ikuskatzailtzaren iritziz eman beharreko administrazio-egintzak (zergapekoaren egoera ontzat emateko edo hura Zuzenbidearen arabera erregularizatzeko proposatzeko) oinarritzeko beharrezko datuak eta frogak lortzen direnean.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren ondorioak ikuskapen-akten bidez dokumentatuko dira; akta hauek foru arau honetako 136. artikuluko 2. idatz-zatian aipatu dira.

2. Hala ere, egiaztapen eta ikerketa prozedura ikuskapen-aktak formalizatu gabe amaituko da kasu hauetan:
 - a) Zerga-ikuskatzaileak arrazoiak txostenean adierazten duenean ez dagoela erregularizatu beharrik, ez dagoelako ikuskapen-plana bultzatu zuten arrazoienguruko inolako susmorik, edo prozedura arauz agindu bezala ezin burutu denean.
 - b) Ikuskapen-plana onesteko eskumena duen organoak idatziz eta arrazoiak agintzen duenean.

148. Artikulua. Akten edukia.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren emaitza dokumentatzen den aktetan ondoko datuak adierazi behar dira gutxienez:

- a) Formalizatu diren lekua eta eguna.
- b) Zergapekoaren izen-abizenak edo sozietate-izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga-egoitza; jarduketak egingo diren pertsonaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta jarduketetan zer gisa edo zein ordezkariarekin ariko den.
- c) Zergaren identifikazioa eta aldia.
- d) Zerga-egitatearen edo zerga-betebeharraren eta zergapekoarekin duen loturaren oinarritzeko elementuak, bai eta erregularizazioaren oinarritzat hartzen dituen Zuzenbideko oinarriak ere.

- e) Beharrezkoa bada, zergapekoaren zerga-egoeraren erregularizazioa eta horri dagokion likidazio-proposamena, berandutza-interesak barne (badaude).
- f) Zergapekoa erregularizazioarekin eta likidazio-proposamenarekin ados dagoen.
- g) Aktuarioaren ustez zergen arloko arau-hausteren bat egon den ala ez.
- h) Ordaintzeko konpromisodun adostasun-aktetan, bidezko zehapen-proposamena, foru arau honetako 218. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako inguruabarrak azalduta.
- i) Aktaren ondoko prozedura-izapideak.
- j) Erregularizazio-proposamenak zergapekoarentzat dituen ondorioak, dena delako zerga zehatzari dagokionez zein beste ekitaldi batzuei begira.
- k) Arauz ezartzen diren gainontzeko guztiak.

149. Artikulua. Akta motak.

1. Izapidetzaren ondoreetarako, ikuskapen-aktak adostasunekoak edo desadostasunekoak izan daitezke.
2. Zergapekoak edo beraren ordezkariak akta jaso edo sinatu nahi ez badu, desadostasun-akta moduan izapidetuko da.
3. Adostasun-aktak ordaintzeko konpromisodunetan eta ordaintzeko konpromisorik gabekoetan sailkatzen dira, likidazioa ordaintzeko ematen den bermearen arabera.

150. Artikulua. Adostasun-aktak.

1. Zergapekoa edo beraren ordezkaria Zerga Ikuskatzailtzak egindako erregularizazio-proposamenarekin ados badago, berariaz jasoaraziko da aktan.
2. Era berean, Zerga Ikuskatzailtzak zergapekoaren egoera egokia dela uste badu eta, beraz, ez bada erregularizaziorik egin behar, adostasun-akta izapidetuko da, zergapekoa ados egonez gero.
3. Likidazioa egiteko eskumena duen organoak adostasuna eman zaion erregularizazio-proposamena aldatzen badu, zergapekoari horren berri emango zaio eta likidazioa gauzatu aurretik entzunaldia eskainiko zaio, erregularizazio berriari buruzko iritzia eman dezan.
4. Zergapekoak edo beraren ordezkariak zerga-zorraren egitateekin eta oinarrizko elementuekin ados dagoela adierazten badu, foru arau honetako 137. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie.

151. Artikulua. Ordaintzeko konpromisodun adostasun-aktak.

1. Zergapekoa Zerga Ikuskatzailtzak proposaturiko erregularizazioarekin ados badago, are likidazio-proposamenarekin eta foru arau honetako 196-202 bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera bidezko zehapen-proposamenarekin ere, eta ordaintzeko konpromisodun akta luzatu nahi baldin badu, erregela hauek hartuko dira kontuan:
 - a) Zergapekoari jakinaraziko zaio likidazio-proposamenaren zenbatekoa gordailatu behar duela edo kreditu-erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate baten abal solidarioaren edo kauzio-aseguruaren ziurtagiriaren bidez bermatu behar duela, eta behar den kasuetan proposatu den zehapenaren berri emango zaio, foru arau honetako 192. artikuluko i. idatz-zatiko b) letran aipatutako txikipena barne (ez da egongo ordainketa atzeratzerik ez zatika-tzerik).

Likidazio-proposamenen ordura arte kalkulaturako berandutza-interesak sartu behar dira.

- b) Zergapekoak ikuskapen-akta sinatu aurretik formalizatu behar du gordailua edo bermea, eta horren egiaztagiria administrazio-espedienteari erantsi behar zaio nahitaez.
 - c) Kopurua gordailatu dela edo bermea jarri dela egiaztatu ondoren, ikuskapen-akta sinatuko da.
2. Aktaren ondoriozko likidazio- eta zehapen-egintzak administrazio-bidean soilik inpugnatu edo berrius daitezke, foru arau honetako 225. artikuluan ezarritako erabateko deuseztasuna adierazita. Nolanahi ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da.
 3. Artikulu honetan aipaturako adostasun-aktetako ordainketa-konpromisoa betetzeko gordailatzen diren kopuruak edo eratzen diren bermeak egindako likidazioak eta administrazio-egintza bidez ezarritako zehapenak ordaintzeko soilik aplikatu daitezke.

152. Artikulua. Desadostasun-aktak.

1. Zergapekoak edo haren ordezkariak akta sinatzen ez badu edo zergen ikuskapenak formulatzen duen erregularizazio proposamenarekin ados ez dagoela adierazten badu, beren beregi jasoko da hori aktan. Aktuarioaren txosten bat erantsi ahal izango da, baldin eta aktan jasotako informazioa osatu behar bada.
2. Zergapekoak alegazioak aurkeztu ahal dizkio likidazioetarako eskumena duen organoari 15 eguneko epean.
3. Likidazio-egintza eman aurretik, organo eskudunak egintza osagarriak burutzea erabaki dezake arauz ezartzen den bezala.
4. Behin alegazioak jaso edo epea igaro ondoren organo eskudunak likidazioa emango du eta interesdunari jakinaraziko zaio.

LAUGARREN AZPIATALA ZEHARKAKO ZENBATESPENA

153. Artikulua. Zeharkako zenbatespenaren metodoaren aplikazioa.

1. Zeharkako zenbatespena aplikatu daitekeenean, Zerga Ikuskatzailtzak, zergapekoen egoera erregularizatzeko hasitako aktekin batera, ondokoei buruzko txosten arrazoitua ere emango du:
 - a) Zeharkako zenbatespena aplikatzeko funtsezko arrazoiak.
 - b) Zergapekoaren kontabilitatearen eta nahitaezko erregistroen egoera.
 - c) Oinarriak, etekinak edo kuotak zehazteko erabiliko diren bideak hautatu izanaren azalpena.
 - d) Hautatutako bideen arabera egindako kalkuluak eta zenbatespenak.
2. Zeharkako zenbatespena aplikatzeko ez da beharrezkoa izango hori adierazten duen aurretiazko administrazio-egintza ematea. Hala ere, horien ondoriozko egintza eta likidazioen aurka aurkeztu diren errekursoetan eta erreklamazioetan aplikatu ahal izango da.
3. Zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzeko erabiltzen diren datuak zein aurrekariak honako iturri hauetatik ateratu daitezke:

- a) Zenbatespen objektiboaren metodorako ezarritako zeinu, adierazle eta moduluak, zeinak ahal dela metodo horri uko egin dioten zergapekoen kasuan erabiliko baitira. Baina, ikuskapenaren bidez egiaztatzen bada jarduera ekonomikoaren ondoriozko zenbateko handiagoko etekinak edo kuotak daudela, zenbateko hori hartuko da kontuan erregulazioa egiteko.
- b) Zergapekoak berak lortutako datu ekonomikoak eta ekoizpen-prozesukoak. Erregularizatutako ekitaldiaren aurreko zein ondorengo ekitaldietako datuak erabil daitezke, ekitaldiotako informazioa nahikotzat eta fidagarritzat jotzen bada. Batez ere, ikuskapen-jarduketara garatzen den momentuko informazioa erabili ahal izango da. Aurreko ekitaldiei aplikatu modukotzat har daiteke informazio hori, non eta ikuskatzaileek edo zergapekoak ez duten justifikatzen eta kuantifikatzen datu horiek doitu egin behar direla.

Metodo hau ezaugarri homogeenak dituzten zergapekoaren eragiketen kuantifikazioari aplikatzen bazaio eta zergadunak horri buruzko informaziorik aurkeztzen ez badu, informazio okerra aurkeztzen badu edo aurkeztutakoa nahikoa ez bada, edo ikusten bada eragiketa horien laginean okerrak agertzen direla behin eta berriro, orduan, zerga-ikuskatzaileek erregularizatu ahal izango ditu laginketaren bidez. Halakoetan, egiaztatutako epealdiko eragiketa guztien laginetik lortzen den batez bestekoa aplikatu ahal izango da, salbu eta zergapekoak egiaztatzen duenean proportzio hori desegokitzen jotzeko arrazoi bereziak daudela.

- c) Sektoreko organismo publikoek edo erakunde pribatuak estatistika-teknika egoki bidez egindako azterlanetatik ateratako datuak, erregularizatu behar den epealdiari dagozkionak. Halakoetan, azterlanen iturria identifikatuko da, zergapekoak azterlan horien aurrean bere eskubideak defendatzeko egoki irizitakoa argudiatu ahal izateko.
 - d) Ikuskapen-organismoek enpresa, jarduera edo produktuei buruz lortu duten lagin baten datuak, urte berekoak, enpresa, jarduera edo produktuon ezaugarriak garrantzizkoak badira eta zergapekoak egin dituenen antzekoak badira. Halakoetan, ikuskatzaileek aukeratu duen lagina identifikatu egin behar izango du, hura zergapekoaren ezaugarrietara egokitzen dela bermatzeko; horrez gainera, adierazi behar izango du zer erregistro publikotatik edo iturritatik ateratu dituen datuak. Datuak Zerga Administrazioaren berarenak badira, arauz ezarrita dagoenarekin bat etorritako egingo da lagina.
4. Zuzeneko zergapetzearen kasuan, zeharkako zenbatespenaren metodoaren bidez zehaztu ahal izango dira salmentak eta prestazioak, erosketak eta gastuak edo jardueraren etekin garbia. Zeharkako zenbatespena salmentei eta prestazioei bakarrik egokituko zaie, kontabilitatean edo zerga-erregistroetan dauden erosketak eta gastuak behar bezala egiaztatuta daudela jotzen bada. Halaber, erosketei eta gastuei bakarrik egokituko zaie, salmentak eta prestazioak behar bezala egiaztatuta badaude.

Kontsumoaren gaineko zergapetzearen kasuan, zeharkako zenbatespenaren metodoaren bidez zehaztu ahal izango dira oinarria eta jasanarazitako kuota, jasandako kuota eta kuota kengarria edo zenbateko biak. Jasandako kuota eta kuota kengarria kalkulatzeko, salmentak eta prestazioak eskuratzeko normalean beharrezkoak liratekeen ondasun eta zerbitzuei legozkiekeen kuotak zenbatetsi behar dira, baina bakarrik zerga jasanarazi den eta zergapekoak benetan jasan duen zenbatekoan. Zerga Administrazioak kuotak zenbateraino jasanarazi diren zehazteko informaziorik ez badauka, zergapekoak eman behar izango du zerga jasanarazi zioten pertsonak edo entitateak identifikatzeko eta haren zenbatekoa kalkulatzeko behar den informazioa.

Zeharkako zenbatespenaren bidez erregularizatutako ekitaldi batean egindako gastuak edo jasandako kuotak direla-eta ezin izango da kenkarik egin beste ekitaldi batean.

- 5. Urtebete baino iraupen laburragoko likidazioa duten tributuen kasuan, ikuskatzaileek urtean zenbatetsitako kuota modu linealean banatuko da dagozkion likidazio-aldien artean,

salbu eta zergapekoak justifikatzen duenean beste debora- banaketa bat aplikatu behar dela.

6. Zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzeko oinarritzat hartutako datuak, dokumentuak edo frogak erregularizazioan edo horren aurka jarritako errekurtsoen edo erreklamazioen ebazpenean soilik hartu ahal izango dira kontuan, honako kasuetan:
 - a) Erregularizazio-proposamena baino lehenagokoak direnean. Kasu honetan, inguruabar horien berri izan eta datuak, dokumentuak edo frogak eman arteko aldi hori ez da kontuan hartuko foru arau honetako 146. artikuluan aipatutako epea konputatzean.
 - b) Zergapekoak frogatzen duenean ezinezkoa zela erregularizazio-proposamenaren ondoren aurkeztutako datuak, dokumentuak edo frogak prozeduran zehar aurkeztea. Hala denean, egintzak aipatutako inguruabarrak sortzen diren unera arte atzeraeragitea aginduko da, foru arau honetako 146. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

LAUGARREN ATALA

EGIAZTAPEN MURRIZTUAREN PROZEDURA

154. Artikulua. Egiaztapen murriztuaren prozeduraren helburua.

1. Egiaztapen murriztuaren prozeduraren helburua zergapekoek aurkeztutako aitorpenen elementuak zerga-arauegian xedatutakora egoki-tzen denez egiaztatzea da, gainontzeko zerga administrazioek eskatuta.

Era berean, prozedura hau erabiliko da eskatutako itzulketa baten, ziurtatutako zerga-pizgarri baten edo zergapekoak eskatutako erregimen berezi baten aplikazioaren bidez kototasuna egiaztatu behar denean, arestian aipatutako organoek eskatuta.

2. Prozedura honetan Zerga Ikuskatzailetak behar beste egintza gauzatu ahal izango ditu aitorpenak egiaztatzeko edo informazioa lortzeko eta horretarako kapitulu honetako 3. eta 6. ataletan ezarritako arauak aplikatuko ditu, bateragarriak diren neurrian.

155. Artikulua. Egiaztapen murriztuaren prozeduraren hasiera.

Egiaztapen murriztuaren prozedura ofizioz hasiko da (behin Zerga Administrazioaren organo eskudunak halan eskatuta) zergen ikuskaritzaren erabagiz; erabakia zergapekoari jakinaraziko zaio.

156. Artikulua. Egiaztapen murriztuaren prozeduraren gehieneko iraupena.

1. Egiaztapen murriztuaren prozedurako jarduketak 6 hilabeteko epean burutu behar dira, zergapekoari hasi direla jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Zergapekoari jarduketan ondorioak jasotzen dituen Zerga Ikuskatzailetzaren txostena jakinarazten zaion egunean emango dira bukatutzat jarduketak; foru arau honetako 102. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

2. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutako gehieneko epea amaitzeak ez du ekarriko prozeduraren iraungipena; aitzitik, aurrera egingo du amaitu arte, baina ondore hauek sortuko ditu likidatu gabe dauden zerga-betebeharrei dagokienez:

- a) Preskripzioa ez da etengo aipatu epean zehar egindako ikuskapen-jarduketan ondorioz.

Hala gertatzen denean, artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako epea mugaeguneratu ondoren jarduketak egiten direnean etengo da preskripzioa.

- b) Zergapekoak prozedura hasten denetik jarduketei berriz ekin arte ikuskapen-jarduketan xede diren zergagatik eta aldiagatik egiten dituen sarreretan ez dira sartuko eska

daitezkeen zehapenak, foru arau honetako 203. artikuluan ezarritako salbuespenarekin eta bidezko errekarquak eta interesak eragotzi gabe.

157. Artikulua. Egiaptapen murriztuaren prozeduraren amaiera.

1. Egiaptapen murriztuaren prozedura amaitutzat joko da eman beharreko administrazio-egintzak (zergapekoaren aitorpena ontzat emateko edo hura Zuzenbidearen arabera erregularizatzeko proposatzeko) oinarritzeko beharrezko datuak eta frogak Zerga Ikuskatzailetzaren iritziz eskuratu direnean.
2. Egiaptapen murriztuaren prozeduraren ondorioak foru arau honetako 136. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako ikuskapen-txostenaren bidez dokumentatuko dira, arau bidez ezartzen denaren arabera.
3. Ikuskapen-txostena zergapekoari jakinaraziko zaio; jakinarazpenean jarduketa guztiak behatz-mehatz azaldu behar dira. Gainera jakinaraziko zaio txosten hori organo eskudunari bidaliko zaiola, zerga-egoera erregularizatzeko administrazio-egintzak burutu ditzan.

Foru arau honetako 124. artikuluen 2. idatz-zatiaren d) letran xedatutakoaren arabera, zergapekoak eskubidez komeni zaiona alega dezake likudazio-proposamena jakinarazitakoan. Proposamen hori Zerga Administrazioaren organo eskudunak egingo du, eman zaion txostena aztertu ostean.

4. Ikuskapen-txostenaren aurka ezin izango da jarri ez errekursorik ez erreklamaziorik, baina emaitzako egintzen eta likidazioen aurka jartzen direnetan proposatutako erregularizazioaren bidez kotasuna planteatu ahal izango da.
5. Artikulu honen aurreko idatz-zatietan aipatutakoa gorabehera, egiaptapen murriztuaren prozedura ikuskapen-txostena formalizatu gabe amaituko da ikuskapen-plana onesteko eskumena duen organoak idatziz eta arrazoituta agintzen duenean. .

158. Artikulua. Egiaptapen murriztuaren prozeduraren ondoreak.

Egiaptapen murriztuaren prozedura baten bidez emandako txosten batek proposatzen duen erregularizazioaren ondoriozko administrazio-egintza eman eta gero, Zerga Administrazioak ezin izango du egiztatutakoa berriz erregularizatu, ondoko salbuespenarekin: egiaptapen mugatuaren prozedura batean edo geroko ikuskapen-prozedura batean txostenean azaldutakoak ez beste jarduketa batzuen ondorioz egitate eta inguruabar berriak agertzea.

LAUGARREN BIS ATALA. EGIAZTAPEN LABURTUKO PROZEDURA

158 bis artikulua. Egiaptapen laburtuko prozeduraren xedea.

1. Egiaptapen laburtuko prozeduraren xedea izango da egiaptatztea ea zerga-betebeharreko elementu zehatzen bat egokitzen zaion ala ez zerga-araudian ezartzen denari, zenbait tributu-kontzeptu eta zergaldiri dagokienez.
2. Ezin dira egiaptapen laburtuko prozedura baten xede izan Foru Arau honetako 12-15. artikuluetan aipatzen diren jarduketak, ez eta zerga-oinarrien zeharkako zenbatespenak ere.
3. Egiaptapen laburtuko prozeduran, zerga-ikuskatzaileak beharrezko diren egiaptapen-jarduketak zein informazioa lortzekoak egin ahal izango ditu, eta, bateragarri denean, kapitulu honetako 3. eta 6. artaletan ezarritako arauak aplikatuko ditu.

158 ter artikulua. Egiaptapen laburtuko prozeduraren hasiera.

Ofizios hasiko da egiaptapen laburtuko prozedura, zerga-ikuskatzailetzaren erabaki baten bidez (zergapekoari jakinaraziko zaio erabaki hori).

158 quater artikulua. Egiatzapen laburtuko prozeduraren gehieneko iraupena.

1. Egiatzapen laburtuko prozeduraren jarduketak 6 hilabeteko epean amaitu behar dira, prozeduraren hasiera zergapekoari jakinarazi zitaion egunetik zenbatuta.

Jarduketen ondoriozko administrazio-egintza jakinarazten den edo jakinarazitzat jotzen den egunean joko dira jarduketak amaitutzat, eta, horretarako, foru arau honetako 102.2 artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

2. Artikulu honetako 1. zenbakiko gehieneko epea igarotzeak ez du ekarriko prozedura iraungitzea, eta prozedurak amaitu arte jarraituko du aurrera. Dena dela, gehieneko epea igarotzeak zenbait ondorio sortuko ditu likidatu gabe dauden zerga-betebeharrak direla eta, hain zuzen ere, hauek:

- a) Preskripzioa ez da etentzat joko epe horretan egindako egiatzapen-jarduketak direla eta.

Aitzitik, preskripzioa etentzat joko da artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen den epea amaitu ondoren egindako jarduketak direla eta.

- b) Zergapekoak, prozedura hasi zenetik jarduketak berriro hasi arteko epean, ikuskapen-jarduketen xede den zerga-kontzeptua eta zergaldia dela-eta egiten dituen diru-sarreretan ez dira sartuko haiengatik ezar litezkeen zehapenak, salbu eta foru arau honetako 203. artikuluan zehaztutakoa, ezar litezkeen errekarguak eta interesak gorabehera.

158 quinquies artikulua. Egiatzapen laburtuko prozeduraren amaiera.

1. Egiatzapen laburtuko prozedura amaitutzat joko da eman beharreko administrazio-egintzak (zergapekoaren aitorpena ontzat emateko edo hura Zuzenbidearen arabera erregularizatzeko proposatzeko) oinarritzeko beharrezko datuak eta frogak -zerga ikuskatzailtzaren iritziz- eskuratu direnean.
2. Egiatzapen laburtuko prozeduraren ondorioak dokumentatzeko, foru arau honetako 136.3 artikuluan aipatzen den ikuskapen-txostena emango da, arauz ezarriko den moduan.
3. Egiatzapen laburtuko prozedura esanbidezko ebazpen baten bidez amaituko da, edo, bestela, egiatzapen laburtuko prozeduraren xedea barne hartzen duen egiatzapen- eta ikerketa-prozedura bat hasi delako.
4. Zergapekoa ados badago zerga-ikuskatzailtzak proposatutako erregularizazioarekin — barne hartuta likidazio-proposamena eta zehazpenak (foru arau honetako 196-202 bitarteko artikuluetan ezarritakoen artean dagozkionak) ezartzeko proposamena— eta kontzeptu bat eta zergaldi bat dela-eta konpromiso bat formalizatzea aukeratzen badu, arau hauei jarraitu behar izango zaie:
 - a) Zergapekoari jakinaraziko zaio kreditu-entitate baten edo elkarrekiko berme- sozietate baten abal solidarioaren bidez edo kauzio-aseguruko egiatzi bidez gordailutu edo bermatu behar duela likidazio-proposamenaren zenbatekoa eta —hala denean— diruzko zehapenerako proposamenarena (foru arau honetako 192. artikuluko 1. zenbakiko b) letran aipatzen den murrizketa barne). Orobat adieraziko zaio ordainketa ezin duela geroratu edo zatitu.
 - b) Txostena, likidazio-proposamena eta zehapenerako proposamena (haren egiatzi administrazio-espedituari erantsiko zaio derrigor) jakinarazi ondorengo hamabost egunen barruan formalizatu behar du zergapekoak gordailua edo bermea.
 - c) Behin gordailua edo bermea formalizatu dela egiatzatuta, likidaziorako eta zehazpena ezartzeko administrazio-egintza emango da egiatzapen laburtuan aztertu diren

kontzeptu eta zergaldietako bakoitza dela-eta (haiek direla-eta formalizatu da ordainketa-konpromisoa).

Zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioz likidazioa egiteko eta zehapenak ezartzeko emandako egintzak erabateko deuseztasunaren deklarazioaren prozeduraren bidez (foru arau honetako 225. artikuluan jasotzen da) baino ezin izango dira errekurritu edo berrikusi administrazio-bidean. Hala ere, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzibidean.

Ordainketa konpromiso gisa gordailututako zenbatekoak edo aurkeztutako bermeak bakarrik erabili ahal izango dira egiaztapen laburtuaren prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzen bidez egindako likidazioak eta ezarritako zehapenak ordaintzeko.

158 sexies artikulua. Egiaztapen laburtuko prozeduraren ondorioak.

Baldin eta egiaztapen laburtuko prozedura batengatik egindako txosten baten barruko erregularizazio-proposamenaren ondorioz administrazio-egintza bat ematen bada, Zerga Administrazioak ezin izango du egiaztatutako objektuari buruzko beste erregularizazio bat egin, salbu eta ondoren egindako egiaztapen mugatuko prozedura batean edo beste ikuskapen-prozedura batean egitate eta inguruabar berriak gertatzen badira txosten horretan egin eta zehaztutako jarduketaren ondorioz barik beste batzuen ondorioz

BOSGARREN ATALA

ZERGAPEKOA BERTARATU GABE EGITEN DEN ERREGULARIZAZIO-PROZEDURA

159. Artikulua. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio-prozeduraren helburua.

1. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio-prozeduraren helburua zerga-egitatea badagoela aurretiaz frogatutako kasuetan zerga-erregularizazioa proposatzea da. Zerga-egitatea titulu honetako II. kapituluko 2. atalean frogak balioesteko ezarritako erregelen arabera frogatu behar da.
2. Prozedura hau Zerga Ikuskatzailetak zergapekoaren egoera erregularizatzeko ikerketa, egiaztapen edo informazio jarduketarik egin behar ez duenean aplikatuko da.

160. Artikulua. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den.

1. Erregularizazio-prozedura hau ez zergapekoa ez beraren ordezkaria bertaratu gabe egingo da eta beraren ondorio guztiak foru arau honetako 136. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako ikuskapen-txostenean dokumentatuko dira, araubidez ezartzen den moduan.
2. Ikuskapen-txostena zergapekoari jakinaraziko zaio; bertan zerga-egitatea gertatu dela frogatzen duten elementuak zehaztuko dira eta zergapekoari adieraziko zaio organo eskudunari bidaliko zaiola, zerga-egoera erregularizatzeko administrazio-egintzak eman ditzan; 15 eguneko epea emango zaio organo horri nahi dituen alegazioak aurkezteko.
3. Ikuskapen-txostenaren aurka ezin izango da jarri ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina emaitzako egintzen eta likidazioen aurka jartzen direnetan proposatutako erregularizazioaren bidez kotasuna planteatu ahal izango da.
4. Artikulu honen aurreko idatz-zatietan aipatutakoa gorabehera, zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio-prozedura hau ikuskapen-txostena formalizatu gabe amaituko da ikuskapen-plana onesteko eskumena duen organoak idatziz eta arrazoituta agintzen duenean.

161. Artikulua. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio-prozeduraren ondoreak.

Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio-prozeduretan ematen diren txostenetan proposatzen diren erregularizazioen ondoriozko administrazio-egintzak eman eta gero, Zerga Administrazioak ezin izango du egiztatutakoa berriz erregularizatu.

SEIGARREN ATALA INFORMAZIOA LORTZEKO JARDUKETAK

162. Artikulua. Informazioa lortzeko jarduketak.

1. Zerga Administrazioak informazioa lortzeko foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako jarduketak egin behar baditu eta horretarako bere bulegoetatik kanpo jardun behar badu, jarduketa horiek Zerga Ikuskatzailtzak burutu beharko ditu. Nolanahi ere, foru arau honetako 164. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran xedatutakoaren arabera zerga-bilketako organoek eurei dagozkienak egin behar dituzte.
2. Aipatutako jarduketak arau bidez ezarritakoaren arabera egingo dira.
3. Jarduketok egitean, Zerga Ikuskatzailtzak foru arau honetako 92-94 bitarteko artikuluetan xedatutakoa hartu behar du aintzat, bai eta kapitulu honetako gainerako ataletan zehaztutako jarduteko arauak ere, aurrekoekin bateragarriak diren heinean.

ZAZPIGARREN ATALA ITZURPENAREN AURKAKO KLAUSULA

163. Artikulua. Itzurpenaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura.

1. Zergak aplikatzeko prozedura batean foru arau honetako 14. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar dela uste izanez gero, organo jarduleak txosten bat egingo du itzurpenaren aurkako klausula aplika daitekeela arrazoitzeko.
2. Txosten hori zergapekoari bidaliko dio prozedura izapidetzen ari den organoak eta hamabost eguneko epea emango dio nahi dituen alegazioak aurkez diezazkion eta bidezkotzat dituen frogak aurkezteko edo proposatzeko.
3. Txostena aztertu, zergapekoaren alegazioak jaso eta, hala denean, frogak egin ondoren prozedura izapidetzen ari den organoak espediente osoa igorriko dio arau bidez ezartzen den kide anitzeko organoari, itzurpenaren aurkako klausula aplika daitekeenez ebatz dezan.
4. Organo horrek hiru hilabeteko gehieneko epea izango du zergapekoaren portaeran itzurpenik egon denez adierazteko; ondoren, organo jarduleak likidaziorako administrazio-egintzak emango ditu.
5. Interesdunari manuzko txostenaren berri ematen zaionetik 3. idatz-zatian aipatutako kide anitzeko organoaren irizpena jaso arteko aldia jarduketen epearen konputuaren bidezko etenalditzat hartuko da.

Artikulu honetako 4. idatz-zatian aipatutako hiru hilabeteko epealdian organo eskudunak irizpenik ematen ez badu, berriro hasiko da konputatzen jarduketak burutzeko epea, eta irizpena eman beharrak bere hartan iraungo du; hala ere, jarduketek aurrera jarraitu ahal izango dute eta, behar izanez gero, itzurpenaren aurkako klausularekin zerikusirik ez duten gainontzeko elementuen behin-behineko likidazioa egin ahal izango da. .

6. Kide anitzeko organoaren irizpena loteslea izango da eskatu duten Zerga Administrazioaren gainontzeko organoentzat.

7. Irizpenaren eta artikuluko honetan xedatutakoaren ondorioz aplikatutako gainerako egintzen aurka ezin izango da jarri ez errekursorik ez erreklamaziorik; hala ere, ondorengo egintzen eta likidazioen aurka jartzen direnetan itzurpenaren aurkako klausula aplikatzea bidezkoa denez planteatu ahal izango da.

V. KAPITULUA **ZERGA-BILKETAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK**

LEHENENGO ATALA **XEDAPEN OROKORRAK**

164. Artikulua. Zerga-bilketa.

1. Zerga-bilketa zerga-zorrak kobratzeko administrazio-eginkizunak burutzea da.
2. Hauexek dira zerga-bilketako eginkizunak:
 - a) Zerga-betebeharren ordainketa ahalbideratzeko eta errazteko jarduketak egitea.
 - b) Zorra kobratzeko edo hura ez ordaintzearen ondoriozko administrazio-erantzukizuna edo erantzukizun zibil edo penala eskatzeko egintzekin zerikusia duen informazioa lortzeko jarduketak egitea.
 - c) Zordunaren ondarearen aurkako jarduketak egitea, haren ondasunak eta eskubideak exekutatzea eta, behar izanez gero, kautelazko neurriak hartzea.
 - d) Zergapekoei zerga-bilketako prozedurekin lotutako jarduketei buruzko informazioa ematea eta beraien eskubideak eta betebeharrak azaltzea eta betebehar horiek nola bete behar diren argitzea.
3. Elkarren laguntzaren esparruan bildu nahi diren zorrak honela bilduko dira: zergapekoak ordainketa eginez, edo zergapeko horrek foru arau honen 62.1.c) artikuluan eta 60. artikuluko 1. zenbakiko c) letran zehazten diren baldintzak betez, bai eta, hala badagokio, kapitulu honen bigarren ataleko arauak aplikatuz ere.

Elkarren laguntzaren barruan tramitatzen diren bilketa-prozedurak kasu honetan amaituko dira: batetik, foru arau honen 177. artikuluko arrazoiak gertatzen direnean; bestetik, laguntza eskatu zuen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak atzera botatzen duenean berak eginiko kobru-eskaera bat.

165. Artikulua. Zerga-bilketaren aldiak.

1. Zerga-zorrak honela bil daitezke:
 - a) Borondatezko aldia, zergapekoak foru arau honetako 60. artikuluan ezarritako epeetan ordainduta.
 - b) Ordainarazpen-aldia, zergapekoak bere borondatez ordainduz edo betez, foru-arau honen 75. artikuluan araututako konpentsazioaren bidez, edo, hala egin ezean, administrazioaren premiamendu-prozeduraren bidez.
2. Ordainarazpen-aldia automatikoki hasten da borondatez ordaintzeko aldia amaitutakoan.
3. Ordainarazpen-aldia hasita, Zerga Administrazioak premiamendu bidez kobratuko ditu likidatu edo autolikidatutako zorrak, artikuluko honetako 1. idatz-zatiko b) letran aipatutakoak, zergapekoaren ondareari helduta.
4. Ordainarazpen-aldia hasteak berekin ekarriko du berandutza-interesak eta ordainarazpen aldiko errekarquak eskatzea, foru arau honetako 26. eta 28. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, bai eta premiamendu-prozeduraren kostuak eskatzea ere.

5. Ordainarazpen-aldiaren hasiera kasu hauetan etengo da:
- a) Geroratzeko, zatikatzeko, zorra ordaintzeko ondasunak edo eskubideak emateko edo konpentsatzeko eskaera borondatez ordaintzeko aldiaren aurkezten bada, espediente horiek izapidetzen diren bitartean ez da hasiko ordainarazpen-aldia.
 - b) Likidazio baten aurka errekurso edo erreklamazio bat jartzen bada garaiz eta behar bezala, etendura organo eskudunak erabakiz gero.
 - c) Zehapen baten aurka errekurso edo erreklamazio bat jartzen bada garaiz eta behar bezala, harik eta zehapena administrazio-bidean irmoa izan arte.
6. Elkarren laguntzarako arauekin bat hasitako bilketa-prozedura ofizios etetea erabakiko da, baldin eta laguntza eskatu duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak komunikatzen badu laguntza eskatzearen xede den kredituari eragin diezaiokeen auzi bat dagoela. Prozedura berdin etengo da prozedura horretako interesdunak modu frogagarrian komunikatu eta egiaztatzen badu auzi hori dagoela. Nolanahi ere, ez da eteterik erabakiko edo ondorioz gabe geratuko da, baldin eta estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak betearazpenerako borondatea adierazten badu.
- Auzia laguntza-eskaeraren zati bati buruzkoa baino ez denean, ulertuko da aurreko lerroaldean adierazitako etetea bakarrik dagokiola aurkaratutako zatiari, eta, beraz, aurrera jarrai dezake aurkaratu ez den zatiaren betearazpenak.
- Salbu eta elkarren laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean, bilketa-prozedura berdin etengo da laguntza horretan parte hartzen duten estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeetako batek adiskidetasuneko prozedura bat hasi badu eta prozedura horren emaitzak laguntza-eskaeraren xede den kredituari eragin badiezaioke.
- Prozedura hori amaitu arte sortuko ditu ondorioak eteteak, salbu eta, besteak beste, agertzen diren zantzu arrazionalak pentsarazten badute kobru hori ez dela egingo edo egin ahal izateko oztopo handiak egongo direla; kasu horretan, aurrera jarraituko du betearazpenak. Nolanahi ere, kreditua kobratzen dela bermatzeko kautela-neurriak hartu ahal izango dira, foru arau honen 81.1 artikuluko hirugarren lerroaldean ezarritakoarekin bat.
7. Zergapeko batek zorra (osoa edo zati bat) sartu beharra eten daiteke, berak eskatuta eta inolako bermerik jarri gabe, baldin eta frogatzen bada eragiketa berarekin administrazio berari edo beste bati zor zaiona ordaindu zaiola edo beste zerga bat jasan dela; horretarako, ezinbestekoa da egindako ordainketa edo jasandako zerga ez izatea bateragarria eskatutako zorrarekin, eta gainera subjektu pasiboak ezin du eduki bidegabe jasandako zenbateko osoa kentzeko eskubidea.
8. Halaber, zorra (osoa edo zati bat) sartu beharra hamabi hilabetez etengo da, bermerik aurkeztu gabe, zerga-zorra beste administrazio batean ordaindu bada. Zergapekoarekin zerikusirik ez duten ezohiko inguruabarrak direla-eta, Administrazioak epe hori luzatu ahal izango du.

166. Artikulua. Zerga-bilketaren ahalmenak.

1. Zerga-zor baten kobrantza ziurtatzeko edo egiteko, zerga-bilketako organoek foru arau honetako 135. artikuluan Zerga Ikuskatzailtzari aintzatesten zaizkion ahalmenak izango dituzte, bertan adierazitako baldintza guztiekin, eta horrez gainera foru arau honetako 81. eta 142. artikuluetan ezarritakoaren arabera kautelazko neurriak ere hartu ahal izango dituzte, zergapekoen nahiz hirugarrenen ondasunei, eskubideei eta erregistroei dagokienez, zergapekoaren eragiketekin zerikusira duten heinean.
2. Zerga Administrazioak eskatuz gero, zergapekoak zerga-zorraren zenbatekoa estal dezaketen bere ondareko eskubide eta ondasun batzuen zerrenda bidali beharko dio.

3. Zergapekoak edo hirugarren batek ebazpen edo errekerimendu bat bete ez eta horrela enbargoa edo premiamendu-prozedurako beste jarduketaren bat eragozten, atzeratzen edota galarazten badu, Zerga Administrazioak, ohartarazpena egin ondoren, ebazpena edo errekerimendua modu subsidiarioan betearaztea erabaki ahal izango du (organo eskudunak erabakiko du) eta, beharrezkoa izanez gero, Justizia Administrazioko organoei jakinaraziko die.

BIGARREN ATALA PREMIAMENDU-PROZEDURA

LEHENENGO AZPIATALA ARAU OROKORRAK

167. Artikulua. Premiamendu-prozeduraren izaera.

1. Premiamendu-prozedura administrazio-prozedura da; prozedura honen funtsa zordunaren zerga-zorrak beraren ondareari helduta kobratzeko jarduketak egitea da. Zerga Administrazioa da prozedura honetan eskumena duen bakarra eta berari dagokio honen inguruko gorabehera guztiak ebaztea.
2. Administrazioaren premiamendu-prozedura ezin izango zaie pilatu ez prozedura judizialei ez ordainarazpeneko beste prozedura batzuei. Beste prozedura horiek hasteak ez du etengo premiamendu-prozeduraren hasiera, ez izapidetza ere, jurisdikzio-gatazkei buruzko legerian edo hurrengo artikuluko arauetan ezarritakoaren arabera bidezkoa denean izan ezik.

Zerga Administrazioak, aipatutako legeriarekin bat etorriz, arautegian aintzatesten zaizkion arlo honetako ahalak zainduko ditu.

3. Premiamendu-prozeduraren izapide guztiak ofizioz hasi eta bultzatuko dira eta behin prozedura hasiz gero zerga-arautegian ezarritako kasuetan eta bertan finkatutakoari lotuta soilik eten ahal izango da.
4. Arau bidez prozedura berezi erraztua prestatu ahal izango da zergapeko baten zor guztiak ordainarazteko guztira kopuru jakin batera heltzen ez direnean.

168. artikulua. Prozedurak pilatzea

1. Kredituak kobratzeko unean legeriak ezartzen duen lehentasun- hurrenkera errespetatu behar dela kontuan hartuta, tributuak biltzeko premiamendu-prozedurarekin batera ordainarazpenerako beste prozedura batzuk gertatzen badira, banakakoak zein orokorrak, judizialak zein judizioz kanpokoak, prozedurako ondasunak exekutatzeko lehentasuna honako arauen bidez zehaztuko da:
 - a) Ordainarazpenerako banakako beste prozesu edo prozedura batzuekin batera gertatzen denean, premiamendu-prozedurak izango du lehentasuna, baldin eta premiamendu-prozeduran egindako enbargoa bada zaharrena.
 - b) Ordainarazpenerako beste prozesu edo prozedura konkurtsal zein orokor batzuekin batera gertatzen denean, premiamendu prozedurak izango du lehentasuna enbargatutako ondasun-eskubideak exekutatzeko, baldin eta prozedura horretan erabakitako enbargoa konkurtsoaren adierazpena baino lehen egin bada.

Kasu biotan, ondasunaren edo eskubidearen enbargo-eginbidearen data hartuko da kontuan.

2. Hartzekodunen konkurtsoa badago, konkurtsoei buruzko legerian xedatutakoa aplikatuko da eta, hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko araubide ekonomikoaren arautegian xedatutakoa. Nolanahi ere, bidezko premiamendu-probidentzia eman ahal izango da eta ordainarazpen-aldiko errekaruak sortu ahal izango dira, baldin eta konkurtsoa adierazi

baino lehen horretarako behar diren inguruabarrak gertatzen badira edo masaren kontrako kredituak badira.

3. Epaileek eta epaitegiek Zerga Administrazioari lagunduko diote; hain zuzen ere, zerga-bilketako organoek euren eginkizunak betetzeko ordainarazpen-prozesu konkurtsal zein orokorrean buruz behar dituzten datu guztiak eman behar dizkiete organo horiei.

Halaber, ordainarazpen-prozedurak izapidetzeko eskumena duten administrazio-organismoek ere laguntza eman behar dute beraiek egiten dituzten prozeduretan.

4. Zerga-kredituak pribilegiozkoak direnez, konkurtso-prozesuetan abstenitzeko eskubidea du Herri Ogasunak. Hala ere, prozesu horien barruan, konkurtsoei buruzko legerian ezarritako akordioak edo hitzarmenak sinatu ahal izango ditu Ogasunak, eta, gainera, zordunarekin bat etorrita eta bidezkoz jotzen diren bermeak jarrita, ordainketarako baldintza bereziak hitzartu ahal izango ditu. Dena dela, baldintza horiek ezin dira izan onuragarriagoak zordunarentzat prozesu judiziala azkentzen duen hitzarmenean edo akordioan jasotakoak baino. Pribilegio hori konkurtsoei buruzko legerian ezarritakoaren arabera erabili ahal izango du. Era berean, erabaki dezake kreditu horiek zerga-arautegian ezarritakoaren arabera konpentsatzea.

Aurreko lerroaldean aipatutako akordioak eta hitzarmenak sinatzeko eta egiteko nahikoa izango da Zerga Administrazioaren organo eskudunaren baimena.

169. Artikulua. Premiamendu-prozedura etetea.

1. Premiamendu-prozedura errekursoak eta administrazioarekiko diru-erreklamazioak arautzen dituzten xedapenetan ezarritakoaren arabera eta bertako baldintzak betez gero etengo da, baita zergen araudian eta konkurtso-araudian ezarritako gainerako kasuetan ere.
2. Zerga-bilketako organoek premiamendu-prozedura automatikoki etengo dute, inolako bermerik eman gabe, interesdunak ondoko kasuetako bat gertatu dela frogatzen duenean: bere kalterako izan den oker material, aritmetiko edo egitatezko bat gertatu dela zorra zehaztean; zorra jadanik ordainduta, barkatuta, konpentsatuta, geroratuta edo etenda dagoela; Zerga Administrazioak zorra ordaintzeko eskatzeko duen ahala preskribituta dagoela.
3. Hirugarren batek enbargoa kendu nahi badu, enbargatutako ondasunen edo eskubideen jabetza edo titulartasuna berea duela edo kreditua Herri Ogasunak baino lehen kobratzeko eskubidea duela uste duela eta, hirugarrengotza-erreklamazioa aurkeztuko du administrazio-organismo eskudunaren aurrean.
4. Jabetza-hirugarrengotza aurkeztean bada, premiamendu-prozedura eten egingo da eztabaidapeko ondasunei eta eskubideei dagokienez, behar diren segurtasun-neurriak ezarri ondoren.
5. Eskubide hobeko hirugarrengotza aurkeztuz gero, prozedurak aurrera egingo du ondasunak gauzatu arte eta lortutako kopurua gordailuan gordeko da hirugarrengotzaren gaineko ebazpena eman arte.
6. Hirugarrengotza-erreklamazioak izapidetzeko prozedura arau bidez garatuko da; haien gaineko ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute.

170. Artikulua. Jarduketak mantentzea.

1. Premiamendu-prozedurako jarduketa batzuen deuseztasuna adierazten denean, deuseztasunak ukitzen ez dituen jarduketak mantendu egingo dira.

2. Errekarguak edo zerga-zorraren kuotaz beste osagairen bat edo zehapenak deuseztatzeak ez du eraginik izango premiamendu-prozeduran egindako jarduketan baliozkotasunean deuseztatu gabeko zerga-zorraren osagaiei edo zehapenei dagokienez.

BIGARREN AZPIATALA

PREMIAMENDU-PROZEDURAREN HASIERA ETA GARAPENA

171. Artikulua. Premiamendu-prozeduraren hasiera.

1. Premiamendu-prozedura zergapekoari premiamendu-probidentzia jakinarazten zaionean hasiko da. Jakinarazpenean zorra identifikatuko da (errekarguak eta interesak barne) eta ordainketa egiteko eskatuko da.
2. Premiamendu-probidentzia titulu nahikoa izango da premiamendu-prozedura hasteko, eta epaiaren besteko indarra izango du zergapekoen ondasunen eta eskubideen aurka jotzeko.
3. Premiamendu-probidentziaren aurka egiteko arrazoi hauek soilik onartuko dira:
 - a) Zorra oso-osorik azkentzea edo Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahala preskribitzea.
 - b) Gerorapena, zatikatzea edo konpentsazioa eskatzea borondatezko aldiaren, eta bilketa-prozedura eten dezaketenean beste arrazoi batzuk.
 - c) Likidazioa ez jakinaraztea.
 - d) Likidazioa deuseztatzea.
 - e) Zorduna edo premiamendupeko zorra identifikatzea galarazten duen oker edo omisioren bat egotea premiamendu-probidentziaren edukian.
4. Aurreko zenbakian zehaztutako arrazoiak ez dira onartuko elkarren laguntzarako arauen esparruan emandako betearazpen tresnaren aurka egiteko. Elkarren laguntza eskatu duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak berrikusiko du betearazpen-tresna, salbu eta elkarren laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean.
5. Zergapekoak ez badu ordainketarik egiten foru arau honetako 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako epean, ondasunak enbargatuko zaizkio eta horren berri emango zaio premiamendu-probidentzian.

171 bis artikulua. Betearazpen-tresna elkarren laguntzaren esparruan

1. Elkarren laguntzari buruzko arauen babesean, hau hartuko da betearazpen-tresnatzat: kapitulu honetan aipatzen diren bilketa- jarduketak egiteko gaitzen duen tresna.
2. Betearazpen-tresna premiamendu-probidentziaren berdintzat jotzen da. Bereziki, bilketa-prozedura hasteko titulu nahikotzat joko da eta foru arau honen 171. artikuluan aipatzen den premiamendu- probidentziaren indar exekutibo bera izango du ordaintzera behartuta daudenen ondasun-eskubideen aurka egiteko.
3. Betearazpen-tresna baldin badago estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak tresna horri buruz emandako buruzko beste dokumentu batzuekin batera, dokumentuok Zerga Administrazioak jaso dituen hizkuntzan bidaliko zaizkio hartzaileari, salbu eta elkarren laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean.
4. Ez betearazpen-tresnak ez harekin batera doazen tresna horri buruzko diren dokumentuek, elkarren laguntzari buruzko araudiarekin bat jasotakoek, ez dute beharko Zerga Administrazioak aitortu-, gehitze- edo ordeztu-egintzarik egiterik, salbu eta araudi horrek besterik zehazten duenean.

172. artikulua. Bermeak betearaztea.

Zerga-zorra bermatuta badago, Zerga Administrazioak, lehenbizi, foru arau honen 176. artikuluan xedatzen den prozeduraren bidez atxiki dezake bermea; bestela, beste eskubide edo ondasun batzuk enbargatu eta besterentzea erabaki dezake. Halaber, bermea atxiki aurretik beste ondasun edo eskubide batzuk enbargatu eta besterendu ahal izango dira, zergapekoak hala egitea eskatzen duenean (zorra ordaintzeko beste ondasun adierazi behar ditu). Halakoetan, bermetik enbargoak ziurtatutako kopurua kenduko da.

173. Artikulua. Ondasunen eta eskubideen enbargoa.

1. Proporzionaltasunaren printzipioa errespetatuta, zergapekoari gastu hauek estaltzeko beste ondasun eta eskubide enbargatuko zaizkio:
 - a) Ordaindu gabeko zorraren edo zehapenaren zenbatekoa.
 - b) Sarrera egin arte sortutako errekaru eta interesak.
 - c) Premiamendu-prozeduraren kostuak eta, halakorik badago, kautelazko neurrienak.
2. Zerga Administrazioak enbargatzen errazena diren eta kalterik gutxien eragingo dioten ondasunak eta eskubideak enbargatuko dizkio zergapekoari, hain zuzen ere zor duen zenbatekoa estaltzeko beste. Nolanahi ere, zergapekoaren etxebizitzara sartuta enbargatu behar diren ondasunak eta eskubideak azkenerako utziko dira, etxebizitza Konstituzioaren babespean baitago.
3. Zergapekoak eskatzen badu, enbargatutako eskubideen eta ondasunen ordez beste batzuk eman ditzake, hain zuzen ere zorraren kobrantza enbargatutakoek bezain ongi bermatzen dutenak; ordezpen horrek ezin die kalterik egin gainontzekoei.
4. Foru arauen edo legeen arabera enbargaezina diren ondasunak eta eskubideak ez dira enbargatuko, ezta atxikitzeko besterenduta lortuko den kopurua baino gehiago gastatuko dela uste den ondasunak eta eskubideak ere.

174. Artikulua. Enbargo-eginbidea eta prebentziozko idaztoharra.

1. Enbargo-jarduketa bakoitza eginbide baten bidez dokumentatuko da eta eginbide hori jarduketa egiten den pertsonari jakinaraziko zaio.

Ondasunak eta eskubideak enbargatu eta gero, eginbidea honako hauei jakinaraziko zaie: zergapekoari eta, hala badagokio, ondasunen titular, edukitzaile edo gordailuzain den hirugarrenari, baldin eta jarduketak harekin egin ez badira; zergapekoaren ezkontideari, ondasunak irabazpidezkoak badira, edo izatezko bikotekideari, ondasunak halakoak badira izatezko bikotea osatzen dutenek hitzartutako ondasunen araubide ekonomikoa dela bide, baita ondasunen jabekide edo titularkideei ere.

Eginbide hori zergapekoaren ezkontideari edo aurreko paragrafoan aipatutako izatezko bikotekideari ere jakinaraziko zaio beraien erregimen ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa denean.

2. Enbargatutako ondasunak erregistro publiko baten inskribatu ahal badira, Zerga Administrazioak erregistro horretan prebentziozko idaztoharra egiteko eskubidea izango du. Horretarako, organo eskudunak agindua emango du (enbargo-agindu judizialaren balio bera izango du) eta erregistroan agertzen diren kargei buruzko ziurtagiria egiteko eskatuko du. Erregistratzaileak, enbargoaren bazterreko idaztoharren bidez, ziurtagi hori eman dela jasoaraziko du eta bertan data eta prozedura zehaztuko ditu.

Kasu honetan, enbargoaren berri emango zaie prebentziozko enbargoaren idaztoharren ondoren kargen titular bihurtu direnei, bai eta bazterreko idaztoharra egin aurretik zeudenei ere.

Horrela egiten den prebentziozko idaztoharra ez du aldatuko foru arau honetako 78. artikuluan zerga-kredituak kobratzeko ezarritako lehentasuna, baldin eta eskubide hobeko hirugarrengotza baliatzen bada. Bestela, enbargo-idaztoharren erregistro-ordena hartuko da aintzat.

3. Enbargo-eginbidearen aurka egiteko arrazoi hauek soilik onartuko dira:
 - a) Zorra oso-osorik azkentzea.
 - b) Premiamendu-probidentzia ez jakinaraztea.
 - c) Foru arau honetan enbargoari buruz ezarritako arauak ez betetzea.
 - d) Zerga-bilketaren prozedura etetea.
4. Elkarren laguntzaren babesean ematen diren enbargo eginbideen aurka egiteko soilik onartuko dira aurreko zenbakian zehazten diren arrazoiak.

Beste estatu bateko edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde bateko administrazio-instantzien edo instantzia judizialen aurrean eginiko jarduketetan lortutako frogabideak erabiltzen badira aurkaratzeko arrazoiaren oinarri moduan, frogabideok behar bezala egiaztatu ditzala eskatu behar zaio organo eskudunari. Horretarako bidalitako informazioak Zuzenbidean dagokion frogabalia izango du, foru arau honen 103.1 artikuluko bigarren lehen zatirekin bat.

Foru arau honetatik eta hura garatzeko arauditik ondorioztatzen diren arrazoiak erabili daitezke Zerga Administrazioak elkarren laguntzaren barruan jasotzen duen kobru-eskaera baten ondorioz egiten diren gainerako jarduketak aurkaratzeko.

5. Ondasun higigarriak enbargatzen direnean, Zerga Administrazioak gordailupean jarri ahal izango ditu arau bidez ezartzen den moduan.
6. Merkataritza edo industriako establezimendu bat edo, oro har, enpresa baten ondasunak eta eskubideak enbargatzeko agintzen denean, jardueraren zuzendaritzaren buru diren pertsonak zergapekoaren kaudimenari kalte egin diezaioketela uste bada, organo eskudunak, negozioaren titularra edo erakundearen administrazio-argaria entzun ondoren, funtzionario edo profesional bat izenda dezake administrazioarekin jardun dezan edo negozioa kudea dezan araubidez ezartzen den moduan; betearazi aurretik administrazio-akordioan zehazturiko egintzak fiskalizatuko dira.
7. Kasu batzuetan, sozietate baten ondasun higigarriak eta higiezinak erabiltzeko debekua ezartzea erabaki ahal izango du Administrazioak, nahiz eta diru-bilketa prozedura haren aurkakoa izan ez: baldin eta zergapekoari sozietate horren akzioak edo partaidetzak enbargatu bazaizkio, bai eta, akzio-partaidetzak beste sozietateren batenak izanik, haien bitartez higigarriak eta higiezinak titular den sozietatearen gaineko kontrola egiten badu, osoa zein partziala, zuzenean zein zeharka. Halakoetan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatzen diren baldintzei jarraituko zaie, eta zergapekoak ez du zer-tan formulatuta izan kontu bateraturik. Horretarako manamendu baten bidez, dagozkien erregistroetan eta finkei dagokien Jabetza Erregistroan irekitako orrian, haiek xedatzeko debekuari buruzko idatz-ohar prebentiboa jaso ahal izango da; manamendu horretan, hain zuzen ere, justifikatuko da erregistroko titularra ez den pertsonaren aurkako kautela-neurria baliozkoa dela, kontrol-harreman bat dagoelako, zeinaren egitatea manamenduan bertan zehaztuko den.

Higiezinak erabiltzeko debekuaren kontrako errekursoak oinarri bakarra izan dezake; alegia, halako neurriak hartzea ahalbidetzen duten egitatezko oinarrietarikoren baten falta.

Neurri hori ezeztu egingo da, noiz eta, edozein arrazoiengatik, azkentzen baita zergapekoaren partaidetza edo akzioen gaineko enbargoa. Era berean, Administrazioak higiezinak erabiltzeko debekua kendu ahal izango du, baldin eta debekuari eusteak nekez

konpon litezkeen edo konponezinak litezkeen kalteak eragin balitzake. Horretarako, sozietateak behar den legez egiaztatu behar du arrisku hori.

175. Artikulua. Kreditu- edo gordailu-erakundeetako ondasunen edo eskubideen enbargoa.

1. Zerga Administrazioak kreditu-erakunde batean edo pertsona zein erakunde gordailuzain batean jarritako fondo, balore, titulu edo bestelako ondasunen berri badu, zor den zenbatekoa estaltzeko beste enbargatu ahal izango ditu; horretarako ez du edukiko zertan zehaztu identifikazio-datuak ez zergapekoak erakundean dituen kontu, gordailu edo eragiketa guztien egoera.
2. Fondoak edo baloreak titular baten baino gehiagoren izenean gordailatu badira, zergapekoari dagokion zatia soilik enbargatuko da.

Horren ondoretarako, gordailuzainarekiko solidaritate aktiboa duten kontu bereizgabeetan eta titulartasun mankomunatuak kontuetan, saldoa denean artean hainbanatuta dagoela pentsatuko da, titulartasuna beste modu batean banatuta dagoela frogatu ezean

3. Enbargoak eragindako kontutik normalean soldatak edo pentsioak ordaintzen badira, Prozedura Zibileko Legeak ezarritako mugak errespetatu beharko dira; hain zuzen ere, lege hori zordunaren soldata edo pentsiotzat hartzen den zenbatekoari aplikatuko zaio. Horren ondoretarako, soldata edo pentsiotzat hartuko da enbargoa aplikatzen den hilean, edo aurrekoan, bestela, kontzeptu horrengatik kontuan sartutako zenbatekoa.

176. Artikulua. Enbargatutako ondasunak eta eskubideak besterentzea.

1. Enbargatutako ondasunak eta eskubideak enkante, lehiaketa edo adjudikazio bidez besterenduko dira, arau bidez zehazten diren kasuetan eta ezartzen diren baldintzak beteta.

Besterentzeko erabakia inpugnatzeko, ezinbestekoa da aurretik enbargatzeko eginbideak foru arau honetako 110. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera jakinaraztea. Hala gertatzen denean, besterentzeko erabakiaren aurka foru arau honetako 174. artikuluko 3. idatz-zatian enbargo-eginbideak inpugnatzeko ezarritako arrazoiak baizik ez dira onartuko.

2. Premiamendu-prozedura Herri Ogasunari ondasunak adjudikatuta amaitu ahal izango da, ondasunak edo eskubideak Ogasunaren interesekoak badira eta besterentzeko prozeduran jadanik adjudikatu ez badira.

Adjudikazioaren zenbatekoa zorraren bestekoa izango da; kopuru hori inolaz ere ez da izango finkatutako eskaintzen gutxieneko zenbatekoa baino gehiago eta zordunak ez du izango konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik.

3. Gainontzeko eskaintzen berri jakin ondoren handiena berdintzea edo gaintitzea erabakitzen badu, Zerga Administrazioak adjudikatzeko lehentasuna izango du. Aukera hori arau bidez zehazten denari lotuta eta finkatzen diren baldintzak beteta baliatu behar da..
4. Zerga Administrazioak ezin izango ditu besterendu premiamendu-prozeduran enbargatu diren ondasun eta eskubideak harik eta kobratu nahi den zerga-zorraren likidazioa irmoa izan arte; nolana ere, salbuespena egingo da ezinbesteko kasuetan, ondasun galkorrekin, balioa berehala galtzeko arriskua duten ondasunekin eta zergapekoak besterentzeko eskatzen duenean.
5. Adjudikatu aurretik, Zerga Administrazioak noiznahi askatuko ditu enbargatutako ondasunak zor guztiak ordaintzen badira.
6. Ondasunak eta eskubideak besterentzeko gastuak lortuko den onura baino gehiago izango direla uste izanez gero, ez dira besterenduko.

7. Zerga Administrazioak baimena eman ahal izango du besterentzea enbargatutako ondasunen edo zorrak bermatzeko eratutako ondasunen titularrek egin dezaten, beren alde inskribatuta kargak kitatuz, zorra osorik estaltzen ez bada ere. Horretarako, erregelamendu bidez ezarritako prozedura erabili beharko da eta enkante publikoaren bidezko besterentzea egiteko publizitateari dagokionez ezarritako baldintza berberak erabiltzen badira.

HIRUGARREN AZPIATALA **PREMIAMENDU-PROZEDURAREN AMAIERA**

177. Artikulua. Premiamendu-prozeduraren amaiera.

1. Premiamendu-prozedura kasu hauetan amaituko da:
 - a) Foru arau honetako 173. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako zorrak ordaintzen direnean.
 - b) Zorra ordaindu behar duten guztiak kobraezinak direla adierazitakoan, erabaki bidez kreditu kobraezin adierazten denean.
 - c) Zerga-zorra edo zehapena beste edozein arrazoiengatik azkendu dela adierazten denean erabaki bidez.
2. Zorra ordaindu behar duena kobraezintzat jotzen bada, premiamendu-prozedurari berriz ekingo zaio, Zerga Administrazioak zorraren ordainketa eskatzeko duen ahalaren preskripzio-epearen barruan, hark kaudimena baduela jakinez gero.
3. Arau bidez prozedura berezi erraztua prestatu ahal izango da zergadun baten zorrak kobraezinak direla adierazteko guztira kopuru jakin batera heltzen ez direnean.

HIRUGARREN ATALA **ERANTZULEEN ETA OINORDEKOEN AURKAKO PROZEDURA**

LEHENENGO AZPIATALA **ERANTZULEEN AURKAKO PROZEDURA**

178. Artikulua. Prozeduraren izaera.

Erantzuleen aurkako prozeduran zerga-zorraren ordainketaren erantzuletzat zordun nagusiez gainera beste pertsona eta erakunde batzuk (foru arau honetako 40., 41. eta 42. artikuluetan ezarritakoaren arabera) egiten diren zerga-bilketako jarduketa guztiak sartzen dira.

179. Artikulua. Erantzukizunaren adierazpena.

1. Erantzukizunaren adierazpenaren prozedura ofizioz hasiko da, hain zuzen ere interesdunari, entzunaldiaren izapidean, espediente eskuragarri duela adierazten dion komunikazioaren bitartez. Izapide hau bete eta gero prozedura amaitutzat joko duen administrazio-egintza emango da, bidezkoa bada.
2. Erantzukizuna, likidazioa egin edo autolikidazioa aurkeztu osteko edozein unetan adierazi ahal izango da, Foru Arauak besterik xedatu ezean.
3. Erantzuleen aurretiazko entzunaldiak ez du eragotziko izapidearen aurretik alegazioak aurkezteko eskubidea, ez eta euren ustez beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskubidea ere..
4. Erantzukizuna adierazteko egintza erantzuleei jakinaraziko zaie; hauxe izango da edukia:
 - a) Erantzukizun-adierazpenaren gaineko erabakiaren testu osoa; bertan, gaitzen duen egitatea eta berorrek biltzen dituen likidazioak adieraziko dira.

- b) Egintza horren aurka erabil daitezkeen inpuignazio-bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta aurkezteko epea.
 - c) Erantzuleari eskatutako zenbatekoa ordaintzeko lekua, epea eta modua.
5. Erantzukizun-adierazpenaren gaineko erabakiaren aurka jarritako errekurso edo erreklamazioan, gaitzen duen egitatea eta berorrek biltzen dituen likidazioak aurkaratu ahal izango dira. Hala ere, errekurso edo erreklamazio hauen ebazpenaren ondorioz ezin izango dira berrikusi beste zergapeko batzuen likidazio irmoak: errekurtsua edo erreklamazioa aurkeztu duenaren betebeharraren zenbatekoa soilik berrikusi ahal izango da.
- Nolanahi ere, foru arau honetako 41. artikuluko 5. idatz-zatian eta 42. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letran ezarritako kasuetan ezin aurkaratu izango dira erantzukizun-adierazpena gaitzen duen aurrekontuak biltzen dituen likidazioak, baizik eta haren guztirako hedadura. Era berean, kasu horietan beretan, ez da aplikatzekoa izango 219. artikuluko 3. zenbakian xedaturikoa, hala eratorritako zenbatekoaren oinarria zorrak direnean, nola zerga-zehapenak.
6. Erantzuleak foru arau honetako 60. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran ezarritako epea izango du borondatez ordaintzeko.
7. Zorra epe horretan ordaintzen ez badu, ordainarazpen-aldian eskatuko zaio premiamendu-prozeduraren bidez.
8. Erantzukizuna adierazteko prozedurako jarduketak sei hilabete igaro baino lehen amaitu behar dira, zergapekoari prozeduraren hasiera jakinarazten zaionetik aurrera zenbatuta. Aldi hori konputatzean ez dira kontuan hartuko interesdunari egotzi dakizkiokeen luzatzeak.

Aurreko paragrafoan aipatutako prozeduraren gehieneko epean erantzukizun-adierazpenaren administrazio-egintza ematen ez arren, prozedura ez da iraungiko, hau da, aurrera egingo du amaitu arte, baina Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahalaren preskripzioa ez da etengo erantzulearen aurka gauzatutako jarduketaren ondorioz. Kasu honetan, jarduketei berriz ekiten zaienean, erantzuleari formalki jakinarazita, preskripzioa etentzat joko da.

180. Artikulua. Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura.

1. Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura, kasuen arabera, honako hau izango da:
 - a) Eratorritako zorraren jatorrizko ordainketa egiteko borondatezko epealdia amaitu baino lehenagoko edozein unetan erantzukizuna aitortu eta arduradunari jakinarazi bazaio, nahikoa izango da epealdi hori igarotakoan ordainketa egiteko eskatzea.
 - b) Gainerako kasuetan, eratorritako zorraren jatorrizko ordainketa egiteko borondatezko epealdia igarotakoan, organo eskudunak erantzukizun-deklarazioaren egintza emango du, eta arduradunari jakinaraziko zaio.
2. Ustiapenen edo jarduera ekonomiko baten titulartasuna eskuratu nahi duenak, foru arau honetako 41. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako erantzukizun solidarioa mugatzeko, aurreko titularraren adostasuna lortu eta gero, jardunaren ondoriozko zergen, zehapenen eta zerga-erantzukizunen ziurtagiria xehekatua eskatu ahal izango dio Administrazioari. Eskaera aurkeztu zaionetik Zerga Administrazioak hiru hilabeteko epea izango du ziurtagiri hori emateko. Emanez gero, eskuratzaileraren erantzukizunean bertan azaltzen diren zorrak, zehapenak eta erantzukizunak baizik ez dira sartuko. Ziurtagirian ez bada aipatzen zorrik, ez zehapenik, ez erantzukizunik, edo ezarritako epean ematen ez bada, eskuratzailerak ez du edukiko aurrean aipatutako artikuluan ezarritako erantzukizuna.

181. Artikulua. Erantzukizun subsidiarioa eskatzeko prozedura.

Zordun nagusia eta, hala denean, erantzule solidarioak kobraezinak direla adieraziz gero, Zerga Administrazioak erantzukizun-adierazpenaren egintza emango du eta erantzule subsidiarioari jakinaraziko dio.

BIGARREN AZPIATALA OINORDEKOEN AURKAKO PROZEDURA

182. Artikulua. Oinordekoen aurkako zerga-bilketako prozedura.

1. Zerga-zorra ordaindu behar duena hiltzen bada, zerga-bilketako prozedurak haren jaraunsleekin jarraituko du, eta behar denean legatu-hartzaileekin ere bai. Horretarako nahikoa izango da zergapekoaren heriotza jasoarazita egotea eta oinordekoei jakinaraztea; jakinarazpenean kausatzailearen zerga-zorra eta gainerako kostuak ordaintzeko eskatuko zaie.

Jaraunsleak pentsatzeko eskubidea erabili nahi duela adierazten badu, zerga-bilketako prozedura eten egingo da horretarako aldia amaitu arte. Aldi horretan jaraunsleak Zerga Administrazioari eskatu ahal izango dio kausatzaileak ordaintzeke dituen zorren zerrenda emateko, informazio gisa.

Jaraunspena banatugabe dagoen artean, zerga-zorrak biltzeko prozedurak beraren ondasunen eta eskubideen aurka jarraitu ahal izango du; prozedurako jarduketak administrazioa edo ordezkaritza duenarekin egin beharko dira.

2. Sozietate edo erakunde bat desegin eta likidatzen bada, zerga-bilketako prozedurak bazkideen, partaideen edo titularkideen aurka jarraituko du, nortasun juridikoa azkendu dela baieztatu ondoren.

Fundazio bat desegin edo likidatzen bada, zerga-bilketako prozedurak haren ondasun eta eskubideen jasotzaileekin jarraituko du.

Zerga Administrazioak bazkide, partaide, titularkide eta jasotzaileetariko baten edo guztien aurka, aldi berean zein jarraika, jardun ahal izango du foru arau honetako 173. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako zorrak eskatzeko.

IV. TITULUA ZEHATZEKO AHALA

I. KAPITULUA ZERGEN ARLOKO ZEHATZEKO AHALAREN PRINTZIBIOAK

183. Artikulua. Zehatzeko ahalaren printzipioak.

Zergen arloko zehatzeko ahala administrazio arloko printzipio arautzaileen arabera betearaziko da, foru arau honetan eta zergei buruzko gainontzeko arauetan ezarritako berezitasunekin.

Zehazki, legezkotasun, tipikotasun, erantzukizun, proportziotasun eta ez piltzeko printzipioak aplikatuko dira. Atzeraeragingarritasun printzipioa orokorrean aplikatuko da, foru arau honetako 9. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa kontuan hartuz.

184. Artikulua. Erantzukizun printzipioa zergen arloko arau-hausteei dagokienez.

1. Foru arau honetako 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako pertsona fisiko edo juridikoek eta erakundeek zehapena jaso ahal izango dute zergen arloko arau-hausteren baten erantzuleak direnean. Zergapekoek beti fede onez jarduten dutela pentsatuko da.

2. Foru arauetan edo legeetan tipifikatutako ekintzek eta omisioek ez dute zergen arloko arau-hausteagatiko erantzukizunik ekarriko kasu hauetan:

- a) Zergen arloan jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.
- b) Ezinbesteko karia gertatzen denean.
- c) Kolektibo baten erabakiaren ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu den bileran izan ez direnentzat.
- d) Zerga-betebeharra betetzeko arreta nahikoarekin jarduten denean. Beste kasu batzuetan, zergapekoak arreta nahikoarekin jardun duela pentsatuko da aurkeztutako aitorpena egiazkoa eta osoa bada eta autolikidazioa edo aitorpena, aurkeztuz gero, arauak zentzuz interpretatuta egin badu.

Zehazki, zergadunak arauak zentzuz interpretatu dituela pentsatuko da ondorengoan arabera jardun badu:

- a') Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren edo Administrazioarekiko auzibidearen epaitegi edo auzitegien ebazpenak, edo Konstituzio Auzitegiaren epailetako eta Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren auto eta epailetako doktrina, funtsean berdinak diren egitateak eta inguruabarrak gertatzen diren kasuei dagokienez.

- b') Zerga Administrazioak ondokoetan adierazitako irizpideak:

- aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko ereduak eta laguntza-eskuliburuak;
- foru arau honetako 83. artikuluan aipatutako zabalkundea eta komunikazioak;
- beste zergapekoek aurkeztutako zergei buruzko galderen (foru arau honetako 85. artikulua) erantzunak, galderan azaldutako kasuko inguruabarrak bat datozenean eta ondorioz Zerga Administrazioak emandako irizpideak aplikagarritzat jo daitezkeenean, baldin eta bien bitartean aldatu ez badira.

- e) Zerga-betebeharrak betetzeko Administrazioak eskaintzen dituen programa informatikoen akatsen ondoriozkoak direnean.

3. Zergapekoek ez dute erantzukizunik izango egindako zerga arloko arau-haustea direla eta, baldin eta beren borondatez eta Zerga Administrazioak aurretik errekerimendua egin gabe zerga-egoera erregularizatzen badute aitorpenak eta autolikidazioak aurkeztuz.

Halaber, zergapekoek ez dute erantzukizunik izango aurretik aurkeztutako aitorpen, autolikidazio edo eskabide okerrean ondorioz egindako zerga arloko arau-haustea direla eta, baldin eta beren borondatez eta Zerga Administrazioak aurretik errekerimendua egin gabe zuzentzen badituzte.

Zenbaki honetan xedatutakoa aplikatzeko, autolikidazioak aurkezten badira aitorpena egiteko zein hartan adierazitako kuotak sartzeko borondatezko epea amaitu ondoren, orduan, autolikidazio horietan beren-beregi adieraziko da zer zergaldi edo likidazio-aldiri dagokion autolikidazioa, eta aldi horri dagozkion datuak besterik ez da jasoko. Horretarako, foru arau honetako 119.2 artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, aitorpen, autolikidazio eta eskaera berriak oker edo berandu aurkeztearen ondorioz, berandutze-interesak eta -errekarguak ezarri ahal izango dira eta arau-haustea gertatu.

4. Foru arau honetan xedatutakoaren ondoretarako, aurretiazko errekerimendutzat hartuko dira zergapekoen zerga-zorra aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko,

ziurtatzeko edo likidatzeko egiten diren administrazio-jarduketa guztiak, zergapekoei jakinarazita eginez gero.

185. Artikulua. Zerga-zehapenik ez pilatzearen printzipioa.

1. Zergen Administrazioak foru arau honen VI. tituluan xedatutakoa aplikatuko du, bai zergak aplikatzeko prozedurak izapidetzeko, bai bidezko zehapenak ezartzeko, arauhaustea Ogasun Publikoaren aurkako delitua izan daitekeela uste duen kasuetan.
2. Arau-hauste bat mailakatzeko irizpidetzat hartu behar den egite edo ez-egite bera ezin izango da arau-hauste independente gisa zehatu.
3. Hainbat arau-hauste eragiten dituzten ekintzak edo ez-egiteak eginez gero, horiei guztiei dagozkien zehapenak ezarri ahal izango dira.
4. Zergen arloko arau-haustek egitearen ondoriozko zehapenak bateragarriak dira bidezkoak diren errekaratuak eta berandutze-interesak eskatzearekin.

II. KAPITULUA ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEI ETA ZEHAPENEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO ATALA ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ERANTZULEAK

186. Artikulua. Arau-hausleak.

1. Foru arauetan edo legeetan arau-hauste gisa tipifikatutako ekintza edo omisioren bat egiten duten foru arau honetako 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak arau-hausleak izango dira.

Hauexek izango dira arau-hausleak, besteak beste:

- a) Subjektu pasiboak.
 - b) Konturako ordainketak egin behar dituztenak.
 - c) Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak bete behar dituztenak.
 - d) Zerga-betebehar formalak bete behar dituztenak.
 - e) Zerga-baterakuntzaren erregimenean ordezkaritza duen erakundea.
 - f) Bazkideei edo kideei errentak egotzi behar dizkieten erakundeak.
 - g) Zergen arloan jarduteko gaitasunik ez duten zergapekoen legezko ordezkariak.
 - h) Zergapekoak, elkarren laguntzari buruzko araudiarekin bat.
 - i) Balio erantsiaren gaineko zergaren entitate-taldearen araubide bereziko entitate nagusia.
2. Arau-hauslea zordun nagusia izango da foru arau honetako 40. artikuluko 1. idatz-zatian erantzukizun-adierazpenari buruz xedatutakoaren ondoretarako.
 3. Zergen arloko arau-hauste batean arau-hausle bat baino gehiago pilatzen bada, zehapena solidarioki ordaindu beharko diote Administrazioari.

187. Artikulua. Zerga-zehapenen erantzuleak eta oinordekoak.

1. Foru arau honetako 41. eta 42. artikuluetan ezarritako kasuetan dauden pertsonak edo erakundeak zerga-zorren ondoriozko zerga-zehapenen zein bestelakoen ordainketaren erantzule izango dira, bertan ezarritakoaren arabera..
2. Erantzukizuna adierazteko eta eskatzeko prozedura foru arau honetako 178-180 bitarteko artikuluetan ezarri da.
3. Zerga-zehapenak ez zaizkie eskualdatuko arau-haustle fisikoen jaraunsleei eta legatu-hartzaileei.

Desegindako sozietate eta erakundeek egindako zergen arloko arau-haustleak euren oinordekoei eskualdatuko zaizkie, foru arau honetako 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARREN ATALA ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN KONTZEPTUA ETA MOTAK

188. Artikulua. Zergen arloko arau-hausteen kontzeptua.

Zergen arloko arau-haustleak dira foru arau honetan edo besteren batean zein legeren batean edozein mailatako zabarkeriaz tipifikatu eta zehatu diren doluzko edo erruzko ekintzak eta omisioak.

189. Artikulua. Zerga-zehapen motak.

1. Zergen arloko arau-haustleak zigortzeko diru-zehapenak ezarriko dira; behar denean, diruzkoak ez diren zehapen osagarriak ere ezar daitezke.
2. Diru-zehapenak isun finakoak edo proportziozkoak izan daitezke.

190. Artikulua. Zergen arloko arau-hausteen diruzkoak ez bestelako zehapenak.

1. Arau-haustle baten ondorioz ezartzen den diruzko isuna 30.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa zergen arloko arau-haustleak behin eta berriro errepikatu izana eta datuak ezkutatu izana edo iruzurrez nahiz bitarteko pertsona baten bidez jokatu izana erabiltzen badira, jarraian adieraziko diren zehapen osagarriak ezarri ahal izango dira:
 - a) Urtebetean edo bi urtean diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eta eskabidezko zerga-onurak edo zerga-pizgarriak lortzeko aukera galtzea, arau bidez ezarritakoaren arabera.
 - b) Zehapena ezarri duen Herri Administrazioarekin urtebetean edo bi urtean kontratuak sinatzeko debekua, arau bidez zehaztutakoaren arabera.
2. Arau-haustle baten ondorioz ezartzen den diruzko isuna 60.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada eta zehapena mailakatzeko aurreko paragrafoan ezarritako irizpideak erabiltzen badira, aurrekoaz gainera ondoko zehapen osagarriak ere ezarri ahal izango dira:
 - a) Hiru, lau edo bost urtean diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eta eskabidezko zerga-onurak edo zerga-pizgarriak lortzeko aukera galtzea (arau bidez ezarritako baldintzen arabera), zehapenaren zenbatekoa 60.000, 150.000 edo 300.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean, hurrenez hurren.
 - b) Zehapena ezarri duen Herri Administrazioarekin hiru, lau edo bost urtean kontratuak egiteko debekua (arau bidez zehaztutakoaren arabera), zehapenaren zenbatekoa 60.000, 150.000 edo 300.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean, hurrenez hurren.

3. Agintariek edo lanbide ofiziala duten pertsonen foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako lankidetzaren betebeharrak ez betetzeak dakarren arau-hausteren bat egiten badute eta betebeharrak horri dagokionez foru arau honetako 209. artikuluan ezarritako hiru betekizun bete ez badituzte, bidezko diru-zehapenaz gainera lanbide ofizialean edo enplegua zein kargu publikoan hiru hilabetez ezin jardun izatea ezarri ahal izango zaie zehapen osagarri gisa.

Arau-hausleari administrazio-bidean emandako ebazpen irmoaren bidez aurreko paragrafoan aipatutakoa bezalako beste zehapen osagarri bat ezarri bazaio aurreko lau urteetan, jardun-debekua hamabi hilabetekoa izango da.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondoreetarako, lanbide ofizialtzat hartuko dira ondoko jardura: jabetzaren erregistratzaileena eta merkataritzako erregistratzaileena, notarioena eta, funtzio publikoetan jardunez, foru erakundeak, Estatuaren, autonomia erkidegoen, toki-entitateen edo Zuzenbide Publikoko beste erakunde batzuen hartzekoak zuzenean jasotzen ez dituztenen jardura.

4. Foru arau honetako 208.3 artikuluan aurrez ikusitako zigorra ezartzean, gainera, artikuluko honetako 1. paragrafoan jasotako zigor osagarriak ere ezarri ahal dira.

HIRUGARREN ATALA **DIRUZKO ZERGA-ZEHAPENEN ZENBATEKOAK**

191. Artikulua. Zerga-zehapenak mailakatzeko irizpideak.

1. Zerga-zehapenak ondoko irizpideen arabera bakarrik mailakatuko dira, aplikatu daitezkeen heinean:

a) Zergen arloko arauak behin eta berriro haustea.

Egoera hau gertatu dela ulertuko da arau-hausleari administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez zergen arloko beste arau-hauste batengatik zehapena ezarri bazaio aurreko lau urteetan. Horren ondoreetarako, izaera berekotzat joko dira titulu honetako III. Kapituluko artikuluko berean ezarritako arau-hausteak. Hala ere, foru arau honetako 196., 197. eta 198. artikuluetan ezarritako arau-hauste guztiak izaera berekotzat hartuko dira.

Hau gertatzen denean, gutxienezko zehapena %10-30 bitartean gehituko da edo, zehapena proportziozkoa ez bada, %100-300 bitartean.

b) Datuak ezkutatzea.

Zerga Administrazioari datuak ezkutatatu zaizkiola ulertuko da aitorpena aurkezten ez denean, aitorpenean esistitzen ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak agertzen direnean, edo zerga-zorra zehazteko kontu hartu beharreko eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo bestelako datuen bat ematen ez bada. Horrelako kasuetan, gutxienezko zehapena %15-150 bitartean gehituko da.

c) Iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jardutea.

Arau bidez ezarritakoaren arabera, iruzurtzat joko dira:

- kontabilitatean eta zerga-arauegiaz ezarritako liburuetan edo erregistroetan huts garrantzitsuak agertzea;
- faktura, egiaztagiri edo bestelako dokumentu faltsuak edo desitxuratuak erabiltzea, baldin eta beraien eragina arau bidez ezarritako portzentajearen bestekoa bada, gutxienez;

- bitartekari legez beste pertsona edo erakunde bat erabiltzea, baldin eta arau-hausleak, bere nortasuna ezkutatzeko asmoarekin, zehapena eragin duen arau-haustearen oinarrian dagoen zerga-betebeharra sortu duten ondasunen edo eskubideen titulartasuna, errentak edo ondare irabaziaz edo zerga-betebeharra dakarten eragiketak beste baten izenean agertarazi baditu, haren baimenarekin zein baimenik gabe.

Horrelakoetan, gutxieneko zehapena %25-100 bitartean gehituko da.

2. Mailakatze-irizpideak aldi berean aplika daitezke. Mailakatze-irizpideak aplikatzeko baldintzak arau bidez ezarriko dira; alabaina, irizpideak aldi berean ezarri arren inolaz ere ezin izango da gainditu zehapen bakoitzari dagokion zenbatekoaren gehieneko kopurua.

192. Artikulua. Zehapenen murrizketa zergapekoaren adostasunaren ondorioz.

1. Foru arau honetako 196-202 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik ezartzen diren diru-zehapenen zenbatekoa portzentaje hauetan murriztuko dira:

- a) Adostasun-akten kasuan eta zergapekoak, ados egonik, zerga-zorra eta zehapena ordaintzen dituen kasuetan, 100eko 50.

Kudeaketa-prozeduretan, egiaztapen laburtuko prozeduretan eta zergapekoa bertaratutako gabeko erregularizazio-prozeduretan (berariazko adostasuna eskatzen den kasuetan izan ezik) zergapekoa ados dagoela ulertuko da, baldin eta likidazioaren edo zehapenaren aurka ez errekurtsoz ez administrazioarekiko diru-errekamaziorik aurkeztzen ez bada eta zerga-zorra eta zehapena borondatezko aldian ordaintzen badira.

- b) 100eko 70, ordaintzeko konpromisodun adostasun-akten kasuan eta egiaztapen laburtuaren prozedura baten ondoriozko administrazio-egintzak ordaintzeko konpromiso bat formalizatzen den kasuan; kasuok foru arau honetako 151 artikuluan eta 158.quinquies artikuluko 4. zenbakian ezartzen dira, hurrenez hurren.
2. Zergapekoari aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera murrizketaren zenbatekoa eskatuko zaio ondoko kasuetan:
 - a) Aurreko a) letran ezarritako kasuetan, erregularizazioaren edo zehapenaren aurka errekurtsoa edo erreklamazioa aurkeztzen denean edo zerga-zorra edo zehapena borondatezko aldian ordaintzen ez denean, ordaintzeko geroratuta edo zatikatuta ez dagoela.
 - b) Aurreko b) letran ezarritako kasuetan, erregularizazio edo zehapenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztzen denean edo foru arau honetako 225. artikuluan ezarritakoaren arabera erabateko deuseztasuna eskatzen denean.
 3. Aurreko idatz-zatian azaldutako inguruabarretako bat gertatzen bada eta ondorioz zehapenaren murrizketa galtzen bada, horren zenbatekoa osoa eskatuko da eta horretarako ez da egongo zergapekoari ordaindu beharreko zehapenaren zenbatekoaren berriz jakinarazi beharrik; nolana ere, badago salbuespen bat: zehapenaren aurkako errekurtsoa edo erreklamazioa aurkezteak; izan ere, kasu horretan foru arau honetako 219. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letran xedatutako aplikatuko da.
 4. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera aplikatutako murrizketaren zenbatekoa eskatzen bada eta murriztutako zehapenaren aurka errekurtsoa edo erreklamazioa aurkeztu bada, ez da egongo murrizketaren eskaeraren aurka errekurtsoa edo erreklamaziorik aurkeztu beharrik. Kasu honetan, errekurtsoaren xede den zenbatekoa zehapenaren zenbateko osoa izango dela pentsatuko da eta errekurtsoaren ondoriozko etendura eskatutako murrizketari ere aplikatuko zaio.

193. artikulua. Zehapenen murrizketa zergapekoaren ordainketaren ondorioz.

Foru arau honetako 203-213 artikuluetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren diru-zehapenen zenbatekoa %30 murriztuko da, baldin eta borondatezko aldian ordaintzen badira zehapenaren zenbateko osoa eta, kasuan-kasuan, zerga-zor osoa, edo ordainketa geroratzea edo zatikatzea onartzen bada, eta ez bada horren aurkako errekurtso edo erreklamaziorik aurkezten.

LAUGARREN ATALA ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNA AZKENTZEA

194. Artikulua. Zergen arloko arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna azkentzea.

1. Zergen arloko arau-hausteen erantzukizuna honako kasuetan azkenduko da: batetik, arau-hauslea hiltzen denean; bestetik, Administrazioak zehapenak ezartzeko duen administrazio-ahalaren preskripzio-epea edo iraungipen-epea amaitzen denean.
2. Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatzen dira. Hori dela eta, Administrazioaren ahal hori ezin erabili izango da preskribitu edo iraungi ondoren.
3. Administrazioak zerga-zehapenak ezartzeko duen ahalaren preskripzio-epea lau urtekoa izango da arau-haustea gertatzen denetik hasiko da zenbatzen.
4. Administrazioak zerga-zehapenak ezartzeko duen ahalaren preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:

- a) Zerga Administrazioak, interesdunari jakinarazita, zerga-zehapena ezartzeko ekintza bat egiten duenean.

Administrazioak zergapekoen zerga-egoera erregularizatzeko egiten dituen egintzek erregularizazioaren ondoriozko zerga-zehapenak ezartzeko ahalaren preskripzio-epea etengo dute.

- b) Erreklamazio eta errekurtsoren bat jartzen denean; Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; jurisdikzio penalari erruduntasun-testigantza bidaltzen zaionean edo Fiskaltzari salaketa aurkezten zaionean; prozedura horietan, zergapekoari formalki jakinarazita, jarduketak egiten direnean.

Ahalaren preskripzio-epea errekurtso edo erreklamazio bat aurkezteagatik eteten denean, zergapekoak aurkeztutako errekurtsoa edo erreklamazioa osorik baietsi eta ondorioz administrazio-egintzaren elementuak osorik deuseztatzen badira, epea ez da etentzat joko.

Halaber, foru arau honetako 69. artikuluko 11. zenbakian xedatutakoa aplikatuko zaio Zerga Administrazioak tributu-zehapenak ezartzeko duen ahalaren erabilerari.

5. Administrazioak zerga-zehapenak ezartzeko duen ahalaren iraungipen-epea sei urtekoa izango da eta arau-haustea gertatzen denetik hasiko da zenbatzen.
6. Administrazioak zerga-zehapenak ezartzeko duen ahalaren iraungipen-epea kasu hauetan etengo da:
 - a) Berraztertze-errekurtso bat, erreklamazio ekonomiko-administratibo bat edo peritutasazio kontrajarri bat jartzen denean.
 - b) Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka aurkezten zaionean.

- c) Zigor-jurisdikzioari erruduntasun-testigantza bidaltzen zaionean, Fiskaltzari salaketa aurkeztu zaionean eta aribideko administrazio-prozedura geldiarazteko agintzen duen jurisdikzio-organoaren jakinarazpena jasotzen denean.
- 7. Halaber, Zerga Administrazioak zerga-zehapenak ezartzeko duen ahala iraungitzen denean, foru arau honetako 72. artikuluko 2., 3. eta 4. idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko da.
- 8. Zerga Administrazioak ofizioz aplikatuko ditu preskripzioa eta iraungipena, eta ez da beharrezkoa izango interesdunak eskatzea..

195. Artikulua. Zerga-zehapenak azkentzea.

- 1. Zerga-zehapenak kasu hauetan azkenduko dira: ordaintzen direnean; Administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahala preskribitzen denean; konpentsatzen direnean; barkatzen direnean; zehapena ordaindu behar duten guztiak hiltzen direnean.
- 2. Zerga-zehapenei foru arau honetako II. tituluko IV. kapituluan xedatutakoa eta III. tituluko V. kapituluko arauak aplikatuko zaizkie.
- 3. Tributu-zehapenak barkatzea Bizkaiko Batzar Nagusiek soilik egin dezakete, foru arau baten bidez eta hartan zehaztutako zenbatekoan eta baldintzekin bat.
- 4. Foru arau honen ondoreetarako, bidegabe ordaintzen diren zerga-zehapenak bidegabeko sarrerak izango dira.

III. KAPITULUA ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

196. Artikulua. Autolikidazio baten ondoriozko zerga-zorra ez ordaintzeagatiko arau-haustea.

- 1. Zergen arloko arau-haustea izango da autolikidazioa behar bezala egitearen ondoriozko zerga-zor osoa edo horren zati bat ez ordaintzea zergaren arautegian ezarritako epearen barruan; salbuespena izango da, dena den, Zerga Administrazioaren errekerimendurik gabe erregularizatzea.

Zergen arloko arau-haustea izango da, halaber, errenten eratxikipenean erakundeek eman ez dituzten edo oker eman dituzten zenbatekoen ondorioz bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideek ordaindu beharreko zerga-zor osoa edo horren zati bat ez ordaintzea.

- 2. Zehapenaren oinarria arauen bat haustearen ondorioz autolikidazioan ordaindu ez den zenbatekoa izango da.
- 3. Zerga-arloko arau-hauste horren zehapena diruzko isun bat izango da, %100etik %250era bitartekoa.
- 4. Zergapekoak berari ez zegokion itzulketa bat jasotzen badu eta egindako erregularizazioaren ondorioz artikuluko honetan araututako zehapenen bat ezartzen bazaio, ordaindu gabeko zenbatekotzat ondokoa hartuko da: bidegabe lortutako zenbatekoari autolikidazioaren ondorioz ordaindu beharreko zenbateko osoa gehitzearen emaitza.

Horrelakoetan, foru arau honetako 198. artikuluan aipatutako itzulketa bidegabe eskuratzek dakarren arau-hausteagatik ez da zehapenik ezarriko.

- 5. Aurreko zenbakietan adierazitakoa gorabehera, zerga arloko arau-haustetzat joko da epearen barruan ez ordaintzea zergapekoak berak ondoren eta foru arau honetako 184.3 artikuluko baldintzak bete gabe aurkeztutako autolikidazio batean sartu edo erregularizatu dituen tributuak edo konturako sarrerak.

Zehapena, kasu horretan, diru-isuna izango da, hain zuzen, aurreko paragrafoan aipatzen diren baldintzak bete gabe erregularizatutako zenbatekoaren 100eko 75ekoa.

Zenbaki honetan xedaturikoa ez da aplikatzekoa izango baldin eta autolikidazioan sartutako sarrera batzuei dagozkien kontzeptuak eta zergaldiak direla-eta Zerga Administrazioak errekerimendu bat aurretik jakinarazi badu.

197. Artikulua. Likidazioak aplikatzeko beharrezko diren aitortenak eta agiriak osorik eta behar bezala aurkeztu harra ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Arau-haustea da autolikidazio-prozedura bidez eskatzen ez diren zergak behar bezala likidatzeko Zerga Administrazioak behar dituen aitorten eta agiriak osorik eta zuzen aurkeztu beharra ez betetzea, salbuespen honekin: foru arau honetako 27. artikuluan ezarritakoaren arabera erregularizatzea.
2. Aitorpena aurkezten ez bada, zehapenaren oinarria likidazioaren zenbatekoa izango da, edo zergaren likidazio egokiaren eta aitortutako datuen bidez egindakoaren arteko aldea.
3. Zerga-arloko arau-hauste horren zehapena diruzko isun bat izango da, %100etik %250era bitartekoa.

198. Artikulua. Bidegabe lortutako itzulketengatiko arau-haustea.

1. Zerga-arautegiaren ondoriozko itzulketak bidegabe eskuratzea arau-haustea da.
2. Zehapenaren oinarria arau-haustearen ondorioz bidegabe itzultutako zenbatekoa izango da.
3. Zerga-arloko arau-hauste horren zehapena diruzko isun bat izango da, %100etik %250era bitartekoa.

199. Artikulua. Zergen arloko itzulketak, onurak edo pizgarriak bidegabe eskatzeagatiko arau-haustea.

1. Zerga-arautegiaren ondoriozko itzulketak bidegabe eskatzea arau-haustea da, hau da, autolikidazioan edo aitorpenean datu garrantzitsuak adierazi gabe edo datu faltsuak jarrita eskatzea, nahiz eta itzulketarik lortu ez.

Zehapenaren oinarria bidegabe eskatutako zenbatekoa izango da.

Zehapena %15eko diruzko isun proportzionala izango da.

2. Era berean, arau-haustea izango da zergen arloko onurak edo pizgarriak bidegabe eskatzea, hain zuzen ere datu garrantzitsuak agertu gabe edo datu faltsuak adierazita, baldin eta jokabide horren ondorioz subjektu berari ezin bazaio ezarri zehapena foru arau honetako 196., 197. eta 200. artikuluetan edo artikuluko lehenengo idatz-zatian ezarritako arau-hausteetako batengatik.

Atala honetan xedatzen den zerga-arloko arau-haustek 600 euroko zerga-zehapen finkoa jasoko du.

200. Artikulua. Partida positibo edo negatiboak zein zerga-kredituak bidegabe zehaztu edo egiaztatzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da norberaren edo gainontzekoen hurrengo aitortzenetako konpentsatu edo kendu beharreko partida positiboak edo negatiboak zein zerga-kredituak bidegabe zehaztea edo egiaztatzea.

Arau-hauste honen aurrean egongo gara, halaber, errenta garbia, jasanarazitako kuotak, ken daitezkeen zenbatekoak edo kuotak edo zergaldi bateko zerga- pizgarriak oker aitortzen direnean eta kudeaketa-prozeduretako batean edo ikuskapen-prozedura batean

konpentsatu, kendu edo aplikatu gabeko kopuruak konpentsatu eta ondorioz zerga-zorrik sartzen ez denean edo bidegabeko itzulketa lortzen denean.

2. Zehapenaren oinarria bidegabe zehaztu edo egiaztatutako zenbatekoa izango da. Aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritako kasuan, bidegabe zehaztu edo egiaztatutako zenbatekoa zergaldiko errenta garbiaren edo jasanarazitako zenbateko edo kuoten gehikuntza izango da, edo bestela kendu beharreko zenbateko edo kuoten edo zerga-pizgarrien gutxipena.
3. Zerga-oinarrian konpentsatu edo kendu beharreko partidak badira, zehapena %15eko diruzko isun proportzionala izango da; kuotan kendu beharreko partidak edo ustezko zerga-kredituak badira, zehapena %50eko diruzko isun proportzionala izango da.
4. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenak proportzionalki kendu ahal izango dira arau-hausle berak arestian aipatutako kontzeptuak konpentsatu edo kentzearen ondorioz geroago egiten dituen arau-hausteen zehapenetan. Nolanahi ere, kendu beharreko zenbatekoa ezin izango da arau-hauste horiei dagokien zehapena baino handiagoa izan.

200.bis. Artikulua. Elusioaren aurkako klausularekiko arau-haustea.

1. Tributu-arloko arau-haustetzat jotzen da foru arau honen 14. artikuluan xedatutakoa aplikatuz erregularizatu diren egintza eta negozioak direnean zerga-betebeharrek ez betetzea, baldin eta egoera hauetakoren bat dagoela egiaztatzen bada:
 - a) Zerga-zor osoa edo zati bat tributu bakoitzaren arautegian ezarritako epean sartu ez bada.
 - b) Tributu bakoitzaren arautegitik eratorritako itzulketa bidegabeki lortzen bada.
 - c) Zerga-itzulketa, -onura edo -pizgarririk bidegabeki eskatzen bada.
 - d) Etorkizuneko aitorpenetako — norberarenak zein hirugarrenenak — oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kentzeko partida positiboak edo negatiboak edo tributu-kredituak bidegabeki zehaztu edo egiaztatzen badira.
2. Aurreko atalean aipatutako ez betetzea zerga-arloko arau-haustea izango da soilik egiaztatzen bada bat datozela erregularizatu den kasua eta administrazioak irizpidea ezarrita duen kasua —edo kasuak—, beti ere irizpide hori aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko epea hasi aurretik guztiek ezagutzeko publiko egin bada.

Ondorio horietarako, bada, administrazioaren irizpidea izango da foru arau honen 163. artikuluko 3 eta 4 zenbakietan xedaturikoa aplikatzetik ezarritakoa. Zenbaki horietan xedatutakoaren arabera zergapekoaren jokabidean elusioa izan dela adierazten duten akordioetatik eratorritako administrazioaren irizpidearen publizitatea arau bidez ezarriko da.

3. Zehapenak honakoak izango dira:
 - a) 1.a) atalekoan, sartu ez den kopuruaren %100eko isun proportzionala.
 - b) 1.b) atalekoan, bidegabeki itzultako kopuruaren %100eko isun proportzionala.
 - c) 1.c) atalekoan, bidegabeki eskatutako kopuruaren %15eko isun proportzionala.
 - d) 1.d) atalekoan, zerga-oinarrian konpentsatu edo kentzeko partiden kasuan, bidegabeki zehaztutako edo egiaztatutako kopuruaren %15eko isun proportzionala; eta kuotan kentzeko partidak edo tributu-kreditu agerikoak badira, %50eko isun proportzionala.
4. Artikulu honetan araututako arau-haustea eta zehapenak bateraezinak izango dira foru arau honetako 196, 198, 199 eta 200. artikuluetan araututakoei dagozkienekin.

201. Artikulua. Errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek zerga-oinarriak, errentak edo emaitzak oker egozteagatiko edo ez egozteagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek euren bazkideei edo kideei zerga-oinarriak edo emaitzak oker egozte edo ez egozte. Ekintza edo omisio hori ez da arau-haustetzat hartuko foru arau honetako 196., 197. edo 198. artikuluetan aipatutako arau-hausteengatik errenten egozketaren erregimenari lotuta dagoen erakundeari zehapena ezartzea eragin duen oinarri edo emaitzen zatiari dagokienez.
2. Zehapenaren oinarria egotzi gabeko kopuruen zenbatekoa izango da. Oker egotzitako zenbatekoen kasuan, zehapenaren oinarria bazkide edo kide bakoitzari egotzi beharko litzaiokeenaren eta egotzi zitzaionaren arteko diferentzia positiboan batura izango da, diferentzia negatiboak konpentsatu gabe.
3. Zehapena %40ko diruzko isun proportzionala izango da.

202. Artikulua. Errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek kenkariak, hobariak eta konturako sarrerak oker egozteagatiko arau-haustea .

1. Zergen arloko arau-haustea da errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek euren bazkideei edo kideei kenkariak, hobariak eta konturako sarrerak oker egozte. Ekintza hori ez da arau-haustetzat hartuko foru arau honetako 196., 197. edo 198. artikuluetan aipatutako arau-hausteengatik errenten egozketaren erregimenari lotuta dagoen erakundeari zehapena ezartzea eragin duen zenbatekoen zatiari dagokienez. .
2. Zehapenaren oinarria honako hau izango da: bazkide edo kide bakoitzari egotzitako zenbatekoen eta bakoitzari egotzi beharrekoen arteko diferentzia positiboan batura, diferentzia negatiboekin konpentsatu gabe.
3. Zehapena %75eko diruzko isun proportzionala izango da.

203. artikulua. Autolikidazioak eta aitortpenak epean ez aurkezteagatiko edo zerga-egoitza ez adierazteagatiko arauhaustea.

1. Autolikidazioak eta aitortpenak epean ez aurkeztea zergen arloko arau-haustea da, baldin eta foru arau honetako 196-202 bitarteko artikuluen arabera arau-haustea ez bada. Halakoetan, honako zigor hau ezarriko da:
 - a) Oro har, 400 euroko isun finkoa.
 - b) Zentsu-aitortpenetan edo, arautegiak hala ezartzen duenean, pertsona zein erakundeen ordezkarien izendapenak jakinarazteko aitortpenetan, 800 euroko isun finkoa.
 - c) Foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako informazioa eman beharra betetzeko oro har eskatzen diren aitortpenetan 300 euroko isun finkoa jarriko da aitortpenean pertsona edo erakunde bati buruz eman beharreko datu edo datu-multzotako bakoitzeko. Isuna 800 eurokoa izango da gutxienez eta 40.000 eurokoa gehienez.
2. Hala ere, aurreko idatz-zatiko b) eta c) letren kasuan, aitortpenak epean kanpo aurkezten badira Zerga Administrazioak inolako errekerimendurik egin gabe, zehapena eta gutxieneko zein gehieneko mugak aurreikusitako erdia izango dira.

Kasu horretan, gainera, epe barruan aitortpen osatugabeak, zehaztasunik gabekoak edo datu faltasunak aurkezten badira eta, ondoren, epe kanpo (aurretiazko errekerimendurik gabe) aitortpen osagarria edo ordezkaria aurkezten bada, hori ez da hartuko foru arau honetako 204. artikuluan epe barruan aurkeztutako aitortpenen gainean aipatutako arau-haustetzat eta idatz-zati honetan epe kanpo aitortutakoari buruz ezarritako zehapena ezarriko da.

3. Zergen arloko arau-haustea da, halaber, autolikidazioak eta aitorpenak epez kanpo aurkeztea Zerga Administrazioaren aurretiazko inolako errekerimendurik gabe.

Zehapena, 400 euroko isun finkoa izango da.

4. Halaber, zergen arloko arau-haustea da jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoek egoitza fiskala zein den edo haren aldaketarik egon den jakinarazteko eginbeharra ez betetzea.

Zehapena, 200 euroko isun finkoa izango da.

5. Baldin eta errekerimendurik egin bada, artikulua honen 1. zenbakian aurreikusitako zehapena foru arau honen 209. artikuluan jasotzen denarekin bateragarri izango da (jarkitzea, oztopo egitea, aitzakiak jartzea edo Zerga Administrazioaren jarduerari uko egitea), eginiko errekerimenduei arretarik ez ematearren.

204. Artikulua. Autolikidazioak, aitorpenak edo informazioa emateko banako errekerimenduen erantzuna oker aurkezteagatiko arau-haustea.

Zergen arloko arau-haustea da autolikidazioak edo aitorpenak osatugabe, zehaztasunik gabe edo datu faltsuekin aurkeztea (jokabide horrek foru arau honetako 196-202 bitarteko artikuluetan ezartzen den arau-hausteren bat ez badakar) edo informazioa emateko banako errekerimenduen erantzunak oker ematea.

Hona hemen ezarriko den zehapena:

- a) Oro har, autolikidazio edo aitorpen osatugabeak, zehaztasunik gabekoak edo datu faltsuak dituztenak aurkezten badira, 300 euroko isun finkoa jarriko da.
- b) Zentsu-aitorpen osatugabeak, zehaztasunik gabekoak edo datu faltsuak dituztenak aurkezten badira, 500 euroko isun finkoa jarriko da.
- c) Foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan jasotzen den informazioa emateko betebeharra betetzeko banakako errekerimenduen edo oro har eskatzen diren aitorpenen kasuan, diru-kopuruei buruzko daturik ez dutenean edo osatugabe, zehaztugabe edo datu faltsuekin aurkeztu badira, 400 euroko isun finkoa jarriko da aipatu ez den, zuzen azaldu ez den edo faltsua den pertsona nahiz erakunderen bati buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko.

Diru-kopuruei buruzko datuak badira, berriz, isun hau jarriko da: aitortu gabe utzi diren edo behar bezala aitortu ez diren eragiketen zenbatekoaren %2, gehienez, eta, gutxienez, 1.000 euro.

Arauz ezarriko da, arestian azaldutako muga aintzat hartuta, kasu bakoitzean zer zehapen ezarri behar den, eta horretarako kontuan hartuko da aitortu gabe utzi diren edo behar bezala aitortu ez diren eragiketak zenbat diren, ehunekotan, aitortu beharreko eragiketen zenbateko osoarekiko.

205. Artikulua. Autolikidazioak edo aitorpenak horretarako onetsitako ereduan ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian edo telematikoki aurkezteko betebeharra ez betetzeagatiko arau-haustea, eta banakako errekerimenduei erantzuteko elektroniko, informatiko edo telematikoa ez den euskarri bat erabiltzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da autolikidazioak edo aitorpenak Zerga Administrazioak kasu bakoitzerako onetsi eta argitaratzen duen ereduan barik bete batean aurkeztea.

Zehapena, 500 euroko isun finkoa izango da.

2. Zergen arloko arau-haustea izango da, gainera, unean-unean indarrean dagoen arautegiaren arabera autolikidazioak edo aitorpenak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko

moduko euskarrian edo telematikoki aurkeztu behar dituzten pertsona fisikoek edo erakundeek betebeharrak ez betezea.

Arau-hauste hori 1.500 euroko isun finkoarekin zehatuko da.

3. Hala ere, foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako informazioa eman beharra betetzeko oro har eskatzen diren aitortzen kasuan, artikuluko horren arabera jartzen diren zehapenak %100ean gehituko dira.
4. Tributu-arloko arau-haustea izango da, orobat, elektronikoki, informatikoki edo telematikoki ez diren beste bitarteko batzuk erabiltzea informazioaren banakako errekerimenduei erantzuteko edo tributu-arloko beste dokumentu batzuk aurkezteko, baldin eta bitarteko horiek erabiltzeko betebeharrak badago edo Zerga Administrazioak hala eskatzen badu foru arau honetako 66. artikuluko 2. zenbakiko a) letran ezarritako betebeharrak sistema informatikoen bidez bete behar den kasuetan.

Monetatik adierazitako daturik ez duten banakako errekerimenduak edo beste agiri batzuk badira, zehapena 100 euro izango da elektronikoki, informatikoki edo telematikoki ez diren beste bitarteko batzuen bidez pertsona edo entitate bera dela-eta aitortutako datu edo datu-multzo bakoitzeko (250 euro gutxienez).

Monetatik adierazitako datuak dituzten banakako errekerimenduak edo beste agiri batzuk badira, zehapena elektronikoki, informatikoki edo telematikoki ez diren beste bitarteko batzuen bidez aitortutako eragiketen zenbatekoaren 100eko 1 izango da (250 euro gutxienez).

206. Artikulua. Kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzeagatik arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betezea.
2. Halakoetan, honako zigorrak hau ezarriko dira:
 - a) Oro har, 300 euroko isun finkoa.
 - b) Kontabilitatean edo zergen arloko arauak eskatutako liburu eta erregistroetan eragiketak zehaztasunik gabe aipatzen badira edo aipatu ere ez badira egiten, edo eragiketa horien izaerari dagokien kontuetan barik beste esanahi bat duten kontuetan jasotzen badira, eta, horren guztiaren ondorioz, zergadunaren egoera egiaztatzeko trabak jartzen badira, isuna jarriko da, aipatu ez diren, zehatz azaldu ez diren, faltsuak diren edo dagokien esanahia barik beste bat duten kontuetan jaso diren kargu, abonua edo idatz-oharren %1eko isun proportzionala, alegia. Isuna, gutxienez, 300 eurokoa izango da eta, gehienez, 12.000 eurokoa.
 - c) Kontabilitatea eta zergen arloko arauak ezarritako liburu eta erregistroak erabili edo zaindu beharra betetzen ez bada, isuna jarriko da, hain zuzen, arau-haustea gertatu den zergaldian arau-hausleak izan duen negozio kopuruaren %1eko isun proportzionala (1.200 euro gutxienez). Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio kopuruari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

Kontabilitatearen euskarri moduan erabiltzen diren programa eta artxibo informatikoak, aurreko paragrafoan adierazitako liburu eta erregistroak eta kodifikazio-sistemak zaintzeko betebeharrak betetzen ez bada, isuna jarriko da, hain zuzen, arau-haustea gertatu den zergaldian arau-hausleak izan duen negozio kopuruaren %20ko isun proportzionala (40.000 euro gutxienez). Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio kopuruari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

- d) Jarduera eta ekitaldi ekonomiko berarentzat kontabilitate desberdinak erabiltzen badira, eta horrek oztopatu egiten badu zergapekoaren benetako egoera zein den ezagutzea, 10.000 euroko isun finkoa jarriko da kontabilitatea hala egin den ekitaldi ekonomiko bakoitzeko.

- e) Kontabilitateak eta zergen arloko arauak zehaztutako liburuek eta erregistroek lau hilabete baino gehiagoko atzerapena badute, 600 euroko isun finkoa jarriko da.
- f) Administrazioak eginbidetu edo gaitu ez dituen liburuak eta erregistroak erabiltzen badira, edo liburu-erregistroak epe kanpo eginbidetu edo gaitu badira, 600 euroko isun finkoa jarriko da, zergen arloko arautegiak halako liburu-erregistroak erabiltzea ezartzen duenean.
- g) Erregistro-liburuei dagokienez, zehatu egingo da erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko betebeharrean atzerapena izatea —erregistroak erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan hornitzean—, eta zehapena isuna izango da, proportzionala eta erregistroaren xede den eragiketak justifikatzen dituen euskarri elektronikoan edo paperean emandako fakturaren edo beste dokumentu baten zenbatekoaren ehuneko 0,5ekoa, hiruhileko bakoitzeko gutxienekoa 600 euro izanik eta 12.000 euro gehienekoa.

207. Artikulua. Fakturazio edo dokumentazio betebeharrak ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Fakturazio betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea da.
2. Hona hemen ezarriko den zehapena:
 - a) Fakturatzeko betebeharra arautzen duen arautegiaren betekizunak betetzen ez badira (besteak beste, fakturak edo ordezkoko dokumentuak luzatu, igorri, zuzendu eta kontserbatzeari buruzkoak), arau-haustea eragin duten eragiketen zenbateko osoaren %1eko proportziozko isuna jarriko da. Hala ere, salbuespen izango da idatz-zati honetako hurrengo letran aipatzen dena.
 - b) Fakturak edo egiaztagiria egin edo kontserbatu ez badira, arau-haustea eragin duten eragiketen zenbateko osoaren 100eko 2ko isun proportzionala jarriko da. Ezin denean jakin zein den arau-hausteari dagozkion eragiketen zenbatekoa, zehapena 600 eurokoa izango da, faktura edo dokumentua egin edo kontserbatu ez den eragiketa bakoitzeko.

Zerga Administrazioak egiaztatzen badu faktura ez dela egin eta ez dela eman eta inguruabar hori egiaztapena egiten den unean amaitu barik dagoen zergaldian gertatu dela, isuna jarriko da, hain zuzen, 600 euroko isuna faktura egin eta eman ez den eragiketa bakoitzeko.

- c) Fakturak edo ordezkoko dokumentuak datu faltsuekin edo desitxuratuekin egin badira, arau-hauste horri arau-haustea eragin duten eragiketen zenbateko osoaren %100eko isun proportzionala jarriko zaio.

Ez-betetzeak fakturatzeko betebeharrean dauden eragiketen zenbatekoaren %20 baino gehiagori eragiten dionean (egiaztatu edo ikuskatu nahi den zerga edo zerga-betebeharrari zein epeari dagokienez), edo ez-betetze horren ondorioz Zerga Administrazioak ezin duenean jakin zein diren fakturatzeko betebeharrean dauden zenbatekoak, orduan, zehapenaren zenbatekoa %100 gehituko da.

3. Arau-haustea izango da, halaber, zerga berezien arautegiak zirkulazio-dokumentuak egoki eman eta erabiltzearen inguruan agintzen dituen betebeharrak ez betetzea.

Zehapena, 300 euroko isun finkoa izango da oker eman edo erabili den dokumentu bakoitzeko.

Ez-betetzeak egiaztatu edo ikertzen den epean emandako edo erabilitako zirkulazio-dokumentuen %20 baino gehiagori eragiten badio, zehapena %100 gehituko da.

Hala ere, betebeharrak ez betetzeak zerga horien arautegian tipifikatutako arau-haustea dakarrenean, arautegi horretan ezarritako zehapena aplikatuko da.

208. artikulua. Zergen arloko arau-haustea ez betetzeagatik identifikazio fiskaleko zenbakia, ondasun higiezinaren katastro-erreferentzia edo bestelako zenbaki edo kodeak eskatu eta erabiltzeko eginbeharrak.

1. Zergen arloko arau-haustea izango da zergen arautegiak identifikazio fiskaleko zenbakia, ondasun higiezinaren katastro-erreferentzia edo bestelako zenbaki edo kodeak erabiltzeko ezartzen dituen eginbeharrak ez betetzea.
2. Halakoetan, honako zigor hau ezarriko da:
 - a) Oro har, 300 euroko isun finkoa.
 - b) Kreditu-erakundeek kontu eta eragiketetan identifikazio fiskaleko zenbakia erabiltzea dela-eta erakundeoi bereziki dagozkien eginbeharrak ez-betetzeari dagokionez, oker abonatu edo kargatu diren zenbatekoen, eragiketaren zenbatekoaren edo kantzela beharreko gordailu edo eragiketaren %5eko isun proportzionala jarriko zaie erakundeoi. Gutxienez 2.000 euroko isuna jarriko da. Ez-betetzea eramailearentzako txeeen librantzaren edo abonuaaren ingurukoa bada, isuna efektuaren ageriko balioaren %5ekoa izango da. Gutxienez, 2.000 euroko isuna jarriko da.
3. Halaber, zergen arloko arau-haustea da behin-behineko zein behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakiaren eskaeretan datu faltsuak edo faltsutuak jakinaraztea.

Arau-hauste hori diru-kopuru finko batez ordainduko da: zigorra 60.000 euro dira.

209. artikulua. Zergen arloko arau-haustea Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzeagatik, haiek oztopatzeagatik, aitzakiak jartzeagatik edo haiek egiteari ezezkoa emateagatik.

1. Zergen arloko arau-haustea da Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, haiek oztopatzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkoa ematea.

Egoera hau gertatu dela ulertuko da, baldin eta arau-haustea, jarduketei buruzko jakinarazpena behar bezala jaso arren, Zerga Administrazioak bere betebeharrak betetzeko egiten dituen jarduketak denboran luzatu, eragotzi edo galarazten dituen.

Besteak beste, honako jokabide hauek dira Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, haiek oztopatzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkoa ematea:

- a) Ez erraztea dokumentuen, txostenen, aurrekarien, liburuen, erregistroen, fitxategien, fakturen eta egiaztagirien azterketa, ez eta kontabilitate nagusi zein osagarriko idazpenen, programa eta artxibo informatikoen, sistema eragile zein kontrolleko sistemen eta zergen esparruan garrantzizkoa den beste edozein daturena ere.
 - b) Behar bezala jakinarazitako errekerimenduren bati ez erantzutea.
 - c) Zehaztutako leku eta epean ez bertaratzea, bidezko arrazoiren bat frogatzen ez bada.
 - d) Zerga Administrazioako funtzionarioei ez uztea: finka edo lokaletan sartzen edo bertan egoten, ez eta zerga-betebeharrekin lotutako lokal, makina, instalazio eta ustategiak ikuskatzen ere.
 - e) Zerga Administrazioako funtzionarioak hertsatzea.
 - f) Zerga-bilketa organoek egindako enbargo-eginbideak ez betetzea edo oker betetzea.
2. Zehapena 300 euroko isun finkoa izango da, artikulua honetako hurrengo zenbakietan xedatzen dena aplikatu behar denean izan ezik

3. Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, haiek oztopatzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkoa ematea egin bada, hain zuzen ere, egindako errekerimenduei edo enbargo-eginbideei ez zaielako erantzutea horretarako emandako epean, orduan zenbateko finkoko isun bat jarriko da zehapen gisa, honela:
 - a) 300 euro, errekerimendua lehen aldiz bete ez denean.
 - b) 600 euro, errekerimendua bigarren aldiz bete ez denean.
 - c) 1.200 euro, errekerimendua hirugarren aldiz bete ez denean.
4. Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, haiek oztopatzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkoa ematea pertsona fisikoek edo erakundeek gauzatutako jarduera ekonomikoei dagokienean, zehapena jarraian zehazten denetako bat izango da:
 - a) 600 euroko isun finkoa, horretarako jakinarazitako lehenengo errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu administrazio-jarduketa errazten, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.
 - b) 3.000 euroko isun finkoa, horretarako jakinarazitako bigarren errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu administrazio-jarduketa errazten, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.
 - c) Arau-haustea gertatu den egunean aitorten-epea amaituta duen azken zergaldian arau-hausleari dagokion negozio kopuruaren %2a arteko isun proportzionala (gutxienez, 10.000 euro; gehienez, 400.000 euro), baldin eta horretarako jakinarazitako hirugarren errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu administrazio-jarduketa errazten, edo ez badu eskatutako informazioa ematen Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio kopuruari dagokion magnitudea urtekoratu egingo da.
5. Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, haiek oztopatzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkoa ematea gertatu bada ez direlako epearen barruan bete foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan jasotzen den informazioa emateko betebeharra betetzeko oro har eskatzen diren aitortenek jaso beharreko informazioari buruzko errekerimenduak, zehapen hau jarriko da:
 - a) 1.000 euro, errekerimendua lehen aldiz bete ez denean.
 - b) 5.000 euro, errekerimendua bigarren aldiz bete ez denean.

Arau-haustea gertatu den egunean aitorten-epea amaituta duen azken zergaldian arau-hausleari dagokion negozio kopuruaren %3a arteko isun proportzionala (gutxienez, 15.000 euro; gehienez, 600.000 euro), errekerimendua hirugarren aldiz bete ez denean. Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio kopuruari dagokion magnitudea urtekoratu egingo da.

6. Aurreko 4. eta 5. zenbakietako c) letretan arau hauek bete behar dira:
 - a) Eragiketen zenbatekoa ezagutzen ez denean edo errekerimendua ez denean diru-kopuruei buruzkoa, letra horietan zehaztutako gutxienerako isuna jarriko da.
 - b) Zehapen-prozedura amaitu aurretik erabat betetzen bada hirugarren errekerimendua, 12.000 euroko isuna jarriko da.
 - c) Arau bidez zehaztuko da, c) letra horietan ezarritako mugen barruan, zer zehapen aplikatuko den kasu bakoitzean, aitortu ez diren eragiketak aitortu behar izango zirenekin alderatuta (ehunekotan) zenbat diren kontuan hartuta zehapena.

7. Artikulu honetako 1. zenbakiko a), b), c) eta d) letretako arau-haustea egiten dituen zergapekoari egiaztatzeko eta ikertzeko prozedura bat, egiaztapen murriztuko prozedura bat, egiaztapen laburtuko prozedura bat edo egiaztapen mugatuko prozedura bat egiten ari bazaizkio, zehapen hauek jarriko zaizkio:
- a) Ez-betetzea jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsonak edo erakundeek egiten dutenean:
- 1.000 euroko isun finkoa, horretarako jakinarazitako lehenengo errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu administrazio-jarduketa errazten, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.
 - 5.000 euroko isun finkoa, horretarako jakinarazitako bigarren errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu administrazio-jarduketa errazten, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.
 - 10.000 euroko isun finkoa, horretarako jakinarazitako hirugarren errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu administrazio-jarduketa errazten, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.
- b) Ez-betetzea jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonak edo erakundeek egiten dutenean eta jarduera horiei lotutako informazioari badagokio, zehapen hauek jarriko dira:
- Arau-haustea hau bada: ez ematea kontabilitate-liburuak, erregistro fiskalak, fitxategiak, programak, sistema eragile zein kontroleko sistemak edo aurreko horien guztien azterketa ez erraztea, edo ez uztea finka edo lokaletan sartzen edo bertan egoten edo elementuak edo instalazioak ikuskatzen; orduan, arau-haustea gertatu den egunean aitortpen-epea amaituta duen azken zergaldian arau-hausleari dagokion negozio kopuruaren %2a arteko isun proportzionala jarriko da (gutxienez, 20.000 euro; gehienez, 600.000 euro).
 - Arau-haustea gertatu bada ez direlako eman datu, txosten, aurrekari, dokumentu edo faktura batzuk edo beste egiaztagiri zehatz batzuk:
 - 3.000 euroko isun finkoa, horretarako jakinarazitako lehenengo errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.
 - 15.000 euroko isun finkoa, horretarako jakinarazitako lehenengo errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez baldin bada bertaratzen, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.
 - Arau-haustea gertatu den egunean aitortpen-epea amaituta duen azken zergaldian arau-hausleari dagokion negozio kopuruaren %3 arteko isun proportzionala (gutxienez, 30.000 euro; gehienez, 600.000 euro), baldin eta horretarako jakinarazitako hirugarren errekerimenduan emandako epearen barruan zergapekoa ez bada bertaratzen, edo ez badu eskatutako informazioa ematen.

Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio kopuruari dagokion magnitudea urtekoratu egingo da.

Zehapen-prozedura amaitu aurretik erabat betetzen badira zenbaki honetan aipatutako administrazio-errekerimenduak, isuna txikitu egingo da eta aurreko erregelen arabera jarri beharreko isunaren erdia jarriko da.

8. Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, haiek oztopatzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkua ematea gertatu bada urratu egin direlako bete foru arau honetako 81., 142., 166. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera ezarritako kautela- neurriak,

orduan, arau-haustea gertatu den egunean aitorpenepa amaituta duen azken zergaldian arau-hausleari dagokion negozio kopuruaren %2a arteko isun proportzionala jarriko da. Isuna gutxienez 6.000 eurokoa izango da.

Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumenari dagokion magnitudea urtekoratu egingo da.

9. Baldin eta, foru arau honen 92.1.c) artikuluan ezarritakoari dagokionez, Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, haiek oztopatzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkoa ematea gertatu bada Zerga Administrazioaren zordun direnen funtsak, baloreak edo bestelako ondasunak gordailatzen dituzten pertsonak eta erakundeek ez dituztelako bete edo ez dituztelako osorik bete zerga-bilketa organoek egindako enbargo-eginbideak, benetan enbargatu behar ziren funts, balore edo ondasunen balioaren %25eko isun proportzionala jarriko da. Isun hori, gutxienez, 2.000 eurokoa izango da.

Zehapen hori hala aplikatuko da; nolanahi ere, foru arau honetako 41.5.b) artikuluan ezarritakoarekin bat, enbargo-aginduak erruz edo arduragabekeriaz betetzen ez dituztenek erantzukizun solidarioa izango dute..

10. Aurreko zenbakietan ezarritakoa berdin-berdin aplikatuko da jarkitzea, oztopatzea, aitzakiak jartzea edo ezezkoa ematea atzerriko funtzionarioek elkarren laguntzaren esparruan egiten dituzten jarduketak direla-eta egiten badira.

210. Artikulua. Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egitera behartuta daudenek isilpekotasuna ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da, foru arau honetako 94. artikuluan atxikitzaileei eta konturako sarrerak egin behar dituztenei eskatzen zaien isilpekotasuna ez betetzea.
2. Zehapena 600 euroko isun finkoa izango da, pertsona edo erakunderen bati buruz bidegabe jakinarazi den datu nahiz datumultzo bakoitzeko.

211. Artikulua. Atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak dituen ordaintzaileari datu zehatzak ez jakinarazteagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea izango da, atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak dituen ordaintzaileari datuak ez jakinaraztea edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak jakinaraztea, horietatik jatorrizkoak baino atxikipen edota konturako sarrera txikiagoak eratortzen direnean.
2. Hona hemen ezarriko den zehapena:
 - a) Zergapekoak, atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak dituen autolikidazioa aurkeztu behar duenean, %35eko proportziosko isuna jarriko da.
 - b) Zergapekoak ez duenean atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak jasotzen dituen autolikidaziorik aurkeztu behar, %150eko isun proportzionala jarriko da.

Kasu bietan, zehapenaren oinarria, bidezko atxikipen edo konturako sarreraren eta datu faltsu, osagabe eta zehaztugabeak ezarri zireneko epean egindakoen arteko diferentzia izango da.

212. Artikulua. Atxikipenen edo konturako sarreren ziurtagiria eman beharra ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea izango da atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu beharreko errentak jasotzen dituen zergapekoei egindako atxikipenen eta konturako sarreren ziurtagiriak ez aurkeztea.
2. Zehapena 300 euroko isun finkoa izango da.

213. Artikulua. Zerga-arauegia ezartzen diren betebeharrak ez bete-tzeagatiko arau-haustea .

1. Zergen arloko arau-haustea izango da zerga-arauegia zergapekoari eskatzen zaizkion zerga-betebehar edo zerga-eginbeharrak ez betetzea; betiere, kapitulu honetako aurreko artikuluetako edo beste foru arauren batean tipifikatutako arau-haustek ez direnean, eta zergen arloko beste arau-hauste bat dela-eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa jokatzeko ez dutenean.
2. Zehapena 300 euroko isun finkoa izango da.

**IV. KAPITULUA
ZERGEN ARLOKO ZEHAPEN-PROZEDURA**

214. Artikulua. Zergen arloko zehapen-prozeduraren araupeketak.

Zergen arloko zehapen-prozedura arautuko da:

- a) Titulu honetan ezarritako arau berezien bidez eta berauek gara-tzeko emandako arautegiaren bitartez.
- b) Horrelakorik ezean, administrazio-arloko zehapen-prozedurari buruzko arauen bidez.

215. Artikulua. Zergen arloko zehapenak ezartzeko prozedura.

1. Zergen arloko zehapen-prozedura gainontzeko zergekin bereizita izapidetuko da, araubidez ezartzen diren baldintzen arabera.
2. Ordaintzeko konpromisodun adostasun-akten kasuan, foru arau honetako 196tik 202ra arteko artikuluek arautzen dituzten arau-hausteei buruzko arazoak dagokion egiaztapeneko eta ikerketako prozeduraren bidez aztertuko dira, hura araupetzen duen arautegiarekin bat etorritik.

Egiaztapen laburtuaren prozeduretan, zergapekoak aukeratu dezake ordainketa-konpromiso bat formalizatzea foru arau honetako 158 quinquies artikuluko 4. zenbakian ezarritako moduan. Hala egiten badu, foru arau honetako 196tik 202ra arteko artikuluek arautzen dituzten arau-hausteei buruzko arazoak konpromisoa formalizatzen denetik aurrera izapidetuko dira, tributu-egoeraren erregularizazioari buruzko arazoekin batera, eta likidaziorako eta zehapenak ezartzeko baterako administrazio-egintza bat emango da, zehapen-prozedura amaituko duena.

3. Zergen arloko zehapen-prozedurako jakinarazpenak, foru arau honetako III. tituluko II. kapituluko 3. atalean aurreikusten denaren arabera gauzatuko dira.

216. Artikulua. Zergen arloko zehapen-prozeduraren hasiera.

1. Zergen arloko zehapen-prozedura ofizioz hasiko da beti, organo eskudunaren erabakia jakinaraziz.
2. Kudeaketa edo ikuskapen prozeduren ondorioz hasitako zehapen-prozedurak ezin izango dira hasi prozedura horien objektu izan diren pertsona edo erakundeen aurka, behin jakinarazpena egin denetik sei hilabeteko epea igaro edo dagokion likidazio zein ebazpena jakinarazitzat ematen bada.

Foru arau honen 190. artikuluan jasotzen diren zehapenak jartzeko irekitzen diren zehapen-prozedurak manu horretan aipatzen den diru-zehapena jakinarazi denetik edo jakinarazitzat jotzen denetik aurrerako sei hilabeteko epearen barruan hasi behar dira.

217. Artikulua. Zergen arloko zehapen-prozeduraren instrukzioa.

1. Zehapen-prozeduraren instrukzioan foru arau honetako 97. artikuluan aipatzen diren jarduketak garapena eta zerga-prozeduren arau bereziak aplikatuko dira.
2. Foru arau honetako III. tituluan arautzen diren zergak aplikatzeko prozeduretariko baten bidez lortu diren datu, froga edo inguruabarrak zehapen-prozeduran kontuan hartuko baldin badira, bertara gehitu beharko dira, formalki, ebazpenaren proposamena baino lehen.
3. Zehapen-prozedurak dirauen artean kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, foru arau honetako 81. eta 142. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorritik.
4. Behin jarduketak bukatu eta gero, ebazpen proposamena egingo da; bertan, bidezko arrazoiak emanez jasoko dira: egitateak, hauen kalifikazio juridikoa, hautsi dezaketan arauak edo, hala badagokio, arau-hausterik edo erantzukizunik ez egotearen gaineko adierazpena.

Ebazpenaren proposamenean zehaztuko da, era berean, proposatutako zehapena; betiere, aplikatu beharreko mailakatze irizpideak emanez eta horien jatorria behar den moduan arrazoituz.

Ebazpenaren proposamena interesdunari jakinaraziko zaio, espedientearen adierazpenen azalpenekin batera. Interesdunak, 15 eguneko epea izango du bere ustez komenigarriak zaizkion alegazioak eta bidezkoak diren dokumentu, egiaztagiri eta frogak aurkezteko.

5. Zehapen-espedientea hastearekin batera zehapena ezartzeko proposamenean beharrezkoak diren osagai guztiak organo eskudunak baditu, proposamen hori prozedura hasteko erabakiari gehituko zaizkio. Erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, espedientearen berri emanez eta 15 eguneko epea eskainiz bere ustez komenigarria den guztia alegatzeko eta bidezkotzat jotzen dituen dokumentu, egiaztagiri eta frogak aurkezteko.

218. Artikulua. Zergen arloko zehapen-prozeduraren amaiera.

1. Zergen arloko zehapen-prozedura ebazpen bidez edo iraungitzearen ondorioz amaituko da.
2. Zergen arloko zehapen-prozedura sei hilabeteko gehieneko epean amaitu behar da, prozeduraren hasierari buruzko komunikazioa jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

Jakinarazpena egiten den egunean edo ebazpena ematen duen administrazio-egintza jakinarazitzat jotzen denean amaituko da prozedura. Jakinarazi beharra bete den ala ez zehazteko eta ebazpen-epearen zenbaketari dagokionez foru arau honetako 102. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

3. Zergen arloko zehapen-prozeduraren berariazko ebazpenak honako hauek edukiko ditu: egitateen finkatzea, egindako frogen gaineko balioespena, gauzatutako arau-haustearen zehaztapena, pertsona edo erakunde arau-haustearen identifikazioa eta ezarritako zehapenaren zenbatekoaren zehaztapena, dagozkion mailakatze irizpideak eta, foru arau honetako 192. eta 193. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, egin beharreko txikipena ere ezarritik. Hala dagokionean, arau-hausterik ez dela egin edo erantzukizunik ez dela sortu adieraziko da ebazpenean.
4. Artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritako epemuga heldu bada, eta oraindik jakinarazpena egin ez bada edo egintzat ematen ez bada, berariazko ebazpen bidez prozedura iraungi egingo da.

Prozedura iraungi dela adierazteko adierazpena ofizioz edo interesdunak eskatuta eman ahal izango da eta jarduketak artxibatzeko aginduko da. Iraungipen horrek beste zehapen-prozedura bat hastea eragotziko du.

5. Zehapena ezartzeko organo eskudunak dira:

- a) Bizkaiko Foru Aldundia, lanbide ofizial, enplegu edo kargu publikoetan aritzea eteten denean.
- b) Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua, toki-entitateetako organo eskuduna edo horiek eskuordesten duten organoa, zerga-onura zein zerga-pizgarriak aplikatzeko eskubidea galtzen denean horiek emateko eskumena izanik, eta diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera ematen denean edo dagokion Herri Administrazioarekin kontratuak sinatzeko debekua ezartzen denean.
- c) Zerga-onura edo zerga-pizgarria onartzeko eskumena duen organoa, horiek aplikatzeko eskubidea kentzen denean, goiko b) letran xedatutakoa salbu.
- d) Likidazioa egiteko eskumena duen organoa, edo zehapen-prozedura hastea proposatu duen administrazio-unitatearen gainetik hurrengo dagoen organoa, gainerako kasuetan.

219. Artikulua. Zehapenen aurkako errekurtsioak.

1. Zehapen-prozedura ebazteko egintzaren aurka errekurtsioa edo erreklamazioa jarri ahal izango da.

Zergadunak zerga-zorra ere inpugnatzen duenean, errekurtsio edo erreklamazio biak pilatuko dira, eta zorraren aurkako inpugnazioa ezagutzen duena izango da eskuduna.

2. Ordaintzeko konpromisodun adostasun-aktetatik eratorritako zehapenak administrazio-bidean bakarrik inpugnatu edo berrikusi ahal izango dira, foru arau honetako 225. artikuluan aurreikusten den erabateko deuseztasuna adierazteko prozeduraren bidez.
3. Zehapen baten aurka administrazio-errekurtsio edo –erreklamazio bat denbora eta modu egokian jartzeak honako ondorio hauek ekarriko ditu:
- a) Zehapenen betearazpena automatikoki etengo da, eta ez da zertan bermerik eman behar izango administrazio-bidean irmoak izan arte.
 - b) Ez da berandutze-interesik eskatuko administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren jakinarazpenak ordainketa borondatezko aldian egiteko emandako epea amaitu arte igarotzen den denboragatik.
 - c) Zergapekoaren adostasunaren ondorioz aplikatu beharreko murrizketa galdu egingo da, foru arau honetako 192. eta 193. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Zenbaki honetako a) eta b) letretan ezartzen dena erantzukizuna deribatzeke erabakiaren xede diren zerga-zehapenak eteteko aplikatuko da, bai subjektu arau-hausleak zehapena errekurritzen duenean, bai eta foru arau honen 179.5 artikuluan ezarritakoa betez zehapen hori arduradunak berak zehapena errekurritzen duenean ere. Deribatzen den zerga-zorra ez da inoiz automatikoki etengo manu hau dela eta. Halaber, ez dira etengo manu hau dela-eta 41.5 artikulua eta 42.1.d) artikulua aurrez ikusitako zorren ordainketaren ondoriozko erantzukizunak.

V. TITULUA

ADMINISTRAZIO-BIDEAN EGINDAKO BERRIKUSPENA

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

220. Artikulua. Berrikuspenerako baliabideak.

1. Zergak aplikatzeko egintza eta jarduketak eta zerga-zehapenak ezartzeko egintzak berrikusi ahal izango dira, hurrengo kapituluetan ezarritakoaren arabera eta honakoen bidez:
 - a) Berrikuspenerako prozedura bereziak.
 - b) Berraztertze errekurtsoa.
 - c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioak.
2. Organo ekonomiko-administratiboaren ebazpen irmoak eta ebazpen ekonomiko-administratiboa izan duten zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak ezin izango dira administrazio-bidean berrikusi, alegatutako arrazoia edozein delarik ere. Salbuespen izango dira, dena den, foru arau honetako 225. artikuluan aurreikusitako erabateko deuseztasun kasuak, 228. artikuluko okerren zuzenketa eta 246. artikuluan araututako berrikuspenerako aparteko errekurtsoak.

Organo ekonomiko-administratiboaren ebazpenak kaltegarritzat jo daitezke, foru arau honetako 226. artikulua aurreikusten duenaren arabera.

3. Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak epai irmo bidez berretsi direnean ezin izango dira inola ere berrikusi, ezta administrazioarekiko diru-erreklamazioen ebazpenak ere.
4. Elkarren laguntza eskatzen duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak berrikusiko du foru arau honen 171. artikuluan aipatzen den betearazpen-tresna, salbu eta elkarren laguntzari buruzko araudiak besterik zehazten duenean.

Zerga Administrazioak jasotako kobru-eskaera baten ondorioz administrazio horrek egiten dituen enbargo-eginbideen eta gainerako jarduketan berrikusketa, berriz, foru arau honetan eta hura garatzeko araudian ezartzen diren berrikusketa-organoek egingo dute.

221. Artikulua. Gaitasuna eta ordezkaritza, probaldia, jakinarazpenak eta ebazteko epeak.

1. Titulu honetan aurreikusitako berrikuspenerako prozedura berezietan, errekurtsoetan eta erreklamazioetan, foru-arau honetako II. tituluko II. kapituluko 4. atalean gaitasunari eta ordezkartzari buruz ezarritako arauak, 97.10 artikuluan prozedurak sistema digitalen bidez egiteko ezarritako arauak eta III. tituluko II. kapituluko 2. eta 3. ataletan ezarritako frogari eta jakinarazpenei buruzko arauak aplikatuko dira.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatua ahal izateko, kontuan hartuko dira titulu honetako IV. kapituluan araupetzen diren berezitasunak.
3. Titulu honetan aurreikusten diren ebazteko epeak zenbatzeko, foru arau honetako 102. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa hartuko da kontuan.

222. Artikulua. Ebazpenen arrazoitzea.

1. Titulu honetan aurreikusitako berrikuspenerako, errekurtsoen eta erreklamazioen prozedura bereziak arrazoituak izan beharko dira, eta zuzenbideko egitate eta oinarriei aipamen labur bat egin beharko die.

2. Prozedura horietan honako egintza hauek ere arrazoitu egin beharko dira:
 - a) Interesdunek aurkeztutako edozein motatako idazkiak ez onartzea.
 - b) Inpugnatutako egintzen betearazpena etetea, eteteko eskaerari ezetza ematea, eta eteteko eskaera izapidetzeko ez onartzea.
 - c) Ofizioz abstenitzea, arazoa ezagutzeari edo ezagutzen jarraitzeari uko eginez, gaia dela-eta.
 - d) Errefusatzeko bidezkoa dela edo ez dela adieraztea, frogaren bat ez onartzea edo gainontzeko beste froga-eginbideren bat ez onartzea, eta auzialdia iraungitzat jotzea.
 - e) Prozeduran zehar interesdunen eskubide subjektiboak mugatzen dituztenak.
 - f) Prozedura bera etetea edo berori burutzea galarazten duten arrazoiak.

223. Artikulua. Errekurritu den egintzaren betearazpenaren etendura.

1. Berraztertzean edo bide ekonomiko-administratiboan inpugnatu den egintzaren betearazpena automatikoki etengo da interesdunak hala eskatzen duenean, baldin eta egintza horren zenbatekoa, etendurak sorrarazten dituen berandutza-interesak eta etenaldia eskatzeko unean egon litezkeen errekareruak bermatzen badira, araubidez ezarritako baldintzetan.

Hala ere, berraztertzearen errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa garaiz eta behar den eran jartzeak inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura ekarriko du, inolako bermerik jarri beharrik gabe, baldin eta zerga-zorra borondatez ordaintzeko aldiaren badago edo premiamendu-probidentziaren aurkako errekurtso bat aurkeztu bada. Bi kasuetan, betiere, errekurtsoa edo erreklamazioa jarri den egunean zorraren zenbatekoa arau bidez zehaztutako zenbatekoaren parekoa edo txikiagoa izan beharko da.

Inpugnazioak zerga-zehapenen batean eragina badu, beraren betearazpena automatikoki etenda geratuko da, eta foru arau honetako 219. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, ez da zertan bermerik jarri behar izango.

Kudeaketa partekatua duen zerga bati buruzko zentsu-egintza inpugnatzen denean, ez da likidazioa kobratzeko prozeduran inolako etenik gertatuko. Horrek ez du galaraziko sartutako kopuruak itzultzea, bidezkoa denean, zentsu arloan ematen den ebazpenak ordaindutako likidazioaren emaitzan eragina badu.

Foru arau honetako 69. artikuluko 11. zenbakian adierazitako kasuetan, errekurtsoa edo erreklamazioa tributu-zor batekin lotuta badago eta zor horren ondorioz zergapekoaren aldeko itzulketa bat aitortu bada, etendura lortzeko jarritako bermeek erreklamazioa osorik edo partez baiestearen ondorioz itzuli behar diren zenbatekoak ere bermatuko dituzte.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den etendura automatikoa lortzeko beharrezko berme bakarrak hauek izango dira:
 - a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.
 - b) Kreditu-erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abala nahiz fidantza solidarioa edo kausio-aseguruaren ziurtagiria.
 - c) Administrazio publikoekiko aintzatetsitako kredituak.
3. Interesdunak ezin duenean bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutako egintzaren etendura lortzeko beharrezkoa den besteko bermerik eman, etendura erabaki ahal izango da, organo eskudunak nahikotzat jotzen dituen beste berme batzuk ematen badira aldezturik. Organo horrek, bestalde, etenduraren inguruko ebazpena aldatu ahal izango du,

hura arrazoitu zuten baldintzak mantentzen ez direla uste duenean, emandako bermeek balioa edo eraginkortasuna galtzen dutenean, edo etenaldia ebazteko unean ezezagunak ziren eta berme moduan eman daitezkeen beste ondasun eta eskubide batzuk badaudela dakienean.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa kontuan hartuta, inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura erabaki ahal izango da:
 - a) Bermeen erabateko edo zatikako dispentsaren bidez, betearazpen horrek konpontzeko zailak edo ezinezkoak diren kalteak ekarri ditzakeenean araubidez zehaztutako baldintzetan; hala ere, organo eskudunak aurreko idatz-zatietan aurreikusitako etendurari buruzko ebazpenak aldatu ahal izango ditu.
 - b) Bermerik eman behar izan gabe, inpugnatutako egintzan oker aritmetiko, material edo egitatezkoren bat egon daitekeela ikusten denean.
 - c) Zerga-zorrik edo zenbateko likidorik xedetzat ez duen egintza izan eta interesdunak haren etendura eskatzen duenean, betearazpenak kalte larriak edo konponezinak ekar ditzakeela frogatuz gero.
5. Errekurtsoak zerga-zor osoari eragiten ez badio, errekurritu den zatiaren betearazpena bakarrik etengo da; kasu horretan, zergadunak gainerako zenbatekoa ordaindu behar izango du.
6. Berraztertze errekurtsoan gertatzen bada etendura, bide ekonomiko-administratiboan mantendu ahal izango da, arau bidez zehaztutako baldintzak betez.
7. Administrazio-bidean emandako etenaldia mantenduko da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epearen barruan zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazten dionean errekurtso hori sustatu eta etetea eskatu duela. Etendura horrek jarraitu egingo du, administrazio-bidean ezarri den bermeak indarrean jarraitzen badu eta bere eraginkortasuna mantentzen badu, harik eta organo judizialak eskatutako etenduraren gainean dagokion erabakia hartu arte.

Zehapenen kasuan, etendura aurreko paragrafoan adierazitako moduan mantenduko da inolako bermerik jarri behar izan gabe, harik eta erabaki judiziala hartu arte.
8. Berrikuspenerako aparteko errekurtsoaren bidez inpugnatutako egintzaren edo ebazpenaren betearazpena ezin izango da inola ere eten.
9. Errekurtsoaren edo erreklamazioaren gainean emandako ebazpenaren ondorioz inpugnatu den egintzaren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, berandutza-interesak 26. artikuluan ezarritakoaren arabera likidatuko dira, foru arau honetako 219. artikuluko 3. idaz-zatian aurreikusten dena kontuan hartuta.

II. KAPITULUA

BERRIKUSPENERAKO PROZEDURA BEREZIAK

224. Artikulua. Berrikuspenerako prozedura berezi motak.

Berrikuspenerako prozedura bereziak honakoak dira:

- a) Erabat deusezak diren egintzen berrikuspena.
- b) Egintza deuseztagarrien kaltegarritasunezko deklarazioa.
- c) Errebokazioa.
- d) Okerren zuzenketa.

- e) Bidegabeko sarreren itzulketa.

LEHENENGO ATALA

ERABAT DEUSEZAK DIREN EGINTZEN BERRIKUSPENERAKO PROZEDURA

225. Artikulua. Erabateko deuseztasunaren deklarazioa.

1. Zergen arloan emandako egintzen eta organo ekonomiko-administratiboen ebazpenen gaineko erabateko deuseztasuna deklaratu ahal izango da, administrazio-bidea agortu edo epe barruan errekurritu ez direnean, honako kasuetan:
 - a) Konstituzioaren babesa duten eskubide eta askatasunak urratzen dituztenean.
 - b) Gaiari eta lurraldeari dagokionez argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek emandakoak direnean.
 - c) Ezinezko edukia dutenean.
 - d) Zigor Zuzenbideko arau-hauste direnean, edo halako arau-hauste baten ondorioz ematen direnean.
 - e) Legezko prozedura erabat bazterturik edo kide anitzeko organoetan borondatea eratzeko funtsezko erregelak barnean dituzten arauak erabat bazterturik emandakoak direnean.
 - f) Antolamendu juridikoaren kontra doazen berariazko nahiz ustezko egintzak direnean, ahalmen edo eskubideak eskuratzeko badira, horiek eskuratzeko oinarritzko betekizunak izan ez arren.
 - g) Lege izaerako edozein xedapenetan berariaz ezartzen den beste edozein.
2. Artikulu honek aipatzen duen deuseztasuna deklaratzeko prozedura hasi ahal izango da:
 - a) Egintza eman zuen organoaren edo goragoko baten erabakiaren bidez.
 - b) Interesdunak hala eskatu duelako.
3. Interesdunek egindako eskabideak ez izapidetzea erabaki ahal izango da (horretarako bidezko arrazoiak emanez) egintza ez denean irmoa administrazio-bidean edo eskabidea ez denean artikulu honetako i. idatz-zatian zehaztutako deuseztasunerako arrazoietan oinarritzen edo modu nabarian oinarririk ez duenean, baita edukiari dagokionez antzeko eskabideak aurretiaz ukatu direnean ere.
4. Prozeduran, interesdunari entzunaldia eman eta egintzaren bidez eskubideak aintzatetsi zaizkienei entzungo zaie, baita azken horren bidez beraien interesetan kalteak jasan dituztenei ere.

Deuseztasunaren gaineko deklarazioak, aurretiaz, aholkularitza juridikoaz arduratu den organoaren aldeko txostena beharko du.
5. Foru Aldundiari dagokio prozedura honen ebazpena ematea, baldin eta egintzaren xedea bere eskumenen barruan sartzen bada.
6. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizioz hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, honako ondoreak sortuko dira:

- a) Ofizioz hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera.
 - b) Administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da, prozedura interesdunaren eskariz hasi bada.
7. Berariazko zein ustezko ebazpenak edo interesdunen eskabideak ez izapidetzeko erabakiak agortuko du administrazio-bidea.

BIGARREN ATALA

EGINTZA DEUSEZTAGARRIEN KALTEGARRITASUNEZKO DEKLARAZIOA

226. Artikulua. Kaltegarritasunezko deklarazioa.

1. Foru arau honetako 225. eta 228. artikuluek aurreikusten duten kasuetan ez bada, Zerga Administrazioak ezin izango ditu deuseztatu berak emandako egintzak eta ebazpenak interesdunen kaltetan.

Zerga Administrazioak bere egintza eta ebazpenak interes publikoarentzat kaltegarriak direla adierazi ahal izango du, nahiz eta interesdunentzat onuragarriak izan, baldin eta antolamendu juridikoaren edozein motatako arau-haustea badakarte. Horrela, gero administrazioarekiko auzien bidean inpugnatzeko aukera izango du.

2. Kaltegarritasunezko deklarazioa ezin izango da egin administrazio-egintza jakinarazi zenetik lau urte igaro badira, eta gainera, prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei aurretiaz entzutea eskatuko du.
3. Prozedura hasi zenetik sei hilabeteko epea igaro bada eta oraindik ez bada kaltegarritasunaren deklarazioa eman, berau iraungi egingo da.
4. Foru Aldundiari dagokio prozedura honen ebazpena ematea, baldin eta egintzaren xedea bere eskumenen barruan sartzen bada.

HIRUGARREN ATALA

ERREBOKAZIOA

227. Artikulua. Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak errebokatzea.

1. Zerga Administrazioak bere egintzak errebokatu ahal izango ditu, interesdunen mesedetan, ordenamendu juridikoa modu nabarian hausten dutela uste duenean, norbanakoaren egoera juridikoari eragiten dioten eratorritako inguruabarrek agerian uzten dutenean emandako egintzaren desegokitasuna, edo prozeduraren izapidean interesdunenen babesik eza gertatu denean.

Errebokazioak ezin izango du, inola ere, zergen arloko arauak onartzen ez duten dispensa edo salbuespenik sorrarazi; ezta berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren aurka joan ere.

2. Errebokazioa soilik gauzatu ahal izango da bidezkoak diren ahalak eta eskubideak erabiltzeko preskripzio-epea edo, kasuaren arabera, iraungipen-epea amaitzen ez den bitartean.
3. Errebokaziorako prozedura ofizioz hasiko da beti, eta araubidez zehaztutako organoak izango du hori emateko eskumena. Organo hau, egintza eman zuen berbera izan ahal izango da.

Espedientean interesdunei entzunaldia egingo zaie eta, organo eskudunak hala uste izanez gero, aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoaren egintza errebokatzeko arrazoiari buruzko txostena gehitu behar izango da.

4. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia jakinarazten denetik hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igaro ondoren ez baldin bada berariazko ebazpenik eman, prozedura iraungi egingo da.

5. Prozedura honen bidez ematen diren ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute.

LAUGARREN ATALA OKERREN ZUZENKETA

228. Artikulua. Okerren zuzenketa.

1. Egintza edo erreklamazioaren ebazpena eman duen organoak edozein momentutan zuzenduko ditu, bai ofizioz bai interesdunak hala eskatu duelako, oker material, aritmetiko zein egitatezkoak; baldin eta dagozkion ahalen preskripzio-epea edo iraungipen-epea igaro ez bada.

Zehazki, prozedura honen bidez zuzenduko dira administrazioarekiko diru-erreklamazioetako egintzak eta ebazpenak, espedienteko agirietan okerrean bat azaltzen denean.

Ebazpenaren bidez, zenbatekoan edo egintza nahiz ebazpenaren beste edozein elementutan dagoen okerra zuzenduko da.

2. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkeztzen duenetik edo prozedura ofizioz hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, honako ondoreak sortuko dira:

- a) Ofizioz hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera.
- b) Administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da, prozedura interesdunaren eskariz hasi bada.
3. Prozedura honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertze errekurtsua eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango dira.

BOSGARREN ATALA BIDEGABEKO SARREREN ITZULKETA

229. Artikulua. Bidegabeko sarrerak itzultzeko prozedura.

1. Bidegabeko sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesten duen prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako kasuetan:

- a) Zerga-zorren edo zehapenen ordainketa birritan egiten denean.
- b) Ordaindutako zenbatekoa administrazio-egintzatik edo autolikidaziotik sortutakoa baino handiagoa denean.
- c) Administrazioaren ahalak erabiltzeko preskripzio-epea edo iraungipen-epea igaro ostean zerga-zorren eta zehapenen zenbatekoak ordaindu direnean. Ez dira inoiz itzuliko ordaindutako zenbatekoak, baldin eta zenbateko horiek erantzukizunetik salbuesteko erabili badira, foru arau honetako 250. artikuluan zehaztutako kasuetan.
- d) Zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean.

Idatz-zati honetan ezarritako prozedura araubidez garatuko da, eta foru arau honetako 228. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa ezarriko da.

2. Itzultzeko eskubidea artikuluko honetan araututako prozeduraren bidez, administrazio-egintza baten bidez edo ebazpen ekonomiko-administratibo zein judizial baten bidez aintzatetsi bada, itzulketa, araubidez zehaztutakoaren arabera betearaziko da.
3. Bidegabeko sarrera gauzatzea eragin zuen zergak aplikatzeko edo zehapenak ezartzeko egintza irmo bihurtzen bada, foru arau honetako 224. artikuluko a), b) eta d) paragrafoetan ezartzen diren berrikuspenerako prozedura bereziren baten bidez edo 246. artikuluan ezartzen diren berrikuspenerako aparteko errekurtsoren bidez bakarrik eskatu edo sustatu ahal izango da itzulketa.
4. Zergapekoak uste duenean autolikidazioaren baten aurkezpenak bidegabeko ordainketaren bat eragin duela, autolikidazio hori zuzentzeko eskatu ahal izango du, foru arau honetako 118. artikuluko 2. idatz-zatian xedatzen denarekin bat etorritik.
5. Bidegabeko sarrerak itzultzean berandutza-interesak ere likidatuko dira, foru arau honetako 31. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorritik.
6. Prozedura honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertzeko errekurtsua eta administrazioarekiko diru-errekamazioa jarri ahal izango dira.

III. KAPITULUA BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

230. Artikulua. Berraztertzeke errekurtsoren xedea eta izaera.

1. Administrazioarekiko diru-errekamazioak eragin ditzaketen Zerga Administrazioaren egintzei berraztertzeke errekurtsua ezarri ahal izango zaie, kapitulu honetan xedatzen denaren arabera.
2. Berraztertzeke errekurtsua jartzekotan, administrazioarekiko diru-errekamazioa baino lehen jarri beharko da.

Interesdunak berraztertzeke errekurtsua jartzen badu, ezin izango du administrazioarekiko diru-errekamaziorik sustatu errekurtsua berariaz ebazten den arte edo administrazioaren isiltasunez ezetsitzat jo ahal den arte.

Errekurtsua aurkezteko ezarritako epean, berraztertzeke errekurtsua eta administrazioarekiko diru-errekamazioa jartzen badira (biak ere egintza berberaren aurka), lehenengo aurkeztu dena izapidetu egingo da eta bigarrena onartezintzat joko da. Biak aldi berean jartzen badira, berraztertzeke errekurtsuak izango du lehentasuna.

231. Artikulua. Berraztertzeke errekurtsoren hasiera eta izapidetzea.

1. Hilabeteko epea egongo da errekurtsu hau jartzeko, errekurritu daitekeen egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita. Administrazioaren isiltasunaren ondoreak gertatzen diren unetik aurrera ere jarri ahal izango da.

Aldian-aldean mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, errekurtsua ordainketa egiteko borondatezko aldean jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, aipatu aldia amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2. Errekurtsogileak espedienteaz aztertu beharra badu alegazioak egiteko, errekurtsua jartzeko epearen barruan joan beharko du espedienteaz ikustera.
3. Berraztertzeke errekurtsua jartzeko legimitatuta daudenei eta horretarako interesa dutenei, administrazioarekiko diru-errekamazioei buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

4. Berraztertze honen bidez, espedientean ageri diren egitatezko zein Zuzenbideko arazo guztien berri ematen zaio organo eskudunari, ebatz ditzan, hala errekurtsioan aurkeztu diren arazoak nola bestelakoak. Hala ere, ezin izango da, inola ere, errekurtsiogilearen hasierako egoera txartu.

Organo eskudunak interesdunek aurkeztu ez dituzten arazoak aztertu eta ebaztea erabakitzen badu, beraiei jakinaraziko die alegazioak egin ditzaten.

232. Artikulua. Berraztertze errekurtsioaren ebazpena.

1. Errekurritu den egintza eman zuen organo bera izango da berraztertze errekurtsioa ezagutu eta ebazteko eskuduna.

Eskuordetze bidez emandako egintzetan, eta aurkakoa esaten ez den bitartean, berraztertze errekurtsioa eskuordetutako organoak ebatziko du.

2. Berraztertze errekurtsioa ezagutzeko eskumena duen organoak ezin izango dio ebazpena emateari ukorik egin, eta ezin izango du arrazoizko zalantzarik edo legezko manuen gabeziarik alegatu.

Ebazpenean egitatezko gertakarien azalpen labur bat eta erabakia hartzeko erabili diren behar bezala arrazoitutako oinarri juridikoak jasoko dira.

3. Zergapeko beraren beste zerga-betebehar batekin lotuta dagoen zerga-betebehar (foru arau honetako 69. artikuluko 11. zenbakiaren arabera) baten likidazioaren aurkako errekurtsioa osorik edo partez baiesten duen ebazpen bat betearazten denean, errekurritu ez den betebehar lotua erregulatu egingo da, baldin eta Administrazioak aplikatu badizkio erreklamatu den zerga-betebeharraren likidazioaren oinarri izan diren irizpideak edo osagaiak.

Erregularizazioaren ondorioz errekurritu ez den betebehar lotuaren likidazioa deuseztatu behar bada eta errekurtsioan ebatzitakoarekin bat datorren beste likidazio bat egin behar bada, aplikatu beharrekoa izango da foru arau honetako 26. artikuluko 6. zenbakian xedatutakoa.

4. Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, errekurtsioa aurkeztu eta biharamunetik hasita.

Ebazpena emateko gehieneko epea igaro bada baina berariaz jakinarazi ez bada, berandutza-interesaren sortzapena gelditu egingo da, foru arau honetako 26. artikuluko 9. idatz-zatian ezarritako baldintzen arabera.

5. Errekurtsioa jarri zenetik hiru hilabete igarotakoan, interesdunak errekurtsioa ezetsi egin dela ulertu ahal izango du eta bidezko erreklamazioa jarri.
6. Berraztertze errekurtsioaren ebazpenaren aurka ezin da berriz ere berraztertze errekurtsioa jarri.

IV. KAPITULUA ADMINISTRAZIOAREKIKO DIRU-ERREKLAMAZIOAK

LEHENENGO ATALA XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO AZPIATALA ADMINISTRAZIOAREKIKO DIRU-ERREKLAMAZIOEN EREMUA

233. Artikulua. Administrazioarekiko diru-erreklamazioen aplikazio-eremua.

Bide ekonomiko-administratiboan erreklamatu ahal izango da, honako gaiak direla-eta:

- a) Zergen aplikazioa eta zerga-zehapenen ezarpena.
- b) Zuzenbide Publikoko beste sarrera batzuen bilketa.
- c) Foru arau honek berariaz ezartzen duen beste edozein.

234. Artikulua. Administrazioarekiko diru-erreklamazioa ekar dezaketen egintzak.

1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioa onargarria izango da, aurreko artikulua aipatzen dituen gaiei dagokionez, honako egintzen aurka:
 - a) Eskubideren bat behin-behinean edo behin betiko aintzatetsi nahiz ukatzen dutenak edo betebeharrak nahiz eginbeharren bat aitortzen dutenak.
 - b) Izapidezkoak, baldin eta zuzenean nahiz zeharka arazoaren muinari buruz erabakitzen badute edo prozedurari amaiera ematen badiote.
2. Zergak aplikatzeari dagokionez, erreklamazioa honako egintza hauen kontra jar daiteke:
 - a) Behin-behineko edo behin betiko likidazioak.
 - b) Autolikidazioa zuzentzeko eskaerarekin zerikusia duten berariazko zein ustezko ebazpenak.
 - c) Errenta, produktu, ondasun, eskubide eta gastuen balio-egiaztapenak; baita balioak, etekinak eta oinarriak finkatzeko egintzak ere, zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean.
 - d) Zergen arloko salbuespenak, onurak edo pizgarriak ukatu edo aintzatesten dituzten egintzak.
 - e) Amortizaziorako plan bereziak onartu edo ukatzen dituzten egintzak.
 - f) Zergapeko bati aplikatu beharreko zerga-erregimena zehazten duten egintzak, beraren etorkizuneko betebeharrarako garrantzizkoak direnean (nahiz eta formalak izan). Salbuespen izango da, dena den, administrazioa aurretik lotesten duten prozedurentzat foru arau honetako III. tituluko I. kapituluko 2. atalean xedatzen dena.
 - g) Zerga-bilketan diharduten organoen jarduketetan emandako egintzak.
 - h) Zergen arloko arautegiak ezartzen dituen egintzak.
3. Era berean, erreklamatzeko modukoak izango dira zerga-zehapenak ezartzen dituzten egintzak.
4. Erreklamatzeko modukoak izango dira, gainera, araubidez zehaztutako betekizunak ezarritako moduan bete ostean, norbanakoen ondorengo jarduketa edo omisioak:
 - a) Legez ezarritako jasanarazpenari eta jasanarazi beharri buruzkoak.
 - b) Atxikipenak edo konturako sarrerak egin eta jasan beharri buruzkoak.
 - c) Enpresaburu eta profesionalei eragiten dieten fakturak egin, eman eta zuzendu beharri buruzkoak.
 - d) Ordezkoaren eta zergadunaren arteko harremanetatik eratorritakoak.
5. Ez dira administrazioarekiko diru-erreklamazioak onartuko honako egintzei dagozkienean:

- a) Administrazio-bidean erreklamazioa jartzeko aukera ematen dutenak (bide judizialean, zibilean edo lan arloan baino lehen) edo bide hori agortzen dutenak.
- b) Administrazio-bidea agortuko duen ebazpena Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak hartu beharreko prozeduretan ematen direnak.
- c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioa izatetik salbuesten dituen foru arauren baten itzalpean ematen diren egintzak.

BIGARREN AZPIATALA ANTOLAKETA ETA ESKUMENAK

235. Artikulua. Organo ekonomiko-administratiboa.

Bide ekonomiko-administratiboko zerga-erreklamazioen ezagutza, azken batean, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboari dagokio. Honek, modu independentean jardungo du bere eskumenak erabilita; eskumenok, uko egin ezinezkoak eta luzaezinezkoak izango dira eta interesdunek ezin izango dituzte aldatu nahi izanda ere.

236. Artikulua. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomik. Administratiboaren eskumena.

1. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak honakoak ezagutuko ditu:
 - a) Foru arau honetako 233. artikuluan aurreikusten diren gaien inguruan Foru Aldundiko organoek emandako administrazio-egintzen aurka jarri diren erreklamazioak.
 - b) Foru arau honetako 246. artikuluan aipatzen diren berrikuspenerako aparteko errekursoak.
 - c) Bere ebazpenetan antzemandako okerren zuzenketak, foru arau honetako 228. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Era berean, honakoak ere ezagutuko ditu: norbanakoen arteko jarduketaren aurka jartzen diren erreklamazioak (erreklamazioak jarri ahal zaizkienean), atxikipenari edo konturako sarrerari aplikatu dakioken arautegia Bizkaiko Lurralde Historikokoa denean; edo, jasanarazpen-egintzen kasuetan, eragiketa auzitegi horretan egin denean, Kontzertu Ekonomikoan aurreikusitakoaren arabera.

237. Artikulua. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren funtzionamendua.

1. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak osoko bilkuretan edo saletan jardungo du. Bakarrik ere jardun ahal izango du, araubidez zehazten diren kasuetan.
2. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua araubidez zehaztuko da.

HIRUGARREN AZPIATALA INTERESDUNAK

238. Artikulua. Administrazioarekiko diru-erreklamazioetan legitimatuta daudenak eta interesa dutenak.

1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioak sustatzeko legitimatuta egongo dira:
 - a) Zergapekoak eta subjektu arau-hausleak.
 - b) Zergen arloko egintza, omisio edo jarduketaren ondorioz bidezko interesak ukitzen zaizkion beste edozein pertsona.
2. Ez dira legitimatuta egongo:

- a) Funtzionarioak eta enplegatu publikoak, salbu eta aintzatetsita duten eskubideren bat zuzenean urratzen denean edo bidezko interesak ukitzen zaizkienean.
 - b) Norbanakoak, Administrazioak eskuordetuta edo haren agente nahiz mandatudun gisa jarduten dutenean.
 - c) Salatzaileak.
 - d) Itun edo kontratu bidez zerga-betebeharrak euren gain hartzen dituztenak.
 - e) Inpugnatu den egintza eman zuten erakundeak edo organoak, bai eta egintza horren bidez kudeatutako funtsen jasotzailea den beste edozein erakunde ere.
3. Hasita dagoen prozedura ekonomiko-administratiboan, eman beharreko ebazpenak ukituko dituen bidezko eskubide edo interesen titularrak bertaratu ahal izango dira. Nolanahi ere, izapideak ez du inola ere atzera egingo.

Prozedura izapidetzen den bitartean, bidezko eskubide edo interesen beste titularren bat bertaratu ez dela ikusten bada, erreklamazioaren berri emango zaio alegazioak jar ditzan. Horrelakoetan foru arau honetako 244. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

4. Ordezkaritza bidez jarduten denean, hori frogatzen duen agiria interesdunak sinatu ez duen lehenengo idazkiari erantsiko zaio; baldintza hau bete ezean, ez baita izapidetuko. Hala ere, ahalik ez egon arren edo ahala nahikoa ez izan arren, idazkia aurkeztutzat emango da baldin eta bertaratu den pertsonak ahala eransten badu, edo erantsi duen ahalak izan ditzakeen akatsak zuzentzen baditu, edo ahal nahikorik gabe bere izenean eta ordezkaritzan egindako jarduketa guztiak berresten baditu.

BIGARREN ATALA

PROZEDURA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO OROKORRA

239. Artikulua. Arau orokorrak.

1. Prozedura ekonomiko-administratiboa doakoa izango da. Alabaina, erreklamazioa edo errekurtsioa ezeztan bada edo onartzen ez bada, eta organo ekonomiko- administratiboak ausarkeria edo fede gaiztoa nabaritzen badu, ausarkeria edo fede gaizto hori egotz dakioken pertsonari prozeduraren kostuak ordaintzeko eskatu ahal izango zaio, arauz zehaztutako irizpideen arabera.
2. Prozedura ekonomiko-administratiboa kapitulu honetan aurreikusitako xedapenen eta berau garatzeko ematen diren xedapen arau-emaeleen arabera arautuko da.

240. Artikulua. Prozedura hastea.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa hilabeteko epean aurkeztu behar da, inpugnatu den egintzaren jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita, edo atxikipena zein konturako sarrera egin dela edo egin gabe utzi dela, erreklamazioaren zio den jasanarazpena edo ordezkio eta zergadunaren arteko harremanetik eratorritako ordezkapena agertzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Horiek guztiak behar bezala agertzeko, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioari zuzenduriko idazkia aurkeztuko da. Administrazioaren isiltasunaren ondoreak gertatzen diren unetik aurrera ere jarri ahal izango da erreklamazio ekonomiko-administratiboa. Erreklamazioa aurkeztu ondoren eta ebatzi aurretik ebazpen adierazia ematen bada, hura Auzitegiari bidaliko zaio, interesdunari jakinarazi ondoren.

Jakinarazpenaren bidez ohartaraziko da ebazpen adierazia bide ekonomiko-administratiboan inpugnatutzat hartuko dela (haren edukiaren arabera) edo prozedura amaituko duela uziak prozesutik kanpo betetzeagatik — egoera hori Auzitegiak deklaratu du—.

Enpresaburuek eta profesionalek fakturak egin eta emateko duten betebeharrari buruzko erreklamazioen kasuan, zenbaki honetako lehen paragrafoan aipatzen den epea betebeharrari hori modu formalean errekeritzen denetik hilabetea igaro ondoren hasiko da zenbatzen.

Aldian aldiko mugaeguna duten eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, erreklamazioa ordainketa egiteko borondatezko aldian jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, aipatutako aldia amaitu eta biharamunetik hasita.

2. Prozedura, idazki baten bidez hasi beharko da; honen helburua zera eskatzea izan ahal izango da: erreklamazioa jarritzat edukitzea, erreklamatzailerak, erreklamatu den egintza edo jarduketara eta jakinarazpenak egiteko egoitza identifikatuz. Era berean, erreklamatzailerak bere eskubidea oinarritzen duten alegazioak ere aurkeztu ahal izango ditu.

Atxikipen, konturako sarrera, jasanarazpen, faktura egin eta emateko betebeharrari eta ordezkariaren eta zergadunaren arteko harremanei buruzko erreklamazioetan, errekurritutako pertsona identifikatzeko datuak eta haren egoitza ere jarri beharko dira idazkian. Horrez gain, erreklamatzailerak eskura dituen edo erregistro publikoetan dauden aurrekari guztiak erantsi beharko ditu..

241. Artikulua. Izapidetzea.

1. Prozedura ofizioz egingo da, ezarritako epeak errespetatuz. Halaber, ez da beharrezkoa izango beronen amaiera noiz izango den adieraztea.
2. Auzitegiak, kasua jaso ostean eta, hala dagokionean, espedientea burutu ondoren, erreklamazioan bertaratu diren baina tarteratze-idazkian alegaziorik aurkeztu ez duten edo alegaziorik aurkeztuz gero izapide honetarako berariazko eskabidearekin egin dituzten interesdunei jakinaraziko die hilabeteko epea izango dutela alegazioen idazkia eta bidezko frogak aurkezteko.
3. Atxikipen, konturako sarrera, jasanarazpen, faktura egin edo emateko betebeharrari eta ordezkariaren edo zergadunaren arteko harremanei buruzko erreklamazioen kasuan, Auzitegiak errekurritua izan den pertsonari jakinaraziko dio erreklamazioa jarri zaiola, bertaratu dadin; horretarako pertsonatzeko-idazkia bidaliko dio. Honek eskura dituen edo erregistro publikoetan dauden aurrekari guztiak aurkeztu beharko ditu.
4. Auzitegiak, era berean, inpugnatu den egintza eman zuen organoari txostena eskatu ahal izango dio, beharrezkoak diren arazoak argitzeko. Horretarako, txostenaren berri eman beharko dio erreklamatzailerari, honek dagozkion alegazioak aurkeztuko aukera emanez.
5. Artikulu honetako aurreko idatz-zatietan aipatzen diren izapideak alde batera utzi ahal izango dira baldin eta erreklamazioa jartzeko idazkian dauden alegazioen bitartez edo interesdunak erantsitako agirien bitartez egiaztaturik geratzen badira ebazpena emateko behar diren datu guztiak, edo datuok egiazkotzat eman ahal badira, edo argi ikusten bada erreklamazioa ez onartzeko arrazoiren bat badagoela.
6. Araubidez araupetuko da frogei buruzko erregimena.
7. Era berean, araubidez zehaztu ahal izango dira erreklamazioa jartzeko unean errekurtsogileari espedientearen berri emateko kasuak.

242. Artikulua. Bide ekonomiko-administratiboko berrikuspenaren hedapena.

1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioen bidez, espedientean eskaintzen diren egitatezko zein zuzenbideko arazo guztien berri ematen zaio Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioari, honek ebatzi ditzan; berdin izango da interesdunek azaldu dituzten. Hala ere, ezin izango da, inola ere, erreklamatzaileraren jatorrizko egoera txartu.
2. Auzitegiak interesdunek planteatu ez dituzten arazoak aztertu eta ebaztea erabakitzen badu, beraiei jakinaraziko die alegazioak egin ditzaten.

3. Erregelamenduz garatuko da judizio aurreko arazoak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian aurkezteko prozedura. Interesdunek erreklamazio ekonomiko- administratiboan judizio aurreko arazoa eskatu ez dutenean, erreklamazioa jarri aurretik, hamabost eguneko epea emango zaie interesdun horiei, alegazioak egin ditzaten. Baina alegazio horiek bakarrik izango dira judizio aurreko arazoa aurkeztearen egokitasunari buruz.

Halakoetan, judizio aurreko arazoa aurkeztu aurretik, Auzitegiak hamabost eguneko epea emango zaio Zerga Administrazioari, alegazioak egin ditzan.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegian judizio aurreko arazo bat aurkeztu bada (aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat), eten egingo da prozedura ekonomiko- administratiboa, haren hasieratik judizio aurreko arazoa ebazten duen ebazpena jaso arte. Halaber, etenda geratuko da beste prozedura ekonomiko- administratibo batzuen izapidetzea, prozedura horiek ebazteko beharrezkoa bada aurkeztutako judizio aurreko arazoaren emaitza. Etendura prozedura ekonomiko- administratiboan jakinaraziko zaie interesdunei, eta, haren ondorioz, foru arau honetako 64. artikulua ezarritako ahalak erabiltzeko preskripzio- epearen edo iraungipen- epearen konputua ere etenda geratuko da. Etenduraren ondoren, aurkeztutako arazoaren ebazpena Auzitegian jasotzen denean hasiko dira berriro konputatzen epeak.

243. Artikulua. Prozedura amaitzea.

1. Prozedura honako kasuetan amaituko da: erreklamazioak oinarritzat duen eskubideari uko egiten zaionean, eskaera edo auzialdia bertan behera uzten denean, berau iraungitzen denean, auzia prozesutik kanpo konpontzen denean, eta ebazpena ematen denean.
2. Erreklamatzailerak uko egiten badu edo atzera egiten badu, eskaera iraungitzen bada edo prozesutik kanpo konpontzen bada, Auzitegiak jarduketak artxibatzeke erabakia hartuko du, horretarako bidezko arrazoiak emanez

Jarduketak artxibatzeke erabakia foru arau honetako 245 bis artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik berrikusi ahal izango da.

244. Artikulua. Ebazpena.

1. Auzitegiak ezingo du ebatzi gabe utzi bere ezagutzapean dagoen erreklamaziorik, arrazoizko susmorik aurkeztu barik edo lege-manuetan gabeziaren bat dagoela adierazi barik.
2. Ematen diren ebazpenetan, oinarritzat hartu diren egitatezko aurrekariak eta Zuzenbideko oinarriak jaso beharko dira, eta horien arabera espedientean agertzen diren auzi guztiak erabakiko dira, interesdunak aurkeztutakoak izan zein ez.
3. Ebazpena baiestekoa edo ezeztekoa izan daiteke, edo onartezintasuna deklaratu dezake. Baiesteko ebazpenak osorik edo partez deuseztatu dezake errekurritutako egintza, zuzenbide arloko arrazoiengatik edo formazko akatsengatik.

Ebazpenean erreklamatzaileraren defentsa-aukerak murriztu dituzten formazko akatsak aipatzen direnean, egintza ukitutako zatian deuseztatuko da, eta aginduko da jarduketaren eragina atzera eraman dadila formazko akatsa sortu zen unera.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan izan ezik, betearazpen-egintzak —Auzitegiaren erabakien ondoriozko likidazioak, barne— ez dira izango inpugnatutako egintza eman den prozeduraren parte.

Atzeraeragin-kasuetan izan ezik, ebazpena betearaztearen ondoriozko egintzak jakinarazi egin behar izango dira, hilabeteko epean, ebazpen hori Zerga Administrazioaren erregistroan sartzen denetik aurrera.

4. Ebazpena onartezina izango da jarraiko kasu hauetan:

- a) Bide ekonomiko-administratiboko erreklamazio edo errekurtsorik ezin jarri zaien egintzak edo ebazpenak inpugnatzen direnean.
 - b) Erreklamazioa epez kanpo aurkezten denean.
 - c) Erreklamazioa zein egintza edo jarduketaren aurka jartzen den adierazten ez denean.
 - d) Erreklamazioa jartzeko idazkian ageri den eskaerak errekurritu den egintza edo jarduketarekin zerikusirik ez duenean.
 - e) Legitimazio edo ordezkaritza akatsak daudenean.
 - f) Erreklamazioa jarri zaion egintzaren oinarri bakarra beste egintza irmo eta onartu bat denean; lehenagoko egintza irmo eta behin betikoen berdinak diren egintzak errekurritzen direnean; onartutako beste egintza batzuk berresten dituzten egintzak errekurritzen direnean; eta gauza epaitua dagoenean.
5. Ebazpenak erabateko eraginkortasuna izango du erreklamazioa dagoela jakinarazi zaien interesdunei dagokienez.

Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak partikularren jarduketei edo ez-egiteei (foru honetako 234. artikuluko 4. zenbakian aipatutakoak) buruzko erreklamazioetan ematen dituen ebazpenek lotu egingo dute Zerga Administrazioa, ebazteko kontuan hartu diren egitateen kalifikazio juridikoari dagokionez, egiaztatze eta ikertze ahalak gorabehera. Horretarako, ebazpenok jakinarazi egin behar izango zaizkio Zerga Administrazioari.

6. Legez ezarritako epean ez bada betetzen faktura egiteko betebeharrak ezartzen duen Auzitegiaren ebazpena, orduan, erreklamatuak eragiketa dokumentatzen duen faktura egin ahal izango du, erreklamatuaren izenean eta kontura. Horretarako, arau hauei jarraituko zaie:
- 1. Faktura egiteko ahalaren erabilera idatziz jakinarazi behar zaio Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioari, eta adierazi epaia ez dela bete eta dagokion faktura egingo dela. Halaber, erreklamatuak jakinarazi behar dio erreklamatuari ahal hori erabili egingo duela faktura jaso izana egiaztatzen duen edozein bitarteko erabiliz.
 - 2. Erreklamatuak prestatuko du eragiketa dokumentatzen duen faktura; bertan, eragiketaren jasotzaile gisa agertuko da, eta betebeharrak bete ez duena, berriz, fakturaren egile gisa.
 - 3. Erreklamatuak fakturaren kopia bidaliko dio erreklamatuari, eta beretzat gordeko du fakturaren jatorrizkoa. Halaber, Zerga Administrazioari bidaliko dizkio fakturaren kopia eta Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan aurkeztutako idazkia, non jakinarazi baitzen ez zela bete emandako ebazpena.
7. Zergapeko beraren beste zerga-betebehar batekin lotuta dagoen zerga-betebehar (foru arau honetako 69. artikuluko 11. zenbakiaren arabera) baten likidazioaren aurkako erreklamazioa osorik edo partez baiesten duen ebazpen bat betearazten denean, errekurritu ez den betebehar lotua erregulatu egingo da, baldin eta Administrazioak aplikatu badizkio erreklamatu den zerga-betebeharraren likidazioaren oinarri izan diren irizpideak edo osagaiak.

Erregularizazioaren ondorioz errekurritu ez den betebehar lotuaren likidazioa deuseztatu behar bada eta Auzitegiak ebatzitakoarekin bat datorren beste likidazio bat egin behar bada, aplikatu beharrekoa izango da foru arau honetako 26. artikuluko 6. zenbakian xedatutakoa.

8. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak behin eta berriz ezartzen duen doktrinak gainontzeko Zerga Administrazioak lotetsiko ditu.

245. Artikulua. Ebazteko epea.

1. Prozeduraren gehieneko iraupena urtebete izango da erreklamazioa aurkeztu denetik. Epealdi hori amaitutakoan interesatuak gaitz iritziz jo dezake erreklamazioa eta bidezko errekurtoa jarri.

Nolanahi ere, auzitegiak berariazko ebazpena eman behar du. Berariazko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen errekurtoak aurkezteko epealdiak.

Idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, auzitegiak uste badu aurkaratutako egintzak beste eremu edo jurisdikzioaren bateko prozedura batean emango den ebazpen baten eraginpean gerta daitezkeela, jarduketak gelditzeko agindu dezake, arrazoiak azalduta eta interesatuak esateko duena entzun ondoren. Hala gertatuz gero, ebazpena emateko epealdiaren konputua haiek amaitu arte etengo da, bai eta foru arau honetako 67. artikuluan aipatutako preskripzioaldia ere.

2. Urte bat igaro bada eta oraindik ez bada berariazko ebazpenik eman, berandutza-interesaren sortzapena gelditu egingo da, foru arau honetako 26. artikuluko 9. idatz-zatian ezarritako baldintzen arabera.

245 bis. Artikulua. Deuseztatze-errekurtoa.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren aurka, deuseztatze-errekurtoa jarri ahal izango da Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, kasu hauetan:
 - a) Erreklamazioa onartezina dela behar bezala deklaratu ez denean.
 - b) Behar den moduan aurkeztutako alegazioak edo frogak ez direla baliogarriak deklaratu denean.
 - c) Ebazpenaren erabateko eta ageriko inkongruentzia dagoela alegatu denean.
2. Jarduketak artxibatzeko erabakiaren aurka ere jarri ahal izango da deuseztatze-errekurtoa. Foru arau honetako 243. artikuluan aipatu da erabaki hori.
3. Deuseztatze-errekurto baten ebazpenaren aurka ezin izango da beste deuseztatze-errekurto bat jarri. Deuseztatze-errekurtoa ezin izango da aurkeztu berrikuspen-errekurto berezi baten ebazpenaren aurka.
4. Errekurto-idazkian alegazioak jasoko dira, eta dagozkion frogak erantsiko zaizkio. Auzitegiak hiru hilabeteko epean ebartziko du, izapide gehiago egin gabe; ebatzi ezean, errekurtoa ezetsi dela ulertuko da.

245 ter. Artikulua. Betearazpenaren aurkako errekurtoa.

1. Ebazpen ekonomiko-administratiboak betearazteko egintzek zehatz beteko dute ebazpenotan xedatutakoa.
2. Interesduna ebazpena betearazteko emandako egintzekin ados ez dagoenean, betearazpenaren aurkako errekurtoa aurkeztu ahal izango du, zeina Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak ebartziko baitu.
3. Betearazpenaren aurkako errekurtoa hilabeteko epean jarriko da, betearazpen- egintza jakinarazi eta biharamunetik aurrera hasita. Prozeduraren arau orokorrekin bat arauko da errekurtoa, eta ofizioz kenduko dira arazoa ebazteko ezinbestekoak ez diren izapide guztiak.
4. Inola ere ez da onartuko errekurritutako egintzen etendura, ez bada gai berririk planteatzen betearazi beharreko ebazpen ekonomiko-administratiboari dagokionez.

5. Ezin izango da berraztertze-errekurtsoa aurkeztu betearazpenaren aurkako errekurtsoarean aurretik.
6. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak zenbait kasutan betearazpenaren aurkako errekurtsoa onartezina dela deklaratu du, hain zuzen: errekurtsoan planteatutako gaiak betearazi beharreko ebazpenean dagoeneko erabakita dauden arazoekin lotuta daudenean; gai horiek planteatu zitezkeenean erreklamazioan, zeinaren ebazpena betearazi behar baita, eta Zergei buruzko Foru Arauko 244. artikuluko 4. zenbakian aipatutako kasuetan.

246. Artikulua. Berrikuspenerako aparteko errekurtsoa.

1. Interesdunek berrikuspenerako aparteko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Zerga Administrazioaren egintza irmoen aurka eta ebazpen ekonomiko-administratiboen aurka, honako inguruabarren bat ematen denean:
 - a) Gaia erabakitzeko funtsezkoak diren agiriak agertzen direnean. Agiri horiek errekurritu den egintza edo ebazpena baino geroagoak izango dira, edo, bestela, haien garaian ezin aurkeztu izan zirenak; nolanahi ere, okerre bat dagoela agertuko dute.
 - b) Egintza edo ebazpena ematean, hori baino lehen edo geroago adierazi den epai irmo bidez faltsutzat jo diren agiriei edo lekukotasunek funtsezko eragina izan dutenean.
 - c) Prebrikazio, eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo zigortzeko moduko beste jokabideren baten ondorioz emana denean egintza edo ebazpena, eta epai irmo baten bidez horrela adierazten denean.
2. Errekurtsu hau aurkezteko legitimatuta egongo dira interesdunak eta Ogasuneko zuzendari nagusia.
3. Errekurtsoa hiru hilabeteko epean aurkeztuko da, agirien berri dagoenetik edo epaia irmo bihurtzen denetik zenbatzen hasita.
4. Errekurtsu hau ebazteko, foru arau honetako 245. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

HIRUGARREN ATALA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA

247. Artikulua. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Bide ekonomiko-administratiboa agortzen duten ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio-organo eskudunari zuzenduta.

VI. TITULUA TRIBUTUAK APLIKATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK OGASUN PUBLIKOAREN AURKAKO DELITUA DAGOENEAN

248. Artikulua. Likidazioak egitea Ogasun Publikoaren aurkako delitu baten zantzuak daudenean.

1. Ogasun Publikoaren aurkako delitu-zantzuak ikusten direnean, prozedura izapidetzen jarraituko da, aplikatzekoak diren arau orokorren arabera, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatzeari edo espediente Fiskaltzari igortzeari kalterik egin gabe, titulu honetan ezarritako erregelei jarraituta.

Honen hurrengo artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik, egiaztatu behar diren zerga-betebeharraren elementuen likidazioa eman beharko da; likidazio desberdinetan jasoko dira

Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotutako elementuak eta Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotuta ez daudenak.

Likidazioak egiteko zenbaki honetan adierazitako eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio baldin eta Ekonomia itunean ezarritakoaren arabera berari badagokio ikuskapen-eskumena, eta ondorioak sortuko ditu administrazio eskudun guztien aurrean, administrazio horiei aplikatu beharreko tributazio-proportzioa barne; halaber Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio likidazio guztien kobrantza egitea, gerora administrazioen artean konpentsazioak egin badaitezke ere.

2. Titulu honetan ezartzen denera egokituko da Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotuta dauden zerga-betebeharraren elementuak direla-eta ematen den likidazioa.

Zenbaki honetan adierazitako kasuetan, Zerga Administrazioak ez dio hasiera edo, hala badagokio, jarraipena emango egitate horiei dagokien zehapen-prozedurari. Zehapen-espediente bat hasi bada eta aurretik amaitu ez bada, prozedura hori amaitutzat joko da, betiere, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatu edo espediente Fiskaltzari bidaltzen zaionean; hala ere, beste zehapen- prozedura bat has liteke zenbaki honetako azken paragrafoan jasotako kasuetan.

Agintaritza judizialaren kondena-epaiak eragotziko du egitate berak direla-eta administrazio-zehapena ezartzea.

Deliturik ez dagoela ikusten badu, Zerga Administrazioak, dagokion unean, zehapen-prozedura administratiboa abiaraziko du, auzitegiek frogatutzat jo dituzten egitateekin bat.

3. Ogasun Publikoaren aurkako delituari lotu gabeko tributu-elementuak direla- eta ematen den likidazioaren izapidetzea foru arau honetako III. tituluaren xedatutakoaren arabera dagokion prozedura arruntera egokituko da, eta V. tituluaren ezarritako berrikuspen-araubidearen mende egongo da.

249. Likidazioak egitetik salbuestea Ogasun Publikoaren aurkako delitu baten zantzuak daudenean.

1. Zerga Administrazioak ikusten badu Ogasun Publikoaren aurkako delitu baten zantzuak daudela, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatuko dio edo espediente Fiskaltzari bidaliko dio, eta ez du egingo foru arau honetako 248. artikuluan adierazitako likidazioa, kasu hauetan:
 - a) Likidazio administratiboa izapidetzeak delituaren preskripzioa ekar badezake Zigor Kodeko 131. artikuluan ezarritako epeen arabera.
 - b) Ikerketa edo egiaztapenaren ondorioz, likidazioaren zenbatekoa zehaztu ezin bada edo likidazioa ezin bazaio zergapeko konkretu bati egotzi.
 - c) Likidazio administratiboak moduren batean kaltetu badezake iruzurra ikertu edo egiaztatzea.
 - d) Administrazioak zerga-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko duen ahala preskribatuta edo iraungita dagoenean.

Gorago aipatutako kasuetan, Zerga Administrazioak aurkeztutako salaketa- edo kereila-idazkiarekin batera, erabaki arrazoitu bat bidaliko da, likidazioa ez emateko erabaki administratiboa hartzeko inguruabarren bat gertatzen dela justifikatzeko.

Kasu honetan, zergapekoari ez zaio aukerarik emango entzunaldirako edo alegazioak egiteko.

2. Aurreko zenbakian jasotako kasuetan, Administrazioak ez dio hasiera edo, hala badagokio, jarraipena emango administrazio-prozedurari; beraz, prozedura etenda geratuko da

agintaritza judizialak epai irmoa eman arte, jarduketan largespena edo artxibatzea gertatu arte edo Fiskaltzak espedientearen itzuli arte.

Hala ere, zehapen-prozedura bat hasi bada, prozedura edozein kasutan amaitutzat joko da erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatu edo espedientearen Fiskaltzari bidaltzen zaionean. Nolanahi ere, aukera egongo da beste zehapen-prozedura bat hasteko baldin eta azkenean deliturik ez dagoela ikusten bada, auzitegiek kasuan-kasuan frogatutzat jotzen dituzten egitateekin bat.

Erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatzearekin edo espedientearen Fiskaltzari bidaltzearekin batera, geldiarazita geratuko dira preskripzio-epeak eta etenda geratuko dira Zerga Administrazioak zerga-zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahalaren erabiltzeko eta foru arau honetako 69. artikuluko 1. zenbakian, 72. artikuluko 1. zenbakian eta 194. artikuluko 4. eta 6. zenbakietan aurreikusitakoarekin bat zerga-zehapenak ezartzeko iraungitze-epeak.

Agintaritza judizialaren kondena-epaiak eragotziko du egitate berak direla-eta administrazio-zehapena ezartzea.

Salatutako egitateak direla-eta zergak kudeatu edo ikuskatzeko prozeduren jarduketak egiten badira, jarduketok ez dute inolako baliorik izango.

3. Aurreko kasuetan, deliturik antzeman ez bada, Zergen Administrazioak bere jardunak hasi edo jarraituko ditu organo jurisdikzionalak foru arau honen 146. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den epea amaitu arte geratzen den epean frogatutzat jotzen dituzten egitateekin bat etorritik, artikuluko horren beraren 4. paragrafoaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta, edo 6 hilabeteko epean, azken hori ebazpen fiskal handiago batengatik itzuli behar den prozedura judizialagatik, 123. artikulua jasotzen den unetik zenbatzen hasita.

Zerga Administrazioak ebazpen judiziala jasotzen duenean berriro hasi edo aurrera jarraituko da preskripzio- eta iraungitze-epeak zenbatzen.

250. Borondatezko erregularizazioa.

Zerga Administrazioak ez dio erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatuko edo Fiskaltzari espedientearen bidaliko salbu eta egiaztatu bada zergapekoak ez duela bere zerga-egoera erregularizatu; egoera erregularizatuta egotea, zerga-zorra erabat onartuta eta ordainduta egon behar da zerga-zorra zehazteko egiaztapeneko eta ikerketako jarduketak hasiko direla jakinarazi aurretik edo, jarduketa horiek hasi ez badira, Fiskaltzak edo Zerga Administrazioaren prozesuko ordezkariak zergapekoaren kontrako kereila edo salaketa jarri aurretik, edo Fiskaltzak edo instrukzio-epaileak eginbideak hasi direla formalki ezagutzeko bidea ematen duten jarduketak egin aurretik.

Foru arau honetako 56. artikuluan adierazitako elementuek osatuko dute zerga-zorra, eta zergapekoa behartuta egongo da zorraren kuota eta ordainketa egiten duen unera arte sortutako berandutze-interesak zein legezko errekaruak autoliquidatzera eta aldi berean ordaintzera. Edonola ere, borondatez erregulariza tutako tributuak autoliquidazio-prozeduraren bidez eskatzen ez badira, zergapekoak dagokion aitorpena aurkeztu beharko du, eta osorik ordainduko du Administrazioak likidatutako zerga-zorra, zergei buruzko arautegiak ordainketarako ezarritako epean.

Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzekoa izango da, era berean, Administrazioak likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko ahalaren erabilera preskribatu edo iraungi ondoren egiten bada erregularizazioa.

Artikulu honetako lehenengo paragrafoan dioena zehazteko, hau da, zorra erabat onartu eta ordaindu dela, Zerga Administrazioak behar diren egiaztapeneko eta ikerketako jarduketak egin ahal izango ditu, nahiz eta foru arau honetako 64. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoarekin bat jarduketa horiek Administrazioaren ahalaren erabilera preskribatuta edo iraungita dagoen zergaldien eta kontzeptuen gainekoak izan.

251. Ikuskapeneko prozedura izapidetzea likidazioa egin behar denean.

1. Zerga Administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delituaren zantzuak daudela uste badu eta foru arau honetako 249. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoaren arabera likidazioa ematea eragozten duen inguruabarrik gertatzen ez bada, delituari lotutako likidazio-proposamen bat formalizatu beharko da, non adieraziko den likidazio hori zer egitatetan eta zuzenbideko oinarritan funtsatzen den.

Proposamen hori zergapekoari jakinaraziko zaio, eta hamar eguneko epealdia emango zaio, proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, alegazioak egin eta egoki irizitako dokumentuak aurkez ditzan. Ez da entzunaldiaren izapiderik egin beharko foru arau honen 110. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako kasuetan.

Izapidetze administratiboan gertatutako prozedura-akatsak ez dute inola ere eragingo delituari lotutako zerga-betebeharra partez edo erabat azkentzea, ez eta zerga-zorra likidatzeko Zerga Administrazioak eginiko jarduketak direla-eta foru arau honetako 146. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letretan aurreikusitako ondorioak azkentzea ere; dena den, beste ondorio batzuk gerta daitezke baldin eta Fiskaltzak espedientea itzultzen badu edo Ogasun Publikoaren kontrako deliturik ez dagoelako foru arau honetako 255. artikuluko 2. zenbakiko c) letran ezarritako doikuntza egitera behartzen duen ebazpen judizial irmoa ematen bada.

Alegazioak egiteko epea amaitu eta alegazio horiek aztertu ondoren, prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzak emateko eskumena duen organoak likidazio administratiboa emango du, salaketa edo kereila jartzeko eskumena duen Zerga Administrazioako organoaren aurreko edo aldi bereko baimenarekin, ikusten badu erregularizazioak argi uzten duela Ogasun Publikoaren aurkako delitua dagoela.

Likidazio administratiboa eman ondoren, Zerga Administrazioak erruduntasun- testigantza pasatuko dio jurisdikzio eskudunari edo espedientea bidaliko dio Fiskaltzari, eta egiaztapeneko prozedura, likidazio horren bidez erregularizatutako zerga-betebeharraren elementuei dagokienez, zergapekoari jakinarazpena eginda amaituko da. Jakinarazpen horretan, zergapekoari ohartaraziko zaio salaketa edo kereila izapidetzeko onartu dela jakinarazten denean baino ez dela hasiko ordainketa egiteko epea, foru arau honetako 253. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatzearekin edo espedientea Fiskaltzari bidaltzearekin batera, geldiarazita geratuko dira preskripzio-epeak eta etenda geratuko dira Zerga Administrazioak zerga-zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala erabiltzeko eta foru arau honetako 69. artikuluko 1. zenbakian, 72. artikuluko 1. zenbakian eta 194. artikuluko 4. eta 6. zenbakietan aurreikusitakoarekin bat zerga-zehapenak ezartzeko iraungitze-epeak.

2. Salaketa edo kereila onartzen ez bada, administrazio-jarduketak atzera eramango dira delituari lotutako likidazio-proposamena eman zen aurreko unera; kasu horretan, ikuskapen-akta edo behin-behineko likidazioa formalizatuko da, eta foru arau honetan edo berau garatzeko araudian ezarritakoarekin bat izapidetuko da.

Ikuskapen-prozeduretan, foru arau honetako III. tituluko IV. kapituluko 3. ataleko 3. azpiatalean ezarritakoa kontuan hartuko da ikuskapen-jarduketak amaitzeko.

Prozedurak amaitu beharko du jarduketak atzera eramaten diren unetik foru arau honen 146. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den epea amaitu arteko epean, artikuluko 4. apartatuaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta, edo sei hilabeteko epealdian, hau luzeagoa bada. Epealdi hori zenbatzen hasiko da prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzultitako espedientea jasotzen duenetik.

Berandutze-interesak eskatuko dira prozedurari amaiera ematen dion likidazio berria dela eta. Baliogabetutako likidazioari foru arau honetako 26. artikuluko arabera zegokiona

izango da berandutze-interesak zenbatzen hasteko data, eta likidazio berria eman arte sortuko dira interesak.

Kasu horretan, preskripzio-epea zenbatzen hasiko da, eta berriro hasiko da zenbatzen Zerga Administrazioak zerga-zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala erabiltzeko eta foru arau honetako 69. artikuluko 7. zenbakian eta 72. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitakoarekin bat zerga-zehapenak ezartzeko iraungitze- epea.

3. Zerga-kontzeptu eta zergaldi batean bereizi ahal badira Ogasun Publikoaren aurkako delitua dagoela zehazteko bide ematen duen dolozko jokabidea duten elementuak eta dolozko jokabide hori ez duten beste elementu eta erregularizatu beharreko kopuru batzuk, bi likidazio bereiz egingo dira.

Likidazio bien kuantifikazioa egiteko, delituari lotutako likidazio-proposamen bat eta ikuskapen-akta bat egingo dira, arau hauen arabera:

- a) Delituari lotutako likidazio-proposamenean, aitorpenaren helburu diren elementuak jasoko dira; elementu horiei dolozko jokabidea duten elementuak gehituko zaizkie; zergapekoaren eskubidearen arabera egin beharreko doikuntzak egingo dira, eta zerga-oinarrian edo kuotan dagozkion beste partidak konpentsatu edo kenduko dira. Aurkeztutako aitorpenean, ordaindu beharreko kuota bat ezarri bada, kuota horren deskontua egingo da likidazio-proposamena kalkulatzeko.
- b) Aktan jasotako likidazio-proposamenean, egiaztatutako elementu guztiak jasoko dira, ustezko delituari lotuta daudenak zein lotuta ez daudenak, eta a) letran adierazitako likidazio-proposamenaren ondoriozko kopurua kenduko da.

Edonola ere, zergapekoak aukeratu dezake kuota biak kalkulatzeko sistema bat aplikatzea: sistema horretan, oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partidak proportzionalki aplikatuko dira, erregelamenduz ezarritakoaren arabera. Aukera hori hartuz gero, Administrazioari jakinarazi egin beharko zaio, delituari lotutako likidazio-proposamena jakinarazi ondoren alegazioak egiteko epean.

252. Likidazioak aurkaratzea.

1. Foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren ondorioz emandako likidazio administratiboaren kontra, ezin izango da errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri administrazio-bidean; hala ere, prozesu penalean ezarritakoa betetzeko dagokion doikuntza egingo da, Zigor Kodeko 305. artikuluan eta foru honetako 255. artikuluan xedatutakoaren arabera. Zigor-arloko epaileari egokituko zaio epaian zehaztea ogasun publikoaren aurkako delituei lotutako iruzurraren kuota, Zigor Kodeko 305. artikuluan eta foru honetako VI. tituluko 5. zenbakian ezarritakoaren babesean likidatu behar zena.

Izapidetze administratiboan gertatutako prozedura-akatsek ezin izango dute inola ere delituari lotutako zerga-betebeharra partez edo erabat azkendu, ez eta zerga-zorra likidatzeko Zerga Administrazioak eginiko jarduketak direla-eta foru arau honetako 146. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letretan aurreikusitako ondorioak ere.

2. Ustezko delituari lotu gabe dauden elementu eta zenbatekoen erregularizazioaren ondoriozko likidazioaren kontra, berriz, foru arau honetako V. tituluan aurreikusitako errekurtsu eta erreklamazioak jarri ahal izango dira.

253. Likidatutako zorra biltzea Ogasun Publikoaren aurkako delitu baten zantzuak daudenean.

Foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian adierazitako kasuetan, Ogasun Publikoaren aurkako delitua egoteak ez ditu geldiaraziko likidatutako zerga-zorra kobratzeko administrazio-jarduketak, salbu eta epaileak erabaki badu betearazteko jarduketak etetea.

Aurreko paragrafoan zerga-zorra kobratzeko aipatutako administrazio-jarduketetan, foru arau honetako III. tituluko V. kapituluaren ezarritako arau orokorrak beteko dira, titulu honetan ezarritako kasu berezietan izan ezik.

Ogasun Publikoaren aurkako delituaren ondoriozko salaketa edo kereila onartu denean, Zerga Administrazioak ordainketa egiteko borondatezko epea jakinaraziko dio zergapekoari, eta eskatuko dio likidatutako zerga-zorra foru arau honetako 60. artikuluko 1. zenbakian ezarritako epeetan ordain dezala.

254. Zerga-bilketako jarduketan aurka egiteko arrazoiak.

Foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera likidatutako zerga-zorra kobratzeko diru-bilketako prozeduraren egintzen kontra, foru arau honetako 171. artikuluko 3. zenbakian, 174. artikuluko 3. zenbakian eta 176. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan aurreikusitako arrazoiak baino ezin izango dira aurkaratu, eta berrikuspenean foru arau honetako V. tituluaren xedatutakoaren arabera egingo da.

255. Ebazpen judizialak zerga-likidazioaren gainean dituen ondorioak.

1. Prozesu penalean iruzurrari eta haren zenbatekoari dagokienez azkenean ezartzen dena egokituko da foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian adierazitako kasuetan Zerga Administrazioak emandako likidazioa.

2. Honela egingo da doikuntza:

- a) Prozesu penalean epaia ematen bada, epai hori Ogasun Publikoaren aurkako delitua dela-eta kondenatzeko bada eta iruzurra dela-eta prozesu horretan ezarritako kuota eta administrazio-bidean likidatutakoa berdinak badira, ez da beharrezkoa izango likidatutako kuota aldatzea; hala ere, dagozkion berandutze- interesak eta errekaratuak ezarriko dira.

Iruzurra dela-eta prozesu penalean zehaztutako zenbatekoa administrazio-bidean ezarritakoa baino txikiagoa edo handiagoa bada, aldatu egin beharko da foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakiaren babesean emandako likidazioa. Kasu horretan, hasierako egintzak iraungo du, eta epaiaren edukiaren arabera zuzenduko da, iruzurra dela-eta prozesu penalean finkatutako zenbatekora egokitzeko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioak eginiko aldaketa horrek ez du eraginik izango zerga-bilketan eginiko jarduketan balioan, prozesu penalean berretsitako zenbatekoari dagokionez.

Epaia betearazteko eskumena duen auzitegiari, ordaindu behar duenari eta prozedura penalean pertsonatutako gainerako alderdiei helaraziko zaie aldaketaren erabakia. Iruzurra dela-eta prozesu penalean zehaztutako zenbatekoa administrazio-bidean ezarritakoa baino txikiagoa bada, aplikatzekoak izango dira sarrerak eta bermeen kostua itzultzeko zergei buruzko arautegian ezarritako arau orokorrak.

- b) Prozesu penalean azkenean uste bada deliturik ez dagoela zerga-betebeharrik ez dagoelako, baliorik gabe geratuko da likidazio administratiboa, eta aplikatzekoak izango dira sarrerak eta bermeen kostua itzultzeko zergei buruzko arautegian ezarritako arau orokorrak.
- c) Prozesu penalean ebazpen irmoa ematen bada eta uste bada deliturik ez dagoela zerga-betebeharrik ez dagoelako, administrazio-jarduketak atzera eramango dira foru arau honetako 251. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoaren arabera delituari lotutako likidazio-proposamena eman zen aurreko unera; kontuan hartuko dira organo judizialak frogatutako egitateak, eta akta formalizatuko da. Akta hori foru arau honetan eta berau garatzeko araudian ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

Ikuskapen-prozeduretan, foru arau honetako III. tituluko IV. kapituluko 3. ataleko 3. azpiatalean ezarritakoa kontuan hartuko da ikuskapen-jarduketak amaitzeko.

Jarduketak atzera eramaten diren unetik foru arau honen 146. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den epea amaitu arteko epean amaitu beharko da prozedura, artikuluko beraren 4. paragrafoaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta betiere, edo sei hilabeteko epean, azken hori luzeagoa bada, jarduketa judizialak edo Fiskaltzak itzultitako espedienteak jasotzen diren unetik kontatzen hasita.

Berandutze-interesak eskatuko dira prozedurari amaiera ematen dion likidazio berria dela eta. Baliogabetutako likidazioari foru arau honetako 26. artikuluko arabera zegokion izango da berandutze-interesak zenbatzen hasteko data, eta likidazio berria eman arte sortuko dira interesak.

Zerga-likidazio guztietarako berezkoa den berrikuspen- eta errekurso-araubidearen mende egongo da likidazioa; foru arau honetako V. tituluaren dago araututa araubide hori. Hala ere, epai judizialean frogatutako egitateak ezin izango dira aurkaratu.

Kasu horretan, preskripzio-epea zenbatzen hasiko da eta berriro hasiko da zenbatzen Zerga Administrazioak zerga-zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala erabiltzeko eta foru arau honetako 69. artikuluko 7. zenbakian eta 72. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitakoarekin bat zehapenak ezartzeko iraungitze- epea.

256. Erantzuleak.

1. Honako hauek izango dira foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera likidatutako zerga-zorren erantzule solidario: likidazioa eragin duten eta salatutako delitua dela-eta hasitako prozesu penalean ikertu edo aurkaratuta dauden egitateen kausatzaileak edo egitate horietan lankidetzan aktiboa izan dutenak edo prozesu hori dela-eta kondenatuak izan direnak.

Baldin eta artikuluko honetan ezarritako erantzukizuna eskatzeko prozeduran kontuan hartzen badira, ebazpen-proposamena egin aurretik likidazio-prozeduran formalki jasoko dira prozedura hori dela-eta dauden edo lortu diren datu, frogak edo inguruabarrak.

2. Foru arau honetako 248. artikuluko 2. zenbakian adierazitako likidazioetan, aplikatzekoak izango dira, era berean, foru arau honetako 41. artikuluko 5. zenbakian araututako erantzukizun-kasuak.
3. Aurreko 1. zenbakian aurreikusitako erantzukizuna adierazten duen erabakiaren kontrako errekursoan edo erreklamazioan, erantzukizun horren hedadura globala baino ezin izango da aurkaratu.
4. Prozesu penalean 1. zenbakian adierazitako erantzuleetako edozein dela- eta largespena edo absoluzioa erabakitzen bada, baliogabetutik geratuko da haren erantzukizunaren adierazpena, eta aplikatzekoak izango dira sarrerak eta bermeen kostua itzultzeko zergei buruzko arautegian ezarritako arau orokorrak.
5. Foru arau honetako 69. artikuluko 8. eta 9. zenbakietan xedatutakoa gorabehera, artikuluko honetako 1. zenbakian adierazitako erantzukizun-kasuetan zergapeko baten preskripzio-epea eteten bada, ondorio hori gainerako zergapekoei zabalduko zaie, arduradunei barne.
6. Zerga-bilketan eskumena duten organoei egokituko zaie artikuluko honetako 1. eta 2. zenbakietan araututako kasuetan erantzukizuna adierazteko erabakiak emateko eskumena.
7. Erantzukizuna adierazteko prozeduraren epea etentzat joko da Fiskaltzaren edo organo judizialaren aurrean salaketa edo kereila aurkezten denetik auzipetuen inputazio formala egin arte.

Foru arau honetako 81. artikuluko 5. zenbakiko e) letran ezarritakoa aplikatuko zaie artikuluko honetan aurreikusitako erantzukizunaren adierazpenaren prozedura izapidetzean hartutako kautela-neurriei.

VII. TITULUA

TRIBUTUEN ARLOAN ERAGINA DUTEN ESTATU-LAGUNTZAK BERRESKURATZEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

257. Xedapen orokorrak.

1. Zerga Administrazioari dagokio tributuen arloan eragina duten estatu-laguntzak berreskuratzeke erabakiak betearazteko behar diren jarduketak egitea.
2. Tributuen arloan eragina duten estatu-laguntzak berreskuratzeke erabakiak betearazteko beharrezkoak diren administrazio-jardueren erabilera tributuen aplikaziotzat joko da, bai eta erabaki horien ondorioz zergapekoek beren eskubideak erabiltzeko edo zerga-betebeharrak betetzeko egiten dituzten jarduketak ere.
3. Artikulu honetako aurreko zenbakietako kasuez gainera, titulu honetan xedatutakoa aplikatzekoa izango da baldin eta Europar Batasuneko zuzenbidean ezarritakoaren arabera eskatu behar bada zerga-arloan eragina duen estatu-laguntza gisa jasotako kopuruak itzultzeko.
4. Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen-eremuaren barruan, Ogasuneko zuzendari nagusia izango da tributuen arloan eragina duten estatu-laguntzak berreskuratzeke prozedurak abiarazi eta ebatzeko eskumena duen organoa.
5. Europako Erkidegoko ordenamenduaren arabera estatuko laguntza diren zerga- onurak ezin izango dituzte jaso legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jotako estatu-laguntzak jaso dituztenek, baldin eta Batzordeak, aldez aurretik, agindu bat eman badu laguntzak berreskuratzeke, harik eta laguntza horiek itzuli arte.

258. Estatu-laguntzak berreskuratzeke erabakiak betearazteko prozedurak.

Hauek dira estatu-laguntzak berreskuratzeke erabakiak betearazteko prozedurak:

- a) Berreskuratze-prozedura erabakiak eragindako zerga-betebeharraren elementuak erregularizatu behar direnean.
- b) Berreskuratze-prozedura beste kasu batzuetan.

259. Preskripzioa.

1. Kontseiluaren 2015eko uztailaren 13ko 2015/1589 (EB) Erregelamenduko 17. artikuluan ezarritakoaren arabera (erregelamendu horren bidez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 108. artikulua aplikatzeko arau zehatzak ezartzen dira), hamar urteko epean preskribatuko da berreskuratzeke erabakia betearazteko zerga-zorra zehaztu eta haren ordainketa eskatzeko Zerga Administrazioak duen ahalaren erabilera.
2. Erregularizatu beharreko zerga-betebeharra betetzeko estatu-laguntzaren aplikazioak zergei buruzko arautegiaren arabera ondorio juridikoak sortu eta biharamunean hasiko da preskripzio-epea.
3. Arrazoi hauek direla-eta etengo da preskripzio-epea:

- a) Estatu-laguntzari lotuta Europako Batzordeak edo haren eskariz Zerga Administrazioak eginiko edozein jarduketa dela-eta.
 - b) Berreskuratze erabakiak edo ordaindu beharrak eragindako elementuen ondoriozko zerga-zorra onartu, erregularizatu, egiaztatu, ikuskatu, segurtatu eta likidatzeko Zerga Administrazioak egindako edozein egintza dela-eta, zergapekoa horren berri izanik egin bada.
 - c) Zerga-zorra likidatu edo ordaintzeko zergapekoak eginiko edozein jarduketa federaile dela-eta edo dagozkion errekursoak jartzearen ondorioz.
4. Preskripzio-epea etenda geratuko da berreskuratze erabakia Europar Batasuneko Justizia Auzitegian prozedura baten mende dagoen bitartean.
 5. Titulu honetan laguntzak berreskuratze ezarritako prozeduraren arloan ez da aplikatzekoa izango Zerga Administrazioak kasuan kasuko likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko ahalaren erabilera iraungitzeari dagokionez foru arau honetako II. tituluko IV. kapituluko hirugarren atalean xedatutakoa.

260. Berreskuratze erabakia betearaztearen ondorioak.

1. Zerga-betebeharra dela-eta Zerga Administrazioak aurretik ebazpena eman edo likidazioa egin badu eta estatu-laguntza berreskuratze erabakiak eragina badu betebehar horretan, erabaki horren betearazpenaren mende egongo da ebazpena edo likidazioa aldatu behar den, ebazpena edo likidazioa irmoa izan arren.
2. Arau hauetan xedatutakoaren arabera egongo dira araututa berandutze-interesak: Kontseiluaren 2015eko uztailaren 13ko 2015/1589 (EB) Erregelamenduko 16. artikuluko 2. zenbakia (erregelamendu horren bidez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 108. artikulua aplikatzeko arau zehatzak ezartzen dira), Kontseiluaren apirilaren 21eko 794/2004 (EE) Erregelamenduko V. kapitulua (erregelamendu horren bidez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 108. artikulua aplikatzeko arau zehatzak ezartzen dituen Kontseiluaren 2015eko uztailaren 13ko 2015/1589 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dira).
3. Estatu-laguntzak berreskuratze erabakiak betearaztearen ondorioz sortutako zorrak ezin izango dira geroratu edo zatikatu.

261. Betearazteko egintzaren aurkako errekursoak.

Berreskuratze erabakia betearaztearen ondoriozko ebazpenaren edo likidazioaren aurka, berraztertze-errekurtoa jarri ahal izango da eta, hala badagokio, erreklamazio ekonomiko-administratiboa, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

Artikulu honetan ezarritakoaren arabera ebazpena edo likidazioa berrikusten bada, administrazio-egintzen betearazpena etetea bakar-bakarrik onartuko da baldin eta Zerga Administrazioan diru-gordailu bat jartzen bada berme gisa.

II. KAPITULUA

BERRESKURATZE-PROZEDURA BERRESKURATZEKO ERABAKIAK ERAGINDAKO ZERGA-BETEBEHARRAREN ELEMENTUAK ERREGULARIZATU BEHAR DIRENEAN

262. Berreskuratzea berreskuratze erabakiak eragindako zerga- betebeharraren elementuak erregularizatu behar direnean.

1. Berreskuratze erabakiak eragindako zerga-betebeharraren elementuak erregularizatu behar direnean eginiko berreskuratze-prozeduran, Zerga Administrazioak soilik egiaztatuko ditu erabaki horren mende dauden betebeharraren elementuak.
2. Prozedura honetan, Administrazioak jarduketa hauek baino ezin izango ditu egin:

- a) Zergapekoek beren aitopenetan emandako datuak eta aurkeztutako frogagiriak edo berariaz eskatzen direnak aztertzea.
 - b) Zerga Administrazioaren esku dauden datu eta aurrekariak aztertzea.
 - c) Zergei buruzko araudiak ezarritako erregistroak eta gainerako agiriak eta izaera ofizialeko beste edozein liburu, erregistro edo dokumentu aztertzea, merkataritzako kontabilitatea barne; era berean, liburu, erregistro eta dokumentu horietan jasotako eragiketak justifikatzeko fakturak edo agiriak aztertzea.
 - d) Hirugarrenei informazioa eskatzeko errekerimenduak egitea.
3. Prozeduraren jarduketak Zerga Administrazioaren bulegoetatik kanpo egin ahal izango dira; horretarako, aplikatzekoak izango dira foru arau honetako 135. artikuluko 2. zenbakian eta 139. artikuluan jasotako arauak.
 4. Ulertuko da estatu-laguntza berreskuratu behar den ala ez erabakitze baina ez dela egin aurreko zenbakietan aipatu den dokumentu eta agirien azterketa, egitate edo dokumentu horiek ondoren egiaztatzea eragotzi edo mugatu gabe.

263. Hasiera.

1. Berreskuratzeko erabakiak eragindako zerga-betebeharraren elementuak erregularizatu behar direnean eginiko berreskuratze-prozedura ofizioz hasiko da, Zerga Administrazioaren erabakiz.
2. Prozeduraren jarduketan hasiera jakinarazi behar zaie zergapekoei, jakinarazpen baten bidez, non adieraziko zaien zer den jarduketaren izaera, zein hedadura eta zein diren jarduketaren barruan dituzten eskubideak eta betebeharrak.

Zerga Administrazioaren esku dauden datuak likidazio-proposamena egiteko nahikoak direnean, proposamen hori jakinarazita hasi ahal izango da prozedura.

264. Izapidetzea.

1. Foru arau honetako 97. artikuluko 8. zenbakian adierazitako jakinarazpen eta eginbideetan dokumentatutako dira erabakiak eragindako zerga-betebeharraren elementuak erregularizatu behar direnean eginiko berreskuratze-prozeduraren jarduketak.
2. Zergapekoak behartuta egongo dira Zerga Administrazioari kasu egiteko eta laguntza emateko bere eginkizunak bete ditzen.

Zergapekoa, hala eskatzen bazaio, jarduketak egiteko adierazitako lekuan, egunean eta orduan pertsonatu beharko da, eta eskatutako dokumentazioa eta gainerako elementuak aurkeztu edo Administrazioaren esku jarri beharko ditu.

3. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, Zerga Administrazioak likidazio-proposamena jakinarazi beharko dio zergapekoari, hamar eguneko epean bere eskubidez egoki deritzona alega dezan.

265. Amaiera.

1. Erabakiak eragindako zerga-betebeharraren elementuak erregularizatu behar direnean, Zerga Administrazioaren esanbidezko ebazpen bidez amaituko da berreskuratze-prozedura. Erabaki horretan, eduki hau behintzat jaso beharko da:
 1. Berreskuratzeko erabakiak eragindako zerga-betebeharraren elementuak eta jarduketaren denbora-eremua.
 2. Ebazpena arrazoitzen duten egitateen eta zuzenbideko oinarrien zerrenda.

3. Behin-behineko likidazioa edo, hala badagokio, berreskuratzeko erabakiaren ondorioz zerga-egoera erregularizatu behar ez dela jasotzen duen esanbidezko adierazpena.
2. Foru arau honetako 102. artikuluan araututako prozeduraren iraupen-epea ez betetzeak ez du ekarriko prozedura iraungitzea, amaitu arte jarraituko baitu.

Kasu horretan, preskripzioa ez da etentzat joko epe horretan eginiko administrazio-jarduketak direla-eta. Kasu horretan, preskripzioa etentzat joko da aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu ondoren interesdunari formalki jakinarazitako jarduketak egiteagatik.

3. Ebazpen judizialean formazko akatsak daudenean eta administrazio-jarduketak atzera eramateko agindua dagoenean, jarduketok atzera eramaten diren unetik foru arau honetako 102. artikuluan adierazitako epea amaitu arte doan aldian amaitu beharko dira, edo hiru hilabeteko epean, azken epe hori luzeagoa bada. Estatu-laguntzak berreskuratzeko prozedura berriro hasteko eskumena duen organoak espedientea jasotzen duenetik hasiko da zenbatzen epea.
4. Aurreko zenbakian aipatutako ebazpen judiziala betearazteak ez du inola ere ekarriko zergapekoarengandik berreskuratutako zenbatekoak itzultzea; izan ere, Zerga Administrazioan gordailuan geratuko dira prozedurari amaiera ematen dion administrazio-egintzan xedatutakoaren arabera aplikatu arte.

III. KAPITULUA

BERRESKURATZE-PROZEDURA BESTE KASU BATZUETAN

266. Berreskuratze-prozedura beste kasu batzuetan.

1. Berreskuratzeko erabakia betearazteak zerga-betebeharra erregularizatzea ez badakar, kapitulu honetan ezarritakoa izango da jarraitu beharreko prozedura.
2. Berreskuratzeko erabakia betearazteko, foru honetako 166. artikuluan Zerga Administrazioari aitortzen zaizkion ahalmenak izango ditu organo eskudunak, bai eta artikuluko horretan ezarritako baldintzak ere.

267. Hasiera.

Berreskuratze-prozedura ofizioz hasiko da, Zerga Administrazio-aren erabakiz.

Prozeduraren jarduketan hasiera jakinarazi behar zaie zergapekoei, jakinarazpen baten bidez, non adieraziko zaien zer den jarduketan izaera eta zein diren jarduketan barruan dituzten eskubideak eta betebeharrak.

Hasiera emateko jakinarazpenean, ebazpen-proposamena jasoko da, eta zergapekoari hamar eguneko epea emango zaio bere eskubidez egoki deritzona alegatzeko.

268. Amaiera.

1. Zerga Administrazioaren esanbidezko ebazpen bidez amaituko da berreskuratze-prozedura; ebazpen hori jakinarazteko lau hilabeteko epea egongo da zergapekoari prozeduraren hasiera jakinarazi zaionetik, salbu eta berreskuratzeko erabakian beste epe bat ezartzen bada. Puntu honetan, aplikatzekoa izango da foru arau honetako 265. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoa.
2. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean, eduki hau behintzat jasoko da:
 - a) Berreskuratzeko erabakiari dagokionez Zerga Administrazioak aurretik emandako ebazpena aldatzeko erabakia edo, hala badagokio, berreskuratzeko erabakiaren ondorioz ezer ere aldatu behar ez dela jasotzen duen esanbidezko adierazpena.

- b) Ebazpena arrazoitzen duten egitateen eta zuzenbideko oinarrien zerrenda.
 - c) Likidazioa, berreskuratzeko erabakia betearazteak zerga-zorra badakar; bereziki, zor hori foru arau honetako 260. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera sortutako berandutze-interesetatik badator.
3. Ebazpen judizialean formazko akatsak daudenean eta administrazio-jarduketak atzera eramateko agindua dagoenean, jarduketok atzera eramaten diren unetik artikuluko honetako 1. artikuluan adierazitako epea amaitu arte doan aldiari amaitu beharko dira, edo bi hilabeteko epean, azken epe hori luzeagoa bada. Estatu-laguntzak berreskuratzeko prozedura berriro hasteko eskumena duen organoak espedienteak jasotzen duenetik hasiko da zenbatzen epea.
 4. Aurreko zenbakian aipatutako ebazpen judiziala betearazteak ez du inola ere ekarriko zergapekoarengandik berreskuratutako zenbatekoak itzultzea; izan ere, Zerga Administrazioan gordailuan geratuko dira prozedurari amaiera ematen dion administrazio-egintzan xedatutakoaren arabera aplikatu arte.

XEDAPEN ERANTSIAK

Lehenengo Xedapen Gehigarria. Ordainarazpen parafiskalak.

1. Izaera publikoko ondare-prestazioak dira Konstituzioaren 31.3 artikuluan zehazten direnak, nahitaez bete beharrekoak.
2. Aurreko zenbakian adierazitako ondare-prestazioak tributu izaerakoak edo tributu izaerarik gabek izan daitezke.

Tributu izaerako prestaziotzat hartuko dira 1. zenbakian zehaztutakoak, foru arau honen 16. artikuluan xedatutako tasa, kontribuzio berezi eta zergatzat hartzen direnak.

Tributu izaerarik gabeko ondare-prestazio publikoak izango dira nahitaez eskatzen diren gainerako ondare-prestazioak, baldin eta interes orokorrekoak badira.

Zehazki, tributu izaerarik gabeko ondare-prestazio publikotzat hartuko dira halakotzat jotzen direlarik pertsonifikazio pribatu baten edo zeharkako kudeaketaren bitartez zuzenean kudeatzen den zerbitzu baten prestazioa dela eta eskatzen direnak.

Hau da, halakotzat joko dira obren ustiapenagatik edo zerbitzu-prestazioarengatik eskatzen direnak, emakida-araubidean edo ekonomia mistoko sozietateen, enpresa-erakunde publikoen, kapital-sozietate publikoen eta zuzenbide pribatuko gainerako formulen bitartez

Bigarren Xedapen Gehigarria. Zentsu-aitorpenak.

1. Zentsu-aitorpenak Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu behar dizkiote enpresa-jarduerak edo lanbide-jarduerak Bizkaian gauzatzen dituzten edo gauzatuko dituzten pertsonak edo erakundeak, bai eta atxikipena egitea dakarten etekinak lortzen dituztenek ere; baldin eta euren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan badute edo, ez eduki arren, Aldundiari ondoko aitorpenetako bat aurkeztu behar diotenek:
 - Atxikipenen eta konturako sarreraren aitorpena.
 - Sozietateen gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa.
 - Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa.

Betebehar bera izango dute egoitza fiskala Bizkaia Lurralde Historikoan duten errenta-eratzikipenaren araubideko erakundeetako (nortasun juridikoa izan zein ez izan) kideek, baldin eta jarduera egoitza fiskala Bizkaitik kanpo duen erakunde baten bidez egiten badute.

2. Esportatzaileen eta merkataritzako araubideko beste eragile ekonomiko batzuen erregistroan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 116. artikuluan araupetutako itzulketarako eskubidea duten enpresaburuak eta profesionalak sartuko dira.
3. Zerga Administrazioa, Zergadunen Zentsuarekin batera, Batasunaren barruko eragileen zentsuaz arduratuko da. Zentsu horretan, alta emango dute batasunaren barruan ondasunen gaineko emateak eta eskurapenak egiten dituzten eta arauz ezarritako baldintzen arabera zerbitzuak ematen dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek.
4. Araudi bidez zehaztuko dira zentsu-aitorpenen edukia, forma eta beraiek aurkezteko epea.

Hirugarren Xedapen Gehigarria. Identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Pertsona fisiko eta juridiko guztiek eta foru arau honen 34. artikuluko 3. zenbakian aipatzen dinen nortasun juridikorik gabeko entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute zergen arloko harremanetarako edo zerga-ondorioak sortzen dituztenetarako.

Tributu-administrazioak emango du identifikazio fiskaleko zenbakia, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskatu beharko diote Bizkaiko Foru Aldundiari beren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean.

Establezimendu iraunkorrik gabeko entitate ez-egoiliarrek identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskatu beharko diote Bizkaiko Foru Aldundiari baldin eta tributu-izaera edo -eragina duten egintza edo eragiketak egin nahi badituzte Bizkaiko Lurralde Historikoan, salbu eta aurretik beste tributu-administrazio batek eman badie identifikazio fiskaleko zenbakia.

2. Erregelamendu bidez arautuko da identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu, errebokatu eta osatzeko prozedura, bai eta tributu-izaera edo -eragina duten harremanetan erabiltzeko modua ere. Era berean, erregelamendu bidez, ezarri ahal izango da zer informazio-betebehar dituzten kreditu-entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia dela eta.
3. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatzea egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean, salbu eta egiaztatu eta ikertzeko eskumena beste administrazio bati badagokio, kasu horretan administrazio horri egokituko zaio.

Establezimendu iraunkorrik gabeko entitate ez-egoiliarrek badira, zenbakia esleitu duen administrazioa izango da errebokazioa egiteko eskuduna.

4. Pertsona juridikoei edo entitateei esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiaren errebokazioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen bada, zenbaki horrek ez du baliorik izango eremu fiskalean identifikatzeko.

Halaber, argitalpen horren arabera, kreditu-entitateek ez dute zordunketarik edo ordainketarik egingo ezeztatutako zenbaki horien titularrak titular edo baimendu gisa agertzen diren bankuko kontu edo gordailuetan, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen denean izan ezik.

Errebokazioa erakunde baten identifikazio fiskaleko zenbakiari badagokio, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeak berekin ekarriko du notarioa abstenitzea borondate-aitorpenei buruzko edozein tresna publiko, adostasuna ematea dakarten egintza juridikoak, kontratuak eta edozein motatako negozio juridikoak baimentzeko, baita edozein erregistro publikotan sartzeko debekua ere, administrazio-erregistroak barne, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen ez bada.

1862ko maiatzaren 28ko Notariotzaren Legearen 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren eskritura publikoetan, Notariotzaren Kontseilu Nagusiak, lege horren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, notarioari identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazteko betebeharra bete ez duten eragiketei buruzko informazioa emango dio Zerga Administrazioari, baita, hala badagokio, erabilitako ordainbideak eta ordainbideak ere. Datu horiek indize informatizatuetan jaso beharko dira.

Era berean, Notariotzaren Kontseilu Nagusiak sistema automatizatu bat ezarriko du notarioak, haren bidez, zergen administrazioari identifikazio fiskaleko zenbaki ezeztatua eta birgaitu gabea duten eta dokumentu publiko bat eman nahi izan duten erakunde juridikoen identifikazioa eman diezaion.

Errebokazioak eragiten dion entitatea inskribatuta dagoen erregistro publikoak, entitate motaren arabera, bazterreko ohar bat egingo du entitate horri irekitako orrian. Ohar horretan jasoko da hemendik aurrera ezingo dela entitate horri eragiten dion inskripziorik egin, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen ez baldin bada.

Salbuespen gisa, aurreko paragrafoan aipatutako bazterreko oharra ezerezteko ezinbestekoak diren izapideak egitea onartuko da.

Era berean, baliogabetutako zenbakiaren erakunde titularren erregistro-ziurtagiri guztietan zenbaki hori baliogabetuta dagoela jaso behar da.

Apartatu honetan xedatutakoak ez du eragotziko Zergen Administrazioak egiteke dauden zerga-betebeharrak betetzeko eskatzea. Hala ere, ezeztatutako identifikazio fiskaleko zenbakia duten autolikidazioak, aitopenak, komunikazioak edo idazkiak onartzeko, identifikazio fiskaleko zenbaki hori birgaitu egin beharko da, erregelamenduz ezarritako moduan.

5. Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeko prozeduraren ondorioak bermatzeko kautela-neurriak hartu ahal izango ditu Zerga Administrazioak, baldin eta agertzen diren zantzu arrazionalak pentsarazten badute bestela ezinezkoa izango dela arian dagoen prozedurarekin lortu gura den helburua lortzea edo horretarako zailtasun handiak egongo direla.

Kautela-neurriok behar bezala funtsatu behar dira eta identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeko proposamena jasotzen duen ebazpen-proposamenarekin batera jakinarazi behar dira, eta berariaz adierazi behar da zein diren neurriok hartzea gomendatzen duten arrazoiak, egoki deritzen alegazioak egin ahal izan ditzan zergapekoak.

Kautela-neurriok haiekin saihestu nahi den kaltearen proportziokoak izan behar dute eta ezingo dute, inoiz, kalte konpongaitz edo konponezinik eragin. Neurriok hauek izan daitezke:

- a) Zerga Administrazioak egin behar dituen zerga-itzulketen eta bestelako ordainketen ordainketak atxikitzea.
- b) Kautelaz baja ematea Europako Erkidego barruko eragileen Erregistroan.
- c) Kautelaz baja ematea BEZaren Hileko Itzulketen Erregistroan.
- d) Zergapekoak dituen kontuen edo gordailuen enbargo prebentiboa, eta, halakorik eginez gero, enbargo hori segurtatzeko idatz-ohar prebentiboa egingo da.

Laugarren Xedapen Gehigarria. Prozedura konkurtsalak.

Foru arau honetan xedatutakoa, indarrean dagoen konkurtsoei buruzko legerian aurreikusitakoari kalterik egin gabe aplikatuko da.

Bosgarren Xedapen Gehigarria. Informazioa eman beharrari buruzko eskumenak.

Ohorerako, norbanakoaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubideen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoko 8. artikuluko 1. idatz-zatiaren arabera, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak, Ogasuneko zuzendari nagusiak edo toki-entitateen gobernu-organismoek izango dute horretarako eskumena.

Seigarren Xedapen Gehigarria. Erantzukizun zibila ordainaraztea eta Ogasun Publikoaren aurkako delitua dela-eta isuna jartzea.

1. Ogasun Publikoaren aurkako delituaren ondoriozko prozeduretan, premiamenduzko administrazio-prozedura bidez eskatuko da erantzukizun zibila; erantzukizun zibilean, Zerga Administrazioak preskripzioa dela-eta edo foru arau honetan jasotakoaren arabera beste lege-arrazoi bat dela-eta likidatu ez duen zerga-zorren zenbatekoa, haren berandutze-interesak eta isun-zigorra sartuko dira.
2. Epaia irmoa denean, betearazteko eskumena duen epaileak edo auzitegiak testigantza igorriko die Zerga Administrazioari organoei, ordainarazpena agintzeko. Modu berean jokatu da epaileak edo auzitegiak errekurritu den epai baten behin-behineko betearazpena erabaki duenean.
3. Zigor Kodeko 125. artikuluekin bat erabaki bada erantzukizun zibilaren edo isunaren ordainketa zatikatzea, epaileak edo auzitegiak horren berri emango dio Zerga Administrazioari. Kasu horretan, premiamendu-prozedura hasiko da zatikatze hori egiteko ezarritakoa betetzen ez bada.
4. Zerga Administrazioak betearazpenaren izapideen eta, hala badagokio, gorabeheren berri emango dio epaileari edo auzitegi epai-emaileari, Espainiako Konstituzioko 117.3 artikuluen ondorioetarako.
5. Zenbatekoak ordainarazteko edapen gehigarri honetan adierazitako adierazitako eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio baldin eta Ekonomia itunean ezarritakoaren arabera berari badagokio ikuskapen-eskumena, eta ondorioak sortuko ditu administrazio eskudun guztien aurrean, administrazio horiei aplikatu beharreko tributazio-proportzioa barne; halaber Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio zenbateko guztien kobrantza egitea, gerora administrazioen artean konpentsazioak egin badaitezke ere

Zazpigarren Xedapen Gehigarria. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ofizioz egindako itzulketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko 4. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«4. Itzulketa egiteko epea igaro bada eta oraindik, Zerga Administrazioari egozteko moduko arrazoren bat dela medio, erabakirik hartu ez bada, itzuli beharreko zenbatekoari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen den berandutza-interesa aplikatuko zaio, epe hori amaitu den egunaren biharamunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen dela jasotzen duen erabakia hartzen den egunera arte. Zergadunak ez du hala eskatu beharrik izango.».

Zortzigarren Xedapen Gehigarria. Sozietateen gaineko Zergan ofizioz egindako itzulketa.

Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 132. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezartzen den epea igaro bada eta oraindik, Zerga Administrazioari egozteko moduko arrazoiaren bat dela medio, itzulketa egiteko erabakirik hartu ez bada, itzuli beharreko zenbatekoari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen den berandutza-interesa aplikatuko zaio, epe hori amaitu den egunaren biharamunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen dela jasotzen duen erabakia hartzen den egunera arte. Zergadunak ez du hala eskatu beharrik izango.».

Bederatzigarren Xedapen Gehigarria. Balio Erantsiaren gaineko Zergan ofizioz egindako itzulketa.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 115. artikuluko Hiru puntua aldatu da eta honela geratu da:

«Hiru. Artikulu honetan eta hurrengoan aipatutako kasuetan, Administrazioak, hala denean, behin-behineko likidazioa egingo du zerga-zoraren itzulketa eskatzen den aitorten-likidazioa aurkezteko ezarritako epea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan. Hala ere, aitorten-likidazioa aurkezpen-epe horretatik kanpo aurkezten bada, aurkezten denetik hasita zenbatuko dira sei hilabeteak.

Aitorten-likidaziotik edo, hala denean, behin-behineko likidaziotik itzultzeko kopurua ateratzen denean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du kopuru hori. Hala ere, gero egin ahal izango dira bidezko diren likidazioak, behin-behinekoak edo behin-betikoak.

Behin-behineko likidazioa idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epean egin ezean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du eskatutako kopuruaren zenbateko osoa. Hala ere, gero egin ahal izango dira bidezko gertatzen diren likidazioak, behin-behinekoak edo behin-betikoak.

Idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan ezartzen den epea igaro bada eta oraindik, Zerga Administrazioari egozteko moduko arrazoiaren bat dela medio, itzulketa egiteko erabakirik hartu ez bada, itzuli beharreko zenbatekoari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen den berandutza-interesa aplikatuko zaio, epe hori amaitu den egunaren biharamunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen dela jasotzen duen erabakia hartzen den egunera arte.

Zergadunak ez du hala eskatu beharrik izango. Arauz zehaztuko dira idatz-zati honetan aipatutako ofiziozko itzulketako ordainketaren prozedura eta era.».

Hamargarren Xedapen Gehigarria.

7893/99 zenbakidun kasazio-errekurtsoaren gain emandako epaiak, nolanahi ere, ondorenak sortarazi baino lehen amaitutako zergaldiei dagozkienetan, Sozietateen gaineko Zerga sortzen den egunean indarrean den arautegian ezarritakoa aplikatuko da.

Xedapen gehigarrietatik hamargarrena, Euskal Autonomia Erkidegoko JANren 2008ko urtarilaren 14ko 10/2008 Epaia bidez ezeztatu dena (Administrazio Auzietarako Sala, 1. Atala). Berretsi egin da Auzitegi Gorenaren 1207/2008 apirilaren 3ko Epaia bidez ezeztapena (Administrazio Auzietarako Sala, 2. Atala), rec. 1207/2008.

Hamaikagarren Xedapen Gehigarria. Perituaren tasazio kontrajarria Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan.

Ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauko 17. artikuluko 6. idatz-zatian paragrafo bat gehituko da, hain zuzen:

«6. Interesdunek perituaren tasazio kontrajarria gauzatzea sustatu ahal izango dute.

Perituak ondasun eta eskubideen balioaren gainean ados ez badaude eta Administrazioako perituaren tasazioak interesdunaren perituak egindakoarekin erkatuta gehienez %10eko aldea badu, zerga-oinarria zehazteko Administrazioako perituak egindako tasazioari emango zaio lehentasuna. Administrazioako perituak egindako tasazioa aipatu muga gainditzen badu, organo eskudunak hirugarren peritu bat izendatuko du.»

Hamabigarren Xedapen Gehigarria. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko uztailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren aldaketa.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko uztailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 11. artikuluari 9. idatz-zatia gehitu zaio; hona testua:

«9. Aurreko idatz-zatietan ezarritako eskuordetza-kasuetan ez ezik, Foru Aldundiak ondoko kasuan ere eman ahal izango ditu zergei buruzko foru dekretu arauemaileak: helburu bakarra Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzea denean, baldin eta Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoaren arabera Lurralde Historikoan araubide erkideko lurraldean dauden funtsezko eta erazko arau berberak izan behar dira aginduzko.

Era berean, Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, premiazko arrazoiak direla medio eman ahal izango ditu foru dekretu arauemaileak, zergei buruzko arauen bat ezarri edo egokitu behar bada.

Batzar Nagusiei idatz-zati honetan aipatutako foru dekretu arauemaileen onespeneren berri eman behar zaie, berrets ditzaten.»

Hamahirugarren Xedapen Gehigarria. Bizkaiko Foru Administrazioaren tasa, prezio publiko eta gainontzeko zerga-baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauaren aldaketa.

Bizkaiko Foru Administrazioaren tasa, prezio publiko eta gainontzeko zerga-baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauaren aldaketa

«7. Artikulua.-Tasaren kontzeptua.

Tasak tributatuak dira eta beraien zerga-egitateak hauek dira: herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea eta zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea zuzenbide publikoko erregimenean, hain zuzen ere zergadunei dagozkienak, haiek ukitzen dituztenak edo haiei onura ekartzen dietenak, baldin eta zerbitzu edo jarduera hauek ez badituzte zergadunek eskatzen edo ez badituzte euren borondatez jasotzen eta ez badituzte egiten sektore pribatukoak.

Zerbitzuak edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean eman edo egin direla ulertuko da administrazio-legerian zerbitzu publikoa kudeatzeko ezarritako moduetako baten bidez burutzen direnean eta horien titularra ente publikoa denean.»

Hamalagarren Xedapen Gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren aldaketa.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekinaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 53. artikuluko 7. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«7. Erregimen honetako ontzi bat eskualdatuta sortzen den errenta positiboa edo negatiboa aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuta kalkulaturako zerga-oinarrian integratutzat joko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, erakunde batek erregimen hau hautatzen badu Sozietateen gaineko Zergaren erregimen orokorrean ordaindu ondoren, erregimena aplikatzen zaion lehenengo ekitaldian erreserba baliarezin bat eratu behar du erregimen bereziari heldu dionean titular izan den ontzi bakoitzeko, hain zuzen ere haren merkatuko balio arruntaren eta kontabilitateko balio garbiaren arteko diferentzia positiboaren bestekoa, edo bestela titulartasunari eusten dion ekitaldi guztietan ontzi bakoitzaren balio bi horien arteko diferentzia zehaztu beharko du urteko kontuen memorian. Gauza bera egin behar da erregimena aplikatzen hasi ondoren eskuratzen diren ontzi erabiliek, baina hauen kasuan erreserbaren kopurua ontziaren eskuraketa-balioaren eta merkatuko balioaren arteko diferentzia positiboa izan behar da.

Halaber, foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluko erregimen berezia aplikatu den eragiketa baten bidez eskuratutako ontzien kasuan, kontabilitateko balio garbia erakunde esku aldatzailearen kontabilitatean ageri den eskuraketa-balioa oinarritzat hartuta kalkulaturako da.

Erreserba baliatzea edo memorian aipamena egin beharra ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da eta zehapena ekarriko da: aipatutako diferentziaren %5eko isuna.

Aurreko paragrafoaren arabera ezarritako zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Erreserba hau ez da zergapetuko, berari dagokion ontzia aurreko 2. idatz-zatian adierazitako jarduerari ez beste bati atxiki edo besterendu ezean.»

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekinaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 70. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«2. Betekizun hau ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da. Zehapena 3.000 euroko isun finkoa izango da betekizuna betetzen ez den zergaldi bakoitzeko, baldin eta horren inguruko administrazio-errekerimendurik izan ez bada. Administrazioak errekerimendua egin badu, 6.000 euroko zehapena ezarriko da errekerimenduaren ondoren betekizuna betetzen ez den zergaldi bakoitzeko.

Arau-hauste honen erantzule subsidiarioak izango dira sozietatearen administratzaileak, aurreko idatz-zatian ezarritakoa behar bezala betetzeko neurriak berariaz proposatzen dituztenak salbu, nahiz eta gainontzeko administratzaileek onartu ez.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie».

3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekinaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 77. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«4. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako akordiorik egon ezean, ezin izango aplikatu zerga-baterakuntzaren erregimena.

Etorkizunean zerga-taldean sartu behar diren sozietateei dagozkien akordioak ez egotea erakunde nagusiaren zergen arloko arau-haustea izango da. Erregimena betekizun hau bete gabe aplikatzen den lehenengo zergaldian zehapena 1.000 euroko isun finkoa izango da eta 4.000 eurokoa bigarrenengan. Zehapenak ez du eragotziko ukituriko erakundeak aipatutako taldean sartzea. Baldin eta Zerga zerga-baterakuntzaren erregimenean ordaindu behar duten lehen zergaldia amaitu eta hurrengo egunetik zenbatu beharreko bi urteko aldi artikuluko honetan aipatutako akordioa lortzen ez bada, ezin aplikatu izango da erregimen hori.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie».

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekinaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 100. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«4. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da. Zehapena 200 euroko isun finkoa izango da ematen ez den datu bakoitzeko eta urtero informazio hori ematen ez den lehenengo hiru urteetan, eta 1.000 eurokoa hortik aurrerako urte bakoitzeko; nolanahi ere, isunak muga izango du: erakunde eskuratzaileak eskualdatutako ondasun eta eskubideei kontabilitatean ezarritako balioaren %5.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie».

5. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekinaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 128. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«2. Aurreko idatz-zatian ezarritako betebeharra ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da.

Arau-hauste hori behin bakarrik zehatuko da eta birbalarazio-zenbatekoaren %5eko isuna ezarriko da. Ordainketak ez du ekarriko diru kopuru hori Zergari dagokionez birbalarizatutako ondare-elementuaren balioari gehitzea.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie».

Hamabosgarren Xedapen Gehigarria. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren aldaketa.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauko 9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«3. 1. idatz-zatian aipatutako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da eta 6.000 euroko isunarekin zehatuko da.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie».

Hamaseigarren Xedapen Gehigarria. Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 17ko 11/1991 Foru Arauaren aldaketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 17ko 11/1991 Foru Arauko 6. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatu dira eta honela geratu dira:

«1. Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren subjektu pasiboek, aurreko artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran aipatutakoek, establezimendu iraunkorraren bitartez badihardute edo Espainiako lurraldean duten ondarearen kopuru eta izaera kontuan hartuta Zerga Administrazioak eskatzen badie, Espainiako egoiliar den pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute euren ordezkaria izan

dadin zerga honekiko betebeharretan Zerga Administrazioaren aurrean. Izendapen hori (behar bezala egiaztatuta) jakinarazi ere egin beharko dute, zergaren aitorpena egiteko epea bukatu aurretik.

2. Lehenengo idatz-zatian aipatutako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-hastea izango da eta isun finkoarekin zehatuko da: 6.000 euro, ordezkaria izendatu ez bada, edo 3.000 euro, ordezkaria izendatu arren Zerga Administrazioari jakinarazi ez bazaio

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.»

Hamazazpigarren Xedapen Gehigarria. Ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bitartez onetsitako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bateginaren aldaketa.

Ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bitartez one-tsitako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bategineko 41. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«41. Artikulua.-Zehatzeko erregimena.

1. Artikulu honetako hurrengo idatz-zatietan xedatutakoa eragotzi gabe, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arau-haustea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

2. Salbuetsitako eskuraketetako ondasunen edo eskubideen aitorpenak eta autolikidazioak epez kanpo aurkezteagatik eta 19. artikuluan xedatutakoaren arabera txikipenak zerga-oinarriaren bestekoak edo gehiago izateagatik 9.000 euroko isun finkoa ezarriko da subjektu pasibo bakoitzeko.

3. Alkar-poderoso edo testamentu-ahalaren bidez gauzatzen diren jaraunspenen komisarioek foru arau honetako 32. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako betebeharrak berariaz ezarritako epean betetzen ez badituzte, hori zergen arloko arau-haustetzat joko da eta zehapena ezarriko da ondoko erregela hauen arabera:

a) Jaraunspeneko ondasunen inbentarioa edo testamentu-ahalaren frogagiria ez aurkezteagatik 600 euroko isun finkoa ezarriko da.

b) Testamentu-ahala erabili dela edo hura iraungitzeko kausetako bat gertatu dela ez jakinarazteagatik 9.000 euroko isun finkoa ezarriko da

4. Artikulu honetako 2. eta 3. idatz-zatietan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.»

Hemezortzigarren Xedapen Gehigarria. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru. Arauaren aldaketa.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekinaren 30eko 9/1989 Foru Arauko 23. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako aitorpena ez aurkeztea, edo ezarritako epez kanpo aurkeztea, zergen arloko arau-haustea izango da eta 3.000 euroko isun finkoarekin zehatuko da.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.»

Hemeretzigarren Xedapen Gehigarria. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren aldaketa.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 7ko 9/1994 Foru Arauko 170. artikuluko bigarren idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«Bi. Zergen arloko arau-haustea izango dira:

1. Baliokidetasun-errekarguko erregimen berezian dauden subjektu pasiboek ondasunak eskuratzea fakturretan baliokidetasun-errekargua berariaz agertu gabe; horretatik salbu daude horren guztiaren berri Administrazioari arauz ezarrita dagoen bezala ematen dioten eskuratzailleak.

2. Erruzko edo doluzko ekintza edo omisio baten bidez Zerga oker jasanaraztea lortzea, baldin eta haren jasotzaileak ez badu jasandako kuotak oso-osorik kentzeko eskubidea. Arau-haustea izango dira aipatutako eragiketen jasotzaile diren pertsona zein erakundeak, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako ekintza edo omisioen erantzuleak badira.

3. Zergaren subjektu pasibo ez diren pertsonak sartu gabeko zerga-kuotak fakturan bidegabe jasanaraztea.

4. Zergaldi bateko autolikidazioan ez kontsignatzea eragiketen jasotzailea subjektu pasibo izan den kopuruak, foru arau honetako 84. artikuluko edo 85. artikuluko lehen idatz-zatiko 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoaren arabera.»

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 171. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«171. Artikulua.-Zehapenak.

Bat. Aurreko artikuluko bigarren idatz-zatiko arau-haustea ondoko arauen arabera zehatuko dira:

1. Bigarren idatz-zatiko 1. zenbakian aipatutako arau-hausteengatik jasanarazi beharreko baliokidetasun-errekarguren %50eko isun proportzionala ezarriko da; isuna 30 eurokoa izango da, gutxienez, baliokidetasun-errekargua jasanarazi gabe egiten den eskuraketa bakoitzeko.

2. Bigarren idatz-zatiko 2. zenbakian ezarritakoengatik bidegabe lortutako mozkinaren %5eko isuna proportzionala ezarriko da.

3. Bigarren idatz-zatiko 3. zenbakian ezarritakoengatik bidegabe jasanarazitako kuoten %100eko isun proportzionala ezarriko da; gutxienezko zenbatekoa 300 euro izango da arau-haustea gertatzen den faktura edo ordezeko agiri bakoitzeko.

4. Bigarren idatz-zatiko 4. zenbakian ezarritakoengatik autolikidazioan kontsignatu ez diren eragiketen kuotaren %10eko isun proportzionala ezarriko da.

Bi. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko 4. arauan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hiru. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko lehen hiru arauetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Lau. Zerga-onurak lortzeko eskubidearen galera dakarren zehapena ez zaie aplikatuko foru arau honetan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko gainontzekoetan ezarritako salbuespenei.».

Hogeigarren Xedapen Gehigarria. Zerga berezien arloko arau-haustea eta zehapenak.

Bat. Arau orokorrak.

1. Fabrikazioaren inguruko zerga berezien arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimena Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta zerga berezi bakoitzerako xedapen gehigarri honetan ezarritako arau berezietan ezarri da. Berezi, xedapen gehigarri honetan finkatutakoaren arabera ezar-tzen diren zehapenak zergadunaren zerga-egoeraren aurretiazko erregularizazioaren ondoriozkoak direnean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie. Gainontzeko kasuetan, zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.
2. Horrez gainera, xedapen gehigarri honetan aipatutako zergen arloko arau-hausteengatik (idatz-zati honetako 4. zenbakikoa salbu) ondoko zehapenak ezarri ahal izango dira:
 - a) Arau-hausleak titular diren establezimenduak aldi baterako, sei hilabeterako, ixtea (Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak erabaki behar du) edo behin betiko ixtea (erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiak hartu behar du). Establezimendu bat behin betiko ixtea erabaki daiteke aurreko bi urteetan arau-hausleari establezimendua aldi baterako ixtea ekarri duen zehapena ezarri bazaio administrazio-bideko ebazpen irmo bidez zergen arloko arau-hauste batengatik.
 - b) Arau-haustea salmenta automatikorako aparatuen bidez egiten bada, haiek sei hilabetez prezintatzea edota behin betiko inkautatzea. Salmenta automatikorako aparatu bat behin betiko inkautatzea erabaki daiteke aurreko bi urteetan arau-hausleari hura prezintatzea ekarri duen zehapena ezarri bazaio administrazio-bideko ebazpen irmo bidez aparatu horrekin zergen arloko arau-hauste bat egiteagatik.

a) Letra honetan aipatutako zehapenak ezartzeko, arau-hausletzat hartuko dira bai salmenta automatikorako aparatuaren titularra bai hura jarrita dagoen establezimenduaren titularra.

a) Ondoko c) lettran ezarritako kasuetan salbu, zehapen hauek zehapen nagusia jartzeko eskumena izan duen organo berak ezarriko ditu.

- c) Hala ere, b) letrako zehapenak aurreko a) lettran ezarritakoei pilatzen zaizkienean, salmenta automatikorako aparatura behin betiko inkautatuko da, baldin eta establezimendua behin betiko ixtea erabakitzen bada. Pilaketa hau gertatzen den kasuetan, a) lettran aipatutako organoek ezarriko dituzte zehapenak

3. Hauexek dira zerga berezien arloko arau-haustekak:

- a) Zerga berezien kargapeko objektuak fabrikatzea eta inportatzea indarreko arautegian ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe.
- b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak garraiatzea eta edukitzea, merkaturatzeko asmoarekin, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 15. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritakoa bete gabe.

Zenbaki honetan aipatutako arau-hausteengatik produktuen kopuruari dagokion kuotaren %100eko isuna ezarriko da; kuotak kalkulatzeko arau-haustea gertatzen denean indarrean dagoen tasa aplikatuko da.

Zergen arloko arau-haustek behin eta berriro errepikatzen badira, zehapenen zenbatekoari %25 gehituko zaio. Arau-haustea errepikatzea izango da zenbaki honetan ezarritako debekuetako bat hausteagatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.

Era berean, kontrol-arauren bat hausten bada, zehapenaren zenbatekoari %25 gehituko zaio.

4. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapean dauden produktuen zirkulazioa produktuok arau bidez ezarritako agiriak falta dituztela egiteagatik zehapena ezarriko da, baldin eta aurreko hori xedapen gehigarri honetako zerga arloko beste arau-hausteren bat ez bada. Ezarriko den zehapena, hain zuzen ere, zirkulazioan dauden produktuei legokiekeen kuotaren %10eko isun proportzionala (1.200 euro gutxienez).
5. Zerga-markarik edo ezagutzeko markarik ez duten tabako- lanak merkataritza helburuekin edukitzea, arau bidez marka horiek eduki beharra ezarri bada, honela zehatuko da:

- a) 150 euroko isuna, arau-hausleak merkataritza helburuekin dituen markarik gabeko 1.000 zigarretako; gutxienez 1.200 euroko isuna jarriko da arau-hauste bakoitzeko.
- b) 1.200 euroko isuna gainerako tabako-lanen inguruan egindako arau-hauste bakoitzeko.

Horrelako arau-haustek behin eta berriro eginez gero, aurreko a) eta b) letretan ezarritako isunen zenbatekoari %50 gehituko zaio. Kasu honetan ulertuko da arau-haustea errepikatu dela: arauhausleari zenbaki honetan ezarritako arau-hausteetako bat egiteagatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egiten badu.

Bi. Tarteko Produktuen gaineko Zergaren arau-haustek eta zehapenak. Hauexek dira zerga honen arau-haustekak:

- a) Tarteko produktuen fabriketako ardoen edo hartzitutako edarien edo haietan erabilitako produktuen bolumeneko alkohol-gradua behar baino handiagoa izatea.

Zehapena isuna izango da, diferentziari, hektolitro alkohol purutan emanda, dagokion kuotaren %100eko isuna; Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuko da.

- b) Fabrikazio-prozesuan dauden tarteko produktuek, fabrikako izakinek edo handik irtendako produktuek hartutako bolumeneko alkohol-gradua behar baino txikiagoa izatea.

Zehapena isuna izango da, diferentziari, hektolitro alkohol purutan emanda, dagokion kuotaren %100eko isuna; Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuko da.

- c) Tarteko produktuen fabriketan, alkohola zein eratorritako edariak ez beste lehengaietan arauz ezarritako alkohol-portzentajeak gainditzea.

Zehapena isuna izango da, lehengaiak erabiliko ziren tarteko produktuei dagokion kuotaren %100eko isuna; kontrakoa frogatu ezean, uste izango da fabrikazioan erabiltzeko diren tarteko produktuen hartutako bolumeneko alkohol-gradua %15 baino gehiago dela.

Hiru. Alkoholaren eta Eratorritako Edarien gaineko Zergaren arau-hausteak eta zehapenak..

1. Ondoren azalduko direnak zergen arloko arau-hausteak izango dira eta bakoitzari berariazko zehapena ezarriko zaio:
 - a) Araubidez ezarritako izapideak bete gabe edo aitortutako lanaldia bukatuta alkohola produzitzen dute aparatuak abian jartzea; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko da: arau-haustea egiten den unean indarrean dagoen zerga-oinarria azken lan-aitorpena iraungi denetik aurkikuntza egin arte (3 hilabete gehienez) eten gabe lan eginez produzi daitekeen bolumenari (20°C-tan dagoen hektolitro alkohol purutan adierazita) aplikatzearen emaitzako kuotaren %150eko isuna.
 - b) Alkohola sortzeko aparatu baten prezintua apurtzea, abian jar-tzeko, edo biltegiko prezintatua apurtzea aparatua ateratzeko. Arau-hauste honengatik aurreko letraren arabera kalkulaturako kuotaren %100eko isuna ezarriko da aparatuaren prezintua apurtzen bada eta biltegiaren guztirako edukierari dagokion kuotaren %100eko isuna biltegiaren prezintua apurtzen bada. Horretatik salbu daude Administrazioari aurkikuntza egin aurretik prezintu-apurtzearen berri jakinarazten zaion kasuak.
 - c) Alkohol-fabriketan, lehengaiak arauz ezarritako alkohol-portzentajeak gainditzea; arau-hauste honen zehapena lehengai horiez fabrika daitekeen alkohol puruaren kopuruari dagokion kuotaren %100eko isuna ezarriko da.
 - d) Edari eratorriak botilaratzeko baimena duten establezimenduetan botilen 1.000ko 0,5 baino gehiagotan zerga-markarik edo ezagutzeko markarik ez egotea; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko da: marka horiekin merkaturatuko diren edarien alkohol puruaren bolumenaren bolumenari arau-haustea gertatzen denean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatzearen emaitzako kuoten %150eko isuna. Kalkuluak egiteko, edarien bolumeneko alkohol-gradua %40 dela suposatuko da eta baliagarri dauden ontzikirik handienak erabili direla.
2. Erabat edota partzialki desnaturalizatutako alkohola birsortzea arau-haustea da; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko da, zerga-kuota eragotzi gabe: birsortu den alkohol bolumenari (20°C-tan dagoen hektolitro alkohol purutan adierazita) arau-haustea deskribitzean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatzearen emaitzakoa halako hiru den zenbatekoa. Gainera, xedapen gehigarri honetako lehen idatz-zatiko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera, alkohola birsortu den establezimendua itxi ahal izango da. Erabat edota partzialki desnaturalizatutako alkohola birsortu dela uste izango da beraren erabilera edo destinoa frogatzen ez denean.

Lau. Hidrokarburoen gaineko Zergaren arau-haustea eta zehapenak.

1. Zergen arloko arau-haustea da Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 54. artikuluan ezarritako erabileraren inguruko debekuak eta mugak ez betetzea. Arau-hauste horien zehapenak idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezarriko dira; hori gorabehera, zergen arloko beste arau-hauste batzuegatik ere ezarri ahal izango dira zehapenak, xedapen gehigarri honetako lehen idatz-zatian xedatutakoaren arabera.
2. Aurreko zenbakian aipatutako arau-hausteen erantzukizuna egozteko, ondokoak hartuko diren arau-hausletzat:
 - a) Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 46. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako hidrokarburoak baimenik gabe erregai moduan erabiltzen dituztenak.
 - b) Berariaz baimenduta ez dauden erregaiak erabiltzen dituzten motordun ibilgailu, ontzi eta makinarien titularrak, nahiz eta titularrak berak gidatu ez, zenbaki honetako c) letran eta hurrengo zenbakian aipatutako kasuetan salbu.
 - c) Aurreko letran aipatutako ibilgailuen eta ontzien errentariak, gidari edo patroik gabe erabiltzeko aloger-kontratua dagoenean, baldin eta arau-haustea kontratua burutzen denetik titularrari makineria, ibilgailua edo ontzia itzuli arteko aldiaren deskubritzen bada.
3. Lapurretetan, ibilgailu edo ontzien titularrei ezin izango zaizkie egotzi salaketatik berreskuratu arteko aldiaren deskubritutako arau-haustea.
4. Arau-hausleei zehapen hauek jarriko zaizkie:
 - a) Arau-haustea egiteko erabili den ibilgailuaren, artefaktuaren edo ontziaren motorrak 10 CV arteko potentzia fiskala badu, 2.400 euroko isun finkoa.
 - b) 10 CV-tik gorako eta 25 CV arteko potentzia fiskala duten motorrak badira, 7.200 euroko isun finkoa.
 - c) 25 CV-tik gorako eta 50 CV arteko potentzia fiskala duten motorrak badira, 14.400 euroko isun finkoa.
 - d) 50 CV-tik gorako potentzia fiskala duten motorrak badira, 24.000 euroko isun finkoa.
 - e) Aurreko 2. zenbakiko a) letran aipatutako kasuetan, zehapena 2.400 euroko isun finkoa izango da.
5. Arau-hauste hauek behin eta berriro errepikatuz gero, zehapenen zenbatekoak eta aldiak aurreko zenbakikoak halako bi izango dira.

Arau-haustea errepikatzea izango da Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 54. artikuluan ezarritako debekuetako bat hausteagatik administrazio-bidean ebazpen irmoaren bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.
6. Analisirako laginen erazketaren kasuan, interesduna ez badago ados Zerga Berezien Erregelamenduaren 121.4 artikulua aipatzen duen irizpen analitikoarekin, beste analisi bat egiteko eskatu ahal izango dio zehapen-espeditentia ebazteko ardura duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazten denetik kontatzen hasita, arrazoiak emanda betiere, eta horretarako behar den informazio justifikatzaile guztia erantsita. Bigarren analisia interesdunaren aurrean edo horretarako beren beregiko ahalordea duen ordezkariaren aurrean egiteko eskatu ahal izango du interesdunak.

Horretarako, zehapen-espedita ebatzeko ardura duen organoak, bigarren analisi-eskaera eta hari erantsitako dokumentazioa aztertu ondoren, baimendu egingo du, edo, osterantzean, ukatu egin ahal izango du. Ukatzearen aurka -arrazoitze egin beharko da nahitaez-, ez da errekurtsorik aurkeztu ahal izango izapide hutsezko egintza gisa. Edozelan ere, interesdunak dagokion instantziaren aurrean erreproduzitu ahal izango du auzia, kasuaren arabera, bidezko zehapen-prozedura ebatzeko egintza jakinarazi ondoren.

Aduanen eta Zerga Berezien Laborategi Zentrala izango da bigarren analisia egiteko organo eskuduna.

7. Aurreko paragrafoan aipatutako laginak Aduanen laborategira bidaltzen direnetik irizpena jasotzen den arte igarotako aldia, izapidetzen ari den zehapen-prozeduran justifikatutako etenalditzat joko da.

Bost. Gainerako zerga berezien arloko arau-haustea eta zehapenak.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean araututako gainerako zerga berezietan, eta bereziki Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zerga Berezien, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean arau-haustea eta zehapenak buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

Hogeita Batgarren Xedapen Gehigarria. Aseguru Primen gaineko Zergari buruzko irailaren 16ko 2/1997 Foru Dekretu Arauemailearen aldaketa.

1. Aseguru Primen gaineko Zergari buruzko irailaren 16ko 2/1997 Foru Dekretu Arauemaileko 14. artikulua edukia artikulua horretako 1. idatz-zatia izango da oraindik aurrera.
2. Aseguru Primen gaineko Zergari buruzko irailaren 16ko 2/1997 Foru Dekretu Arauemaileko 14. artikulua 2. idatz-zatia gehitu zaio; hona:

«2. Lehenengo idatz-zatia aipatutako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da eta isun finkoarekin zehatuko da: 6.000 euro, ordezkaria izendatu ez bada, edo 3.000 euro, ordezkaria izendatu arren Zerga Administrazioari jakinarazi ez bazaio.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie».

Hogeita Bigarren Xedapen Gehigarria. Hidrokarburu Batzuen. Txikizkako Salmentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 28ko 6/2002 Foru Arauaren aldaketa.

Hidrokarburu Batzuen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 28ko 6/2002 Foru Arauko 13. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«13. Artikulua.-Arau-haustea eta zehapenak.

Zerga honen arau-haustea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko IV. tituluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira; hala ere, hori gorabehera beste zehapen batzuk ere ezarri ahal izango dira foru arau honetako hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera».

Hogeita Hirugarren Xedapen Gehigarria. Bizkaiko Lurralde. Historikoko zerga-arautegia Kontzertu Ekonomiko berrira moldatu duen otsailaren 3ko 2/2003 Foru Arauaren aldaketa.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-arautegia Kontzertu Ekonomiko berrira moldatu duen otsailaren 3ko 2/2003 Foru Arauko xedapen gehigarria aldatu da eta honela geratu da:

«XEDAPEN GEHIGARRIA.

Lurralde erkiderako zerga bereziei buruz ezarritako edo ezartzen den arautegia Bizkaiko Lurralde Historikokoan ere aplikatu ahal izango da ondore eta indarraldi berberekin, horretarako eskumena duten erakundeek berriaz arautzen ez duten bitartean. Estatuko arautegia maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Kontzertu Ekonomikoko 33. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta aplikatuko da. Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du eragotziko Bizkaiko Lurralde Historikoko

Hogeita Laugarren Xedapen Gehigarria. Jurisdikzio ez-kooperatiboaren definizioa.

1. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartuko dira xedapen honetako hurrengo paragrafoetan ezartzen diren irizpideen arabera Ogasun eta Finantza Saileko titularrak zehazten dituen herrialdeak eta lurraldeak, baita zerga-araubide kaltegarriak ere.
2. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialdeen eta lurraldeen zerrenda honako irizpide hauen arabera eguneratu ahal izango da:

a) Gardentasun fiskalaren arloan:

1. Herrialde edo lurralde horrekin zerga-informazioaren trukearen arloko elkarlaguntzari buruzko araudia izatea, foru arau honetan ezarritako moduan.
2. Espainiarekin zerga-informazioaren truke eraginkorra betetzea.
3. Gardentasunerako eta Zerga Helburuekin Informazioa Trukatzeako Foro Orokorrak egindako «inter pares» ebaluazioen emaitza.
4. Benetako titularrari buruzko informazioa benetan trukatzea, kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko Espainiako araudian ezarritako moduan definituta.

a) letra honen ondorioetarako, informazio-truke eraginkortzat jotzen da zerga-informazioaren trukearen arloko elkarrekiko laguntzari buruzko araudia aplikatzea, Zerga Helburuekiko Gardentasunaren eta Informazioa Trukatzeako Foro Orokorrak onartutako erreferentzia-baldintzak kontuan hartuta.

- b)** Herrialde edo lurralde horietan benetako jarduera ekonomikorik islatzen ez duten onurak erakartzera bideratutako lurraldez kanpoko tresnak edo sozietateak egiten edo existitzen laguntzea.

- c)** Tributazioa baxua izatea edo tributaziorik ez izatea.

Herrialde edo lurralde bateko tributazioa baxua da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga bezalako edo antzeko zerga baten karga-tasa askoz baxuagoa denean (0 tasa barne).

Herrialde edo lurralde batean ez dago tributaziorik pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga bezalako edo antzeko zergarik aplikatzen ez bada.

Zerga horiek bezalakotzat edo antzekotzat joko dira errenta, zati batean besterik ez bada ere, kargatzen duten zergak, zergaren xedea errenta bera, sarrerak edo errenta dagoelako zantzua ematen duen beste edozein elementu izatea gorabehera.

3. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren araubide fiskal kaltegarrien zerrenda eguneratu ahal izango da Europar Batasuneko enpresa-fiskalitatearen arloko Jokabide Kodearen edo ELGAko Araubide Fiskal Kaltegarrien Foroaren irizpideen arabera.
4. Zerga bakoitzaren arauak berezitasunak ezarri ahal izango dituzte xedapen honetan jasotako arauen aplikazioan.
5. Xedapen honetan ezarritakoarekin bat etorritik, jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialde edo lurraldeei dagokienez, baldin eta Espainiako Erresumak hitzarmen bat sinatu badu haiekin indarrean dagoen zergapetze bikoitza saihesteko, jurisdikzio ez-

kooperatiboekin lotutako zerga-araudia ere aplikatuko da, betiere hitzarmen horretako xedapenen aurkakoa ez bada.

Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarria. Administrazioaren baimena behar duten araubideak.

Aplikatzeko moduko berariazko araudirik ezean, Zerga Administrazioak ukatu egingo ditu aplikatu ahal izateko administrazio horrenbaimena behar duten araubide bereziak ematea, baldin eta arau-bideotako bakoitzaren baldintzak betetzen ez badira eta behar bestean egiaztaturik ez badago bete egiten dela dena delako araubideberezia ezartzearen helburu nagusia.

Era berean, entitateak araubide berezia ezartzearen helburunagusia betetzen ez duela zirutatuz gero, Zerga Administrazioak ezeztatu egin dezake emandako baimena, ezeztapen-akordioan zehazturiko datan hasita, baina beti ere likidazio bitartez zerga zorrazehazteko administrazio ahalmena preskribatu edo iraungirik duten zerga egitateei eragin gabe, ezta Foru Arau hau indarreansartu aurretik sortutakoei ere.

Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarria. Katastroko erreferentzia eta zenbaki finkoa.

1. Ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia eta zenbaki finkoa agertu beharko dira agerkari publikoetan, judiziozko manamendu eta ebazpenetan, administrazio-espeditante eta ebazpenetan eta jabaria eta haien gaineko gainerako eskubide errealek xede dituzten gertakari, egintza edo negozioak agerrarazten dituzten agirietan, higiezinaren erabileraren errentamendu edo lagapen kontratuetan, lagapena edozein titulu bidez egiten dela ere, energia elektrikoaren hornidurako kontratuetan, proiektu teknikoetan edo ondasun higieziari buruz arau bidez zehazten den beste edozein agiritan. Halaber, Jabetza Erregistroan agerraraziko da, legean aurrez ikusita dauden kasuetan.
2. Honako hauetan ez da katastroko erreferentzia agerrarazi beharko:
 - a) Berme-eskubide errealeen kitapena agerrarazten duten agirietan.
 - b) Zuzenbide publikoko zorrak kobratzeko neurriak hartzen edo deuseztatzen dituzten administrazio-egintzetan.
 - c) Zerga-bilketa araudian araututako ordainketa gerorapenak edo zatiketak xede dituzten prozeduretan, eta zergen arloko egiaztapen, ikerketa eta likidazio prozeduretan, Zerga Administrazioak erreferentzia lehendik ere ezagutzen badu.
 - d) Premiamendu-prozeduretan emandako epai-ebazpenak edo administrazio-ebazpenak betetzeko eta betearazteko egiten diren oharretan.
3. Bizkaiko Lurralde Historikoan eskumena edo jurisdikzioa duten notario, erregistratzaile eta epai zein administrazio organo eta agintariak, ondasun higiezinetan egindako aldarazpenak agerian jartzen dituen egintza, negozio edo prozeduraren bat aurkezten zaienean, higiezinaren identitatea behar bezala frogatzen dadila eskatu behar dute, hau da, katastroko zenbaki finkoa adierazi dadila, hiri ondasunak badira, edo poligonoaren eta lur-zatiaren katastroko erreferentzia, landa ondasunak badira. Hori arauz ezarritako eran egingo dute, ondasunetan eragina duten egintza edo negozioen eta Landa-lurreko eta Hiri-lurreko Higiezinaren Katastroaren arteko koordinazioa ziurtatu eta hobetzeko.
4. Honako hauek ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia nahitaez aurkeztu behar dute:
 - a) Ondasun higiezinaren bat ukitzen duen prozedura bideratzeko eskumena duen agintaritzak judizial edo administratiboaren aurrean, ondasun higiezin horien gaineko eskubide errealeen edo eragina duten eskubideen titularrek.
 - b) Notarioaren aurrean, higiezinaren gainean eratutako egitate, egintza edo negozioa agerrarazten duen notario-agiria eskatzen edo egilesten dutenek.

- c) Jabetza Erregistroan, erregistratzaileari ondasun higiezinaren gaineko erregistro-idazpena egiteko eskatzen diotenek.
- d) Xedapen honen 1. paragrafoan azaltzen den hornidura ematen duten konpainien aurrean, hornidura horiek kontratatzen dituztenek, eta higiezinaren erabileraren errentamendu edo lagapen kontratuetan, errentatzaile edo lagatzaileek.
- e) Aurreko paragrafoetan aurrez ikusitako kasuetatik kanpo, alderdiek edo interesdunek erreferentzia hori beren kabuz agerraraziko dute egilesten edo egiten dituzten agirietan.

5. ...

- 6. Katastroko erreferentzia aurkeztu behar dutenak bat baino gehiago badira, betebeharrak hori haietariko batek betetzen duenean, ulertuko da harekin batera doazen zergadun guztiek bete dutela.

Hogeita Zazpigarren Xedapen Gehigarria. Atzerrian dauden ondasunen eta eskubideen gaineko informazioa eman beharra.

Zergapekoek honako informazio hau eman behar diote Zerga Administrazioari, foru arau honen 17. artikulua 4. apartatua eta 92. artikulua xedatzen denarekin eta arau ezartzen denarekin bat etorritik:

- a) Atzerrian banku- edo kreditu-trafikoan aritzen diren entitateetan irekitako kontuei buruzko informazioa, entitate horien titular edo onuradun badira, edo kontu horietan baimendun gisa agertzen badira edo kontu horiek erabiltzeko ahalmena badute.
- b) Kapital soziala, funts propioak edo era guztietako entitateen ondarea ordezkatzeko duen edozein titulua, aktibo, balore edo eskubideri buruzko informazioa, edo hirugarrenei kapital propioak lagatzeari buruzkoa, baldin eta horien titularrak badira eta atzerrian gordailututa edo kokatuta badaude, bai eta hartzaileak diren bizitza-aseguruei edo baliaezintasun-aseguruei eta, behar bada, onuradun diren biziarteko edo aldi baterako errentei buruzkoa ere.
- c) Atzerrian dituzten beren titulartasunekoak diren ondasun higiezinak eta ondasun higiezinaren gaineko eskubideei buruzko informazioa.
- d) 50.000 eurotik gorako balio unitarioa duten eta deklarazioa egiteko unean atzerrian dauden ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideei buruzko informazioa.
- e) Matrikulatuta dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan jasota dauden ondasun higigarriak eta haien gaineko eskubideei buruzko informazioa.
- f) Erregelamenduz ezartzen diren atzerriko kriptoaktiboak buruzko informazioa, baldin eta zergapekoa haien titularrak edo onuradunak bada edo beste modu batean halakoak xedatzeko ahalmena badu, eta kriptoaktibo horiek hirugarrenei batzuen izenean gako kriptografiko pribatuak gordetzeko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak edo entitateek zaintzen badituzte, kriptoaktiboak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko. Kriptoaktiboaren kontzeptua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko (EB) 2023/1114 Erregelamenduaren 3.1.5) artikuluan definitutako moduan ulertuko da. Erregelamendu hori kriptoaktiboaren merkatuei buruzkoa da, eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937/EB zuzentarauak aldatzen ditu.

Aurreko bost letra horietan ezarritako betebeharrak izango dute, halaber, Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikulua ezartzen denarekin bat titular errealtzat jotzen direnek.

Hogeita Zortzigarren Xedapen Gehigarria. Elkarren laguntzaren eremuan, informazioa emateko betebeharrak duten plataformako operadoreen informazio-aitorpenari dagokionez informazioa emateko eta arretaz jokatzeko betebeharrak.

1. «Informazioa emateko betebeharrak duten plataformako operadore»tzat jotzen diren entitateek arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arau eta prozedurak aplikatu eta erregistro-betebeharrak eta informazioa ematekoak bete beharko dituzte, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis quater artikulua eta V. eranskina (zuzentarau hori da Fiskalitatearen esparruko lankidetzaren administratiboari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentzarua indargabetzen duena); plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Multilateral eta plataformetako operadoreek saltzaileei buruz elkarlaneko ekonomiaren eta noizbehinkako lanaren ekonomiaren arloan informazioa komunikatzeko Arauen Eredua, eta helburu berarekin izenpetutako beste nazioarteko akordio batzuk.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudiaren arabera «saltzaile»tzat jotzen diren pertsonak edo erakundeak arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arauak eta prozedurak aplikatuz eratorritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Erregelamendu bidez garatuko dira arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arauak eta prozedurak, baita apartatu honetan aipatzen diren erregistro-betebeharrak eta informazioa ematekoak ere.

Xedapen gehigarri honetan eta berau garatzeko araudian erabilitako terminoak erregelamenduz ezarritako esanahia izango dute, besterik ezarri ezean.

2. Xedapen gehigarri honetako 1. apartatuan zehazten diren erregistro-betebeharrak eta informazioa ematekoak ez betetzearen ondoriozko arau-hausteak eta zehapenak foru-arau honetako IV. tituluaren ezarritakoaren arabera arautuko dira, xedapen honetan ezarritako berezitasunekin.
3. Tributu-arloko arau-haustea izango da «informazioa emateko betebeharrak duten plataformako operadoreek» 1. apartatuan aipatzen diren arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arauak eta prozedurak ez betetzea.

Zehazki, apartatu honen ondorioetarako, arau-haustetzat hartuko da arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arau eta prozeduretatik eratorritako betebeharrak ez betetzea edo oker edo epea kanpo betetzea, honako hauei dagokienez:

- a) Berrikuspenik behar ez duten saltzaileak zehaztea.
- b) «Saltzaile»ri buruzko informazioa biltzea.
- c) «Saltzaile»ri buruzko informazioa egiaztatzea.
- d) «Saltzaile»ren egoitza zer estatutan dagoen zehaztea (estatu bat edo gehiago).
- e) Alokaturako ondasun higiezinari buruzko informazioa biltzea.

Apartatu honetan aurreikusitako zerga-arloko arau-hausteari 200 euroko diruzko isun finko bat ezarriko zaio, «saltzaile» bakoitzeko, arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arauak eta prozedurak aplikatuz eratorritako betebeharrak bete ez direnean.

«Informazioa emateko betebeharrak duten plataformako operadore» batek kanpoko zerbitzu-emaile baten bidez betetzen baditu arretaz jokatzeko eginbeharrari dagokion betebeharrak, betebeharrak operadorearenak izaten jarraituko dute.

4. Tributuen arloko arau-haustea da «saltzaile»ek «informazioa emateko betebeharrak duten plataformako operadore»ei epean ez jakinaraztea aurreko apartatuan adierazitako arretaz

jokatzeko eginbeharrari dagokion prozeduratik eratorritako betebeharrak bete ditzaten jakinarazi beharreko informazioa, edo informazio faltsua, osatugabea edo zehaztugabea jakinaraztea.

Artikulu honetan aurreikusitako zerga-arloko arau-hausteari 300 euroko diruzko isun finko bat ezarriko zaio.

5. «Saltzaile» batek ez badio «informazioa emateko betebeharra duen plataformako operadore»ari ematen arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arau eta prozeduren arabera eskatutako informazioa eta dagoeneko operadorearen hasierako eskaerari buruzko bi gogorarazpen jaso baditu eta hasierako eskaera egin zenetik 60 egun natural igaro badira, operadore horrek «saltzaile»aren kontua itxiko du eta ez dio utziko berriz plataforman erregistratzen, edo, bestela, atxiki egingo du «kontraprestazioa»ren ordainketa harik eta eskatutako informazioa eman arte.
6. Betebeharpekoiei eska dakizkiekeen deklarazioak, dokumentu-frogak, erregistroak eta arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko prozedurak aplikatu eta xedapen gehigarri honetan aipatzen diren erregistro-betebeharrak eta informazioa ematekoak betetzeko erabiltzen den edozein informazio gorde eta Zerga Administrazioaren eskura mantendu beharra egongo da informazio- emateri dagokion erreferentzia-aldia amaitu eta hurrengo 10 urteetan.

Foru-arau honen arau orokorren arabera xedapen gehigarri honetan aipatzen diren erregistro-betebeharrak eta informazioa ematekoak egiaztatze eta ikertze ahalmenak alde batera utzi gabe, Zerga Administrazioak egiaztatu eta ikertu egin ahal izango du «informazioa emateko betebeharra duten plataformako operadore»ek aplikatu behar dituzten arretaz jokatzeko eginbeharrari buruzko arau eta prozedurak betetzen direla.»

7. «Informazioa emateko betebeharra duten plataformako operadore» orok informazioa eman behar duen «saltzaile» (pertsona fisiko) bakoitzari jakinarazi beharko dio ezen berari buruzko informazioa, xedapen honetan aipatzen dena, Zerga Administrazioari emango zaiola eta dagokion estatuari helaraziko zaiola, 2011/16 (EB) Zuzentarauan ezarritakoaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko akordioen arabera. Era berean, operadoreak behar besteko aurrerapenez emango dio pertsona fisikoari hark jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal dezan, eta, nolanahi ere, operadoreak bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.

Aurreko paragrafoaren azken esaldian xedatutakoa gorabehera, «informazioa eman behar duen plataforma eragile» orok «informazioa eman behar den saltzaile» bakoitza informatu beharko du dagokion estatuari transferitutako «kontraprestazioaz», 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko erabakien arabera.

Hogeita Bederatzigarren Xedapen Gehigarria. Elkarren laguntzaren esparruan kudeatutako kredituen izaera juridikoa.

1. Foru arau honen 1.2 artikuluan aipatzen den elkarren laguntzaren ondorioetarako eta foru arau honen 78.3 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, beste estatu baten edo nazioarteko zein nazioz gairik beste erakunde baten kredituak Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubidetzat hartuko dira, baldin eta Zerga Administrazioak, haiei elkarren laguntza emanez, laguntza-, elkarlan- eta lankidetzak-ekintzak eta antzeko izaera duten beste ekintza batzuk egiten baditu.
2. Elkarren laguntzako ekintzok betearazteko, Bizkaiko Lurralde Historikoko araudiaren arabera jatorrian zuten izaera juridikoa gordeko dute eskubideak eta Zergei buruzko Foru Arauan nahiz foru arau honetan erregulatzen den araubide juridikoa aplikatuko zaie.

Hogeita Hamargarren Xedapen Gehigarria. Zerga-erroldak eguneratzeko informazio-betebeharrak.

Foru arau honetako 93.1 artikuluan jasotakoarekin bat etorrira, identifikazio fiskaleko zenbakia emateko eskumena duen herri-administrazioak hiru hilabete behin jakinaraziko dio Zerga

Administrazioari zein diren zenbaki hori eta pasaporte-zenbakia ematen zaizkien pertsonen izen-abizenak, sexua, jaiotze-data eta jaioterria, identifikazio fiskaleko zenbakia eta (hala badagokio) pertsona horiek Espainian duten helbidea, betirere zenbaki hori Bizkaiko Lurralde Historikoan eman bada edo pertsona horiek adierazitako helbidea lurralde historiko horretan badago.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko ditu xedapen gehigarri honetan aipatutako aitorten informatiboa aurkezteko ereduak, modua eta epea.

Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarria. Elkarren laguntzaren eremuan, finantza-kontuen inguruan informazioa emateko eta behar bezalako ardura izateko betebeharrak.

1. Finantza-entitateek egoki jarduteko arauak aplikatu beharko dituzte kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen finantza-kontu jakin batzuei dagokienez, eta Zerga Administrazioari kontu horien inguruko informazioa eman behar diote, xedapen hauek jasotakoari jarraituz: Kontseiluaren otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua (Kontseiluaren abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentarauaren bidez aldatua), fiskalitatearen arloan informazio truke automatikorako obligazioari buruzkoa; Kontseiluaren urriaren 17ko 2023/2226/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena; eta Finantza-kontuen informazio truke automatikoari buruz agintari eskudunen artean adostutako Akordio Aldeaniztuna eta haren Gehigarria.

Orobat, finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonak egoki jarduteko arauen aplikaziotik eratorritako betebeharrak bete beharko dituzte, kontu horiek irekita dauden finantza-entitateen aurrean, beren identifikazioari eta zerga-egoitzari dagokienez.

Erregelamenduz garatuko dira egoki jarduteko arauak, bai eta finantza-entitateek finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonak haietan irekitako finantza-kontuei buruz informatzeko dituzten betebeharrak ere.

2. Xedapen gehigarri honetako 1. zenbakian zehazten den informazioa emateko betebeharra ez betetzearen ondoriozko arau-haustea eta zehapenak foru arau honetako IV. tituluaren ezarritakoaren arabera arautuko dira.
3. Zerga arloko arau-haustetzat hartuko da honako hauei buruz egoki jarduteko arauetatik eratorritako betebeharrak ez betetzea edo behar ez bezala betetzea:
 - a) Pertsona fisikoen finantza-kontuen identifikazioa, zeinei buruzko informazioa jakinarazi behar baita.
 - b) Entitateen finantza-kontuen identifikazioa, zeinei buruzko informazioa jakinarazi behar baita.

Apartatu honetan jasotako zerga arloko arau-haustea 200 euroko isun finkoarekin zehatuko da ez-betetzea gertatu den pertsona bakoitzeko.

Finantza-entitate batek kanpoko zerbitzu-emaila batez baliatzen bada informazioa emateko eta egoki jarduteko betebeharrak betetzeko, kasu horretan ere entitate horren ardurapekoak izango dira betebeharrak horiek.

4. Zerga-arloko arau-haustea da kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonak finantza-entitateari datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak komunikatzea, finantza-entitateak aurreko apartatuan aipatutako egoki jarduteko arauak aplikatuzetik eratortzen diren obligazioak betetzen dituztenean.

Apartatu honetan jasotako zerga-arloko arau-haustea 300 euroko isun finkoaz zehatuko da.

5. Kontua irekitzen den unean lortu beharko dituzte 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera edo 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera (azken kasu horretan, Kontseiluaren urriaren 17ko

2023/2226/EB Zuzentarauak finantza-kontuen identifikazioari eta egoitza fiskalari buruz egindako aldaketei bakarrik jarraituz halakotzat hartutako finantza-kontuak) irekitako finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen beren identifikazioaren eta zerga egoitzaren inguruan xedapen gehigarri honetan jasotako ondorioetarako galdagarri zaizkien aitortpenak. Kontua irekitzeko eskatu denetik aurrera 90 eguneko epean aitortpenak finantza-erakundeari ez aurkezteak berekin ekarriko du entitateak kontuan kargurik, abonurik eta bestelako eragiketarik ez egitea harik eta aitortpenak aurkeztu arte.

6. Finantza-kontuen titular diren edo kontu horiek kontrolatzen dituzten pertsonen eska dakizkiekeen agiri-frogak, aitortpenak eta xedapen gehigarri honetan aipatzen diren informazio-betebeharrak eta behar den arreta emateko betebeharrak betetzeko erabiltzen den gainerako informazioa Zerga Administrazioaren esku egon beharko dira, finantza-kontua itxi eta hurrengo bosgarren urtea amaitu arte.
7. Xedapen honen arabera informazioa jakinaraztera beharturik dauden finantza-erakunde guztiek informazioa komunikatu behar zaien pertsona fisikoei komunikatu behar diete ezen haiei buruz jakinarazi behar den informazioa Zerga Administrazioari komunikatuko zaiola eta dagokion estatu kideari transferitutako zaiola, 2011/16 (EB) Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko akordioaren arabera. Kontu hori informazioa komunikatu beharra duen kontu bihurtzen den urtearen hurrengo urte naturaleko urtarilaren 31 baino lehen egin behar da komunikazio hori.

Era berean, finantza-erakundeak behar besteko aurrerapenaz emango dio pertsona fisikoari hark jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal dezan, eta, nolana ere, erakundeak bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.

8. Aurreko 5. eta 6. zenbakietan xedatutakoa berdin aplikatuko da finantza-kontuei buruz eman beharreko informazioari eta izan beharreko ardurari dagokien ere, Espainiako Erresumak eta Ameriketako Estatu Batuek nazioarteko arau fiskalak hobeto betetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act - FATCA ezartzeko sinatutako akordioaren ondorioz xedatutakoaren arabera.

Horrez gainera, 2015. urtean irekitako kontuen kasuan, 2016ko urtarilaren 1ean ez badira haiei buruz 5. zenbakian aipatzen diren aitortpenak aurkezten, eta egun horretatik aurrerako 60 eguneko epean ez bazaizkio finantza-erakundeari ematen, bada, orduan, finantza-erakundeak ez du kargurik, ez abonurik, ez beste eragiketarik egingo kontu horretan, harik eta aitortpenok ematen zaizkion arte.

Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarria. Etetea adiskidetasunezko prozedurak izapidetzean

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru arauaren laugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian xedatutakoaren arabera, nazioarteko hitzarmen edo tratatuetan aurreikusitako zuzeneko zergapetzearen arloko adiskidetasunezko prozedura bat eta foru arau honetako V. tituluan araututako berrikuste-prozedura bat aldi berean egiten badira, berrikuste-prozedura hori etenda geratuko da adiskidetasunezko prozedura amaitu arte.

Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarria. Plangintza fiskaleko mekanismo jakin batzuei buruz informatzeko betebeharra

1. Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, bitartekariak eta zergapeko interesdunek Zerga Administrazioari beherago adierazitako informazioa eman beharko diote, honako hauen arabera: Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentzua, Fiskaltatearen esparruko lankidetzaren administrazioari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentzua indargabetzen duena; informazioaren komunikaziorako estandar komuna saihesteko mekanismoekin eta lurraldez kanpoko egitura opakuekin lotutako informazioa automatikoki trukatzeko Agintaritzaren Eskudunen arteko Akordio Multilateral eta haren Ererazko Arauak, informazioaren komunikaziorako estandar komuna saihesteko mekanismoekin eta lurraldez kanpoko egitura opakuei heltzeko eman beharreko informazioa komunikatzeari buruzkoak;

helburu berarekin izenpetutako beste nazioarteko akordio batzuk, eta foru-arau honen 17.4 eta 5 artikulua eta 92. artikulua. Hona hemen eman beharreko informazioa:

- a) Haiek esku hartzen edo parte hartzen duten mugaz gaindiko mekanismoak, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16 (EB) Zuzentarauaren 3.18 artikuluan definitutakoak, aipatutako zuzentarauaren IV. eranskinean zehaztutako ezaugarri bereizgarrietako bat ematen denean.
- b) Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16 (EB) Zuzentarauaren 3.24 artikuluan aipatutako mugaz gaindiko mekanismo komertzializagarrien eguneratzeari buruzko informazioa.
- c) Aurreko a) eta b) letretan aipatzen diren plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoen erabilerari buruzko informazioa.
- d) Informazioaren komunikaziorako estandar komuna saihesteko mekanismoekin eta lurraldez kanpoko egitura opakuekin lotutako informazioa automatikoki trukatzeko Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Multilateralean definitutako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa.

Informatzeko betebeharrak horren ondorioetarako, ez dira aitortu beharreko plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoetatik hartuko jakinarazitako eta Europako Batzordearen erabaki batek berariaz baimendutako zerga-araubideetan oinarritutako akordioak, negozio juridikoak, eskemak edo mugaz gaindiko eragiketak.

- 2. Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter artikuluko 6. zenbakian aipatutako sekretu profesionala gorde behar diren titular izango dira bitartekaritzat jotzen direnak, aintzat hartu gabe haiek egindako jarduerak, mugaz gaindiko mekanismoetako bat diseinatzeari, merkaturatzeari, antolatzeari, exekutatzeko eskura jartzeari edo haren exekuzioaren kudeaketari buruz aholkua eman badute, mekanismo hori aplikatu beharreko araudira egokitzen den ebaluatzeko helburu bakarrarekin, mekanismoa ezartzen saiatu edo lagundu gabe.

Sekretu profesionala gordetzera behartutako bitartekaria betebeharrak horretatik libre gelditu ahal izango da, zergapeko interesdunak modu frogagarri batean komunikatutako baimenaren bidez.

- 3. Bitartekariak plangintza fiskaleko mekanismoei buruz informatzeko betebeharra — Kontseiluaren 2011/16 (EB) Zuzentzariaren eta aipatutako Akordio Multilateralean jasoa — legez ezarritako baldintzetan betetzeak ez du ekarriko kontratu edo arau bidez informazioa zabaltzeari buruz ezartzen diren murrizketen urratze bat, eta behartutako subjektuei ez die ekarriko inolako erantzukizunik informazio horren titular diren zergapekoekiko.
- 4. Tributu-arloko arau haustetzat jotzen da xedapen gehigarri honetan aipatzen diren aitorten informatiboak epe barruan ez aurkeztea, bai eta aitortenok osatu gabe, okerreko datuekin edo datu faltsuekin aurkeztea ere Tributu-arloko arau haustetzat joko da, orobat, aitorten horiek bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez aurkeztu behar direnean bestelako bitartekoen bidez aurkeztea.

Apartatu honen lehenengo paragrafoan adierazitako arau hausteen kasuan, zehapena 2.000 euroko isun finkoa izango da epe barruan aurkeztu ez den aitorpenean sartu behar zen mekanismo berari buruzko datu edo datu multzo bakoitzeko edo emandako osatu gabeko edo okerreko datu bakoitzeko edo datu faltsu bakoitzeko. Gutxieneko kopurua 4.000 eurokoa izango da.

Gehienekoa, berriz, bitartekariak jasotako edo jaso behar dituen ordainsarien zenbatekoa izango da, bitartekaria subjektu arau-hauslea denean. Gehieneko muga ez da aplikatuko lehen adierazitako kalkularen emaitza 4.000 euro baino gutxiago denean.

Ordainsaririk ez badago edo ordainsariak zenbateko txikiagokoak badira, adierazitako muga bitartekariak jardun duen jardueraren merkatuko balioari dagokiona izango da, eta balio hori lehia askeko baldintzetan pertsona edo entitate independenteek adostutakoa.

Gehieneko muga aplikatzeko, arau-hausleak hura aplikatu behar dela eta zenbatekoa den frogatzeko froga sinesgarria aurkeztu beharko du.

Subjektu arau-hauslea zergapeko interesduna bada, aplikatuko den gehieneko zenbatekoa 400.000 euro izango da.

Aurreko paragrafoetan adierazitako zehapena eta gutxieneko eta gehieneko mugak erdira murriztuko dira, informazioa epez kanpo aurkezten bada zerga-administrazioak aurretik errekerimendua egin gabe.

Informazioa ez bada aurkezten bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabilita, horretarako obligazioa dagoenean, 250 euroko isun finkoa ezarriko da aitorpen berari buruzko datu edo datu multzo bakoitzeko. Gutxieneko muga 750 euro izango da, eta gehienekoa 1.500 euro.

5. Xedapen gehigarri honetan arautzen diren zehapenak eta arau hausteak ez dira bateragarriak izango Foru Arau honen 203. eta 204. artikuluetan ezarritakoekin.
6. Xedapen honetan ezarritakoaren arabera informazioa emateko betebeharra duen bitartekari orok informazioa eman behar duen pertsona fisikoa den zergapeko interesdun bakoitzari jakinarazi beharko dio zergapeko horri buruz eskatzen den informazioa Zerga Administrazioari emango zaiola eta 2011/16 (EB) Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako akordioen arabera transferituko dela. Era berean, bitartekariak behar besteko aurrerapenaz emango dio pertsona fisikoari hark jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal dezan, eta, nolanahi ere, bitartekariak bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.

Hogeita Hamalagarren Xedapen Gehigarria. Plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruz informatzeko betebeharrak partikularren artean sortzen dituen betebeharrak

1. Sekretu profesionala gorde beharra dela eta, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoen aitorpena aurkeztetik salbuetsita dauden bi tartekariak salbuespen horren froga sinesgarria eman beharko diete beren bezeroei erregelamenduz ezarritako baldintzetan, berdin bezero horiek beste bitartekari batzuk badira, edo aipatutako mekanismoetan parte hartzen duten zergapeko interesdunak.
2. Legez aitortzera behartuta dauden pertsonak edo entitateek aitorpena behin aurkeztuta, modu frogagarrian, ezarritako baldintzetan, komunikatu beharko diete hori gainerako bitartekariari edo, hala badagokio, gainerako zergapeko interesdunei, eta aitorpena egiteko betebeharretik salbuetsita geratuko dira.
3. Zerga arloko arau-haustea da xedapen gehigarri honen 1. apartatuan aipatzen den komunikazioa ezarritako epean ez egitea, edo komunikazio hori egitea datu batzuk adierazi gabe edo datu faltsuak, osatugabeak edo okerrak adierazita.

Apartatu honetan aurreikusitako arau-hausteari 600 euroko diruzko isun finko bat ezarriko zaio.

Batera gertatzen badira arau-hauste hori eta foru-arau honen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 1. apartatuko a) letran aipatzen den plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoa epearen barruan ez aitortzea jakinarazpena egin izan balitz aitorpena aurkeztu beharko zukeen zergapeko interesdunak, aipatutako aitorpena epe barruan ez aurkeztearen ondoriozko arau-haustea bezala zehatuko da, aipatutako xedapen gehigarriaren 4. apartatuan xedatutakoaren arabera.

4. Zerga arloko arau-haustea da xedapen gehigarri honetako 2. apartatuan aipatzen den komunikazioa ezarritako epean ez egitea, edo komunikazio hori egitea datu batzuk adierazi gabe edo datu faltsuak, osatugabeak edo okerrak adierazita. Atal honetan araututako arau-hausteari 600 euroko isun finko bat ezarriko zaio.

Hogeita Hamabosgarren Xedapen Gehigarria. Araudi erreferentziak.

1. Araudian paradisu fiskalak, informazio-truke eraginkorrik ez duten herrialdeak edo lurraldeak, edo tributaziorik ez duten edo tributazio baxua den herrialdek edo lurraldeak aipatzen direnean, ulertuko da foru arau honen hogeita laugarren xedapen gehigarrian jasotako jurisdikzio ez-kooperatiboaren definizioari egiten zaiola erreferentzia.
2. Foru arau honen hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoari egindako erreferentziak (Zergen arloko zenbait aldaketa egiten dituen uztailaren 20ko 8/2022 Foru Araua indarrean ipini aurreko testua) ezabatutzat joko dira.
3. Zergen arloko informazio-truke eraginkorra duten estatuei egindako arau-erreferentziak tributu-informazioaren trukearen arloko elkarrekiko laguntzari buruzko araudia duten estatuei egindakotzat hartuko dira, foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorritz betiere.

Hogeita Hamaseigarren Xedapen Gehigarria. Izatezko bikoteak.

Foru-arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da Izatezko Bikoteak Arautzeko Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak direla.

Berebat, ulertuko da aipamen horiek honelako izatezko bikoteak ere hartzen dituztela aintzat: beste autonomia-erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo beste herrialde batzuetako erregistro publikoetan modu berean eratu eta inskribatutakoak.

Era berean, ezkontza bidezko ahaidetasun-harremanei egindako aipamenetan, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremanak ere sartuko dira».

Hogeita Hamazazpigarren Xedapen Gehigarria. Elkarrekiko laguntzaren eremuan “informazioa eman behar duten kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileen” informazio-aitorpenari buruz informatzeko eta egoki jarduteko betebeharrak.

1. “Informatzera behartuta dagoen kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzailetzat” hartzen diren pertsonak edo entitateek egoki jarduteko arauak aplikatu beharko dituzte eta informazioa emateko betebeharrak eta, hala badagokio, erregistro- arlokoak bete, Kontseiluaren otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis quinquies artikuluan eta VI. eranskinean xedatutakoaren arabera (zuzentzari hori fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa da, eta Kontseiluaren urriaren 17ko 2023/2226/EB Zuzentarauaren bidez aldatutako 77/799/ EEE Zuzentzaria indargabetzen du), bai eta Agintari Eskudunen Arteko Akordio Aldeaniztunean (informazio truke automatikoari buruzkoa) xedatutakoaren arabera ere, kriptoaktiboari buruzko informazioa trukatzeko esparruarekin bat etorritz, eta helburu berarekin sinatutako nazioarteko beste akordio batzuetan xedatutakoaren arabera, xedapen honetan eta erregelamenduz zehazten den moduan.

Halaber, “kriptoaktiboen erabiltzailetzat” hartzen diren pertsonak edo entitateek eta, entitateen kasuan, erabiltzaile horien kontrola egiten duten pertsonak egoki jarduteko arauak aplikatzearen ondoriozko betebeharrak bete beharko dituzte identifikazioari eta egoitza fiskalari dagokienez, aurreko paragrafoan aipatzen den araudiari jarraituz.

Erregelamendu bidez garatuko dira egoki jarduteko arauak eta prozedurak, bai eta apartatu honetan aipatzen diren informazioa emateko eta erregistratzeko betebeharrak ere.

Xedapen gehigarri honetan eta berau garatzeko araudian erabilitako terminoek erregelamenduz ezarritako esanahia izango dute, besterik ezarri ezean.

2. Xedapen honetan jasotakoaren ondorioetarako, “informazioa eman behar duen erabiltzailea” eta “informazioa eman behar duen pertsona” terminoak Espainiako egoiliarrei edo egoiliar ez direnei buruzkoak izango dira, erregelamendu bidez ezartzen diren salbuespenekin.
3. Informazioa emateko eta, hala badagokio, erregistratzeko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko arau-haustea eta zehapenak, 1. apartatuan jasotakoak, IV. tituluaren xedatutakoari jarraituz arautuko dira, xedapen honetan ezarritako berezitasunekin.
4. Zerga arloko arau-haustetat hartuko da honako hauei buruz egoki jarduteko arauetatik eratorritako betebeharrak ez betetzea, behar ez den moduan betetzea edo epeaz kanpo betetzea:
 - a) “Kriptoaktiboak erabiltzen dituen pertsona fisikoa” “informatu beharreko erabiltzailea” den ala ez zehaztea.
 - b) Zehaztea “kriptoaktiboak erabiltzen dituen entitatea” “informazioa eman behar duen erabiltzailea” edo entitatea den, “pertsona baztertua” edo “entitate aktiboa” ez dena, zeinean kontrola egiten duen pertsona bat edo gehiago informazioa eman behar duen/duten pertsonak baitira.

Apartatu honetan jasotako zerga arloko arau-haustea 200 euroko diruzko isun finkoarekin zehatuko da egoki jarduteko arauak ezartzetik eratorritako betebeharrak ez betetzea gertatu den persona bakoitzeko.

“Informatzera behartuta dagoen kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile” batek kanpoko zerbitzuen emaila bat baliatzen badu egoki jarduteko betebeharrak betetzeko, kasu horretan ere betebehar horiek hornitzaile horren ardurapekoak izango dira.

5. Zerga arloko arau-haustea da informazio faltsua, osatugabea edo zehaztugabea ematea “kriptoaktiboen erabiltzaileek” edo erabiltzaile horien “kontrola egiten duten per tsonek” “informatzera behartuta dauden kriptoaktibo- zerbitzuen hornitzaileei”, hornitzaileak aurreko apartatuan aipatzen diren egoki jarduteko arauak aplikatuzetik eratorritako betebeharrak betez.

Apartatu honetan jasotako zerga-arloko arau haustea 300 euroko diruzko isun finkoarekin zehatuko da.

6. “Kriptoaktiboen erabiltzaile” batek edo, entitateen kasuan, erabiltzaile horren “kontrola egiten duten pertsonak” egoki jarduteko arauak jarraituz eskatzen den informazioa ematen ez badiote “informatzera behartuta dagoen kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileari”, hornitzailearen hasierako eskaeraren ondoren bi gogorarazpen-mezu jaso badiara eta hasierako eskaeratik 60 egun naturaleko epea igaro bada, hornitzaile horrek “kriptoaktiboen erabiltzaileari” garaziko dio “informatu beharreko eragiketak” egitea.
7. Zerga Administrazioak erabakiko du “informatzera behartuta dagoen kriptoaktiboen hornitzailea” den “kriptoaktiboen operadoreari” kautelazko baja ematea dagokion erroldan, baldin eta bi errekerimenduren ondoren ez badu betetzen 1. apartatuan aipatzen den informatzeko betebeharra. Baja gehienez ere 90 egun naturaleko epean egingo da, bigarren errekerimendutik aurrera, baina inoiz ez 30 egun natural igaro baino lehen.

Baja erabaki ondoren, operadoreak alta berriro egiteko aukera izango du, baldin eta Zerga Administrazioari berme egokiak ematen badizkio informatzeko betebeharra betetzeko konpromisoa hartzeko, bete gabe dauden informazio- emateak barne. Ondorio horietarako, Zerga Administrazioak berme egokitzat jo ahal izango du erantzukizunpeko adierazpen bat edo zerga-araudian jasotako beste edozein berme. Zerga Administrazioak berme horiek egokitzea erabaki ahal izango du, hala badagokio, errolda egoera egiaztatu ondoren, abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga-betebehar formalak arautzen dituen Erregelamenduaren 66. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen diren errolda egiaztapeneko jarduketak eta prozeduren bidez.

8. “Kriptoaktiboen erabiltzaileei” eta, entitateen kasuan, erabiltzaile horien “kontrola egiten duten pertsonaei” exijitu dakizkiekeen aitortpenak, xedapen gehigarri honetan aipatzen diren egoki jarduteko arauak aplikatzeko eta informazioa emateko eta, hala badagokio, erregistrarako betebeharrak betetzeko erabilitako frogagiriak, erregistroak eta edozein informazio gorde eta Zerga Administrazioaren esku utzi beharko dira erabiltzaile horien “informatu beharreko eragiketei” buruzko informazioa eman behar den urtearen ondorengo bosgarren urtea amaitu arte.

Foru-arau honetako arau orokorreari jarraituz xedapen gehigarri honetan aipatzen diren informazioa emateko eta, hala badagokio, erregistratzeko betebeharrak egiaztatze eta ikertze ahalmenak alde batera utzi gabe, Zerga Administrazioak egiaztatu eta ikertu ahal izango du “informatzera behartuta dauden kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileak” aplikatu behar dituzten egoki jarduteko arauak bete tzen diren.

9. “Informatzera behartuta dagoen kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile” orok informazioa komunikatzera behartuta dagoen pertsona fisiko bakoitzari jakinarazi beharko dio xedapen honetan aipatzen den informazio hori Zerga Administrazioari emango zaiola eta dagokion estatuari transferituko zaiola, 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko akordioen arabera. Era berean, “informatzera behartuta dagoen kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileak” behar besteko aurrerapenarekin emango dio pertsona fisikoari jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal izan dezan, eta, nolana ere, bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. Preskripzioa eta iraungipena.

1. Ondoren foru arau honetako II. tituluko IV. kapituluko 3. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko zaienak azalduko dira:
 - a) Indarrean jartzen denetik sortutako zerga-egitateak, Zerga Administrazioak zerga-zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahalari dagokionez. Nolanahi ere, zerga-zorra zehazteko ahalaren iraungipen-epeari dagozkion arauak aplikatuko zaizkie indarrean jarri aurretik sortutako zerga-egitateei, eta une horretan hasiko da konputatzen Foru Arau honetako 70. artikuluan ezarritako epea.
 - b) Indarrean jartzen denetik likidatutako zein autolikidatutako zerga-zorrak, Zerga Administrazioak ordaintzeko eskatzeko duen ahalari dagokionez.
 - c) Indarrean jartzen denetik aurkezten diren eskaerak eta aintzatesten diren eskubideak, zergadunek zerga bakoitzaren arautegiaren arabera itzulketak, zor izan ez diren sarreren itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatu eta jasotzeko eskubideari dagokionez (baldin eta indarrean jartzean indarreko legeriaren arabera preskribituta ez badaude).
2. Foru arau honetako 194. artikuluan eta 195. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoa indarrean jartzen denetik aurrera gertatzen diren arau-hausteei aplikatuko zaie. Nolanahi ere, zerga-zehapenak ezartzeko ahalaren iraungipen-epeari dagozkion arauak aplikatuko zaizkie indarrean jarri aurretik egindako arau-hausteei, eta une horretan hasiko da konputatzen Foru Arau honetako 194. artikuluan ezarritako epea.
3. Xedapen iragankor honetako aurreko idatz-zatietan aipatutako zerga-egitate, zerga-zor, eskaera, eskubide, arau-hauste eta zehapenei dagokienez, foru arau honetako II. tituluko IV. kapituluko 3. atalean eta 194. eta 195. artikuluetan aipatutako preskripzioaren eta iraungipenaren erregimen berria aplikatu ezin zaienean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Arau Orokorreko 64 - 67 bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie, orain arte bezala.

Bigarren xedapen iragankorra. Errekarguak eta berandutza-interesak.

1. Foru arau honetako 27. eta 28. artikuluetan xedatutakoa ordainarazpen-aldia hau indarrean jarri ondoren hasten den zerga-zorrei ere aplikatuko zaie. Indarrean jarri aurretik sortutako errekarquei ere aplikatuko zaie, baldin eta zergadunaren mesederako bada eta haiek irmoak ez badira.
2. Berandutza-interesei buruz 26. artikuluko 9. idatz-zatian eta 32. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa foru arau hau indarrean jarritakoan hasten edo aurkezten diren prozedurei, idazkiei eta eskaerei ere aplikatuko zaie.

Hirugarren xedapen iragankorra. Zergei buruzko galderak.

2005eko uztailaren 1etik aurrera aurkezten diren zergei buruzko galdera idatziei foru arau honetako 85. eta 86. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie. Egun hori baino lehenago aurkeztutako galderei dagokienez Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 108. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Laugarren xedapen iragankorra. Zerga-prozedurak.

1. Zergak aplikatzeko prozedurak eta zehapenak ezartzeko prozedurak foru arau indarrean jarri aurretik hasi badira, aurreko arautegiaren arabera burutuko dira; nolana ere, kontuan izan behar da hurrengo idatz-zatian xedatutakoa..
2. Foru arau hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei artikuluko hauek aplikatuko zaizkie:
 - a) Foru arau honetako 60. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra, borondatez ordaintzeko aldiei buruzkoa, Administrazioaren likidazioa foru arau hau indarrean jarri ondoren jakinarazten bada.
 - b) Foru arau honetako 81. artikulua, kautelazko neurriei buruzkoa, foru arau hau indarrean jarri ondoren hartzen badira neurriok.
 - c) Foru arau honetako 173. artikulua, ondasunen eta eskubideen enbargoari buruzkoa, foru arau hau indarrean jarri ondoren ematen bada enbargo-eginbidea.
 - d) Foru arau honetako 176. artikulua, enbargatutako ondasunak eta eskubideak besterentzeari buruzkoa, foru arau hau indarrean jarri ondoren hartzen bada besterentzeko erabakia.
 - e) Foru arau honetako 219. artikuluko 3. idatz-zatia, zehapenen aurka jarritako errekurtsoen edo erreklamazioen ondorei buruzkoa.
 - f) Foru arau honetako 231. artikuluko 1. idatz-zatia, berraztertze errekurtsua jartzeko epeari buruzkoa, errekurritu den egintza edo ebazpena foru arau hau indarrean jarri ondoren jakinerazten bada.
3. Foru arau honetako 14. eta 163. artikulukoak, itzurpenaren aurkako klausulari buruzkoak, irizpenaren xede diren egintzak eta negozioak foru arau hau indarrean jarri ondoren egin badira. Egun hori baino lehenago egindako egintzei eta negozioei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 24. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie..
4. 2005eko uztailaren 1a baino lehen hasitako zergen arloko zehapen-prozedurak 2005eko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira eta ezin izango zaie aplikatu Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 81. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa, ez eta zergen arloko zehapenen erregimena ezarri duen martxoaren 2ko 18/1999 Foru Dekretuko 12. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoa ere.

Bosgarren xedapen iragankorra. Zergen arloko arau-haustek eta zehapenak.

Foru arau hau indarrean jarri baino lehen egindako zergen arloko arau-hausteei berau aplikatuko zaie, baldin eta arau-hauslearen mesederako bada eta ezarritako zehapena irmo bihurtu ez bada. Irmo ez diren zehapenen berrikuspena eta arautegi berriaren aplikazioa erreklamazio eta errekursoak ebazten ari diren administrazio eta jurisdikzio organoen eginkizunak izango dira, behin interesduna entzun eta gero.

Seigarren xedapen iragankorra. Administrazio-bideko berrikuspena.

Foru arau hau indarrean jarri ondoren aurkeztzen diren erreklamazioei eta errekursoei berton xedatutakoa aplikatuko zaie. Aurretiaz aurkeztutakoei aurreko arautegia aplikatuko zaie, amaitu arte.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Jurisdikzio ez-kooperatiboaren kontsiderazioaren aplikazio iragankorra.

Foru agindu bidez jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialdeak edo lurraldeak zehazten ez diren bitartean, halakotzat hartuko dira paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialdeak eta lurraldeak zehazten dituen urriaren 7ko 188/2003 Foru Dekretuan aurreikusitako herrialdeak edo lurraldeak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arautegia indargabetzea.

1. Foru arau honetako xedapen iragankorretan xedatutakoa salbu, foru arau hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira bertan adierazitakoaren aurka dauden gainerako xedapen guztiak, eta ondokoak bereziki:
 - a) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorra.
 - b) Zergen arloko 2004ko neurriei buruzko apirilaren 23ko 2/2004 Foru Arauko hamabigarren xedapen gehigarria, zerga berezien arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzkoa.
 - c) Identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzko 3/1986 Foru Araua partzialki aldatu duen apirilaren 19ko 1/1996 Foru Arauko bigarren xedapen gehigarria.
 - d) Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 14ko 1/1988 Foru Arauko 88. artikulua, identifikazio fiskaleko zenbakiari eta kreditu-establezimenduen eragiketen identifikazioari buruzkoa.
2. Aurreko idatz-zatian aipatutako indargabetutako testuen garapenerako emandako arauak indarrean jarraituko dute, foru arau honetan ezarritakoaren aurka ez doazen heinean, harik eta foru arau hau garatzeko arau berriak indarrean jarri arte.
3. Indarrean dauden arauetan foru arau honen bidez berariaz indargabetu diren xedapenei buruz ageri diren aipamenak foru arau honetan gai bereberei buruz emandako xedapenei dagozkiela ulertu behar da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo azken xedapena. Arautegiaren gaikuntza.

1. Foru Aldundiak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango ditu.

2. Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak baliabide elektroniko, informatiko edo telematiko bidez egiten diren zergen arloko jarduketara eta prozedurei aplikatu beharreko garapen-arauak eman ahal izango ditu, bai eta Zerga Administrazioak erabiltzen dituen egiaztapen-bideei buruzkoak ere.

Bigarren azken xedapena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean, baina hamargarren xedapen gehigarria eta laugarren xedapen iragankorreko 4. idatz-zatia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

2017ko ekainaren 1ean indarrean sartu ondoren, apirilaren 12ko 2/2017 FORU ARAUAK (2017ko maiatzaren 19ko BAO) onartutako aldaketak aplikatzeari dagokionez, xedapen iragankorretan honako irizpideak zehazten dira:

“Lehenengoa: zerga administrazioaren ahalmenak

2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak, 64. artikuluko 1. atalean eta 66. artikuluko 3. atalean xedatutakoa kontuan hartuta, Foru Arau honek emandako idazkeretan Foru Arau hau indarrean sartzen denean jada hasitako prozedura guztiei aplikatuko zaie, aipatu datan likidazioaren proposamenik ez badago. Era berean, aipatu arauak Foru Araua indarrean sartu ondorengo prozedurei aplikatuko zaizkie, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauak 64. artikuluko 1. atalaren hirugarren paragrafoan aipatzen dituen gertaerak, egintzak, jarduerak, ustiapenak eta negozioak noiz izan ziren alde batera utzita.

Bigarren: preskripzio epeak etetea

1. 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak 69. artikuluko 11. atalean emandako idazkera berria aplikagarria izango da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 64. artikuluko 1. atalean aipatzen duen eskubidearen preskripzio epea Foru Arau hau indarrean sartzen den datatik aurrera eteten bada.

2. 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak 194. artikuluko 4. atalean emandako idazkera berria aplikagarria izango da zerga zehapenak jartzeko administrazio ahalmenaren preskripzio epea Foru Arau hau indarrean sartzen den datatik aurrera eteten bada.

Hirugarrena: zerga kudeaketari buruzko prozedurak

Zerga kudeaketari buruzko prozeduretan Foru Arau honen bitartez sartutako aldaketak 2017ko abuztuaren 1etik aurrera hasten diren prozedurei aplikatuko zaizkie.

Laugarrena: kontraesaneko adituaren tasazioa eta zehapen prozedura hasteko epea etetea

2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak, 128. artikuluko 1. atalari emandako idazkera berria kontraesaneko adituaren tasazio eskaerei aplikatuko zaie, Foru Araua indarrean sartzen den datatik aurrera aurkezten badira.

Bosgarrena: ordainketa konpromisoa formalizatzen den egiaztapen murriztuaren prozedurak

2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak, 158. quinquies artikuluko 4. atalean emandako idazkera berria eta bat datozen gainerako arauak aplikagarriak izango zaizkie Foru Araua indarrean sartzen denean izapidetzen ari diren egiaztapen murriztuaren prozedurei, zergadunari likidazio proposamena jada jakinarazi zaionean izan ezik.

Seigarrena: zerga zehapenak barkatzea

Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen jarri diren zerga zehapenak 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak, 195. artikuluko 3. atalean, orain arte emandako idazkeran, xedatutakoari erreparatuko diote. Halaber, bere garapen araubidezko xedapenak kontuan hartuko dituzte.

Zazpigarrena: administrazio bidean berraztertzea

2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak, V. Tituluan izandako aldaketak honako moduan aplikatuko dira:

1. 223. artikuluko 1. atalari dagokion idazkera berria indarrean sartzen denetik aurrera formulatzen diren etenaldiaren eskaerei aplikatuko zaie.
2. 232. artikuluko 3. atalean eta 244. artikuluko 3., 5., 6. eta 7. ataletan dagoen idazkera berria indarrean sartzen denetik ematen diren ebazpenei aplikatuko zaie.
3. 239. artikuluko 1. atalean, 242. artikuluko 3. atalean eta 245 bis eta 245 ter artikuluetako idazkera berriak indarrean sartzen denetik ezarritako erreklamazio eta errekursoei aplikatuko zaizkie.
4. 240. artikuluko 1. atalean dagoen idazkera berria indarrean sartzen denetik berariaz ematen diren ebazpenei aplikatuko zaie.

Zortzigarrena: herri ogasunaren aurkako delitu ustezkoetan zergei buruzko aplikazio jarduerak eta prozedurak

1. 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak VI. Tituluan xedatutakoa aplikagarria izango da Foru Araua indarrean sartu aurretik hasitako prozeduretan, 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak, 248. artikuluko 1. atalean aipatzen dituen aztarnak izanik, aipatu datan errua oraindik jurisdikzio aginpidedunari pasa ez bazaio edo espedientea Ministerio Fiskalera bidali ez bada.

2. 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Orokorrak, 256. artikuluan xedatutakoarekin bat, zerga administrazioak arduradunak aitor ditzake aginduan xedatutakoa beteta, zergaren arau-haustean sortzailearen edo laguntzailearen izaera duten pertsonak. Baldintza: Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen egintza formalki ezin aitortu izana, herri ogasunaren aurkako delituarengatik prozesu penala izapidetzen ari zelako".

Bilbon, 2005eko martxoaren 10an.

Bizkaiko Batzar Nagusietako lehenengo idazkaria,.

NEKANE ALONSO SANTAMARIA.

O. E.: Batzar Nagusietako Lehendakariak,.

ANA MADARIAGA UGARTEK.